

**Jose Manuel Arriola**

**Mondragoiko  
kalezaiñaren bertsoak**

---

**Auspoa Liburutegia**

**312**

ARRIOLA, Jose Manuel (1916-)

Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak / Jose Manuel Arriola ; bilduma, Jose Maria Arriola ; argitalpena, Antonio Zavala. – [S.l.] : Auspoa ; Donostia-San Sebastián : Gipuzkoako Foru Aldundia, Kultura eta Euskara Departamentua, 2008.

435 or. ; argk. ; 20 cm. – (Auspoa Liburutegia ; 312)

Aurkibidea

LG SS 1730-2008. – ISBN 978-84-7907-606-1

I. Arriola, Jose Maria. II. Zavala, Antonio (1928-) . III. Gipuzkoa. Departamento de Cultura y Euskera. IV. Título. V. Serie.

821.361-1"19"

© *edizio honena*: AUSPOA Argitaletxea  
Gipuzkoako Foru Aldundia

Azalaren argazkia: Arrasateko Udala  
Indalezio Ojanguren bilduma  
AGG-GAO-OA4266  
Gipuzkoako Foru Aldundia  
Kultura eta Euskara Departamentua

750 aleko tirada

ISBN: 978-84-7907-606-1

Legezko Gordailua: S.S. 1730/08

Fotokonposizioa eta inprimaketa: Itxaropena S.A., Zarautz

**Jose Manuel Arriola**

# **Mondragoiko kalezaiñaren bertsoak**

**Bilduma: Jose Maria Arriola**

**Argitalpena: Antonio Zavala**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**  
**Diputación Foral de Gipuzkoa**

Kultura eta Euskara Departamentua  
Departamento de Cultura y Euskera

Donostia-San Sebastián, 2008

# Oar batzuk aurretik

---

Bertso-sail eder asko argitaratu zan gure egunkari eta aldizkarietan 1965-etik 2.000-raiñoko urteetan. Etzan bolara artan bertso-jartzaille faltarik izan. Ortxe zeuden Manuel Matxain, Inozentzio Olea, Sebastian Salaberria, Jesus Lete Ibaiertz, Gillermo Albizu, Jose Aierbe, Marzelino Manterola, Joxe Mari Arrieta, Joxe Mari Lertxundi, Jose Manuel Arriola *Mondragoiko kalezaiña* eta abar eta abar. Bertso idatzietan garai emankorra eta diztiratsua izan zan ura, nere iritzirako beintzat.

Nik bertso-sail oiek danak irakurri, jaso eta bildu egiten nituan, nere artxiboaren aberasgarri. Era ortan osatutako bilduma batzuk liburuetan plazaratu ere bai gero, Auspoa Liburutegi ontan, egille bakoitzaren sortak bateratuz, lore-sorta bat osatzen dan bezelaxe. Gaur, berriz, Jose Manuel Arriola edo *Mondragoiko Kalezaiña* goitizenez agertzen zan bertsojartzaille oparoaren txanda iritxi da.

Bertso-jartzaille au Debako Goikoetxe baserrian jaio zan, 1916 urteko ekainaren 15-ean. Itziarko Jose Antonio Soraso *Zubeltzu* bertsolari ezaguna osaba zuen.

Bere adiñeko mutil askori bezelaxe, gure senide arteko gerrara joan bearra tokatu zitzaion gero. Berak onela esango zuen, andik urteetara, bertso batean:

ango lerketa otsa,  
bazan eriotza,  
odolan emaitza,  
samiñez biotza...

Ondoren, 1939 urtean, Mondragoi edo Arrasatera joan zan, eta bere urterik geienak erri ontantxe egin ditu, bertako kalezaintza lanean eguneroko ogia irabaziz eta bertako eginda oso.

Ezkondu Josefa Albizurekin egin zan, eta zer famili izan duten berak aitortzen du bertso batean: “Bi alaba ta beste bi seme / ia

danak sasoi onez". Beren izenak: Rosario, Jose Bizente, Jose Mari eta Arantxa.

Bertso kantatzen leenago asiko zan, bai bakardadean eta bai lagunartean ere; baiña idatzitakoak plazaratzeari 1968-an ekin zion. urrengo sail batean aitortzen duenez:

Kalezain baidamazkit  
ogeitamar urte,  
bertsuak eratzeko  
esaten didate.

Bertsogintzaren berri bazekiela leendik aditzera emana zuen, beraz. Baiña noizbait ere bertso idazteari ekin zion, eta bai gogoz eta benetan artu ere eginkizun berria. Aren lanak sarritan agertu oi ziran *La Voz de España*, *El Diario Vasco* egunkarietan, edota *Aranzazu*, *Goiz-Argi* eta emengo beste aldizkarietan. Nik nere eskura zetozen guziak irakurri eta banan-banan artxibatu egiten nituen, leen esan bezela. Alaxe, karpeta ura laster asi zan betetzen eta loditzen.

Irurogei ta bost urte betetzean, 1981 urtean, bere lanbidetik lan-saritu edo jubilatatu egin zanean, Mondragoiko Udalak omenaldi eder bat eskeiñi zion ainbat urtean bere langille prestu izan zuen kalezaiñari, beste ospakizunen artean beraren bertso sorta bat argitaratuz, *Nekez bada ere* izenburuarekin. Txukun eta dotore osatutako bilduma da, aurretik zenbait idazleren aurkezpenak dituela, Mondragoiko Kalezain au nor izan dan adieraziz.

Nitaz Jose Letona adiskidea oroitu zan, olako liburua pozik jasoko nuela pentsatuta, eta korreoz bialdu zidan. Gustora artu nuela esan bearrik ez da. Begiratu bat eman nion bereala, eta onela esan nuen nere artean: «Egunen batean Auspoak plazaratu bearko zuen liburu au; baiña argitara atera da, eta orain lan bat gutxiago guretzat.». Ala, apalera jaso nuen eta an egon da urteetan.

Baiña 2007-ko bukaera aldera uste gabeko telefono-deia izan nuen: Jose Manuel Arriolaren erraiña zan, Julia: aitagarrebaren bertsoak, danak edo geienak, beraren seme Jose Marik bilduak zituela; leen argitaratutako *Nekez bada ere* liburuan sail asko falta zala, eta ea Auspoa Liburutegian danak plazaratzerik bai al zegoen.

Bilduma ori bialtzeko, bada, erantzun nion, eta zer egin zitekeen orduan erabakiko genuela.

Pakete lodikote bat berealaxe etorri zitzaidan Xabierrera. Arriolaren bertso-bilduma ori zan, noski. Gain-begiratu bat ematen asi nintzaion eta *Nekez bada ere* liburuan falta ziran sail asko ikusi nituen. Pentsa: leengo liburu orrek, *Nekez bada ere* izenekoak, 751 bertso ditu guztira; oraingo onek, berriz, 1874.

Argitaratzea erabaki eta ekin nion lanari: ordenagailluz banaka-banaka bertso guztiak pasatzeari, alegia. Baiña ainbesteko pilla ez da eseri-aldi batean kopiatzen. Are gutxiago, beste lan batzuk esku artean baldin badituzu. Ala, urte erdi bat joan zait, gutxienez, zeregin ori bukatzerako.

Bertsoak kronolojiari begiratzuz eratu ditut, zaarretetik asi eta berrienera arte, alegia, sail bakoitzaren oiñean argitaratu zan eguna edo urtea ezarritz. Egille baten bertso gintzaren nundik norakoak orrela ikusten baitira ondoen.

Liburu onen iturriak, berriz, onako auek izan dira:

a) egunkari eta aldizkarietatik artu eta artxibatutako paper-punta edo errekorreak;

b) *Nekez bada ere* liburua;

c) Arriolaren seme Jose Marik bialdutako saillak.

Danen artean, leen ere esan degunez, 1874 bertsoa bilduma osatzen dute.

Leen esan bezela, *Nekez bada ere* liburu orren asieran Arriolari buruzko idazlan batzuk datoz: leenengo, Mondragoiko orduko alkate jaunak egiten duen aurkezpena; bigarren, *Joxe Manuel Arriolaren aipamena*, egillearen firmarik gabekoa eta gure Kalezaiñaren bizitzaren berri zeatz-meatz ematen duena; irugarren, Leintzko bertsozaleak eskeintzen dioten bertso-sailla; urrena, Basarri zanaren lan labur eta mamitsu bat; eta, azkenik, Juan Mari Lekuona zanak liburuari egin zion kritika sakon eta baliotsua. Oiek danak kopiatu egin ditugu eta liburu oni atari bezela erantsi, osagarri ezin egokiagoa diranez. Idazlan oietan aurkituko du irakurleak Arriolari buruzko nai ainbat xeetasun eta berri. Ortaz gaiñera, bertsolari batzuek, beraren lagun eta adiskideak noski, bertso-sail

batzuk eskeiñi zizkioten Arriolari, eta oiek ere atari gisako ortan sartu nai izan ditugu.

Gure mendi malkarretan beera datozen errekatxoak beeko sako-  
nean bildu eta ibai ederra egiten duten bezelaxe, bilduma au ere  
andik-emendik etorritako puska askorekin osatua da, lareun orrial-  
de pasa dituen liburu mardula borobildu arte. Bertso-kutxa zabala,  
mamitsu eta aberatsa degu, zalantzarik gabe.

Altxor ori egilleari eskeintzen diogu leenengo, bere larogei ta  
amabi urterekin ondo merezitako gozamen ederra izan dezan; eta  
bertsozale jendeari urrango, onelako bertso-bilduma gustagarri  
izango zaion itxaropen osoz. Bertso sail auek danak libururako  
prestatzen guk gozatu degun aiñaxe goza dezatela bai egilleak eta  
bai irakurleak.

A. Z.



Ezkonberritan Igeldon.

**Joxe Manuel Arriolari**





# Alkate jaunaren agurra

---

Joxe Manuel:

Joxe Manuel gure kalezaiñak, berari gogozko zaion deitura erabiliz agur esaten digu.

Berrogei urte luzetan, eguzki eta edur, otz eta beroak sufrituz, gure herriko kaleak korritu ondoren, Joxe Manueli zahardadea hartzeko garaia heldu zaio.

Bizitza oso bat eskaini dio herrizaintza lanari, bere lanbidea mailla haundi batetara igoaz, nekez ikusi ohi den neurrira.

Zenbat pasadizu eta kontakizun, zenbat ilusio eta ezbehar, poz eta atsekabe, gure Arrasate honen erromesbideetan gerraosteko gose eta bildurrezko denbora ilun haietatik! Zenbat aldakizunen lekuko ez ote zaigu izan gure adiskidea erdi baseritar erdi industriadun zen herri koskor hartatik, gaur egunean lau bider haundiago eta ia erabat industria leku bihurtu den herri puska honetaraino.

Herritarren zerbitzura egon den bizitza, guztiekiko errespetuz betea eta guztiengandik errespetatua, bere lanari zegokion eginbeharra salbuespenik gabe betetzen saiatu dena.

Zahar eta gazteok gogoratzen dugu eta gogoratuko gara Joxe Manuelek utzi digun irudi jatorraz eta, orobat, bere ateraldi, pasadizu eta han eta hemen agertutako hainbeste bertso paper gogoan izango ditugu, guzti hori baita gizon honek beti erakutsi digun jatorrizko argitasun eta sen haundiaren fruitu.

Mondragoetar guztien nahiaren oihartzuna harturik eta bere lan eskergaren ordain apal bezala, udaletxeak omenaldi bat eratu nahi izan dio, kalezain zintzo, bertsolari trebe eta, oroz gainetik, gizon jator, arduradun, soil eta leial denari. Jauna, zuregandik du ohore gure herriak!

Jose Antonio Ardanza Garro, alkatea  
(*Nekez bada ere* liburuaren atarian.)

# Joxe Manuel Arriolaren aipamena

---

Arrasatetarrok geure-geurea dela uste dugun kalezaina, Arbil menditxoaren babesean, Debako itsasoaren kresal haizeak laztantzen duen Goikoetxe baserrian, 1916garren ekainaren 15ean munduratu zen.

Garai hartan Deban zen ikastolan lehenbiziko hizkiak eta kristau ikasbidea euskeraz ikasi ondoren, lau erreglak, irakurtze ikaste eta abar. orain E. G. B. deritzaion antzeko ikasketak erderaz egin zituen. Ordu erdi inguruko bidean joaten zen bere baserritik herriko ikastetxe hartara, bidean txorien abesti eta itsasoko olatuen oihu zakarrak adituz. Ikasketak tarte zirela etxeko lanetan ere saiatu beharra izaten zuen eta ongi gogoratzen da baserrian bazituztela horrelako abere edo zezen jotelariak, eta esaten du Joxe Manuelek nola haiekin herriz herri sokamuturra deritzaion festak egiten zituzten, bati baino gehiagori kolperik, astindurik eta fraka puskaturik izaten zela dio, eta pozik gainera hezurrik hausten ez zenean. Bestalde, ardiak ere bazituzten, eta Joxe Manueli ardiak gehiago gustatzen omen zitzaizkion beste behi-zezen bihurriok baino. Hargatik artzantzan gehiago saiatzen zen.

Hogei urte zituela zoritxarreko gerra maltzur harek parean arrapatu zuen eta, hainbeste maite zuen sendi eta Goikoetxe baserria utzirik, gudaritzarako dei egin ziotenean, alde beharra izan zuen, naiz eta lana ugari izan; besarkada maitakor bat malkoak begietan zituala sendi guztiari eskeini ondoren, Afrika alderako bideak hartu behar izan zituan. Bi hilabete Marruekoson igaro ondoren, Brunete eta Belchiteko frenteeetan ibili zen: zoritxarrez han hartua badu gerra nazkagarriaren ezaugarri bat: bertan zauritu zuten eta gaur ere eza-gun dira bere gorputzean harek utzitako arrastoak.

## Guda ondoren Arrasatera

Gudak utzi zion elbarritasunagatik. bere lanpostua aukeratzeko bidea jarri zioten Joxe Manueli eta Arrasatera kalezai etor-

tzea erabaki zuen; 1939garren urtean gure herrizainen taldean sartu zen.

Garai hartan hemen zegoen ekipoa honakoa zen edo honela osatzen zen.

Migel Mendieta (Migel Aundi). hau zuzendari bezala; Boni Zubialdea edo “Torres” deitzen ziotena; Martin Bengoa (“Mietza”); Eugenio Barrutiabengoa (“Arbe”) eta Martín Zubizarreta (“Billafre”).

Garai hartan Arrasatek 8.600 bat biztanle zituela; Joxe Manuelek hartu zuen herri zainaren makila, txapel gorria eta baita 250 peztako hileko soldata ere.

Bere sarrera, leku berrian ohi den bezala, gogor samarra izan zela esan digu, baina bere borondate guztia jarri zuela ahal zuen ondoena lan egiteko, batez ere guztiei berdin berak ahal zuena eskeniaz.

Garai hartan berak izaten zituen lan askoren artean, batzuek aipatuko ditugu laburki: Mutikoak beti bezala gaiztoak zirela eta galerazita zeuden tokietan pelotan jokatzen ibiltzen zirenean, toki haietara joan behar izaten zuela, batez ere eliza eta hospitaleko ataritan eta abar; gaur gizon eginik aita diren askori bere makila erakutsiko zien Joxe Manuelek; orduko errua ezagutzera heldu direnak begirune haundia diote.

Bestalde, atez ate kobratu behar izaten zituen errezibo batzuek; aipatzen ditu etxe askotan ogia erosteko dirua falta eta bera papera-ekin diru eskean joan baharrak min haundia ematen ziola, baina bera agindutakoa egiteko zegoela; behin baino gehiagotan bihotzak palast egingo zion gure gizon jator horri!

Zalantzik gabe munduaren aldakuntza haundi baten testigu dugu Arriola. Kalean gaizki utzita zeuden astoengaitik beren jabe-ari multa kendu behar izaten zien; etxez-etxe esnea eta barazkiak partitzen ibiltzen ziren etxeoandreek etzuten beti begi onez ikusiko, baina hau ere bere gainetik zeudenak agintzen zioten. Gaur ko-txea aparkatu ezinez jarri gera, eta behin baino gehiagotan asto jabe haien semeei emango zien disgustoa gaizki aparkaturiko auto edo motorrarenegaitik.

## Bertsolaria

Joxe Manuel langile bezala kalezaia badugu ere, atsedean alditan bertso idazlea dugu. Bihotzeko sentipenak tajuz paperean ipintzen dakiena.

Lan hontan duela hogeit bat urte azaldu bazitzaigun ere, hontako afiziua oso gaztetakoa duela esaten du. Dudarik gabe, orain idatzi bakarrik egiten badu ere, Deba aldean ardiekin ibiltzen zen garaian haizeari jaurtiak egunsentiko txori kantu haiei erantzunez zenbat izango ote ditu?

Azken hogeit urte hauetan eginak ditu ehun bertso paperetik gora; hauetatik asko izan dira publikatuak Arantzazuko aldizkarian, *El Diario Vasco* eta *La Voz* egunkarietan. Horrela ezagutu dugu Joxe Manuel bertso jartzaile bezala. Beste zenbait bertso polit ere baditu eginak eta hauek ezagutuzeko aukera ez da urrun Udaletxeari esker, bere omenaldirako argitaratuko bait dira. Ertzain dabilen garaian ere baliatu izan da bertsoaren bidez oker dabiltezenak zuzentzen; begira zer asma zuen gure bertsolariak.

Joxe Manuelek ondotoxko zekien zirkulazioko baimenik gabe Frai Rufino herriko kaleetan zear ibiltzen zela bere motor edo Vesparekin, eta sotanadun bateri multa kolpera ezartzea baino ego-kiago irudituz zitzaion honako bertso idatzia bialtzea:

Frantziskotarrik horrelakorik  
zanik ez nuan pentsatzen:  
bere jantzien konfiantzara  
karnet gabe konduzitzen;  
gizonak jarri ditun legeak  
alde batera baztertzen.  
Jaunak jarriak era horretan  
erreza ahal da betetzen?

Konbentuko praileok nahiko parre egin omen zuten bertso hau irakurtzean, baina Frai Rufinok han eduki zuen bere motorra aparaturik; ez zen gehiago ausartu motorrean kaleratzen, bere karnet eta dokumentazio guztiak zuzendu artean... Horra gure ertzain bertsolariak oker zebilen frailea multarik gabe zuzendu!

## Gizon zintzoa, apala eta esker onekoa

Laburki esateko, ez dago edozein herritarri galdetu besterik, gure kalezainaren doai nabarmenak zeintzu diren jakiteko. Arriola guztiok ezagutzen dugu eta ondotxo dakigu beti izen dela premian dagoenaren laguntzailea; bestalde, gizon zintzo, apal eta zuzentasunaren ispilu bat da gure herrian, Azkenik, horra beste doai bat gehiago ere agirian: eskerronekoa, Joxe Manuelek Arrasateko herri osoari eskeini nahi izan dio, bere bihotz barruko maitasunak eragirik sortu dituen bi bertso auk eskerronez:

Jarraitu nahia ezta nahikoa  
orain arteko arretan,  
lansaritzera iritsi dana  
urruti da indarretan.  
Somatutzean hainbat goramen  
nere alde bazterretan,  
Arrasatekin bizi guztiko  
aurkitutzen naiz zorretan.

Buruan daukat zerbait berezi  
Arrasatek baduala,  
hainbat urtean bere altzoan  
hementxe gorde nauala.  
Aitortzen dizut esker oneko  
zuregana nagoala,  
gogo on hutsez baldin bada're  
erantzun nai dizudala.

*Nekez bada ere liburua*

# Leintzko bertsozaleak

## Joxe Manuel errizaina eskertu nahian

---

1

Udaletxetik haizeak dakar  
egun haundi baten hotsa,  
Santomasetan berotu nahi du  
negu gogorreko hotza.  
Leintzko bertso zaleak ezin  
isildu gure ahotsa,  
Joxe Manuel, zurekin bat ein  
nahi dugu gure bihotza.

2

Gizon apal bat zara herrian,  
zintzoa eta garbia,  
zuzen ipintzen ahaleginduaz  
oker dabilen jendia;  
atseden ordu daukazunean  
bertso idazle trebia,  
omen batekin ez da ordaintzen  
zuk egin duzun guztia.

3

Goizean sasoiz irten oi duzu  
zure etxetik kalera,  
ardietara artzai jator bat  
ateratzen dan antzera,  
batenbat premiz aurkitzen bada  
esku bat eskeinitzera;  
zorionean etorri zinan  
Debatik Arrasatera.

4

Itxuraz gordin zauden artean  
urteak igaro dia,  
eta zuk ere somatu duzu  
eindako lanen kargia;  
naiz herriak zail izango duen  
beste berdin bat jartzia,  
Joxe Manuel, zartzaro on bat  
daukazu irabazia.

5

Hainbat urtean saia ondoren  
Arrasaten serbitzari,  
betiko agur ein nahi diozu  
herri zainen trajeari;  
baina mesedez lagun zaiguzu  
zeure premiz gaudenori,  
irakurtzeko zai gaude eta  
bertsoak idazten segi.

6

Aldizkari ta egunkaritan  
azaldu zara aldizka,  
bertsoen bidez erakutsiaz  
barruan daukazun kezka;  
herria eta euskaragatik  
eginaz ahal duzun pizka,  
horrekin zenbat on egin duzun  
guk ezin gentzake juzga.

7

Benetan txalogarria dugu  
zuk egin diguzun lana,  
baina ez ahaztu Iparragirrek  
aspaldi zela esana:  
eman ta zabal zazu frutua  
gero´re ahal dezun dana,  
doai eder hori ez duzu Jaunak  
gordetzekotan emana.

8

Lan horietan zu ez zerala  
txaloen bila ibili,  
behar bezala ezautzen zaitun  
euskaldun harek badaki;  
baina entzunik gainean dela  
omenaldi eder hori,  
zorretan gaude eta leku bat  
bertan nahi dugu eduki.

9

Hazia erainik sortutzen dira  
ondorenean frutuak,  
kukurrukua jo berri dira  
Almeneko mutikuak;  
zugandik zerbait jasoko zuten  
hor ari diren maixuak,  
horra arbola gordin dagola  
alboan sortu kimuak.

10

Ezjakin batzuk lan ona eiten  
ez da izaten xamurra,  
Guk badakigu hau ere ez dela  
zuk merezi hain jatorra;  
baina sinistu hor dagoela  
guk gaur ahal dugun apurra,  
ta hartu Leintzko bertsozaleen  
besarkada maitakorrra.

*Nekez bada ere liburua*



# Joxe Manuel Arriola

---

Joxe Manuel Arriola Arrasateko ertzain edo “polizi” izan da berrogei urtean. Orain, garaia eldu zaiolarik, lansaridun edo “jubilatuen” saillera pasako da.

Arrasatearrak ertzain bezela ezagutzen zuten. Gizon zuzen eta lege betetzaille berdingabekotzat.

Joxe Manuelentzat, izan ere, bere eginkizunak osoki betetzea izan da kezka nagusia.

Ori baiño zerbait geiago izan ordea Arriola: bertsolaria. Joxe Manuelen berezko zaletasun onen berririk etzuten Arrasaten. Neretzat etzan batere arrigarri. Itziarko “Zubeltzu” zanaren illoba baita Joxe Manuel, Eta Zubeltzu etzan nolanaiko bertsolaria. Ez orixe!

Amabost urte inguru nituala egin nuan arekin nere bertso saioa. Etxez kanpo nik egindakoetan, lenengoa uraxe izango zan, seguru asko. Gogoan det Arruako “Agote” tabernan zala; Gogoan det Ibañarrietako erromerian izan giñala.

Lagun Uztapide ta ni urte luzeetan ibili giñan urtean bitan Arrasatera kantatzera joanaz: Ama Sortzez Garbiaren egunean eta Santo Tomas bigarreanean. “Josemaritarren” taldeak eramaten ginduan lenengo. Gerora, Udaletxeak ere bai. Maite ginduzten gu arrasatearrak, eta bai guk ere aiek. Etxean bezela aurkitzen giñan an, gure onetan zer egin ezin asmatu ibiltzen ziran-eta.

Libre zituan une guztietan, Joxe Manuel gure ingurura biltzen zan. Bereala antzeman genion zenbat gozatzen zuan bertsoak entzunez.

Geroztik, azken urte auetan batez ere, arek moldatutako bertso asko iritsi da nere eskuetara. Gero, nere bidez, *El Diario Vasco* egunkarian ikusten zuten argia.

Bein da berriro, liburu ontan izango dezute aiek irakurtzen era.

Bertsolari baten kritika egitea ez dagokit neri. Juan Mari Lekuona jaun agurgarriak artu du beregain egiteko au.

Zoriontzen zaitut biotzez, Joxe Manuel, ain ertzain edo “polizi” txalogarria izan zeralako. Ondoren datozenak badute zugandik zer ikasi. Berrogei urteko zure serbitzuak or dira lekuko edo “testigu”. Asmatuko dute zu eredutzat (ejemplo) artzen zaituztenak.

Zoriontzen zaitut, baitere, ta bereziki, zeure betiko zaletasunari egoak zabalduz ainbat bertso eder moldatu dezulako.

Bersarkadarik anaikorrena, ta... urte on askotarako!

Gure izkuntzak zenbat eskertzen zaituan ez dago esan bearrik.

Zorionak zuri ere, Arrasate, alako gizonari alako onoreak egin dizkiotzulako.

**Basarri**

*Nekez bada ere liburua*

# Arriolaren bertsozko lana

---

Bertsozaleontzat aspaldidanik ezaguna da Joxe Manuel Arriola. Bere bertsozko lanak or dabilta izparringi eta aldizkarietan. “Mondragoiko Kalezaiña” izenordearekin izenpetzen ditu bere idazlanak, izenordea ogibidetik artzen duela. Eta aspaldiko bertsolari au bertso-liburu batekin datorkigu. *Nekez bada ere* deritzan sortarekin. Egileak urteen buruan osatu eta argitaratu dituen bertsoen bidez ornitutako bertso-bilduma dugu.

Liburu irakurri aurretik ere, aurkibidean begiratuta bakarrik, antza ematen zaio zer nolako itxura dakarren idazlan berriak. Gaien izenburuak irakurri utsez jabetzen gera, liburuan aipatzen direla azken urteotan gure artean gertatu eta sentitu izan diren amaika gauza; eta gure arteko ekintzak, kezak eta berriak kantagai biurtu direla Arriolaren liburu berrian.

Idazlanaren aurkezpena egiteko, bi alderdi ukituko ditut batez ere: leenengo, Arriolaren poesi mota mugatu, adierazi eta izendatuko dugu; eta bigarren urratsaldi batean, liburu berriaren zenbait alderdi xee markatuko ditugu, berauek aipatuz eta balioztatuz.

## 1.- Arriola, bertsolari kronikagillea

Joxe Manuel Arriola Arrasateko bertsolari kronikagillea dugu leenik. Bere erriko historia zaarra aipatzen duen arren. gaurko gaiak ditu batez ere aotan: Arrasateko arazoak, kultur ekintzak, gizon ospetsuak bezala gizon errikoiak ere bai, festak, urte-giroak, erlijio-bizitza, sozio-politikazko aldakuntzak eta abar. Alderdi onetatik begiratuta, oso aberatsa gelditzen da liburua; eta jakingarria ere bai, adin eta kultura jakiñeko giza estratoaren pentsaera eta jokamoldea ematen dizkigunez.

Baiña Arrasate ezezik, Euskal Erri osoa kantagai du Arriolak. Emen aurkitzen ditugu euskaldungoaren inguru bizi izan ditugun gertakizun gogoangarriak: politika urbilleko esturak eta larrialdiak,

azpi-egiturazko langintzak eta aurrerapidea, erlijio.giroko gertaerak eta jaiarak, gaurko gizon ospetsuak, bertsolari, arrijasotzaille, jakintsu, soiñujole eta abar, gaurrengungo arazoak, egin diren auteskunde eta txapelketak, gure gizartea ukitu duten berri ozenak, ala nola, Ortuellako eztanda, euskaldunek Everesten egiña, Aozaraza eta Erkizia aldaretan jartzea, eta abar.

Itz batean esateko, Joxe Manuel Arriola bertsolari kronikagillea dugu, bere garaiko gertakizun nabarienen berri-emaille, eta erri literaturaren mailla apalean eman ere, usariozko zentsu ona sartuz eta erabiliz gauzei buruzko ikusmoldean. Alderdi au dela uste dut nabariena, eta aipagarriena ere bai, bear bada, eskuartean dugun bertso-bilduman. Erritik eta erriarentzat landua, lekuan lekuko gertaerak aipatzen dira, gaiaren inguru erriak marmarioan esaten duena ere bertsoan bilduz.

Arriolaren lana balioztatzeko, bearrezko jotzen dugu kronikagintzan jardun duten bertsolarietara buruz esan dena gogoratzea. Gauza jakina da, usariozko bertsolarietara, gutxi edo asko, kronikari loturik dagoela. Gai oni buruz jakingarri asko aurki daitezke *La "Crónica" en la poesía vasca* deritzan J. M. Leizaolaren liburuan. Egille onen aburuz, "kronikek" poesi mota bat osatzen dute euskal poesigintzan; eta ezaugarri bereziak ditu euskal poesiazko kronikagintza onek.

Besanga orren adarra da Arriolaren bertsoagintza. Bein baiño geiagotan sarrerako urtealdi aipamenak danak kronika zentzu garbia: "Milla beratzireun / au da amabigarrena", eta orrela askotan. Eta sarrerako esaldiak ezezik, kantagia bera ere urbillekoa izanak kronikaren eitea ematen dio Kalezaiñaren bertso-saioari, aipatutako berriak urte berean gertatuak direnez, eta egilleak berak gertakizunetan nolerebait parte artzen duela. Une historikoak sortzen du gaia, eta une historikoari egokitzen ere zaio bertsozko lana. Au dela esan dut Arriolaren ezaugarriak bereziak; eta esan dezadan, baita ere, doai onen inguru doazela bere merituak eta mugapenak.

## **2.- Arriola eta kazetaritza**

Kronikagintzaren barruan, badu beste berezikuntzarik Arriolaren idazlanak. Kronikagilleena ezezik, kazetariena ere nolerebait badela esango nuke *Nekez bada ere* izeneko liburua.

Leizaolak, aipatutako bere liburuan, garai desberdiñetako egileen kronika-itxurazko ereduak aukeratzen dizkigu; eta eredu desberdin orien arabera, poesi kronikak sailkatzen ditu. Sail berezi auek aipatzen dizkigu; kronika politikoak, “berrizabaltzailleak”, erriko gertaerei buruzkoak, erailketez mintzo direnak, kirolei buruzkoak, gizartea, festak eta abar aipatzen dituztenak.

Eta oarturik gaude sail auek guztiak Arriolak aipatzen dizkigula orain argitaratu digun liburuan. Orregaitik esango nuke kazetaritzatik ere baduela Joxe Manuelen bertsozko lanak. Askotan gertakizunaren aipamen laburra egingo digu, eta beste batzutan begiratu batean gai xumeak diruditen albisteak emango dizkigu. Eta gaiaren aipamen laburra bezala, mamiaren xumetasuna kazetaritzaren ispillu izan daiteke, egunerokotasunaren gurgillean oretutako bertso xeea. Dena kezataritza baten moduko ildotik, liburua bera urtealdi onetako dokumentu xume baina iraunkorra gertatzen dela.

Arrasateko bertsolariak egindako kazetaritza onek, bistan da Basarriren idazlanarekin duen zerikusia. Denok dakigu zenbateraiñoeko lekua ematen dion Basarrik bertsolaritzari, bai izparringietan, bai irratsaioetan. Ogibidez kazetaria izanik, Basarri dugu, noski, “kronika” izeneko bertsogintza oparoenik eta ondoenik landu duena. Basarriren itzalpean egin da ez gutxi Arriolaren bertsogintza. Basarrirenaren bidetik doa. Eta ez dugu aaztu bear, Basarriren izparringi atalean argitaratu izan direla Arrasateko Kaleizaiñaren bertsorik geienak.

### **3.- Arrasateko bertsolaria**

Irugarrenez Arriolak kronikagintzan eta kazetaritzan ezezik, beste lan bat ere osabetetzen digu bertsozko zerbitzuan: Arrasateko bertsolaria ere bada bera. San Joanetan dela, Eguberrietan dela, mendeurrenetan dela, omenaldietan dela, Arriolak an eskaiñiko du bere bertso-saioa, erriak itsumustuan bizi dituen sentierak ernatuz eta neurtitzetan gorpuztuz. Erriko gertakari sonatuek bertsozko aipamena artzen dute Arrasaten Joxe Manuelen aotan.

Zeregin onetan eduki izan du biderakuslerik eta aurrekorik. Besteak beste eta adibide modura, Jose Bizente Etxegaray datorkit

burura. Donostiarra zen bera. Eta bertan bizi zenez, letraz jazten eta osatzen ditu iriburuko festak, batez ere Iñauteriak eta Eguberriak. Edozein gertakari edo festa ospatzen zelako, zerbait idatzi bear zenean, Etxegarayrengana jotzen zuten. Berak idazten zituen elize-tarako bear ziren eguberri kantak, iñauterietako koplak, jaikizune-tarako gorazarre eta zortzikoak, teatroetan eta atez ate kantatu bear zituzten enkarguzko bertsoak eta antzeko unetarako bear ziren beste bertsozko lanak.

Beste neurri eta giro batean bada ere, berdintsu egin du Arrasaten Joxe Manuel Arriolak. Etorkiña izanik ere, mondragoitar egiñik dauka bere burua. Eta erritarrek eskatu alean, Arrasateko bertsolari erritarra izan da, egun aunditan Arrasateri kantuzko zerbitzua eskaintzen diola, bertako bertsolari urbilla gertatzen dela. Festa giroan koplari izan da, erriari jai egitera dei egiñez. Erritarren egintzak eta esenpluak gogoragarri egin direnetan, kantari epikoa egin da, erria eta gizonak goratuz. Eta zerbait salatu bearra ikusi duenean, berriz, ez da isildu bere kontzientziaren aotsa, tradiziozko ikusmoldearen aritik.

Literatur balioak alde batera utziz, Arrasatek liburu onetan argi eta garbi ikus dezake nor izan den bere kantaria, bere bertsozko zerbitzaria, egoerak, sentierak, kezkak eta asmoak euskarazko molde zaarretan moldatu eta eskaini dizkion erri kantaria.

#### **4.- Beste alderdi eta mugapenak**

Egillearen liburu onek aurkezten dituen alderdi zabalak aipatu ondoren, ala nola bertso-mota eta Arriolaren bertsolari-langintza, orain beste zenbait xeetasun aipa dezagun, literaturaren aldetik aipatu ere: argitara-lekuak, gaiak, teknika, esaerak, giza legea eta utsuneak.

Asierako oarkizun bezela, J. M. Leizaolak gorago aipatu dugun liburuan dakarrena esango dugu: *“Más que finezas de lenguaje, aunque su rítmica no tenga nada de descuidada a serlo posible al poeta, se quieren esos detalles humanos propios del periodismo de nuestros días”*. Emen esaten dena Arriolari bere neurri batean ezarritz, ongitxo esplika daitezke Kalezaiñaren bilduman ikus daitezkeen doaiak eta utsuneak.

## 4.1.- Argitalekuak

Egillearen jokabideaz jabetzeko, gauza arretagarria da berak bertsoak argitaratzeko eduki duen zaletasuna eta apeta. Bere bertsozko lan guzti auek non edo an idatzirik datoz, bilduman datozenak beintzat. Asko eta asko egunkarietan, batez ere *La Voz de España*-n eta *El Diario Vasco*-n. Dударik gabe Basarriren ibilpideari jarraituz doa Arriolaren leku-aldaketa au ere, Basarriren idaztxokoa izan denez geienetan Joxe Manuelen bertsoak argitaratzeko lekua.

Baita ere oso gogozko lekua du *Aranzazu* aldizkaria, bertan bertso mordoska ematen digularik. Gero *Goiz-Argi*, *Zeruko Argia*, *Hoja del Lunes*, *Besaide Mendizale Elkartearen Aldizkaria*, *Arrasate* aldizkaria eta beste zenbait idaztoki izan dira Arriolak bere saioak argitaratu dituen lekua.

Arriolak ez zuen gordean zeukan bertsozik, bilduma argitaratzeko garaia iritsi zaionean. Eta berantetsia dator, gaiñera, liburu plazaratzeko garaian, *Nekez bada ere* izenburu esanaitzuan mamitu duelako bere pentsakizun nagusia. Emen ikusten da egilleak irakurlegoarekin arreman biziak edukitzeko daukan gogoia; eta urteen buruan, gogo oni atxikiz eta etengabe arituz, bete duen lan oparoa.

## 4.2.- Gaiak

Gaiei bagagozkio, berriz, Arriolak badirudi kanpoko berriei eta arazoei geiago erantzuten diela barruko kezkei eta esan-gogoei baiño. Askotan aipatzen du gai billa dabillela, zerbait kantatuko lukeelakoan dagoela; “Esangairikan sortu ezkerro / gu segituan kantura”.

Eta gai sakonak baiño naiago ditu, gai orokorrak baiño naiago, jendarteko gaiak, jendea ukitzen duten albisteak, egunetik egunera sortzen diren kontaerak, jendearen kontzientzia arakatzen duten kezkek. Zai dago Arriola, albora begira (Kalezaiñ, onetan ere), aotan bor-borka dabillen mintzagaia jaso, landu eta bertso biurtzeko asmoz.

Berak zer pentsatzen duen jakiteko saio jakin batean baiño obeto ikus daiteke liburu osoan zear. Bere pentsamolde errikoia an

eta emen banatua agertzen da. Baiña oso berezia eta jakingarria du gauzei buruz jalgitzen duen usuariozko pentsamoldea.

### 4.3. Teknika

Bertsogintzari begiratzen badiogu, bere teknika landua ez dela bistan da. Oztopoak aurki daitezke an edo emen bertsoak irakurtzeko garaian, batez ere irakurlea bertso landuetara isuria dagoenean. Oztopoak idazkera txukun eta biribillaren aldetik, desberdintasunaren aldetik, teknika zeatzaren aldetik. Arriola ez da bertsogintza biribiltzen eta paillakatzen ibiltzen den orietakoa; ez da ertilarri fiña eta erabatekoa, Bilintx edo Xalbador bezala. Bertso landua baiño geiago bertso bizia egiten duen orietakoa dugu Arriola.

Utsunerik nabariena, bear bada, bertsoaren bukaeran nabari zaio. Denok dakigu azkenak duen garrantzia bertsoaren ederra eta osoa erabakitzekeo garaian. Joxe Manuelek, ordea, badirudi zenbaitan bear bezala zizelkatu gabe uzten duela azken esaera.

Ala ere, oro ar, merezimendu ederrekoa dela esan bear Arriolaren bertsogintza. Usuariozko bertso-moldeak erabiltzen ditu beti, zortziko nagusia eta zortziko txikia nagusitzen direla. Erabiltzen ditu, baita ere, bederatzi puntukoa eta koplak bikoitz autsia “Aizak, i mutil mañontzi”. Eta, ene gustorako, ez dira motelagoak zortziko txikian osatzen dituen saioa eta esaera xeeak.

### 4.4.- Esaerak

Ezertan gustagarri bada Arriolaren liburu au, esaldi-esaeretan ote dagoen nago: auek bikaiñak dira, otin zaarrekoak, jatorrak baiño jatorragoak askotan. Milla esaldi aurki daitezke, arretagarri direnak. Zenbait balioztatze eta gogoeta ez daiteke esaldi egokia- goz egin. Adibide soil batzuk andik eta emendik artuko ditut: “etxe- rikan etzuan / nekatutzen bate”; “ikasitzea ona da baiña / biotz pixka bat ere bai”; “argi guztia ixio ta ere / alare bazter illunak”; “ez gaude libre, asko duanak / eman dezala esanda”; “zu aspaldian etzana baiña / izena ordea zutik”; “bukutzen ez dan erromeria / beti galga berdintsua”; “oiñak urratuz iritsi obe / txarragoa bada ere”; “gorputzez dira diferenteak / biotzez antzerakoak”; “alper-alperrik



ariko gera / larrosekin ametsetan”; “baiña premiak ez du txantxaririk”; “ogibidea sortu zalea, / eliz-gizona bestetik” (Don Jose Mariaz)...

Idazkeran eta teknikan utsuneak nabari bazaizkio ere, usterik gutxienean aurkientza arrigarririk egingo duzu ezarian-ezariko irakurkeran. Izketaren aldetik oso urrutitik artua du mintzoaren iturria. Eta esaldi askotan arridura sortzen digu Joxe Manuelek, eta gustagarria gertatzen da, gaurregun gero eta gutxiago entzuten den antziñako euskera errikoi eta aberatsa, usariozko mintzamoldea.

#### **4.5.- Giza-legea**

Bestalde, eskertzekoa da. baita ere, adierazten digun giza-legea. Jasotzen duen komentarioa erri maillakoa dela esan bear; baiña beretik ari denean. Arriolak irakaspide sakona eta oparoa du guretzat. Usariozko giza-legetik dabil beti, berau errez mamitzen duela, eta beretik aise dariola gaia, jatortasunik sendoenean.

Eta giza-legea aipatzen eta adierazten benetan iaioa dela esan bear, emen ematen den bertsozko dotriña. Oso gustoko gaiak zaizkio famili artekoak, erritasuna eta errigintza, euskal kultura, erlijio bizitza, lana, lagunartea, festa, itz batean, usariozko ikusmolde zaarra bezain gizatasunez betea dakar, funtsezko gaiak erabiltzen dituela.

#### **5.- Azkena**

Altxor ederra dela esan bear Joxe Manuel Arriolaren bertsozko lana. Kontatzen diguna, erriak gure garaian bizi izan duen historia apala da, baiña urbilletik idatzia eta adierazia, gertaeren joaneran etengabe emana.

Komentario bezala, oso ulerterreza gertatzen da. Irakurtzeko eroso, batez ere euskaraz gauza luzeak irakurtzeko oiturarik ez dutenentzat. Berri emaille pozgarria dugu egillea; zerbitzu ona bere langintza.

Gaur edo biar, egungo urbiltasuna igarotakoan, eta gauzak atzenduxe zaizkigunean, orduan lagungarri ona gertatutako da gure erriaren kondaira bizia azpi-azpitik ezagutu nai dutenentzat. Batez

ere aragi bizitan datoz Arrasatek ogeigarren gizaldiko azken laurdenean eduki dituen kinka eta azimiñak, krisialdiak, gizonak, erakundeak, kirolariak eta abar. Eta denboraren joanean, beste dokumentuekin batera, iturritxo bat izan daitezke, erri xeeak bizi izan zuen aldartea ezagutzeko, batez ere mondragoitarren giza aldar-teaz jabetzeko

Arriola ez da goi maillako bertso-jartzaillea. Teknika eta izkuntza poetiko landua ez dira bere doirik ezaugarrienak. Joxe Manuel erakunde bat da, bertsolari kronikagillea. Arrasateko bertsolari urbilla eta bere erriari bertsozko zerbitzua nonnai eta noiznai egiteko prest egon den bertsolaria.

Orrela ikusten dut Joxe Manuel Arriolaren bertsozko lana. Amaika bertsolarik egin izan zuen bezala, erria gozatu du, jantzi du, zerbitzatu du, kantatu du; eta au guztia egunerokotasunaren mailan, erriak bizi duen une bakoitza bertsozko moldetan emanez.

**Juan Mari Lekuona**

*Nekez bada ere liburua*

# Nekez bada ere

---

Egilleak gogoan du aur denborak auntziña utzi zituala atzera. Arrazoi ori izan du goian agertzen dan izenburua aukeratzeko.

Obra bakarra osatzen duan obra mordoxka dira; lan zaletasunak bultza eginda aukeratu erazitako gaiak, idatzitako bertsuen gain antolatutako sariketak eta, baitare, salatu premia iritsitako arazo batzuen gain egiñak.

Bertan enplegatutako denborak preziorik ez izatean, badirudi obra garrantzizkoa ez tala, gutxi balio duala.

Dibertsio aldetik begiratuta, ordea, egillearentzat zuan balioa ezin neurtualakoa da.

*Nekez bada ere* liburua

# Joxe Manuel Arriolari

---

1

Berrogei ta bi urte egiñik  
Arrasateko kalezai,  
atsedentzeko, Joxe Manuel,  
badala uste det garai,  
Lan eta kezkak utzi dituzu,  
bizi zaite orain lasai,  
zu guztiz ondo portatu zera,  
eta erria ere bai.

2

Zuk aparteko begirapena  
zenduan legearentzat,  
bera betetzen etzuanikan  
etzenduan artzen ontzat.  
Zu ezagutzen zaituzten danak  
jotzen zaituzte zuzentzat,  
aberats, pobre, nagusi, morroi,  
berdiñak ziran zuretzat.

3

Agindupean ibiltze ori  
sarritan oi da gogorra,  
zuk etzenduan beste biderik:  
jokabide derrigorra.  
Legez kanpora zebiltzanekin  
etziñan errukiorra,  
prailleak ere jasotzen zuten  
merezitako zigorra.

4

Batek odolez dakarkiana  
ezin baztertu zokora,  
erlea beti lorera eta  
bertsolaria bertsora.  
Joxe Manuel, zuk etzenduan  
alperrik galdu denbora,  
amaika kantu moldatu zendun  
zeure lan orduz kanpora.

5

Arrasateko erriak egin  
dizkitzu egundokoak,  
kalezai gutxi izango dira  
ain gora jasotakoak.  
Zer ikasbide bikaiñak diran  
zuk or eskeiñitakoak,  
oso bakanak izaten dira  
zu zeran bezelakoak.

6

Egitekoak bete dituzu  
borondaterik onenez,  
zu berdintzerik ezpaizegoan  
zuzentasun da ordenez.  
Biotz-biotzez opa dedana  
zuganako esker onez,  
zartzaro on bat izan zazula  
osasanik ederrenez.

Eizmenditar Iñaki, Basarri  
*El Diario Vasco*, 1982.01.10

# Joxe Manuel Arriolari

---

1

Oraindik orain Patxi tentatzen  
bertsoak Arrasatetik,  
gure Manuel Arriola au  
gogoratzen da nigatik.  
Nere berririk artu gabetan  
omen zaude aspalditik  
zu era ortan arduratzeaz  
ni poztutzen naiz gogotik.

2

Xenpelar zanan bertsoarekin  
zan zure ateraldia,  
arrazoi dezu, neu ere ez nintzan  
ori ikusi gabia.  
Ortan gezurra ziola arek  
zuk badakizu ordia,  
ark zion eran Patxi Barberok  
ez du pasatzen bidia.

3

Aitortu bear ibilitzeko  
oso zalea naizena,  
etxean beti zertako egon  
atera nintekiena?  
Laguntza zabal eskeiñiz asko  
etortzen dira nigana,  
baiña sinistu, andrea daukat  
laguntzaillerik onena.

4

Alkar ainbeste maite degu ta  
ez gerade ezagutzen.  
ondo pentsatzen jarrita ori  
oso zaila da sinisten.  
Irtentaldiak egiten ditut,  
orruntza ez naiz irixten,  
alkar ikusi gabe il bear  
zeu ezpazera etortzen.

5

Maitetasuna badidazula  
bertsoz eman dizut traza,  
baiñan alare zu zeu etzera  
iñoiz agertzen Zarautza.  
Gogo pixka bat artu ezkerok  
ez dago biaje latza,  
zure moduan banegoke ni  
joango nintzake orruntza.

6

Lantegi ontan ni astearren  
jarri zenitun bertsuak,  
biori ere asko gustatzen  
lanbide onelakuak.  
Bertso onekin bukatzen dira  
oraingoz nere kontuak,  
Urte Berri on, agur biotzez  
orain Patxi Barberuak.

Patxi Barbero, Zarautz  
*El Diario Vasco*, 1984.01.15

# Joxe Manuel Arriolaren aipamena

---

Ohi denez, urte hasieran jakitera eman zen 94-ko Bertsolari Egunean, urtarrilaren 23-an, omenduko direnak, gerra osteko bertso jartzaileen belau-naldia izango zela. Aurten Gipuzkoako Bertsolari Elkarteari tokatzen zitzaio-  
nez lan horretaz arduratzea, bederatziko kuadrilaren barruan Joxe Manuel  
Arriola. Arrasateko udaltzain izan zen hau hautatu dute omendua izango den  
belaunaldi oso baten lekuko. Azken hogeitamabi urte hauetan egin dituen  
ehundaka bertso paperen sari bezala har beza hain merezia duen omenaldi  
hau. Zorionak!

1

Gizaldi honen hasieratik  
hamaseigarren urtean,  
Joxe Manuel munduratu zen  
ekainan hamabostean,  
Goikoetxeko baserri zaharren,  
Arbil mendi babesean,  
Debako itxas kresal haizeak  
laztantz duen ertzean.

2

Mutil koxkortu bezain aguro  
Deban ikastola baten  
lau erregla ta irakurtzeaz  
kristau dotriña ikasten;  
tarteka berriz baserri lanak,  
sari zezenak domaten,  
behi zital haiek baino hobeto  
zekien ardiak zaintzen.

3

Amaitutzean gaurko E. G. B.  
zen antzerako karrera,  
hogei urtekin guda zela ta  
doa Marruekosera;  
bi hilabete barru Brunete  
ta Aragoiko frentera.  
hango zauriak osatutzean  
helden da Arrasatera.

4

Guda ondoren udaltzain dator  
ekipoa osatzera,  
inspektorea Migel Haundi zen  
bost gizonen agintera:  
Torre, Mietza, Arbe, Billafre,  
Arriolakin batera;  
hau probarako etorriarren  
betirako bertan gera.

5

Pelotan ere ez zigun uzten  
jolasten eliz ertzean,  
hura espriña jotzen genduna  
kalezain hau azaltzean;  
txapel gorri ta makilarekin  
marrajo baten antzean,  
ai zer nolako terremotua,  
beti zan gure atzean.

6

Hamabi urte besteik ez nitun  
liburutxo bat galtzean,  
behin gu pilotan ari ginela  
parrokiaren ertzean;  
iges ein behar izan genduen  
Arriola azaltzean,  
han utzi nuen manuskritoa  
al dago Udaletxean?

7

Zintzo ta zuzen bete ondoren  
egunez kalezain lana,  
ilunabarrez bertso idazten  
eten gabeko afana;  
bertso kronika osatutzean  
doa Basarriregana,  
honek *La Voz* ta *El Diario*-n  
argitaratzen zuana.

8

Eguneroko lanaren uzta  
bai izan dela aparta,  
nekez sortuko bertso bildumak  
hor darama bere marka;  
*Nekez bada ere* konparatzen det  
bertsoz betetako arka,  
lasto pixka bat badauka baina  
gari onik ez du falta.

9

Nahiz une batzuk teknika aldetik  
orraztu gabe dakarren,  
esaldi eta esaeretan  
dago denetan ederren;  
lastoarekin adornatzen du  
aldizka kanpo ta barren,  
baina hori da gari alea  
hobeto gordetzearren.

10

Euskera zaharrak dituen molde  
aberats ta mardulenak,  
dudarik gabe izango dira  
arka horretan daudenak;  
bertatik jaso ditzake batek  
altxorrik oparoenak,  
lasto tarteko gari onena  
aukeratzen dakienak.

11

Hamabi urte orain paseak  
dira jubilatuta zala,  
ta mende erdi gure herrian,  
hau ez da marka makala;  
Joxe Manuel ondo zaintzen dan  
gizon lasai ta zabala,  
esango nuke bi berrogeikok  
haina balio duala.

12

Lehengo batean zure aurpegira  
jaurtiaz begiratua,  
gogora-arazi zenidan gazte  
zinaden erretratua;  
aterkinak maiz konponduarren  
guri ta eder askua,  
hain lehun ta gazte kontserbatzeko  
zein da zure sekretua?

13

Bertsolarien egunerako  
aukeratu zaituztenak,  
Euskal Herriko bertso-idazle  
bederatzi hoberenak;  
Tximelak alde ein dizu baina  
egun batez ahaztu penak,  
Joxe Manuel, aupa ta jaso  
zorianik beroenak!

14

Brometan hasi zinan idazten,  
gero benetan jarraitu,  
bertso-jartzaile haundi izaten  
azkenerako amaitu;  
Donostian zu omendutzeak  
benetan poztutzen gaitu,  
jarrai idazten, *Euskera Zaharrak*  
berriz omenduko zaitu.

15

Urtarrilaren hogeitairua  
iritxi denez hurrera,  
Joxe Manuel omendutzera  
goazen Donosti aldera;  
bertsozaleok ez daigun galdu  
jai eder honen aukera,  
txartela hartzeko deitu ezazu  
azkar-azkar A. E. D.-ra.

1994-ko Urtarrilean jarriak

**Patxi Goikolea**

Egillearen paperetatik



# Joxe Manuel Arriola adiskideari, kalezaiña izanari

---

1

Mundu ontako egun guztiak  
beti dijoaz aurrera,  
ta ekainaren amabostean  
iritxi gera zurera,  
Orregatikan kantu ta bertsoz  
nator Mondragoi aldera,  
garai bateko kalezaiñari  
zorionak ematera.

2

Irurogeikin beste zortzi zuk  
juxtu dituzu urtetan,  
oker aundirik ez da izango  
*Ibai-ertz*-eren ustetan.  
Umore ona jarria zera  
berdin jai eta astetan,  
osasun onez jarraitutzea  
oputzen dizut benetan.

3

Gogoan daukat alkar-ezagun  
egin giñala Lurdesen,  
ta egun artan geren emaztek  
biok alboan giñuzen.  
Mezetan bertsok nik abestu ta  
guztiok entzun ziñuzten,  
ordun jabetu ziñaten biok  
Jexux Lete auxe nor zen.

4

Zuzenbidea artu zenidan  
gutziz txukun da dotore,  
eta korreoz laixter artu nun  
zure *Nekez bada ere*.  
Bertako bertsok badute ainbat  
trixtura eta umore,  
kasu bateri ta besteari  
emanaz naiko kolore!

5

Liburuaren ondotik ere  
or datoz zure bertsoak,  
gogo biziaz jarriak dira  
ta mota askotakoak.  
Arretarekin kantatzen ditut  
beti zuk jarritakoak,  
etorri ori gorde zaizula  
zerutik gure Jainkoak!

6

Azken bertsora iritxi naiz ta  
uztera noa lanari,  
naiz ta barruan kontatutzeko  
eduki gauza ugari.  
Aurrera ere jarraitu gogoz  
bertsoak idazteari,  
besarkada bat zuretzat eta  
goraintzik emazteari!

Jexux Lete, *Ibai-ertz*  
Itsasondo, 1984.06.15

# **Bertsoak**



# Mixio-igandeari

---

1

Urrillen ogeitabiz  
igaro genduna:  
lurreko beartsuen  
mixio eguna;  
Eleizak artarako  
eratu diguna:  
laguntza egiteko  
bakoitzak al duna,  
iritxi al dezaten  
beren zoriona.

2

Kristoren ordezkoak  
agertzen digundik,  
ainbeste ta ainbeste  
baidira oraindik,  
ez fede, ez jakintza,  
zer jan ez dutenik,  
Mundu ontan ez dute  
ezen gozamenik,  
ez-ta besterako're  
ez itxaropenik.

3

Zerbait lezatekenak  
eztago zer esan,  
zerbait sortu premian  
dagonen laguntzan.  
Baldin gure kazetan  
goratze ezpagintzan,  
garbi esan digute  
lenguan eleizan,  
miserablienak geu  
ez gaitezen izan.

4

Ainbeste premi duan  
au mundu tristia!  
Zertako da gentzaken  
laguntza guztia?  
Guk gentzazken guztiak  
ezertxo ezta,  
ola mintzatzen gera  
bat eta bestia,  
geien balio duna  
da nai izatia.

*Aranzazu, 1968.02*  
*Nekez bada ere liburua*

# Kalezaiñak

---

1

Kalezain baidamazkit  
ogeitamar urte,  
bertsuak eratzeko  
esaten didate.  
Urriak gauza asko  
erakusten dute,  
len baiño okerrago  
egin ezpanaute.

2

Aurretik izanikan  
basarritar utsa,  
orduan etzan ezer  
orko kalezaintza.  
Zortzi ordu sartzia  
etzan oso gaitza,  
orain orduan baiño  
nekezo gabiltza.

3

Badakit nola dion  
lengo esaeriak:  
arrapatuko dula  
dabillen bidiak.  
Neguak gauz onik ez,  
gutxigo udiak,  
kalezaiñaren kontra  
baidabiltza biak,

4

Orduko zeregiñak  
ezer etziraten,  
baiña laister asi ziran  
gaiztuak izaten.  
Nagusien gogorik  
ez nuan egiten,  
«Gogor egin bear da»  
esaten ziraten.

5

Esanak egin naian  
biotzez artuta,  
iñoiz agertua naiz  
erdi erotuta.  
Konfiantza osuan  
aurrera sartuta,  
gero irten eziñik  
bakarrik galduta.

6

Oraintsu arte ia  
egiten zan lana,  
animalien bitartez  
ia kasik dana.  
Tresnak zeuzkatenak  
esaten zutena:  
«Zikiña besterikan  
eztakarte ona».

7

Orain eztakarte  
usain zikiñikan,  
kendu dira astuak  
kaleetatikan.  
Baiñan eztago asko  
gauza oberikan,  
automobillak ezto  
nun kabiturikan.

8

Astuak zeregiñak  
ematen zituzten,  
baiña orain okerro  
gerade ikusten.  
Tresnak kabitu ezinda  
maiz dira ibilten,  
gero gertatzen dana  
ezta errez esaten.

9

Baldin bi badijoaz  
reglak dakitenak,  
amar baidijoazte  
ez dakitzatenak.  
Gaiñera beti azkar  
jun bear dutenak,  
errukarriak dira  
oien ondorenak.

10

Beti badira illak  
eta zaurituak,  
gero bear dituzte  
juez da medikuak.  
Bideak ireteko  
bai mekanikuak,  
eraman detzatezen  
tresna puskatuak.

11

Bitartean or dabil  
berriz oiñezkoa,  
orrentzat entzuna det  
dei bat premizkoa,  
asko ta askontzako  
bai bearrezkoa;  
eztala ta izango  
nago neu naikoa.

12

Gaitz bat oso okerra:  
ibilten jakin ez,  
baiña okerragoa  
jakiterik nai ez.  
Besteren zeregiñak  
ondo jakin berez,  
baiña nor bereenak  
erakutsita ere ez.

13

Ume baten ezbearra  
arturik bitarte,  
periodikotikan  
aritu dirate:  
*La Voz*-eko idazlea  
gure Azkarate,  
ez det uste gezurrik  
jarri dunik bate.

14

Ibilten erakutsi  
ez da orain arte,  
umeen gurasoak,  
zer iten dezute?  
Ezin erakutsi zeuek  
ez baidakizute,  
maixu eta maestrak,  
zer deizkiotzute?

*Aranzazu* illerokoa, 1968.05  
*Nekez bada ere* liburua



Ezkerretik: Jose Manuel, Boni Zubialdea, Eugenio Barrutiabengoa  
eta Federico Palencia

# San Agustiñen bizitzari

---

1

Gure gidariaren  
eguna ospatzean,  
maitetasuna gaiñez  
bero biotzean.  
Bere aunditasunaz  
noiznai oroitzean,  
jarri gaitezen danok  
umil otoitzean,  
laguntza irixteko  
gure eriotzean.

2

Idatzi santuetan  
agertutzen dana:  
Agustin etzan lendik  
santua izana.  
Aitz-zuloko piztien  
gisa bizi zana,  
zuzendari bearrik  
izan etzuana,  
orra gure santua-  
ren aunditasuna.

3

Eroskor gezurtia  
izanikan lendik,  
egi uts biurtu zan  
bataiatu zandik.  
Jaunaren aginduai  
gogoz erantzunik,  
okerbide guziak  
era bat utzirik,  
egizko bizitza artu  
gezurra ukaturik.

4

Egia zabaldutzen  
asi zan lanean,  
Fortunato utzi zun  
mutu baztarrean,  
Donato eta Manez  
zerbaiten zorrean;  
egiazko bidetik  
joan bearrean,  
Agustin, arrazoitan  
zegov indarrean.

5

Lurreko ondasunak,  
zerua bezela,  
danontzako nai luke  
izan ditezela.  
Urteetatik bera  
aberastu zala,  
ezertxo're bererik  
besterik etzala,  
testamentu bearrik  
beregana etzala.

6

Gure gidari maite  
zintzo eta zuzen,  
mesede danakgatik  
esker ona lenen.  
Zuregandikan gaude  
ikasi bearren,  
guretzat errukia  
izan zazu, arren,  
Aita San Agustiñen  
izenean amen.

Egillearen paperetatik



# Diruari

---

1

Gaia dagonez erabaki det  
bertsoetan egitea,  
gure Jainkoak eskatzen digu  
alkar maite izatea,  
Baldin dirurik baldin badago  
estalitzen bitartea,  
ziur ez nago izango danik  
agindu ori betea.

2

Jaungoikoa ta dirua ala  
dirua ta Jaungoikoa?  
Sinisten duan batentzat ezta  
galdera bearrezkoa.  
Ain ona eta alguztiduna,  
bakarra egiazkoa,  
Bera baiño len dirua ezta  
iñoiz gauza bidezkoa.

3

Baldin egitan sinisten duna  
Jaungoikoagan izanik,  
gai ontan ezta zalantzarikan  
iñork jarri dezakenik.  
Eztago itzik adierazteko  
Jaunaren aunditasunik,  
lur ontan ezta ezer berekin  
konparatu lezakenik.

4

Guztia ezta ondo esana  
len esandako itzean,  
lur ontan ere itzezin leike  
Jesus beraren antzean.  
Ordu guztitan ari zaizkigun  
bere ordezkoen klasean,  
eztago beste zer konparatu  
gizona izan ezean.

5

–Jaungoikoa ainbat aitatutzeko  
aizu, dirua, nor zera?  
–Ni oso ona, nitzaz egintza  
zuzen asko egin dira.  
Jartzen bazera or ainbat eta  
ainbat gauzari begira,  
makiñatxo bat egintza santu  
nitzaz egiñak badira.

6

–Egintza onak badituala  
aguro du aitortua,  
baiña oraindik ez baidu eman  
egintza txarren kontua.  
Alper-alperrik zabiltz, dirua,  
zu ez baizera santua,  
zu nun zabiltzan an izaten da  
gezurra ta pekatua.

7

Besteak beste oso gutxitan  
ibiltzen zera neurrian:  
batzutan urri eta bestetan  
gaiñezka lotsagarrian.  
Egintzarikan zuzenenetan  
naiz guztia bearrian,  
edonon eta edonoiz zabiltz  
pekatuaren aurrian.

8

Arpegi txarrak zuri ez dizu  
iñoiz jarriko iñork e,  
irripar geio izango ziñun  
portatuko baziñake.  
Entzun bearra izango dezu  
sarri desaida batzuk e,  
zu ezpaziña alkar maiteo  
askoz izango giñake.

*Aranzazu, 1968.10*  
*Nekez bada ere liburua*

# Berrogei ta amar urte Gipuzkoako Zaindari

---

1

Arantzazuko Ama Birjiña  
lore guztien loria,  
bertso batzuek eskeintzea da  
nere biotzaren naia.  
Berrogei ta amar urtean zera  
Gipuzkoan Zaindaria,  
ori da Zuri eskeintzen nagon  
nere bertso auen gaia.

2

Zuk zaindaritza dezun lurrean  
bertsolariak dituzte,  
bertso geiago eskeintzea're  
ezta arritzeko bate.  
Len ere Zuri iñoiz bertsuak  
eskeiñi izan dizkizute,  
baiña etzazu eskeiñi izan  
merezi dezun ainbeste.

3

Aitzarte ortan agertu ziñan  
ori pitxi dotoria,  
ikusita Zuk gure lurrean  
arkitutzen zan premia.  
Egin zenduan Euskal Erriak  
bear zuan miraria,  
legorte baten kiskaltzen zegon  
ta egin zenion euria.

4

Zenbat olako mirari eder  
Euskal Errian egiña,  
ni ezin asi danak esaten  
nola naizen ezjakiña.  
Fede sendoa dagon tokian  
gozoa eta biguiña,  
ezbearra dan lekuan beti  
laguntzaille atsegiña.

5

Zaindari ona eduki arren,  
gure Euskal Erri zaarra,  
noiznai ta nunai agertutzen da  
gorrotoaren indarra.  
Erri askotan iskanbilla ta  
pamilietan negarra,  
gure lurrean gaur ere bada  
mirariaren bearra.

6

Ama on-ona, ongilleak e  
beti zaizkitzu iritxi,  
baiña ez dira gaizki naikoak,  
izan dituzunak gutxi.  
Alde batetik etsi baiño len,  
beste aldetik erauntsi,  
Zu egi utsa izan bai eta  
ezin iñolaz irentsi.

7

Gure Zaindari zeranetikan  
joanak dira urteak,  
izendatua zeranetikan  
berrogei ta amar beteak.  
Ori dala-ta Gipuzkoako  
seme-alaba maiteak  
oroitzen zatzuz Zeuri eskeiñiz  
zure urrezko eztaiak.

8

Seme alabak, zure urrezko  
eztaiak gorde nairikan,  
Zeorrengana biltzen zaizkitzu  
Euskal Erri guztitikan.  
Etorri gabe ezin gelditu  
eziñik izan ezikan,  
Ama zintzoa, esker beroak  
mesede danakgatikan.

9

Beldurgarria oi da benetan  
geron eroskortasuna,  
Ama Birjiña eske daukagun  
orduan apaltasuna.  
Mesede bear geran garaian  
oraindik arrotasuna.  
Era berean bidezko al du  
nai dunak laguntasuna?

10

Ama on orrek ikusi gero  
erreguz natorkizuna,  
umilki bete bear genduke  
nork bere eginkizuna.  
Baiña ezagutzen dezu Zuk ongi  
gizonen argaltasuna.  
Eskatzen dizut: eman zaiguzu  
pakea ta osasuna.

11

Kristaua danik ez bedi izan  
erosgogor zearoa.  
Bizitza ontan bearrezkoa  
zaigu laguntza beroa.  
Ez uste gero naikoa danik  
arrokeri ta dirua,  
au bukatzean onen urrengo  
bear giñuken zerua.

12

Ainbat alditan ari zaizkigu  
beti gure on bearrez,  
baiña entzungor egin bai eta  
guk alboan utzi errez.  
Ez gaitezela gero jokatu  
bizitza ontan aldrebes,  
ez baidegu nai emen negarrez  
eta bestean negarrez.

*Aranzazu, 1968.12*  
*Nekez bada ere liburua*

# Ibarretako Olaetan ilketa

---

1

Milla lareun irurogei ta  
au zan laugarren urtean.  
Ganboitarren ta Oñaztarren  
gudatearen ostean,  
gertatu zana Mondragoetik  
Garagartza bitartean,  
alakorikan iñork gutxien  
pentsatzen zuan batean.

**Oiñetako lur au yabiltz ikara.  
lau aragiok berean bezela...  
Martin Bañez Ibarretan il dala...  
Artuko dot esku batean gezia,  
bestean zuzi irazekia,  
erreko dot Aramaio guzia.**

2

Martin Bañez Artazubiaga  
ta Ion Bañez Barrutia,  
Ganboitarren buru ziran bi  
gizon batera iltia.  
Gaizkille batzuk orrela zuten  
beren gogoia betia,  
toki berea utzirik zuten  
ondo odolez bustia.

4

Au gertatu zan Mondragoeko  
Ibarretako Olaetan.  
Ez dago bertso zarragorikan  
idatziak daudenetan.  
Andra alargunak bere aotik  
bota zuana an bertan,  
bertso ederra, ederrik bada,  
ederra bene-benetan.

3

Odol beroa Martin Bañez-en  
andre alargunen zaiñetan,  
bere izenak osatzen dira:  
Santxa Otxoa Ozaetan.  
Jarri zanean bere senarra  
gorputz zegonen oiñetan,  
ikus zazute juramentua  
egin zuana bertsoan.

5

Gauza oneri begiratu ta  
artzen dioten tankeran,  
ezin ausnartuz badarabilkit  
nere burua bete lan.  
Emakumezko bertsolaririk  
ez ikustean aukeran,  
ez diralako edo bestela  
zergaitiokan ote dan?

6

Emakumea seguru ere  
zokoraturik egon da,  
leno eztako toki askotan  
orain agertzen ari da.  
Gizona baiño gutxio iñoiz  
ez ditekela izan da,  
bertsotan ere agertu bitez  
baldin orregatik bada.

7

Ez bedi iñor au dala eta  
minberatu ditekenik,  
Santxa Otxoa ispillu dala  
andrak autatzen ditut nik.  
Ez dedin gerta agertu ezinda  
iñor zokoan dagonik,  
ez baidakit neuk aukerarikan  
artarako eman danik.

8

Moda berritan ez bagabiltza  
ezin baigera bizi're,  
baiña lekua eman bearra  
baidago nolanaite're.  
Txapelketa asko eratutzea  
oso bidezko litzaie,  
bat baiño geio sortu litezke  
biderik jartzen bazaie.

**Idatziak daudenetan  
bertsorik zaarrena,  
emakumezko batena,  
Mondragoekoa ain zuzen.**

*Zeruko Argia, 1969.06.22  
Nekez bada ere liburua*

# Ama!

---

1

Idazki apal eta txikitik  
jasotzen det gaur argia,  
gure lur ontan egirik bada  
auxe benetan egia:  
ama on baten izena dala  
aundienetan aundia...  
Ontantxe, bada, bertso batzuek  
kantari nauzu abia.

2

Jaunak guztiok bere altzoan  
artzea opa dezala,  
gure begien ikuskizuna  
zuzen-zuzena ez dala.  
Deportista bat lepoan artu  
ta txalotzen gabiltzala,  
ama on-on bat albotik pasa  
ta pasa ez balitz bezala.

3

Era orretan arkitzen gera  
erantzuten ikasita;  
bigarren dagon platera artzen  
lenbizikoa utzita.  
Lenena baiño ohea dala  
bigarrena iritzita,  
arlotekeriz jokutzen gera  
maiz etxetikan asita.

4

Gure biotza noiznai aizeak  
noranaitara darama,  
ama on ori aintzat artzea  
lendabiziko lana da.  
Baiña gurekin zoritxarrean  
sarri gertatzen dana da,  
aintzat artzea zor zaionean,  
bartzarreratu al bada.

5

Alde ortatik badatorkigu  
Jaunak daki zenbat kalte,  
era ortako jokabideak  
gauza onik ez dakarte.  
Eraunsi gogor asko alkarri,  
ainbeste odol-ixurtze,  
semeak gera erosgororak,  
amak erruz gaitu maite,

6

Guztiak gera ama beraren  
sabeletikan sortuak,  
argia ikusten degunetikan  
jantzi epelez batuak.  
Ainbat alditan bularra artu,  
zenbat aldiz garbituak!  
Aurtxo gerala era orretan  
oi gerade gozatuak.

7

Ama ari da itxaropenez  
aur izatea uzteko,  
poz askorekin gizon jator bat  
egiñikan ikusteko.  
Berarentzako laguntasuna  
badula biar-etziko,  
ta bearbada zokoratuta  
esker txarrez ordaintzeko.

8

Ama on ori bizi balitz e  
eztakit zenbat urtean,  
semeagatik saiatuko da  
arnasik dun bitartean.  
Semea berriz ibilliko da  
nunbaiten or enbatean,  
amagatikan saiatu gabe  
al lezakean artean.

9

Berdiña ez da seme-alaba  
guzti-guztien konduta,  
bakoitzak bere biotz bat danok  
izan ere badegu-ta.  
Geientxuenak orrela gera  
porzientu bat kenduta,  
amarretikan zazpi beintzat bai,  
ori gutxiñera jota.

10

Ama-piñezik etzaio sartzen  
semeari barrenean,  
eroriko da kontuan bere  
txandia datorrenean,  
ama pasa dan lekutik iñoiz  
bera pasatzen danean;  
Jaungoiko onak barka deiola  
gero dena azkenean.

*Goiz-Argi, 1969.08*  
*Nekez bada ere liburua*



# Pamili Santuaren eguna dala-ta

---

1

Ilbeltzak gaur amabi  
degu igandea,  
Pamili Santuaren  
eguna da bera.  
Santutasun bideak  
beti zaillak dira,  
baiña jarri ezkerro  
noranai begira,  
gaur zaillagoa dala  
gôratuko gera.

2

Lenago're guztiak  
berdiñak etzian,  
baiña aldatu gera  
nere iritzian.  
Lenagoko kontuak  
gugandik jun zian,  
eztago ibilteko  
gaur iñor utsian,  
lenagoko modura,  
bizitza latzian.

3

Aberatsakgatikan  
naiz sarritan esan  
oien dirutzak zabal  
bear gendukezan,  
aundizaletasuna  
gureganatu zan;  
nunbait mundu onetan  
ederrago baizan  
txiki ta umil iñork  
eztegu nai izan.

4

Doai batzuk ditugu  
gugan ditugunak,  
utsaren alde izan  
ase lezazkenak.  
Ondo jan, ondo jantzi,  
dibertsio onak,  
beste ainbeste griña  
itotzen gaitunak,  
danera irixteak  
ditu emen lanak.

5

Itxuran bizi naia  
bidezkoa baitu,  
baiña geiegikeiak  
ondatutzen gaitu.  
Nork bere akatsikan  
ez nai ezagutu,  
errurik gabekoak  
aurrean nai artu,  
eskubiderik iñork  
ortarako eztu.

6

Ikasketakin degu  
zer egin izaten,  
alde batera ezin  
utzi une baten.  
Beti ari zaizkigu  
ondo erakusten,  
frutu ederrik asko  
baidigu ematen,  
baiña ondo bizitzen  
eztegu ikasten.

7

Ikasten ari gera  
bizitza guzian,  
teknikan ondo goaz  
ala zientzian.  
Aurrera junak gera  
ain bide luzian,  
baiña ondo bizitzen  
ikasi ezian,  
zeozer utzi degu  
oraindik atzian.

8

Emengo aundi-naia,  
emengo burruka,  
santutasun bideak  
gaitz ori eztauka.  
Egien zale danak  
ezin leike uka,  
pobrientzat biotzik  
askok bai al dauka?  
Geien dakiñak berak  
zer ikasi dauka.

*Goiz-Argi, 1971.01*

# Kantuan otoitz

---

1

Arantzazuko gure  
Amatxo Birjiña,  
lurreko ta zeruko  
Ama Erregiña,  
Euskalerrri osoan  
zera atsegiña,  
kantuan nai nizuke  
gaur otoitz egiña,  
bertsotan alegia  
nere alegiña.

2

Bosteun urte badira  
geroztik junikan,  
Rodrigori agertu  
ziñadenetikan.  
Gu Zurekin oroitu  
izan ez gaitikan,  
zenbat on ez al dezu  
egin geroztikan,  
Arantzazuko mendi  
gain orretatikan?

3

Artu ezazu, Ama,  
gure esker ona,  
Euskalerrri osoak  
zuri zor dizuna.  
Pakea eskatzen dizu  
eta osasuna,  
azken orduan egin  
Zuk laguntasuna,  
eman beti-betiko  
zoriontasuna.

4

Gure azken ordua  
noiznai da elduko,  
geron kasa ez gera  
gu zeruratuko.  
Zu jarri zaitez, Ama,  
arren, bitarteko,  
zure laguntzarekin  
gera gertatuko,  
orrela Aitak pozik  
baigaitu artuko.

5

Ez degu gure gaitza  
atzo goizekoa,  
zer egiñak ugari  
maiz emandakoa.  
Beti gurekin al da  
jarraitutzekoa?  
Zoritxarrez ezta ba  
zale izatekoa,  
obeak izatea  
degu premizkoa.

5

Ama, entzun zaidazu  
kantuan deitzean,  
lagundu altxatutzen  
iñoiz erortzean,  
ezagututzen Jesus  
bere gurutzean.  
Jarri zure eskua  
gure biotzean,  
bakarrikan ez utzi  
gure eriotzean.

7

Zeru-bidea noiznai  
izanik nekia,  
Aman laguntza zaigu  
oso egokia;  
eziñez gaudenean  
ez alde txikia,  
maitasunez biotza  
beti irekia,  
azkenikan ez duan  
Aman errukia.

8

Bosteun urte onetan,  
gure Arantzazu,  
Euskalerra osoa  
bedeinkatu dezu.  
Ama, esker beroak  
eman nai nizkizu,  
eskabideak ere  
egiten zaizkitzu,  
beti-beti-betiko  
bedeinka gaitzazu.

9

Ezjakiñak ez gaude  
gure iritzira,  
zenbaiti itzegiten  
kontuak atera.  
Baiña Jesus berari  
in giñon antzera,  
gurutzean jositzen  
aritutzen gera,  
jakinduri danakin  
lengoa ber-bera.

10

Ezjakiñik ez baño  
denok nai erosu,  
gauza gutxi gerala,  
Ama, badakizu.  
Zure Seme Jesusi  
erregu zaiozu,  
gure aultasunean  
indartu gaitzazu,  
ezjakiñari berriz  
barkatu zaiezu.

Egillearen paperetatik.

# Frantziskotarrak

---

1

Frantziskotar, zueri  
berriz nai ikutu,  
irakurri detanaz  
ez nago kontentu;  
lanak len kalezaintzak  
emanak baditu,  
lansaritzearekin  
ez dira bukatu.

2

Bertsolariarentzat  
baidator arira,  
baiña ez nuke gero  
jun nai aurregira;  
berri emalleari  
jasoak baidira,  
errua arena da  
gezurrak balira.

3

Idatzi duanetik  
gure Txema jaunak,  
esanaz Arantzazun  
dirala izanak,  
frailleak daudela an  
nekazari onak;  
alde orretatikan  
nere zorionak.

4

Ogeta bat kilotik  
gora zitun aza,  
orriak kendu gabe  
beintzat zala pasa;  
aski esaten digu  
etzala eskasa,  
ainbeste agertzea  
eztala jolasa.

5

Bertsotarako zerbait  
geiago izan da:  
Arrasatetik zuten  
landara eramanda;  
San Roke egunean  
beraz lurra emanda,  
ezta ola izango  
igandea zan da.

6

Olakoxe berriak  
ditugunez agitz,  
geientxoena ia  
lelotuak gabiltz;  
gero eta geiago  
ori ola balitz,  
baldin fraileak berak  
orrela badabiltz.

Egillearen paperetatik

# Uribarri auzoa

---

1

Gaur Arrasate ikusten degu  
nik al dakit zer egiñik,  
esan lezake bai ote duan  
beste bat bere berdiñik.  
Baiña Uribarrin bizi geranok  
degun moduko erregiñik,  
Itxaropenen Ama degula  
egon gaitezen jakiñik.

2

Amatxo onen kondairarikan  
nik ez det ikasi baiña,  
nere fedea esaten baitit  
izango dala bikaiña.  
Zaarrenetan zaarrena dala  
nik orrela det jakiña.  
seme-alabok bera maitatzen  
egin daigun alegiña.

3

Zorion orrek ematen digu  
nik al dakit zenbat kezka,  
alde batetik edo bestetik  
beti arduetan gauzka.  
Itxaropendun Amari gaude  
lagun dakigula oska,  
aldamenean iru izar eder  
berri-berri sortu zaizka.

4

Esan dezagun nola diraden  
izar dena-delakoak,  
irutatik bi dirade emen  
lurreko bizi-lekuak.  
Irugarrena osatutzen du  
jaun Don Ibon parrokuak,  
emango'izkunak bizi-tokiak  
beti-beti-betikoak.

5

Lendik onara seme-alabak  
baitzaizka ubariturik,  
era berean baiditu ainbat  
umetxo ta aingerurik.  
Baiña ezpadegu maite izaten  
egietazko pakerik,  
aundinai utsez eztegu ingo  
Ama Birjiñen gogorik.

6

Millaka gera gaur biztanleak  
Uribarri delakuan,  
baserriren bat edo beste len  
besterik etzan lekuan.  
Sinisten ere oso erreza  
eztan gisa modukuan,  
ikusten degu aldatu dala  
prixaka egundokuan.

7

Ezin ukatu aldatu dala  
Uribarriko bizitza,  
baiña len ere baratza zan da  
berriro ere baratza.  
Len sortzen ziran aza ta porro,  
kipula ta berakatza,  
eta gaur berriz gizon jakintsu  
asko sortutzen dabilta.

8

Bizitzan jator erantzuteko  
jakintza premizko zaigu,  
zoritxarrean geiegietan  
bestera usatzen degu.  
Zuaitz arbolen gisa gizonak  
ondorengoa sortzen du,  
mentu onakin txertatu bear da  
prutu onik emango badu.

*Zeruko Argia, 1970.06.21*  
*Nekez bada ere liburua*



Mondragoiko dragoia, Santa Barbara parkean.

# Gaurko Arrasateri

---

1  
Lenago iñoiz bezelaxe ni  
berriro ere kantura,  
gai bat arturik ez jutekoa  
Mondragoetik kanpora.  
Dagon ezkeru zeri jarduna  
gerturik eta gertura,  
bertso batzuek nai nuzke egin  
Arrasateren kontura,

2  
Mondragon dago zeri jarduna  
eta gaiñera onetik,  
onekin ez det adierazten  
eztagonikan danetik.  
Jaunari esker aberats gera  
ongi-egilleetatik,  
egintzak eurak ageri dira  
esaten nere aurretik.

3  
Arrasateren aunditasuna  
beti izan da lanetik,  
goian epiniz norbere saila  
bakoitzak bere aldetik,  
Ikustekoa gure arreta  
edonoiz eta nunaitik,  
nabarmentzea edozein gaitan  
beste guztien gaiñetik.

4  
Nabarmenetan nabarmenenak  
dira gure ikasketak,  
gure lantegi aurreratuak  
ta beren eletronikak.  
Esan bearrik gabe ain onak  
diraden gure musikak,  
beren tokia bear dutenak  
berriz gure deportistak.

5  
Ageri edo irakurgaiak  
diotenetik, ain zuzen,  
mondragoitarrak lenago ere  
langille onak genduzen.  
Orain dirala gizaldi asko  
or bertan Ferrerías-en,  
beren galtzairu berdingabeak  
denok ondrazten ginduzen.

6  
Arturikan ain doai bikaiñak  
gure aurrekoetatik,  
zaindu bakarrik ez baidegu zor  
sendotu geiago baizik.  
Nere iritziz ardura gabe  
ez gaude alde ortatik;  
beste ainbeste esan al geinke  
gure maitasunagatik?



7

Maitasuna ta egia daude  
bi itz gozotan esanak,  
eta pakea irugarrena  
alkarrekin dabiltzanak.  
Askotxok ditu mingaiñez beintzat  
iruron zaletasunak;  
nundikan nora dabiltzan ezin  
aurkitu ditu gizonak.

8

Gure Arrasatek izanagatik  
ondasunetik ugari,  
alde guztitik ondo jantzita  
gaudenikan eztiduri.  
Atsegiñikan ezin emanik  
egarri premizkonari,  
maitasun gabe txikia ez al da  
gure aunditasun ori?

9

Gure artean arrika iñoiz  
batzuk ondasun ederrik,  
maitasunikan baldin badute  
diruarentzat bakarrik.  
Erak ez dute bizitzan beste  
aberastasun bearrik.  
Al genezake iritxi olan  
bein aunditasun jatorrik?

10

Guztiz altsuak ala nai eta  
gure alde egin ezik,  
gerekasa guk iñoiz eztegu  
alkarrentzako biotzik.  
Al lezateke arkitu batek  
zorionik eta pozik,  
besterik gabe lan soilletikan  
ezpadu beste laguntzik?

11

Biotzik gabe lan utsarekin  
ez leike bizi gizonik.  
Dirua eztala zorion utsa  
sarritan gaude entzunik.  
Erdizka ezin euki gentzake  
Arrasateren izenik.  
Guztiz jatorra ez al gentzake  
kristau argiak izanik?

*Zeruko Argia, 1971.06.20  
Nekez bada ere liburua*

# Gure gazteak euskerarik ez dute aberastuko

---

1

Ala bearrez gure  
lurrean ainbeste  
euskaldunengandikan  
sortutako gazte.  
Ez dakit eurak ala  
dutenikan uste,  
baiña izkuntzarekin  
zorrak badituzte.

2

Eurari lotsagarri  
egiten zaiete,  
euren izkuntzarik ez  
jakitea bate.  
Baiña jakin ezker  
zerbait nolabaite,  
euskera sendotzeko  
kezkarik ez dute.

3

Gazteak edonun da  
edonoiz alkarte,  
erdera barra-barra  
erabiltzen dute.  
Amak esan: Euskeraz  
itzegin zazute.  
Aguro erantzuna:  
Zu, ixildu zaite.

4

Orrela ari gera  
ez dakit noiz arte,  
gero bete bearrak  
nola ondo bete?  
Etzan, ez, gertatuko  
beste onenbeste,  
izanikan euskera  
bear ainbat maite.

5

Erbestekoak izan  
oi duten antzera,  
kapritxotzat bakarrik  
arturik euskera,  
irixten ez bada ere  
zearo galtzera,  
aurrera bearrean  
jungo da atzera.

6

Gaitz txarrak zapaltzeak  
ez genezke poztu,  
euskera gaixotua  
onla ezin piztu.  
Il zorian ez badago  
ere dabil estu,  
baiña txikia dala  
beste errurik ez du.

7

Zorionez Jainkoak  
emana guretzat,  
euskaldunok euskera  
danok degu ontzat.  
Txikia dala eta  
ez artutzen aintzat,  
Ez daigun iltzen utzi  
orregatik beintzat.

8

Maitasun guztiakin  
egiñik alegin,  
ez gaitezen jokatu  
iñoiz erdi arin.  
Baldin al balitzake  
aundiago egin,  
jarritako mugarik  
iñun ez du berdin.

9

Gai onetzaz mintzatzen  
ni ez naiz lenena,  
ta nekez izango naiz  
gaiñera azkena.  
Onenera jota ere  
esango dutena:  
Gixaju lelu orrek  
esaik nai dekena.

10

Ezer ere ez dago  
kostatzen ez danik,  
gai onetan ez degu  
euskaldunak lanik.  
Jainkoak guretzako  
diguna emanik,  
nola ez pozik gorde  
polita izanik?

1971-ko iraillan  
*Aranzazu*, 1971.09  
*Nekez bada ere* liburua

# Udalaitzko gurutze jartzeari

---

1  
Txalogarrizko egintza  
Mondragoiko errian  
gaurko semeak egin  
lengoen aurrian:  
beti agertzen zana  
egin bearrrian,  
Udalaitz traketsean,  
etxeko lurrian,  
bi gurutze zutitu  
gaillur-gaillurrian.

2  
Jakiñik orain arte  
bete etzuala,  
guztion iritzia  
premizko zuala,  
Euskal Erriko gaillur  
askotan bezela,  
Udalaitzek gurutza  
iritxi zezala,  
orra or baten orde  
bieren itzala.

3  
Udalaitz gertutikan  
ezagutzen dunak,  
badaki ez dirala  
txantxetako lanak:  
gurutzeak dituzte  
eskuz eramanak,  
beste bear zituzten  
material danak,  
badira izerdia  
atera dutenak.

4  
Ainbesteko astuna  
izanik gurutza,  
eramateko berriz  
gutziz bide latza;  
ainbeste arkaitz eta  
ainbeste arantza,  
nolabaite igoak  
dituzte goruntza,  
gaillurrean diote  
eman erregetza.

5  
Ain egintza jatorra  
ta ustez betiko,  
lotsarik ez duana  
bate errirako,  
etzaio, ez, iñori  
iñoiz damutuko.  
Naiz aitz kalderra izan  
baidegu etxeko,  
pitxi oberikan zer  
zitzaion jarriko?

6  
Artzaintzat ez ditu  
ain toki nobleak,  
naiz eta baditu're  
batzuek obeak.  
Ardientzat ez dira  
arrixku gabeak,  
ala ere baditu  
beraren zaleak,  
zatarra izan arren  
bere maitaleak.

7

Arrasateri goitik  
begiraten dio,  
frutu umillik ere  
eman izan dio.  
Arte egurrak ez du  
gaur asko balio,  
baiña alare badu  
beste zerbait geio;  
degun urik onena  
berari zor zaio.

8

Orain artean izan  
dituan bezela,  
maitaleak berriz e  
izan ditezela,  
gurutzeak jabetza  
izan dezatela.  
Orain egin dan lana  
jolasa ez dala,  
frutu urriak eman  
lezazke bestela.

1971-ko azaroak 7  
*Nekez bada ere* liburua



Udalaitz mendia Arrasatetik.

# Karta bertsoan

## Donibane Lohitzunen bizi dan lengusu

### Jose Altzibar Sorazuri

---

1

Donibaneko bertso batzuek  
oraiñago naiz jasua,  
an bizi baida nun zan ez nekin  
Joxe nere lengusua.  
Ezagututzen dezu beraz zuk  
nola zeran aldresua;  
nolanai ere eldu zaitena  
neri zait berri gozua.

2

Bizi zerala argitasuna  
eman dirazu, Altzibar;  
besterik gabe esker beroak  
nizkitzuke eman biar.  
Beraz zabilta, zuk diozunez,  
Frantzi aldetikan ziar;  
nere buruan pasea zaitut  
nik al dakit zenbat bidar.

3

Ni ziur nago zure kazetan  
zerala konturatuko,  
baiña nik aitzen emateakin  
etzera trastornatuko.  
Ainbeste aldiz ni gôratzean  
odola dala tarteko,  
pentsatu zazu ama gaixoa  
zenbat etzan gozatuko.

4

Jartzen dirazu alde ortara  
ea noiz etortzen naizen;  
egia esan, zu or zaudela  
izango nuke errezen.  
Ala bearrez, oraindiokan  
asko ezala ain zuzen,  
nere andrea udaberrian  
or izana da Lurdesen.

5

Bertsolai ontzat banaukazu ni,  
etzabiltz oso urrian,  
izan nezaken abildadetik  
banu goguen neurrian.  
Osaba ainbat izateko ni  
nago askon bearrian,  
Zubeltzurekin ni konparatzen  
etzabiltz toki txarrian.

6

Bakoitza geuri eroriakin  
konpromatzea zaigu gaitz;  
besterena dan zeozerekin  
noiznai ametsetan gabiltz;  
alare zerbait zeozer ori  
erosi leikena balitz,  
naiago nuke osabak zuan  
etorriren jabe banitz.

7

Bertso soilletan ezta erreza  
nai guztia esatia,  
baiña badaukat seme-alabak  
badituzuten ustia,  
eta gaiñera bata batzuek  
oso umeak eztia;  
nola arkitzen zerate, Joxe,  
zu ta zure emaztia?

9

Era onetan alkarren berri  
ematen gera ekiñak;  
besterik gabe alaitutzen nau  
bizi zerala jakiñak.  
Azkeneko aldiz ez dedin izan  
ingo ditut alegiñak;  
eskerrik asko, beste bat arte,  
danontzako eskumiñak.

*Joxe Manuelek*

8

Gu Mondragoen bizi gerade,  
lenagotik dakizunez;  
Jaunari esker arkitzen gera  
pamilia osasunez.  
Bi alaba ta beste bi seme  
ia danak sasoi onez;  
ikusten dezu zartzara goaz  
alaxe dagokigunez.

Egillearen paperetatik

# Iritzia

---

1

Neskatxa talde baten  
idea azkarra,  
antzerki bat egitea  
izan da bakarra.  
Baldin izan balute  
naigabe gogorra,  
modari jarraitzea  
ezta derrigorra.

2

Maxiatziak ere  
gaiñerako parrak,  
ez ditu ikarutzen  
modan dabiltzanak.  
Berekin baidituzte  
beren gozamenak,  
ipui batzuek dira  
gaiñerako danak.

3

Izakera ta modak  
arturik aitzaki,  
garesti kosta eta  
jantzita itxuski.  
Beti karnabal balitz  
letozke egoki,  
moda sortutzailleak  
ez dabilta gaizki.

4

Batzuek izan arren  
milla komenentzi,  
modari eztiote  
ainbat inportantzi.  
Ondo ez jazteari  
ez ondo iritzi,  
neurrizko arropakin  
jator da ondo jantzi.

5

Maxiatzailleak e  
bizkorrak baigera,  
gauza bat agertu da,  
bestea aurrera.  
Begirik itxi gabe  
dagonean era,  
argazki gogozkoak  
ikusten badira.

6

Neskatxa nabarmenak  
batzuek badira,  
baiña zer ikusiko  
gu ortxe begira.  
Askotan naiagoan  
geiago balira,  
gaitza sendatzeko gai  
egokiak dira.

1972-ko otsaila  
*La Voz de España*, 1972.03.05  
*Nekez bada ere* liburua



# Urte berria

---

1

Milla beratzireun irurogeita  
au da amabigarrena,  
orain arteko guztien gisa  
zerbatekin datorrena.  
Ez baidakigu zer izango dan  
berarekin dakarrena,  
osasuna ta pakea beintzat  
eman deizkula aurrena.

2

Orrez gaiñera egin lekio  
al dakit zenbat eskari,  
erreza ezta izango baiña  
gu konpromatutze ori.  
Ondasunetik baldin ezpada  
aberatsegi etorri,  
goserik eta miseririkan  
ez dakigula ekarri.

3

Ainbat zorion eskeinka gera  
aitu lengo egunetan,  
giro otxana sortu naiean  
Gabon, Urte Berrietan.  
Gabonak beti bear genduzke  
maite izanik benetan,  
urtea askoz xamurragoa  
denontzat era orretan.

4

Zorionezko bideetatik  
aparte gabiltz asmotan,  
alkar osatzen nekatu gabe  
degunarekin eskutan.  
Gure biotzen argaltasuna  
nun ikus lezaken bertan,  
zorion asko bai opa baiña  
besteak ematekotan.

5

Aundinai eta arrokeriak  
ez gaitu ondatzen gutxi;  
lagun urkoa oinperatu nai  
edo bestela irentsi.  
Kutsu zikiña garbitzeko lain  
argi al balitz iritxi,  
gaitz triste oni ezetz esan da  
lenbailen atea itxi.

6

Urte on eta zorionsua,  
egarri orrekin gaude;  
ez deigun aztu, al izateak  
guregan ere badaude.  
Gu ezpagera maitasunezko  
borondate orren jabe,  
zer nai degu guk gure aldetik  
zerbait alegindu gabe?

7

Guk izan arren zorionentzat  
etengabeko ametsak,  
nola iritxi leiken ez gera  
konturatutzen errezak.  
Guk ala naita alkarrentzako  
baigera ain aldrebesak,  
ondo ordaintzen ari gerade  
kontzientziarik ezak.

8

Premizkoena arkitzen gera  
ezagutu bearrian,  
abere gisa ez ibilteko  
itxura lotsagarrian.  
Artu emanak zuzenak gaude  
erabilteko zorrian  
edozein gaitan erantzutea  
kontzientzizko neurrian.

9

Gure atean arronkari ta  
ezin aseak ugari.  
uko egiñez ainbat alditan  
Jainkoaren legeari.  
Elkarri ainbat eragozpen da  
ainbat bidegabekeri,  
zoritxarrean ez ote gera  
ezbearrean erori?

10

Bidegabeak eskabideak,  
bidegabeak eskeintzak;  
askozaz ere okerragoa  
bidegabeak ordaintzak  
izaten ditu kontzientzirik  
beregain ez dun biotzak.  
Orra sustrai bat sortzen dituna  
gure artean ekaitzak.

1972-ko ekainak 25  
*Nekez bada ere* liburua

# Joxe Arriaran Aranburu, Arriaran II-ari

---

1

Milla beratzireun irurogeita  
aurten gaude amabian,  
omenaldi bat izendatu da  
irailen oita amarrian,  
gure Arriaran bigarrenari  
al lezakean neurrian.  
Bazkunak dira antolatzaile  
biotzez bere errian.

2

Gure Arriaran, umetandikan  
pelotan ziñaden asi,  
pelotan eta gizon izaten  
gazterik zendun ikasi.  
Zure garaia eldu zanean  
azaldu ziñan nagusi,  
jokoak eta askon biotzak  
danak ziñun irabazi.

3

Ainbat urtetan zuk izan dezu  
zure ametsa pelota,  
kemen batzuek gutxitu zaitzuz  
betikorikan ez da ta.  
Baiña garaian ainbat probetxo  
gizatasunez kenduta,  
zoriontsuak zu ta zureak,  
ori or gelditzen da ta.

4

Bere naigabe otxana berak  
onela digu agertzen:  
bera pelotan asi zanean  
frontoi aukerarik etzen;  
andik onara erria asko  
juan bada're azitzen,  
frontoi kontutik orduko gisa  
gaur ere dala aurkitzen.

5

Gaur bide batez ala bearrez  
pelotarien utsuna,  
bietatikan zein arrazoi dan  
ezin ulertu deguna:  
frontoirik eza edo gaztien  
pelota zaletasuna.  
Frontoi aukerik eza ez leike  
izan alderdi bat ona.

6

Ar zazu, Joxe maitagarria,  
eskeintzen zatzu zeuretzat,  
bertso auetxek egitea gaur  
zein atsegiña izan zat.  
Gutxi eztala ezer biltzea  
jokotik norberarentzat,  
zuk bildu dezu ainbat goramen  
zure erri maitiantzat.

1972-ko irailak 30  
*Nekez bada ere* liburua

# Bizitza luzatzen

---

1

Milla beratzi-reundik,  
irakurri degu,  
gizona bizi dala  
doblea inguru.  
Bizia luzatzea  
bearrezkoa du,  
proetxurikan eman  
bear baldin badu.

2

Milla beratzi-reundik  
gure egunetara  
proetxua ematen  
asten da atzera.  
Naiz izan ikasia  
kontuak atera  
ezin lezakela eman  
guztia batera.

3

Zituanetikan len  
amalau bat urte,  
asitzen zan egiten  
beretzako beste.  
Kinto urtietara  
iristen zan arte,  
etxerikan etzuan  
nekatutzen bate.

4

Gerturatzen zanean  
aren soldadutza,  
etxean sortutzen zan  
ain problema latza.  
Izanik ain sendoa  
semien laguntza,  
zeiñek bete bear zun  
mutil aren utsa?

5

Gaur ez degu utsik  
bete bearrikan,  
len ari geran eran  
segi bakarrikan,  
Karpeta besapean  
bera arturikan,  
semea eskola-ume  
dabil oraindikan.

6

Aita-amak izanik  
ainbat borondate,  
semien laguntzarik  
oraindik eztute.  
Alegiñak egiten  
ari bear dute,  
okerragoa ezin  
galdetu noiz arte.

7

Semeak berarekin  
bere iritziak,  
aita ta ama ez ditu  
aaztuta utziak.  
Ikasteko or ditu  
nunbaiten etxiak,  
baiña erdi denporan  
geienak itxiak.

8

Gero denpora junda  
ain kontu zorrotzak,  
ikaslien kartillak  
geldituak utsak.  
Gogoan ditu egin  
dituan laguntzak,  
alare etxetikan  
ditu esperantzak.

9

Norbaitek bearbada  
deardu esaten,  
ikasia norberetzat  
ez al dan izaten.  
Gurasoak txanponik  
ezpadu ikusten,  
bere artean ondo  
ez dala egoten.

10

Gurasoak orrela  
gauzak ikustean,  
esan izan deguna  
elkarren artean:  
Lagunduko diogu  
al dan bitartean,  
zerbait izango al da  
egunen batean!

1972-ko irailla  
*Aranzazu*, 1972.10  
*Nekez bada ere* liburua

# Managua

---

1

Nik ez dakit zer jende klase dan  
urruti baidago ua,  
balitzateke izatea're  
gu baiño obeagua.  
Guregandikan aparte dago  
ez dakit zenbat legua,  
aztuta ezin utzi liteke  
orregatik Managua.

2

Barrenetikan begiratuta  
beltza an gertatu dana,  
era berean arkitutzea  
ez al da gero azkena?  
Beste guztiak galdu ditunak  
oraindik itxaropena,  
nundik andikan bai ote zaion  
elduko laguntasuna.

3

Ezin gentzake batek e utzi  
begitzeke barrendikan,  
ez uste izan gertatu dana  
txantxetakoa danikan;  
ezertarako laguntza egiten  
ez artzearren lanikan,  
une baten e ez gaude gero  
bakar bat libre ortikan.

4

Gizona sortu zuanetikan  
Jaunak ala jarri zun-da,  
bakoitzak bere eginkizuna  
bizitzan beti izan da.  
Ez batzuk lertzen lanean eta  
beste batzuek etzanda.  
Ez gaude libre asko duanak  
eman dezala esanda.

5

Gure bizitzan ainbeste gezur,  
ez dakit zenbat engaiño,  
gizonak ez du naikoa izan  
orrenbestez oraindaiño.  
Noraiñoakoak ditun almenak  
eginkizunak araiño.  
Ez du zer esan asko duanak  
asko lezakela baiño.

6

Gu zigorkadak lenago ere  
iñoiz bagera artuak.  
Olako batek otxantzen ditu  
arrokerizko tratuak.  
On egitera une gutzitan  
bagaude're beartuak,  
egun auetan gure biotzak  
izan leizke loratuak.

*Zeruko Argia, 1973.01.21  
Nekez bada ere liburua*

# Gizon naigabetua

---

1

Lengo ostiralean,  
bestetako gisan,  
peririk etzan baiña  
peri eguna zan.  
Nekazari zintzo bat  
beti dana izan,  
zeregiñak egiten  
kalean izan zan,  
naigabeak ditula  
konturatu nintzan.

2

Euskal Erri maiteko  
barazkiak gera,  
badatorrela gaude  
naikoa galera.  
Sinistutzeak ere  
au lanak badira,  
nekazaritza dator  
guztiz goitik bera,,  
ixtantean jetxi da  
irutikan bira.

3

Bera nekazaritzan  
trebea izana,  
baiña gaur urteetan  
gora dijoana.  
Iru seme sasoiko  
etxean dituna,  
eztu gogoz ikusten  
on etorkizuna,  
pozikan gabe dago  
batere gizona.

4

Irutikan birekin  
dadukan problema,  
ori da ikasitzen  
dabiltzan danena.  
Iruharrenarekin  
ez dauka onena,  
kale usain gozoak  
iristen zaizkona,  
au da nekazaritza  
bera dakarrena.

5

Ikasle biakgatik  
aitak zun esaten  
pentsatzen bere baitan  
nola dan egoten;  
ez dakilla nolatan  
zitezkean irten,  
basarrian sortuak  
orrela izaten,  
solara ez agintzeko  
zeozer ekarten.

6

Irutik erdikoa  
etxean lagunik,  
aitak itxaropena  
jarrita daukanik.  
Arek berriz lagunak  
kalean izanik,  
aizea ote duan  
artzen aiengandik.  
beldur da ote duan  
gingo gauz onik.

7

Larunbata kalean  
gaur izaten da jai,  
lagunak juten zaizka  
mutillari noiznai.  
Lana egingo dunak  
ezpaidu ori gai,  
aitak ere ez luke  
orrelakorik nai,  
iñoiz emanak dira  
denak erasoai.

8

Aitak esan: «Zertara  
etorri ez dago,  
emen ezta kalean  
ainbeste sosego;  
larunbatean lana  
emen berdin dago,  
ostiralean baiño  
askotan geiago».  
Besteak erantzuna:  
«Oraiñ e or al ago?

9

Oraiñ e or al intzan.  
agure zekena?  
Semientzat biotzik  
bate eztekena.  
Semeak asto lanik  
egiten dikena,  
ordubete galtzeak  
ematen dik pena.  
Luzaroko ez aiz, ez,  
laister dek azkena».

10

Aiten tripa jatea  
ori ikustian,  
lanean nekatua  
bizitza guztian,  
pozik agertzen zana  
orain ainbestian.  
Luzaroko ez tala  
berari esatian,  
ori bai dala artzea  
bat ezin bestian.

*Zeruko Argia, 1973.03.04  
Nekez bada ere liburua*



# Autopistari

---

1

Milla beatzireun da  
irurogeta amabi,  
jaiotexera juanda  
Deban izan naiz ni;  
zerbait atera naian  
opor aldi oni.  
bertan igaro ditut  
egun bat edo bi.

2

Esana dagon eran  
Debara juanda,  
egun bi igarotzen  
gogoak emanda;  
orduak artarako  
aukera nuan da,  
autopistari nago  
begira egonda.

3

Nik esan al nezaken  
geiena esanda're,  
ezer asko ez nuke  
esango alare.  
Gaur inportantzirikan  
ez du ezerk ere,  
baiña arrigarritzko  
egintzak badaure.

4

Mendi batzuk zulatu,  
beste batzuk jetxi,  
berdindu samartuak  
ez dituzte gutxi-  
Zubi egin da azpitik  
nai dutena utzi;  
bukatzera orrela  
nai luteke iritxi.

5

Lur zapalketak dira  
ikaragarriak.  
Ordainketak sarritan  
justu ta urriak.  
Orretarako sarri  
justuan neurriak.  
Len estu bizi danen  
komerri larriak.

6

Itsuari argirik  
in gabe lenbizi,  
edo lotan dagona  
esnatu erazi;  
iñor agertu ezik  
norbera nagusi,  
batzuen peria da  
beti irabazi.

7

Eginkizun bakoitzak  
ditu bere gaiak.  
Terrenuak dituzte  
emen oiñarriak.  
Doi-doi bizi dan ainbat  
aidean jarriak.  
Nekazari batzuek  
ez daude alaiak.

8

Egintza berri ori  
premizkoa bazan,  
guztien onerako  
nai litzake izan.  
Lurrikan ez zapaldu  
etsai batzun gisan,  
iñork galerarikan  
izan ez dezezan.

9

Bide zati ori da  
orain artekoa:  
Bilbotik asi eta  
Prantzirañoa.  
Ai balitz naigabeak  
uxatutzekoa,  
zori txarreko danak  
zoriontzekoa!

10

Sail orrekin eztago  
beraz amaitzerik.  
Geiago egin bear  
omen da oraindik.  
Guzti-guztiantzako  
onerako izanik,  
etzat iruditutzen  
berri txarra danik.

11

Bide eroso eta  
apain dotorea.  
Ondo ibilitzeko  
denontzat ohea.  
Bada iñorentzako  
galera gabea,  
bidezkoa duanez  
bakoitzak berea.

12

Euskal Erri maiteak  
problema baditu.  
Erria azitzeak  
berak dizka geitu.  
Lurrak lengoak dira,  
ez dira aunditu.  
Alguztidunak goitik  
zuzenduko al gaitu.

*1973-ko martxoa*  
*Aranzazu, 1973.03*  
*Nekez bada ere liburua*

# Uste gabekoa

---

1

Milla beatzireun irurogei ta  
amairugarren urteak,  
uda itxurak apirillaren  
lendabiziko asteak.  
Danok genduzen negua beintzat  
igaro gendun usteak,  
baiña ondoren eldu zunean  
asarre biziz besteak,  
ainbat problema sortuak ditu  
bota zuan elurteak.

2

Apirillaren amarrean zan,  
agertu giñan dotore,  
elur pixka bat egiteakin  
arritu gabe batere.  
Baiña ainbeste egiterikan  
ezin lortu iñork ere,  
osasunakin ondo giñanok  
or nunbait ala ta ere,  
baiña etzegon bide luzean  
abitzerik iñora're.

3

Astelenean eguraldia  
itxura txarrak artutzen,  
gaba eldu ta trumoiien otsa  
besterik etzan aditzen.  
Asteartean egun guztian  
jarraitu zuan botatzen,  
bi gau ta egun atertu gabe  
eraso baten aritzen,  
sarritan ez det ikusi izan  
ainbeste elur erortzen.

4

Era orretan elur azpian  
agertu geran garaian,  
Kalonje jaunak bertsoak dira  
agertu egunkarian,  
berak kukua oietik entzun  
dula aitzen eman naian,  
sosikan ere aldean beintzat  
berekin etzun unian,  
ala ta ere Segundo bazan  
elur artean aiñian.

5

Aurreko astean iñork ez gendun  
izan alako usterik,  
etzan entzuten udaberria  
iritxi zala besterik.  
Etzan etxetan atera gabe  
ez zar eta ez gazterik,  
udaberrian alaitasunak  
beren biotzak beterik,  
ametsetan e etzitekean  
orrelako elurterik.

6

Bata bestien ondoren biak  
alde aundiko asteak:  
batek ekarri zituan pozak  
iruntsi zitun besteak.  
Ez dira berdin batzun buruko  
erropa ariñak jazteak,  
eta artzaiai bat-baten sortu  
zizkaten buruausteak,  
kukuen orde z entzuten diran  
ardi orrua tristeak.

Egillearen paperetatik

# Patxi Axeri-ri

---

1

Mondragoitikan Bergara aldera,  
Musakolako auzuan,  
otxan da apal dago Axeri  
kamioen baztartsuan.  
Gaur ez baiña len trenbidea're  
atzeko aldetik bazuan,  
antxe bizi da Patxi Axeri  
bere bizitza osuan.

2

Etxetik anka ateratzean,  
lendabiziko pausuan,  
kamioa du zapaldu bear  
naiz izan konpromisuan.  
San Isidoren eliza ere  
an du bere albotxuan,  
artu emanak izan lezazke  
berarekin errezuan.

3

Itzantzarako zaletasuna  
iñola ere bazuan,  
ala bearrez orretarako  
dago toki erosuan.  
Nekazaritzan lana egiñaz  
soloan eta basuan,  
gaiñontzekotan ibilia da  
karretera arazuan.

4

Gorputzez eta ondasunetik  
danera degu sendoa,  
baiña alare doai bat badu  
askoz aberatsagoa;  
izketarako noiznai astidun,  
izketan berriz iaioa,  
bestela pixkat auldu da baiña  
ortan oraindik lengoa.

5

Egin bearra izango zuan  
baiña lana're egin du,  
baiña batzutan jostatzen ere  
zenbaitek aiña jakin du.  
Ezkondutzeko etzion izan  
presaka iñori agindu,  
baiña neskatzak ondo artutzen  
etzan gutxi alegindu.

6

Garai batean enparantzara  
dantza tokira elduta,  
etzan egundo egongo dantzan  
zeiñekin egiñik ezta.  
Gero andikan gozotegira  
neskatx talde bat artuta,  
zorionsua etxeratzen zan  
baten bati lagunduta.

7

Nola idiak ez lezazkean  
izandu señoirituak,  
kamio gertu bizi izan arren  
ez dira iñoiz oituak,  
Basoan iaio ibiliarren  
kaletan oso lotuak,  
gai ortan Patxik izanak ditu  
neke batzuek artuak.

8

Iñoiz baditu erakutsiak  
bearra ala izanda,  
itzantzak ditun izkutu batzun  
berriak dauzka emanda,  
Idiak oso bigur jartzean  
aurrerunzka ezin juanda,  
iñoiz badauzka jira emanda  
atzerunzka eruanda.

9

Irurogeita amaika urte  
ingurua du adiña,  
pausoa ere zerbait moztua  
zaartzara zaio egiña.  
Baiña Jaunari esker oraindik  
burutik ez dô ariña,  
izketa aldi bat egitekotan  
oso gizon atsegiña.

10

Gaur ere badu uztar idia  
polita izan alean,  
gutxi ezpada ez ditu iñork  
erabilitzen lanean.  
Geien batean alperkerian.  
jolasean da larrean,  
Patxi itxuraz bizi da baiña  
gaur ez idiak aiñean.

1973-ko ekainak 21-an.  
*Nekez bada ere* liburua

# Gure egunetako zenbait arazori

---

1

Beartsu eta aberatsen gain,  
zar da gazte artekoak,  
zenbat arazo gure artean  
gure egunetakoak!  
Sortzen dituzten miñak ez dira  
danak atsegiñezkoak,  
guzti-guztiak biotz samurrez  
konpondu bearrezkoak.

2

Naiz ta gazteak zarren bizitza  
ain atzerea ikusi  
gaztea baida ikasia ta  
zaarrak ez gendun ikasi,  
bidezko al da arrazoi ori  
zarrak uzteko itxusi?  
Aiten aurretik iñoiz ez dira  
semerik egiten asi.

3

Beartsuendik aberatsena  
aurkitzen degun aldia,  
gure artean badala nago  
alde ori moztu naia.  
Beraz badauka nun usatua  
duanak jakinduria,  
zaarrak aintzako artuta ere  
gazteak badu nun saia.

4

Gizonak gora begiratzeko  
grifa ori berea du,  
gora irixteko egarri ori  
berekin aurkitutzen du.  
On asko egiñaz al bazenduke  
gorengoena berdindu,  
baiña etzazu zure aurrekorik  
esker gaiztotan ordaindu.

5

Mundu erditik azken aldera  
gerturatzen goazenak,  
gera lengoa ta oraingoa  
zerbait ikusten gaudenak.  
Ainbat alde on baditugu're  
leno ez genituenak,  
lenago ere bagenituen  
gaur bezin oitura onak.

6

Alderdi onak len eztakoak  
gaur egunean badaude,  
erosotasun arrigarriak  
len eztakoak gaur geure.  
Baiña dirua joaten zaigu  
nora dan berririk gabe,  
guzti oiekin bai ote gera  
zorion geiagon jabe?

7

Erreztasuna toki guztitan  
artu izan degu alai,  
zalantzik gabe jakintza baida  
erosotasunaren gai.  
Baiña geiegi poztu gaberik  
egon genezazke ernai  
ikasitzea ona da baiña  
biotz pixka bat ere bai.

8

Etxean ere gaitza badegu,  
baitare aldamenean,  
zori txarrean biotz gutxiko  
jakintza asko danean.  
Naiz ta sarritan alkartu arren  
otordurik onenean,  
jaki goxorik izaten al da  
zerbait falta zaionean?

9

Esaera bat zaarra badegu  
oraindiokan nagusi:  
seme-alabak azi ta ere  
zaarrentzat nekeak bizi.  
Aita ta ama neke azpian  
erosotasun da guzi,  
gazteak asko dakite baiña  
ori ez dute ikasi.

10

Aita ta aman zori larria  
izanagatik ikusi,  
seme-alabak ajola gutxi,  
berena beti lenbizi.  
Iñoiz etxean gauzak illunki  
agertzen badira asi,  
askatasuna bear dutela  
eta dijoaz igesi.

11

Erbestekoa gutxi ezuala  
berdin gabiltz euskaldunak,  
bereak gaitu eta gurekin  
nai duna egingo Jaunak.  
Geiegirikan ez gaitu pozten  
munduko etorkizunak,  
argi guztiak ixio ta're  
alare bazter illunak.

*Zeruko Argia, 1973.06.24  
Nekez bada ere liburua*

# Txoferrak

---

1

Bertsolariak ainbat  
alditan ez al du  
bertsotarako gaitzat  
txopertza azaldu?  
Norbaitek bearbada  
noizbaiten esan du:  
txoperrak ortarako  
zer erru izan du?

2

Zorionez gaur ere  
badegu gizonik,  
apal eta otxanak  
da txoper zuzenik.  
Baiña batzuek diran  
bezela izanik,  
aientzat ezta iñoiz  
naikoa esanik.

3

Ezin aztu liteke  
kristaua danikan,  
biziak ez duala  
prezio egiñikan.  
Norberetzat ez badu  
baldin ajolikan,  
iñor galtzeko ez du  
eskubiderikan.

4

Ajola gabeakin  
ez dago atsegin,  
nolanai ibiltea  
baizaiote berdin.  
Zuzena ondatzeak  
nola eman ez min?  
Gai onetan badago  
naikoa zer egin.

5

Kamioko legeak  
alde bat baztertu;  
gizalegeak, berriz,  
anka azpiratu.  
Beren buruak ezin  
iñun errenditu,  
iñontzako're orrek  
gauza onik eztu.

6

Tresnarik gartsuenak  
berenganatuta,  
bide zabal ta estu  
danen jabetuta,  
abereen giroa  
obetzat artuta,  
sortu bear etzuan  
gaitza indartuta.



7

Giro onen gradurik  
ez gentzake neurtu,  
toki ta une danak  
beretzat nai ditu.  
Argi gorririk noizbait  
ez du begiratu,  
zuzen dabiltzan ainbat  
ondatutzen ditu.

8

Ainbat sasoi beteko  
atera etxian,  
norabait dijoazte  
nor bere kotxian;  
zuzenen dabiltzanak  
ia irentsiar,  
gauzak aldatzen dira  
denpora gutxian.

9

Entzuten da belarria  
jartzean albora,  
alkarrekin izketan  
ai diran lekura;  
«Ni bizkor ibiltzea  
zeiñi zer ardura?  
Ainbeste minututan  
sartzen naiz Bilbora».

10

Gauetzko ibiliak  
beste danak beste,  
jolastoki batetik  
bestera doazte;  
trago batzuk geiago  
artutzen dituzte,  
gutxio danik ordun  
iñork ez du uste.

11

Ibili nabarmenak  
oker edo zuzen,  
ezin kontatu ala  
ondamenak sortzen.  
Neurri batgatik baldin  
badira baretzen,  
karnetagatik ezik  
ez dira itzaltzen.

12

Giro onekin nago  
gaur goibel antzian,  
azitzen jun leikela  
bururatutzian;  
itzala sortzekoa  
nere iritzian,  
ez al da biuruko  
beintzat ekaitzian!

*La Voz de España, 1973.10.14*  
*Nekez bada ere liburua*

# Zakurrak ardiak itotzen

---

1

Ikusirik artzaiak  
dabilten tratua,  
zerbait kantatutzera  
nago beartua.  
Berri txarrak jasotzen  
oso aspertua,  
asko ardi baitute  
zakurrak itua.

2

Zakurrengatik nola  
galdu ainbat diru?  
Berriketea ezta  
orrenbeste buru;  
ez baidirade izan  
bat, bi edo iru.  
ia bai omen dira  
berreun inguru.

3

Ikusten baiditugu  
geuk ementxe bertan  
zakurrak dozenaka  
gure kalietan  
iskamilla ematen  
beren aldietan,  
jaberik gabekoak  
berriz erdietan.

4

*Sociedad Protectora*  
edo dalakoa,  
abere anparatzen  
ez nolanaikoa!  
Laister egiten dute,  
ok berenkikoa,  
zakur da katuekin  
baidute naikoa.

5

Soziedade orrekin  
orra or zer dagon,  
artzaiak, etzaitzte  
beintzat lasai egon.  
Orra or egindako  
zenbait laguntza on:  
zakurrak anparatu,  
ardiak or konpon!

6

Zakur-jabeengatik  
daude zer esanak,  
gai orretan e batzuk  
baidira zuzenak.  
Beste asko ardurik  
artzen ez dutenak,  
zakurrik beren mende  
bear ez lukenak.

7

Zakurrak ainbat kalte  
iten ai dirandik,  
ez al dizu ematen  
berri txarrak miñik?  
Eskatzen detena da  
nolabait emendik  
zakurrak gelditzeko  
al bada iñundik.

8

Ainbesteko kalteak  
inguru auetan,  
zenbat ardi-itorze  
illabetietan!  
Zakur-jabea, dezu  
zure eskuetan  
oiek ez jarraitzea  
ari diranetan.

Makinaz idatzitako orri batetik.  
*La Voz de España*, 1973.11.20,  
3, 6 eta 7-garrena ez besteak  
*Nekez bada ere* liburua

# Sasiolako komentua

---

1

Ezertan ibiltzeke  
bat eta bestera,  
izan ere ez baida  
ala ditekena,  
ontarako artu det  
nik neure baimena,  
aitatutzeko neuri  
ikutzen ditena.

2

Debatik Mendarora  
bide erdi ola,  
zeozer gorabera  
dago Sasiola,  
Aita San Antoniok  
laguntzen diola;  
aspaldi nengon zerbait  
esan nai niola.

3

Baldin izan baldin badet  
nik ondo neurtua,  
orain dala lareun bat  
urteko kontua,  
edestitik izan det  
ain zuzen artua,  
frantziskotarrak nola  
zuten komentua.

4

Ain zuzen Deba ibaia  
izanikan bertan,  
komentuari ikutzen  
ate-atietan;  
frailleak ezjakiñak  
ez izan ezertan:  
komentutik aritzen  
ziran anguletan.

5

Gaixo-etxea ere  
bazuten sortua,  
baserri gisa gero  
guk ezagutua.  
Berreun bat urtean  
artan jarraitua,  
gero zoritxarrean  
ortan gelditua.

6

Garai batean gauzak  
olatsu izanik,  
eleiza bakarrik da  
gelditutzen danik;  
bera jarria ezin  
zutikan egonik,  
etzuana merezi  
arlotte azkenik.

7

San Antonio eta  
Birjiña Maria,  
auntziñako Zaindaria  
Sasiolan dia.  
Eleiza aurkitzen da  
ia eroria,  
berria egiteko  
noiz degu garaia?

8

Len ainbeste izana  
orain orren pobre,  
gezurra baidirudi  
egia bada're.  
Fedeak ala baidit,  
ala balitz obe,  
eztala geldituko  
estalperik gabe.

9

Gastu bildurrak edo  
zerbait eraginda,  
Debara eramanda  
batzuentzat berdin da.  
Utzi bezaio bertan,  
gure jaun Arrinda,  
aundirik ezin bada  
txikia eginda.

10

Buru egiten duna  
zerbait asi ezik,  
ez baidu arkituko  
iñungo laguntzik;  
iñork ez baidu egingo  
marmarretan baizik,  
norbait asi ezker  
lagundu igual pozik.

11

Zerbaitek bultza eta  
errez eragiña,  
gai onetan pozik det  
bertsotan egiña.  
Dagon modun ikustea  
naiz izan samiña,  
Sasiola aitatzea  
ain zait atsegiña.

*Aranzazu, 1973, II  
Nekez bada ere liburua*

# Zubeltzuri omenaldia

---

1

Gai oni buruz nai diot esan  
biotzez zerbait indartsu,  
ain pozgarria zaidan berria  
zabaldua da oraintsu.  
Nere lekuan aurkitzen danak  
nola ez artu gogotsu?  
Ilbeltzan seian omentzen dute  
nere osaba Zubeltzu.

2

Bere adimen neurrigabeak  
egingo duan galdia:  
Nitaz oroitzen diran gizonak  
oraindikan bai al dia?  
Larogei urtek askoren gisa  
barruan dute gordia;  
Jaunari esker, oraindiokan  
Zubeltzu bizi ordia.

3

Nere iritziz aurkitutzen det,  
begiratzean nunaitik,  
zuregan zerbait arrigarria  
badagoala gogotik.  
Urteen kargak ezarri dizu  
altxa eziña oetik,  
zeu aspaldian etzana baiña  
izena ordea zutik.

4

Zure aurretik izan ziranak  
or dituzu zenbait izar,  
makiñatxo bat egi boteak  
euskal lur auetan zear;  
bat banaka gaur bertso auetan  
nituzke aitatu bear,  
baiña bakarrik, lana mozteko,  
aitatutzen det Xenpelar.

5

Errege eguna egun aundia  
zuretzat nolana ta ere,  
pesten azkena ospatuzeko  
eztator gaizki batere.  
Zure izenean kantatzekoak  
dira ainbeste errege,  
iñoiz zurekin kantatu dunik  
izango ote bat ere?

6

Txalogarrizko berria auxe,  
gutxiotako etzan-da,  
gai au neretzat, zer esan gabe,  
gutziz gozoa izan da.  
Nere ekiñaldi laburra emen  
beste gabe amaitzen da,  
omengillea omenduakin  
poz-pozik zorientzen da.

*La Voz de España, 1974.01.04*  
*Nekez bada ere liburua*

# Laster San Juanak

---

1

Gai oni buruz nua  
gaur zerbait esaten,  
zelebre samar nola  
geran maiz izaten;  
ala nai eta iñork  
aaztu ez dezaten,  
nola festak ditugun  
laster Arrasaten.

2

Gai oni nik eraso  
gaur nere talentoz,  
iñork bearrrik balu  
dei egiten gatoz.  
Egun gutxi baiño len  
San Juanak datoz,  
jiratxo bat emanaz  
Mondragoira zatoz.

3

Arkitu deikezuna  
eldu ta berela,  
zuk bear zenduzenak  
junikan dirala.  
Ez izan kezkarikan,  
etzaio ajola,  
ala ta gutziz ondo  
artuko zerala.

4

Moda ain indartsua  
naiz eman itsusi:  
festetan erritikan  
norabait igesi.  
Juan nai duanari  
nola galerazi?  
Baiña etorri zaite  
ala eta guzi.

5

Moda au nik ez dakit  
nundikan datorren,  
ondo bizi diranak  
baidira okerren.  
Ezin antzikan eman  
ori zerk dakarren:  
asko dutelako ala  
ez gastatzearren.

6

Arazo askotxotan  
gaur moda berrian,  
baiña onekin gabiltz  
oraindik zaarrian.  
Modua duna lasai  
patxara ederrian,  
urri degunok gabiltz  
danak bearrian.

7

Ainbat ateratzen da  
tresna azkarrian,  
norabait iristeko  
martxa pizkorrian,  
denbora alperrikan  
galdu beldurrian.  
Ezin degunok gera  
gelditzen errian.

8

Ezin iritsirikan  
auzi gogorrean,  
sarri izaten gera  
ari bearrean.  
Jarraitu nai badegu  
izen jatorrean,  
oitura onak gaude  
zaintzeko zorrean.

9

Diru gaiñezkarekin  
problemik bazendu,  
aiskide, badakizu  
norantza zuzendu.  
Urri dagon tokian  
lenbailen azaldu,  
zeregin oberikan  
etzezake izandu.

10

Gastatzea bazendu  
baldin zuk atsegin,  
diruduna, erritik  
etzaitz aldegin.  
Emen ondo gastatzen  
in zazu alegin,  
orrekin on geiago  
al deikezu egin.

11

Egin nai bazenduke  
gauza zuzenikan,  
ez deritzat oso oker  
ari naizenikan.  
Utsikan, borondate  
onak izanikan,  
aritzen gera ezer  
egin eziñikan.

1974-ko Sanjuanetan  
*La Voz de España*, 1973.06.21  
*Nekez bada ere* liburua



# Santa Agedako ero-etxea

---

1

Gai zelebrea aukeratu det  
ni sarri ai naiz oker da,  
Santa Agedako ero-etxeari  
kantatu nai zerozer da.  
Etxekoaren ondran aitzea  
nunbait beti da eder da,  
bestela nola gai oni eldu  
kantuan ari bear-da?

2

Santa Agedako ero-etxea  
Mondragoik bere altzuan,  
arek e nunbait bere kabia  
nunbaitean bear zuan.  
Ezta jende au bizitzekoa  
ain sosegu paketsuan,  
bukatzen eztan erromeria  
beti galga berdintsuan.

3

Gure gustoko peria ezpada  
aspertutzen gaitu laister;  
galdetzen degu: nolatan bete  
eroekin ainbat bazter?  
Badirudi gu au galdetzean  
ez gabiltzala ain oker,  
argi izpia datorkigula  
oraindik Jaunari esker.

4

Buru galduak aize txarrakin  
supritu bear berenak,  
ala bearrez orrekin gera  
konturatutzen geranak.  
Baiña ainbeste drogatu edo  
ondatutako edanak,  
ez al dirade ero-etxean  
luzera sartzen diranak?

5

Gogoratzean besterik gabe  
ero-etxea an dala,  
aruntz bidea artzea egun  
pasa alai bat ezuala,  
Santa Agedak beti izan du  
berekin bere itzala;  
ala ta ere badirudi gaur  
geiegirikan ez dula.

5

Zale geranen alde egiten  
badakigu egiñalik,  
orretarako bideak noiznai  
nai genituzke zabalik.  
Ez ote da gaur griña ori eztan  
txokorik edo egalik?  
Bizitza ontan bai ote da gaur  
gu itzaltzeko itzalik?

7

Euskaldunak len fededun giñan,  
gaur asko gera aulduak;  
gai ontan gera beste batzukin  
ortxe nunbait berdinduak.  
Aaztu ditugu Alguztidunak  
emandako aginduak;  
lan izango da berriz aurkitzen  
orain ain errez galduak.

8

Izkutatutzen alaitasunak,  
izkutatutzero pozak,  
aurkitutzero noiznai zaillago  
urritutzen diran gauzak.  
Jakinduritik luze gabiltza,  
zorionetikan motzak;  
oker onekin zer ikusi du  
gure federikan ezak.

*La Voz de España, 1974.02.13*  
*Nekez bada ere liburua*

# Neska-mutillak asko eztala

---

1

Zenbat langillek bere ogia  
irabazteagatikan  
ez du izaten atsedentzeko  
gabaz iñoiz zoririkan.  
Beste ainbeste aaztuta gaba  
lo egiteko danikan;  
trukatu eta ez al legoke  
erremeditutzerikan?

2

Neska-mutillak asko eztala  
badira zenbait guraso,  
gabaz irten da ibiltzeakin  
zaletuak daude oso.  
Beren kabitik atera eta  
al dakit zenbat arazo,  
esaten dabiltz kaletan gabaz  
ibiltzen dala eroso.

3

Gabaz ibilli bearrak beti  
baditugu izanikan,  
lanak badira buruan sartzen  
au nola lezakenikan.  
Ez al da obe pake santuan  
atsedentzen etzanikan?  
Gabaz ibiltze ori ez gaude  
gizongillea danikan.

4

Aberatsarengandik jasoak  
zenbat olako lezio,  
zenbat griña txar gure nagusi  
jarraituz gero luzio;  
sortzen dizkigu zenbait tratu txar  
eta ainbeste sesio,  
aberatsentzat ona ez da ta  
langillientzat gutxio.

5

Aberatsari ajola gutxi  
gabaz loa galdugatik,  
egunaz ere eztio jotzen  
laneratzeko kornetik;  
nolanai ere errenta asko  
ez lezake jaso ortik,  
nai baluteke begira jarri  
osasanaren aldetik.

6

Gure artean auntsiñakoa  
orrela det ezagutzen:  
langillea ta langille eztana  
beti alkar desaidatzen,  
baiña gabazko ibilietan  
bapo dakite jostatzen,  
edaririkan garestienak  
orduan dituzte sartzen.

7

Zenbat ondasun ondatutzen da  
gabazko ibilietan,  
fruitu zuzenik ikusi gabe  
bidegabekerietan.  
Besterentzako onikan ez ta  
norberentzako kaltetan,  
ekaitza eta negarra sortzen  
norbere pamilietan.

8

Zurrutarekin lagun ari ta  
azkenik burua artu,  
gizona len e geio danakin  
sarri izan oi da neurtu.  
Gero disputak eta oiua  
izketa zakar da kantu,  
besteak lotan diran garaian  
auek kaleak alaitu.

9

Zori gaiztoan euskaldunak e  
orrelakoak badira,  
iñoiz pozikan sartzeko gertu  
deitu eztiran tokira.  
Beren ustean gizatasunez  
jantziak agertzen dira,  
obeto jantzi lezazke garaiz  
oieratuko balira.

10

Bereak ditu guk aitortua  
gure emakumezkoak,  
eskubideak berdin-berdiñak  
dituna gizonezkoak.  
Ez dagokigu ukatzerikan  
diranean bidekoak,  
baiña gabazko ibili oiek  
al dira itxurazkoak?

11

Emakumea izateari  
etzion iñola uzten,  
lurreko gauzakgatik zituan  
bere izenik itxusten.  
Orain gau ta egun erre ta zurrut  
usatu gera ikusten,  
badirudi gaur gizonak ere  
pasatu ote gaituzten.

12

Nabarmenkeri aldetik askoz  
geiago esan gentzake,  
zenbat neskaxa itxuraz beintzat  
asko-asko izutzeke.  
Mutillen jiran ez al dabilta  
ardurarikan artezke?  
Lasaikerian ase eziñik  
batere lotsatutzeke.

13

Neskatxa batengana bein batez  
zuzendutzean onela,  
esanaz aren ibillerakin  
zer ikusia nuala;  
itxuskerian ibillitzea  
gaizki egiten zuala,  
erantzun zidan bere gauzakin  
berak agintzen duala.

15

Ez uste izan gaurko giroak  
indarrikan eztuala,  
abere gisa zerbait jantzia  
berez gordin dagoala.  
Aukeratua duan bidea  
uzteko eztago iñola,  
zeñek sinistu orretarako  
egarria zegoala?

14

Sasoirik ezin gorde lezake,  
ez lezake izkutatu,  
baiña kristaua bezela bere  
bete bearrak baditu.  
Ez baidu iñork zer ikusirik  
ezin dala-ta kabitu,  
berak eztunak gaiñerakoak  
lotsatu bear al ditu?

1974-ko maiatzak 9  
*Nekez bada're* liburua

# Musika banda desegindu zanean

---

1

Milla beatzireun irurogei ta  
nun amalaugarrenean  
gure Arrasate ezta agertzen  
zorionik onenean.  
Eun urtekoa, zerbait bazeukan  
bere aunditasunean,  
izkutatu da, ala bear-da,  
Igokunde egunean.

2

Erriko talde soiñularia  
izan dana sonatua,  
gaurko giroak aintzat ez duna  
geiegirikan artua.  
Erria, berriz, probetxu gabe  
kargak artzen nekatua;  
une auetan libre uztera  
izan dana beartua.

3

Eun urteko pitxia gendun,  
ezta gutxik maitatua;  
errian eta andik kanpora  
askok dute goratua.  
Baiña gaur ezta aintzat artutzen  
gauza ainbeste zaartua,  
naiz ta dala're puntarengo  
sortutzen duan frutua.

4

Urte batzuek igaro dira  
zerbait gendukan ustian,  
bakardadean aritzen zana  
laneratzen zan guztian.  
Gure erriak samintasunez  
gauzak olan ikustian,  
iltzen utzi du bizi izan dana  
joan dan ainbeste urtian.

5

Ez zetorkion bere neurrian  
jendearen erantzuna,  
ala ta ere soiñulariak  
bete du eginkizuna.  
Ikusitzean gutxi ezpada  
erririk jazten etzuna,  
une batetik bestera orra  
nola sortu dan utsuna.

6

Zer esanakin gabiltza baiña  
ontaratu gera berez,  
ia aurrera jantzitzen geran  
zerbait dibertsio obez.  
Onen errua zeïnek duanik  
ikustea ezta errez,  
nolanai ta're soiñulariak  
baiño gutxio iñork ez.

*Hoja del Lunes de San Sebastián,*

1974.07.01

*Goiz Argi, 1974.07.24*

*Nekez bada ere liburua*

# Arrasaten Gurutze-txiki mendia amar urtean bitan erre

---

1

Guk euskaldunok aspalditxotik  
gurekin degun oitura:  
esangairikan sortu ezker  
gu segituan kantura.  
Gaur ere badet esan nai  
bat biotzetikan gertura:  
Gurutze-txikin izan berri  
dan su zakarraren kontura.

2

Gurutze-txiki mendi apalak  
Arrasate du oiñetan,  
su arriskurik noiz ezta  
goen ez lezake jakin bertan.  
Egi bakar bat agertutzen  
da penagarria benetan:  
probetxo gabe bitan erre  
da joan dan amar urtetan.

3

Eguna erdi-erdian zala  
ertz batetikan sutua,  
eguzki galda ta aize legorak  
lagundu ta indartua.  
Ango aberastasun guztia  
aguro menperatua,  
ala ta ere, gaitzerdi, ezta  
eriotzik gertatua.

4

Ondasunentzat guk izan arren  
alako zaletasunak,  
erri gertuan lurak ez ditu  
alderdi guztiak onak.  
Urte saillaran ari begira  
esperantzetan egonak,  
suak aguro irentsi ditu  
ango aberastasunak.

5

Ango lur jabe diranak orra  
nola diran gaur arkitzen;  
buru auste ta lana ugari,  
etekiñik ez jasotzen.  
Lurra garbitu, piñua sartu,  
gero etsaia jabetzen,  
dana pabrika toki bezela  
gai ezta lako prestatzen.

6

Gurutze-txiki otxana ezta  
dan modukoa izanik,  
pabrika toki bezela etzaio  
arkitutzen jazkizunik.  
Piñurik gabe gutxi ezpada  
eztauka etorkizunik,  
ez eike izan errez egiten  
berek inoiz gauz onik.

1974-ko iraillak 25  
*Nekez bada ere* liburua

# Mendaro Txirristaka

---

1

Mendaro Txirristaka  
mundutik joana,  
urte askotan gure  
artean izana.  
Makiña bat gozamen  
jendeari emana,  
bide batez zerorrek  
gozatu zenduna.

2

Baderitzat oraindik  
nagola begira,  
nola joaten ziñan  
zure lantegira:  
utsikan egin gabe  
peritik perira,  
kanta-paperak saldu  
zitezken tokira.

3

Zuk ere bazenduan  
zerorren karrera,  
unibertsidadean  
artua ez bera.  
Ibiltzen zenduna da  
euskera-erdera,  
papera saldu eta  
papera atera.

4

Alde orretatikan  
nik ez det zalantzik  
zu egongo zerala  
begira zerutik;  
granujakin etzendun  
izpirik e partik,  
lana egiten zendun  
sos batzuegatik.

5

Bear bada dirurik  
etzendun ikusi,  
baiña bai egin ziñan  
alai asko bizi.  
Mundua ta zerua  
biak irabazi,  
ori egiten duna  
da emen nagusi.

6

Mendaro Txirrixakata,  
zaitugu goguan,  
nunbait ondo merezi  
izango zenduan.  
Adiskide jator bat  
zaitugu zeruan,  
uste orretan daude  
Mendaro inguruan.



7

Ezin litekena da  
izkutuan gorde,  
zurekin oroituak  
gaur Mendaron daude.  
Nola zu izan ziñan  
doai orren jabe,  
orain ezin eduki  
bertsorikan gabe.

8

Orra bertso laburrak  
zure gaiñ ipiñi,  
aaztu ez litezkean  
zenbat gauz jakiñi.  
Biotz-biotzetikan  
dizkitzut eskeiñi,  
zuri izan ezean  
ezpaineukan zeñi.

*La Voz de España, 1974.10.19*  
*Nekez bada ere liburua*

# Garai bateko Mendarori

---

1  
Burua ta biotza  
jarririk Mendaron,  
zerbait nai diot esan  
nola beta dagon;  
orretarako zai naiz  
aspaldian egon,  
gazterik ikasia  
naiz ni au nun zegon,  
nola beregan zitun  
zenbait alderdi on.

2  
Mendaro berez baida  
erreka eskiña,  
arta-iriña egin  
oi zuten an piña.  
Pixuan uzten zuten  
ondradu nai aiña,  
alderdi oiek eta  
geio, alajaiña,  
seme aztaille ona,  
pobrea zan baiña.

3  
Ezagutu gabeak  
gaur saillean dia,  
bera ezagutuak  
oraindik badia.  
Nolakoa izaten  
zan lauko ogia,  
anega bat iriren  
truke, alegia,  
Mendaron ematen zan  
lauko debaldia.

4  
Mendarok beraz bere  
oiturari eutsi,  
lanak ematen zizkan  
asko aberatsi;  
beste iñundik etzan  
ainbat komenentzi,  
gari anega truke  
danak emezortzi,  
baiña Mandarok eman  
beti emeretzi.

5  
Gaiñontzeko gauzeekin  
ala modutsuan,  
sal-neurrietan beintzat  
galga berdintsuan.  
Lana egiten zuten  
modu beartsuan,  
apaltasuna baiño  
besterik etzuan,  
berdin gertatutzen zan  
ganadu-pentsuan.

6  
Garai artan Mendaro  
merke bizitzeko,  
toki oberik etzan  
pobrearentzako.  
Zer zan begiratzeke  
biotzez artzeko,  
guztiak zeuden gertu  
noiznai laguntzeko,  
Jauna zai baizegoan  
danak ordaintzeko.

7

Esana dagon eran  
bizi izan zian,  
zer ikasi bikaiñik  
emanda jun zian.  
Gu baiño tontoago  
batere etzian,  
pobreak izan eta  
aberats antzian,  
beste danak aztuta  
diruen atzian.

*La Voz de España, 1974.11.01*

*Nekez bada ere liburua*

# Ezkontza bat

---

1

Dana aldatu dala  
gaude gu esanak,  
euskaldunak ez gerala  
onela izanak.  
Gure iritzi danak  
al dira zuzenak?  
Oraindikan bazterrik  
ez du maitasunak.

2

Nolabait nunbaitean  
ziran ezagutu,  
neska-mutil gazte bi  
alkarren zaletu.  
Alkarrekin izateko  
biak pozik gertu,  
ain apartekoak bi  
ain lagun biurtu.

3

Mutilla euskalduna,  
Aramaiokoa;  
neskatxa berriz urez  
beste aldekoa.  
Galtzeko ere bazan  
tarte naikoa,  
maitasuna ezpalitz  
izan alakoa.

4

Bere sailla aurrera  
gure ezkongaiak,  
biak dituzte gauzak  
ondo egin naiak.  
Gure erlijioan  
serbitzari biak,  
Kalipornian dira  
izanik eztaiak.

5

Neskatxa San Frantziskon  
nunbait an zeguan,  
an izanak badira  
aurtengo neguan;  
andre billa juanak  
ainbeste leguan,  
gutxienez amabost  
egun inguruan.

6

Mondragoitik izanak,  
senar edo emazte,  
bederatzi dirala  
nik orrela uste.  
Aramaionatikan  
amar mutil gazte,  
deseatzen zeudenak  
uztartu dituzte.

7

Ez noa esatera  
eztitekenikan,  
baiña orrelakorik  
ez det entzunikan:  
ogi billa joanak  
asko izanikan,  
andre billa aruntza  
iñor juañ danikan.

8

Eztakit kalterako  
ala mesedean,  
lendik onara gauzak  
dauzkagu aldean,  
biderik luzienak  
arturik mendean,  
beetikan ezin bada  
goitikan aidean.

9

Ogei lagun ziraden  
joanik aruntza:  
mutilla bera eta  
gaiñeko laguntza.  
Ez dute egiñikan  
joan-etorri utsa,  
ogeitabat ziraden  
etorri onuntza.

10

Ixilik aztutzea  
bidezkoa etzan,  
berri au aitatzeke  
aiñakoa bazan.  
Azkenik bukatzeke  
nai nukena esan:  
zorionez beteak  
ditezela izan.

*Goiz-Argi, 1974.04.27*  
*Nekez bada ere liburua*

# Gabonetan

---

1

Jesus Aurtxoa, zuri  
erregutan gatoz,  
etorri ziñan une  
berritzeak datoz.  
Eriotzako orduan  
izan dezagun poz,  
atoz, Jesus Aurtxoa,  
atoz, atoz, atoz.

2

Badegu aundi nairik,  
badezu grandezik.  
Emen eztegu iñork  
maitatzen bajezik.  
Gure artean ezta  
erauntsia baizik.  
Ala guztiz etzaigu  
gôratzen Jesusik.

3

Jesus Aurtxoa, arren  
zaidazula entzun,  
Fedea baitit nola  
zuk dana al dezun.  
Naiz ta guk ez merezi  
zaiguzu erantzun.  
Ea pake santua  
irixten diguzun.

4

Premia ezagutzen  
ondo dakizuna.  
Gozatu nai genduke  
zure erantzuna.  
Itxaropena degu  
emango dezuna  
osasuna, pakea  
eta maitasuna.

5

Negar malkoz bustiak  
makiña bat bazter,  
Ainbeste oiñaze ta  
orrenbeste oker.  
Komeni bada danak  
zuzen bitza laster,  
Jesus Aurtxoa, zure  
errukiai esker.

6

Gure artean ezta  
palta iskamilla.  
Eraso gaiztoak du  
apalaren tailla.  
Dollorkeriak bete  
otxanaren mailla,  
ekaitz beldurgarria  
baretu dedilla.

7

Bertsotan aritua  
bainaiz erreguan,  
obeto konpontzerik  
ez ote dagan.  
Obra onek tokirik  
izango al duan,  
Arantzazu illekoan  
aurtengo azaruan.

*Arantzazu, 1975.1*  
*Nekez bada ere liburua*



Portaloia.

# Oker gabiltz

---

1

Baldin balit utziko  
nere naigabiak,  
baditut bertsuetan  
mintzatu naiak.  
Ixilikan egoten  
ez dit uzten gaiak,  
munduko goraberek  
ain negargarriak;  
auek komeriak,  
naspilla aundiak,  
nun kristau legiak?  
Izanik anaiak,  
ez dirudi geranik  
aitan semiak.

2

Gure joka legeak  
sarri itxusiak,  
gizaldi ontan beintzat  
badira auziak.  
Bearbada ditugu  
ondo mereziak;  
paketik une motzak,  
gerratik luziak;  
beren maliziak  
askok ikasiak,  
beti irabaziak,  
besteak gosiak;  
gerra usaiak daude  
berriz asiak.

3

Milla beratziareun ta  
amalaugarrenak  
trixkari asierak  
zizkan emanak.  
Geroztik pake txarrez  
ondatu diranak,  
bide onez gozatu  
bagiñuzen danak;  
osatuz almenak  
norbere daudenak,  
kalte besten onak,  
zer gera gu, jaunak?  
Geure etxera arrika  
ari geranak.

4

Edertzen bearrean  
bizitza onetan,  
zatartzen aritutzen  
gera alditan.  
Arrigarriak gera  
gu bene-benetan,  
kristau gerala ere  
esaten batzutan.  
Alkar ondaketan  
noiznai ta nunaitan,  
nik nere kazetan  
zer esaten detan:  
ezjakiñak gerala  
dakigulakotan.



5

Ainbeste atsekabe  
beste ainbat pozi,  
ez eman nai tokirik  
zenbait ametsi.  
Bata bestean onik  
ezin da ikusi,  
lenago Kriston gisa  
bazter bati josi;  
ikasitzen asi  
maixu on da guzi,  
baiña ezin ezi,  
gero nola bizi?  
Alkar maitatzen jakin  
bear lenbizi.

6

Jakintsuak badira  
batean-bestean,  
baiña ezjakin asko  
oraindik tartean.  
Konturatuko al gera  
alakoen batean,  
beti aritu gabe  
geronen kaltean.  
Bi milla urtean  
gabiltz ekaiztean.  
Jesus etortzean,  
aren apartean,  
oker gabiltz onela  
gabiltzan artean.

*La Voz de España, 1975.01.23*

*Nekez bada ere liburua*

# Bertsolari zaarren omenaldia

---

1

Burua ta biotza  
biak alkaturik,  
bertsotarako ditut  
asmoak arturik,  
batere izan gabe  
iñork bearturik,  
ixilik egoteak  
oso asperturik.  
Gai baten sarturik,  
zintzo saiaturik,  
ez det nai kalterik  
iñun egiterik;  
nere iritzi batzuk  
eman besterik.

2

Oraindik oraiñago  
Donostia ortan  
ibili berri gera  
jaialdietan,  
bertsolari zarraren  
omenaldietan;  
giro gustagarria  
egon zana bertan.  
Gero egunetan  
ondorengoetan  
egunkarietan  
irakurri detan  
jendetza aundia bildu  
zala Anoetan.

3

Baita ere jaso det  
egunkaritatik  
bertsolaria orain  
dagola goitik;  
egona baldin bada  
ere len beetik,  
nolanai on egiña  
euskeran aldetik.  
Zenbaiten burutik  
pasatu ez gaitik,  
pardel batzuk bestik  
etzetozek ortik;  
begitzen dago dana  
zer aldetatik.

4

Bertsolariengatik  
egiz mintzatzian,  
sarritan gertatua  
batzun iritzian.  
Lenago ere danak  
berdiñak etzian,  
baiña ikusitzean  
lantzian, lantzian,  
aruntz-onuntzian,  
pardelki antzian,  
besteak etxian,  
bizitza latzian,  
gaizki esan oi zuten  
itzian, itzian.

5

Gogor samarrak sarri  
zenbaiten esanak,  
bizimodu latzaren  
bidez datozenak;  
lana, asarrea ta  
burruka gizonak,  
bertsolariak ere  
beti ez zuzenak.  
Nundik datoz sonak?  
An zaletasunak,  
alde osasunak,  
nun laguntasunak?  
Gerorako etxeok  
eginkizunak.

7

Bertsolariak egin  
lezazken jardunak,  
euskerari begituz  
izan leizke onak.  
Baiña orrek baditu  
beti nora junak,  
etxetikan kanpora  
sarritan egunak.  
Danian lagunak  
eta ezagunak,  
zelako egonak  
egiten ditunak!  
Nola ondo itzegin  
orren zai dagonak?

7

Oiek orrela baiña  
izanik geuriak,  
pozik aitatzen dira  
bertsolariak.  
Tiratu egiten du  
bakoitza berriak.  
Danak aaztutzen ditu  
oien umoriak.  
Alaiak txoriak,  
euskaldun loriak,  
gutziz dotoriak,  
kantu kantariak.  
Kanpoan gizonak ta  
etxean andriak.

8

Gure dibertsioak  
euskaldunok ere,  
iñor arritzekoa  
eztanez batere.  
Batzuek entzule eta  
besteak kantore,  
orrela gabiltzanak  
gabiltza dotore.  
Baiña ala ere  
esango det au ere:  
ezin iñola're  
konpondu gu ere.  
Mundu onetan asko  
komeri daure!

*Aranzazu, 1975,02*  
*Nekez bada ere liburua*

# Abere gisa

---

1

Mendizaletzat dauden batzuen  
konduta nola dagan,  
ederki asko irakurri det  
egunkaritik lenguan.  
Orretarako ni aukerako  
karguan nola nagan,  
olako zerbait ez agertzia  
luze iritzita nenguan.

2

Len berri txarrak irakurria  
lentxeagoko batean:  
zakur-piztiak ari dirala  
batean eta bestean;  
ainbeste ardi odol-ustutzen  
artzai gaixoen kaltean,  
abere gisa gizonek egon  
bear al dute katean?

3

On egitea zor eztegunik  
ez geranez bat bakarrik,  
gazte batzuek nola ez dute  
txarkerientzat beldurrik?  
Ni gaur zalantzan ez ote dagon  
askatutzeko zigorrik,  
beren barruan daramakiten  
orrenbesteko bigurrik.

4

Zenbait gazteri burutapenak  
nola ote zaizka sortzen?  
Kalte egiten ezpada ezta  
iñun ere dibertitzen.  
On egitera zertan nekatu  
ez baldin badu gozatzen,  
biar-etziko nun gelditzen dan  
bate ezta konturatzen.

4

Mendian ondo ez dabillena  
kalean da berdintsua,  
ainbat bigurri duan gaztea  
iñun ezta paketsua,  
Kalte egiten nola lezake  
artaraiño gogotsua?  
Dagon tokitik alde orduan  
uzten duan deskantsua!

6

Bere ibili lainñezazkoak  
ainbeste maite izanik  
orrek orrela gozatzen dula  
ez dago zertan esanik.  
Ajola gutxi pauso bakar bat  
eman ez arren zuzenik,  
ez du nai jakin beste guztiak  
nazkaz beteta dauzkanik.

7

Euskal Errian bertan orrela  
gabiltz lekuan-lekuan,  
abere gisa dabilzanekin  
jendea dago naikuan.  
Berandu izan liteke gero  
gaiñezka asitakuan,  
ez dezatela ortan jarraitu  
pozgarria dalakuan.

*La Voz de España, 1975.03.27,  
Nekez bada ere liburua*

# Pelota ta pelotariak

---

1

Len lanerako zaletasunez,  
berriz zeñek aginduak,  
gure eskuzko pelotariak  
dira gaur txanda elduak.  
Beren indarrak itzal antzean  
lentxeago egonduak,  
orain berriro loratu ditu  
oin berriak azalduak.

2

Esku pelota danok dakigu  
len ainbat zabal etzala,  
mugaz andikan, Gipuzkoan da  
Bizkaian bakarrik zala.  
Geroxeago erantsi ziran  
Errioja ta Alaba,  
orain orra nun berriz naparrak  
beurek lenengo dirala.

1

Buka berri dan norgeiagokan  
esku pelotarietan,  
burruka latzak izan ondoren  
beren neurtu aldietan,  
lenen naparrak iritxi dira  
gaillurrik altuenetan:  
bi Retegiak, osaba-illobak,  
lenenak mailla bietan.

4

Gauzak txit jator aitortzeakin  
oraintxe ditugu zorrak,  
zuzentasunak, egiazkoak,  
egintzak dira bakarrak.  
Lenago ere sarritan dira  
erakutsiak naparrak,  
dan gaia dala, baitago auek  
kontuan izan bearrak.

5

Ainbeste gazte pelotarekin  
burrukan beren garaian,  
gutxi ez berriz amets egiñez  
zedozer azaldu naian.  
Bakar batzuek igotzen dira  
besteak geldituz beian,  
auek jasotzen saia gaitezen,  
igoak len daude goian.

6

Lenengo maillan lenen Retegi,  
oraindik gizon gordiña,  
oni pelotan gaiñik artzea  
ez lantegi atsegiña.  
Bigarren mailla beste Retegi,  
gutziz landare apaiña,  
aurten neurtu dan maillan azaldu  
osaba bere berdiña.

7

Gai izan arren norbait baleike  
agertu dedin etsita,  
beregán zitun amets gozoak  
alde batera utzita.  
Norgeiagokan azalduari  
gauza gutxi iritzita,  
baiña, gizona, gaizki al zaude  
zeurea erakutsita?

8

Oion-en eta beste tokitan  
eder asko dago egon,  
naparrak berak gaur egunean  
dituzte beste asko on.  
Badirudi gaur etorkizuna  
baitare bai ote dagon  
Errezillen da Eibar aldean,  
txikiena ez Atxondon.

9

Ain kementsuak diran Arroyo,  
Bergara, Oreja anaiak,  
itzal aundiko Gorostiza ta  
Aldazabal anai biak.  
Garzia Ariño laugarrena ta  
Beristain oraíndik gaiak,  
barka bezate emen ixiltzen  
ditudan pelotariak.

*La Voz de España*, 1975.06.20

# Joxe Mari Errota-ri

---

1

Baldin pestak izanik  
bear ainbat gozo,  
bertso batzuk egoki  
lirateke oso.  
Ori bururatu ta  
diot gaur eraso,  
lagun zaar bat nai nuke  
aitatu depaso.

2

Bera dan girokoa  
izatez izanik,  
ezaungarri oberik  
ez det uste danik;  
eztagola-ta nago  
esan bearrik nik,  
eztago lagun ori  
zein dan eztakinik.

3

Motelik ezer eztu,  
azkarra da begiz,  
alde guztietara  
irixten da garaiz,  
biotzez atsegiña,  
alaia arpegiz,  
denborari igertzen  
oso ona berriz.

4

Bertsolaria zala  
entzun da auntziñan,  
ain zuzen ezagunak  
artean ez giñan.  
Ori ere garaian  
zerbaiten premiñan,  
etzuan toki txarra  
artu, ez, Oxiñan.

5

Arrasatera gera  
etorritakoak,  
gai batzutan ez gera  
biok antzekoak;  
gutxienean orrek  
ditu bertakoak  
andrea eta beste  
gaiñerontzekoak.

6

Ain gizon atsegiña  
ezin da obea,  
bere buruantzako  
erruki gabea.  
Arma bearrik eztun  
konkistadorea,  
Japonen jaio balitz  
enperadorea.



7

Bertsolari txarra ez,  
ona errotaria;  
neurri berdintsukoa  
zan nekazaria.  
Gaiñetik *Roneo*-n  
bere lanteria,  
ura´re altxa zuan  
al zuan tokira.

8

Errotarien lanak  
lendik bukatua,  
geroztik lantokian  
da zaar-saritua.  
Len ainbeste sailletan  
dana saiatua,  
orain agertutzen da  
asko lasaitua.

9

Gogoratuta lengo  
burruka latzakin,  
orain eroso dabil  
ain gauza utsakin:  
nekazaritzak ditun  
arazo batzukin,  
dibertitzen dala  
bere bertsuakin.

10

Zaar-saritu danetik  
berriz orain gero,  
bertsotan aritzen da  
izugarri bero;  
artaraxe jarria  
baidago zearo,  
orain ori ixiltzen  
ezta oso giro.

11

Etxetik urrutira  
juan gabe batere,  
lagunarte bat bertan  
artzen du dotore.  
Antxe aritutzen da  
txori baten pare,  
ikasten ari zaizko  
erdeldunak ere.

12

Orra or nezazkean  
bertsorik onenak,  
lagun orri eskeifi  
nai nizkiokenak.  
Baitare bide batez  
nere zorionak,  
neregandik atera  
diran beroenak.

1975-ko Sanjuanetan  
*Nekez bada ere* liburua

# Barandiaran - Aranzadi

---

1

Bertsotarako zaletasuna  
aukeratu dedan gaia,  
asieratik azkenera arte  
tajuz erabili naia.  
Berak batere eztakiala  
apaiz batek egin deia:  
Nai det agurtu gaur Joxe Migel  
Barandiaran aundia.

2

Barandiaran oraindik bizi,  
Aranzadi zaigu illa,  
arkeoloji gaian izanak  
gutziz bikote abilla.  
Zenbait leizetan astindu zuten  
makiña bat ezur pilla,  
zer arazotik pertsona bizi  
izan zan arrasto billa.

3

Nik gizon oiek beren saillean  
auntziña ezagutuak,  
ondo gogoan ditut oraindik  
ume nintzango kontuak,  
ditudan eran toki batzuek  
auek ibilitakuak;  
beren garaian ez dira izan  
ortikan onerakuak.

4

Ez aurkitzean beste biderik  
ez agertzen idatzita,  
lengo gizonak gerokoari  
etzion nunbait utzi-ta,  
garai bateko bizitzaren gain  
ain zuten berri gutxi-ta  
arrasto billa eraso zien  
leize zulora jetxita.

5

Zer ari ziran ni ez jakiñik,  
ume bainintzan artian,  
erori nintzan arte kontuan  
noizbait alako batian,  
Elejalderen liburuari  
buelta batzuk ematian.  
irakurtzean zer jartzen zuan  
irugarrengo zatian.

6

Ezin ukatu, ez gera gutxi  
alamoduzko kirtenak,  
baiña badira zenbait ospetsu  
euskal lurean irtenak,  
beren buruak ondo nekatuz  
lana egiten dutenak,  
itxu-itxuan nundik dabiltzan  
ondo asko dakitenak.

7

Bakar batzuek izaten dira  
bakarrik ortarako gai,  
misteriozko argitasunak  
azaltzen dituzte nun-nai;  
zelan itxasoz ala legorrez  
leiza zulotik ere bai,  
aixa aztertzen dituzte danak,  
berdin zaie be edo goi.

8

Gizonagana sortu ezpalitz  
era ortako usterik,  
etzan izango leiza zulotan  
arrasto billa asterik.  
Ni neuretzako ari naizena  
esaten ezta besterik,  
berriz eztala iñoiz izango  
klase ortako kezkarik.

9

Zenbait arrasto aurkitu naian  
batzuk egiz nekatuta,  
beste batzuek jostatzen Jaunan  
erregaloak artuta;  
zenbat garrantzi guretzat duten  
ez gabiltz arduratuta.  
ez gera gutxi gertu gaudenak  
uzteko enterratuta.

10

Ezjakin aiek agiririk ez  
uztea zan bidezkoa,  
okerrago da guk jakintsuok  
zerbait galdu premizkoa.  
Gure egunotan au gertatzea  
zeiñen lotsagarritzkoa:  
aitagureak baidauka orain  
izkutatu arrixkoa.

*Aranzazu, 1975.09*  
*Nekez bada ere liburua*

# Zabalegi

## Doiñua: Aizak i, mutil mañontzi

---

1

Eztago bertsolaririk,  
osasanakin dalarik,  
zeri aritu sortzen bazaio  
ixildu zalerik.  
Ez du lanen ajolarik  
izan ezik galerarik;  
okerrena da, sarritan eztu  
zeri aritu alairik.

2

Lentxego nuan itzezin  
gure izkuntza onen gain;  
nunbaitetikan neri're nunbait  
zerbaitek bultz egin.  
Orra or nun Zabalegin  
egiñak diran alegin;  
gauza onikan ezin egin da  
azkenik aldegin.

3

An ematen zan jakintza,  
guztientzako baldintza:  
alde batetik nekazaritza,  
bestetik izkuntza.  
Ez juten iñor aruntza,  
ezin altxatu goruntza;  
esan zutena: ixtera guaz,  
alperrik gabilta.

4

Krisisa sortu dan otsa  
eldua dago onuntza,  
diru premiña luzeak eta  
irabazi motza.  
Nekazaritza beruntza,  
izkuntza ez aberatsa;  
ez aztu beintzat gerta leikenik  
bion eriotza.

5

Baserriko ainbat gazte  
sala festara datozte,  
aietan diran dibertsioak  
usatzen dituzte.  
Beti ez diteke aste,  
eskubideak, nik uste,  
dibertitzeko berdin dituzte  
besteak ainbeste.

6

Emen daukagun txotiña,  
azaldu zana auntziña;  
nekazariak ere maite du  
bizitza ariña;  
ezin du jarri ordaiña  
gutxiñaz bere berdiña.  
Euskal Errian emen krisis bat  
eztana apaiña.

7

Gazte ezin saiatuak,  
kaletarrakin nastuak,  
dibertsio ta komenientzi  
politak poztuak;  
zarrak lanean lertuak,  
bakardadean oztuak.  
onela dira Euskal Erriko  
modako kontuak.

8

Badegu naiko aitzaki,  
ondatzen gaitu galanki,  
ez datozkigu inola ere  
gauzak ain egoki.  
Danok nai degu aundiki,  
ari gaitezen poliki;  
onela ariko ote giñake  
zertan ai geran bagenki?

9

Tokia ainbat ametsi,  
baserritikan igasi,  
kale aldean zer berri dagon  
arretaz ikasi.  
Nekazaritzaz lenbizi  
izkuntzak du zer ikusi,  
era orretan bakardadean  
uzterik ez du merezi.

10

Orra gaur nik itzegiña,  
arazo sopra jakiña,  
gure izkuntzak baserria du  
txoko atsegiña.  
Aien etxeko da baiña  
ezin gozatu nai aiña,  
maite izan arren ostaturikan  
eskeiñi eziña.

Makinaz idatzitako orri batetik

*Nekez bata ere* liburua

*La Voz de España*, 1975.10.18

8 eta 10gn, bertsoak ez besteak.

# Udazkena

---

1

Adiñean joanak  
geranok goruntza,  
ikusiak ditugu  
amaika mudantza;  
uda-atzea, zutaz  
mar-mar-mar gabilta,  
etzera len oi ziñan  
bezin aberatsa.

2

Len danetik oi zendun  
eman barra-barra,  
arto, babarrun eta  
naikoa sagarra;  
gaztaiña, ezkurra ta  
ez gutxi intxaurra,  
gosea asetzeko  
etziñan, ez, txarra.

3

Iritxi oi zanean  
alako ujolde,  
bein baiño sarriago  
ikusita gaude:  
gaztaiña, sagar, intxaur  
urak bere mende.  
Ai, ordun galtzen ziran  
erdiak baleude!

4

Zenbat aldrebeskeri  
berekin urtiak!  
Lan txarrak eman ditu  
aurten legortiak.  
Alare alde txarrak  
etzitun guztiak,  
errezkan sortu ta eldu  
ditu tomatiak.

5

Ain zuzen orrenbeste  
gerta dandik aurten,  
ainbeste esaterik  
noiznai ezta izaten.  
Tomateak e beren  
jaskizuna zuten,  
baiña orri bakarrik  
gutxi guk irizten.

6

Gaztaiñakin emana  
makiña bat pesta,  
ainbeste gertatzea  
berriz oso gaitz-ta.  
Ni ere gauz orrekin  
konturatu naiz ta,  
erru dana zurea,  
udazkena, ez-ta.

7

Gizonak izan ere  
badu zenbait amets,  
sarri jokutzen degu  
geron aurka errez;  
zoriona iritxi  
nai orrekin berez,  
piñu beltza jarri du  
beste danen ordez.

8

Bearbada moda bat  
bakarra izan da,  
gure lurrean beintzat  
piñuen txanda da.  
Ez lezake itzegin  
kontra badaezpada,  
lagunik iñor eztu  
zikiña ezpada.

9

Zure inguru danak  
beti ain josiak,  
azpitik sortzen zaitzun  
ote ta sasiak;  
fruitu gabeko arbola,  
zugatik gosiak  
zure alderdi danak  
dira ikusiak.

10

Erabakia ezta  
izan, ez, amutsa:  
beste guztientzako  
aizkora zorrotza;  
fruitua duanari  
eman eriotza,  
zikiñez josiari  
lortu erregetza.

11

Beste danak baztertu,  
zeu jarri lenengo,  
obea zeralako  
etzendun egingo.  
Tratu onik ez dizut  
emana izango,  
artzaiaik ez dizute  
oberik emango.

*La Voz de España, 1975.11.09*  
*Nekez bada ere liburua*

# Antzi-ondo<sup>1</sup> baserriari

---

1

Zu, Antzi-ondo, sortu berria,  
itzegin nai dizut gozo,  
zarra lurpean artua etzan  
beti izana eroso;  
beren denporan izanak zitun  
ainbat etsai ta eraso,  
ango semeak eta alabak,  
arren!, ditzazula jaso.

2

Ibaia bertan zuanez arek  
errota ere bazuan,  
aren neurriak konpromisotan  
sari ipiñi oi zuan;  
arrobia're oso gertuan,  
etsai faltarik etzuan,  
dalako autopistak azkenik  
irentsia izan zuan.

3

Eragozpenik gabea etzan,  
danera zan osatua;  
ezin kontatu, ainbat ziran an  
seme-alabak sortua.  
Apaltasunik xamurrenean  
asi eta gozatua,  
bost gizalditaraiño ditut  
neronek ezagutua.

4

Onetik zerbait egin eztako  
errurik arek etzuan,  
nik ezin esan zenbat aur etzun  
gozatu bere altzuan.  
Baiña etsaiak ito alare  
bere amorro sutsuan,  
ainbat mesede egin duanak  
ori merezi al zuan?

5

Berri-berria sortu zaitue  
izar dizdiratsu pare,  
oso polita agertu zera,  
apaiña eta dotore.  
Zarrak ainbeste serbitzerako  
oraindiokan alare,  
ez obe, baiña etzera izango  
ekaitzik gabe batere.

6

Berriro ere aitatzen dizut  
len eskatu dizutena:  
ongi dakizu amabi kristau  
zure premiz dituzuna;  
sei aur txikiak, eta auekin  
beren aita eta ama,  
beste osaba bi ezkongaiak,  
aitona eta amona.

---

<sup>1</sup> Antzi-ondo baserria, baiña izen orrekin ez omen du inork ezagutzen, Antzondo bezela baizik.



7

Pentsatsekoa zer izango zan  
famili onen irtera,  
dudik gabea latza izango  
zala au nolana itara.  
Berriro aruntz biurtu dira  
alde ta bost bat urtera,  
au ere latza izango zala  
modu bat edo bestera.

8

Joko gaiztoak sarri oi dira  
eldu beartsuengana,  
autopista're ezpaita izan  
komeri gutxi emana;  
pasa dan toki guztietara  
naigabeak eramana,  
Antzi-ondokin ere ori da  
ain zuzen gertatu dana.

9

Arrasatetik ari natzaizu  
zu Debakoa izanik,  
iñork ez daki zure berririk  
zekinik emen bazanik.  
Odolez zerbait zeurea nazu,  
biotzez ez zer esanik,  
zuri bertsotan ez nago iñoiz  
ni aspertuko naizenik.

10

Zenbat arazo, zenbat zeregin,  
neke eta buruauste!  
Eriotza ta jaiotzak ere  
tartean izan dituzute.  
Gabonetako etxeratzeko  
modua egin dezute;  
osasanakin maitasunean  
asko gozatu zazute.

*La Voz de España, 1976.01.12*

# Udalpe batzokiari

---

1  
Iñoiz lenago bezelaxe ni  
bertsotan nua astera,  
gai bat artzeko begira nabil  
batera eta bestera.  
San Juan gure Zaindariaren  
eguna dator ostera,  
ekainaren ogeta irutik  
eta ogeta bostera.

2  
Gure San Juan gure Arrasatek  
bere Zaindari santua,  
urte batzutan guztiz aundizki  
tanborradakin artua.  
Geroxeago moda orrekin  
jendea da aspertua,  
urte batetik bestera zaigu  
ezerrera ezeratua.

3  
Gure *Udalpe* bazkunan degu  
biotza duan jendia,  
industrial da komertzianta  
desportistakin an dia.  
Festak eratzen lenenak auek  
Arrasaten izan dia,  
amaika aldiz goian utzia  
dute beren alderdia.

4  
Dirua eta lana eskatzen  
baidute festak gogotik,  
premizkoena gogoia berriz  
gauza guztien gaiñetik.  
Alabearrez *Udalpen* aixa  
osatzen dira danetik,  
igertzen zaio auek aspertu  
diran egun-egunetik.

5  
Izan ere gaur dibertsioak  
ainbat tokian badaude,  
derrigorrean ezpaldin bada  
etxean iñor ez gaude.  
Erriko festak diran garaian  
nora edo ara alde,  
nunaitan ere ezta izango  
nik uste ezer debalde.

6  
Mundu guztia egiñik zaigu  
ain zuzen kotxien jabe,  
ondo pentsatzen jarri ezkeron  
naiz ez izan asko obe.  
*Costa del Sol*-en *hotel* guztiak  
betetzen dira goi ta be,  
au egiterik bai ote dago  
dirurik gastatu gabe?

7

Gure *Udalpe* aitaturtean  
ez neike ainbeste utzi,  
bazkuna onek Arrasatentzat  
badu zertxobait garrantzi.  
Gizonak dira oi dituztenak  
sendoak asko iritzi,  
errian alde duten arretak  
badu zer bait inportantzi.

8

Zer bait esan naiz aritua naiz  
ixilikan egoteke,  
gaien aldetik gauza aundirik  
bearbada esateke.  
Nere aldetik nortasun gutxi,  
ori ere baliteke,  
ez ote duan gai dan ainbeste  
omen jasoko batek e.

1976-ko Sanjuanetan  
*La Voz de España*, 1976.06  
*Nekez bada ere* liburua

# Jose Letonari

---

1

Bertso batzuk egin nai  
zerbaiten gainean,  
festak ditugu emen  
berriro gainean.  
Denok apaindu naian  
zerbaiten gainean,  
San Juan zaindaria  
guztion gainean.

2

Apaindu naian danok  
gabiltz zertxo bana,  
baiña gizon bat degu  
nabarmendu dana.  
Bera ain ezaguna  
dan Joxe Letona,  
Mondragoi ta kaleak  
agertu dituna.

3

Bere tankerakorik  
ezta errez izaten,  
oraindik oso bizkor  
nun-nai da ibiltzen,  
Ogibidea izana  
emen onenbaten,  
arraia zuzen eta  
okerrak egiten.

4

Zortzi urte aurretik  
jun arren nigandik,  
askoz bizkorragoa  
baidago oraindik.  
Zenbait grazi baditu  
nundik edo andik,  
ajerik ez diogu  
ikusten inñundik.

5

Zerbait txarra badauka  
beregana ala're:  
ezin gizonik lasai  
egon inñola're.  
Zeregin derrigorrik  
ez du inñun ere.  
leizerik leize dabil  
basauntzaren pare.

6

Arazo ortan Joxek  
bere nortasunak,  
orra gizonak nundik  
nora eginkizunak;  
eman al dezaizkigun  
maiz argitasunak,  
lagundu dezaiola  
daukan osasunak.

7

Joxe. artu itzazu  
nere zorionak,  
nere barrendik irten  
diran beroenak.  
Lanen bildurrik iñoiz  
izan ez dezunak,  
etzaitu lizunduko  
etzanda egonak.

*La Voz de España, 1976.06*  
*Nekez bada ere liburua*

# Amorio-kontua

---

1

Dalako Bilintx saria dala  
amorio izenean,  
berak etzitun gutxi jarriak  
munduan bizi zanean.  
Ez gera gutxi ari geranak  
burua austen lanean,  
komeriu auk sortzen zaizkigu  
dirua tarte danean.

2

Gazte garaia ni ere bainaiz  
noizbait nunbaiten pasia,  
amoriozko kontuen berri  
asko ez nun ikasia.  
Gertakizun bat gerta zitzaidan  
gutzizkoa itxusia,  
amoriotan ustelkeriak  
zirala nun ikusia.

3

Neskatxa bati nere baitan ni  
begia jota nenguan,  
bururaturik ura artuta  
zeruan ote nenguan.  
Urte aietan aura're nunbait  
norbaiten premiz zeguan,  
itzegitean bere aldetik  
baietza aguro nuan.

4

Beldurtutzean errezegia  
ote zegoan tratua,  
une batetik bestera nintzan  
zearo atzeratua.  
Besteren gauzak ikututzea  
izanik debekatua,  
amak egiña zuan bezela  
nigatik zan gelditua.

5

Albiste latza jaso nuana  
iru bat illabetera:  
«Zuk adiskide zendun neskatxa  
aurra izan berria da;  
jendeak mar-mar diardu berriz,  
zeurea du bearbada».  
Nik erantzuna: «Eziñezko da,  
milagro izan ezpada».

6

Ezin ukatu gertakizun au  
onela gertatu zala.  
eskarmentu au izan nuala  
artean gazte nintzala.  
Ez nezake esan amoriorik  
neskak neretzat bazula,  
egia dana nolabait ere  
ni gabe konpondu zala.

7

Nere biotza motel jarri zan  
ustez bizi zegola're,  
errezegiak gauzak jartzean  
atzera norbera ere.  
Zailla danean ezin iritxi,  
emen komeriak daure;  
oiñak urratuz iritxi obe  
txarragoa bada ere.

8

Palta izatea batzutan obe,  
beste batzutan sobrea,  
iñoiz burua danborren gisa  
gorputz guztien jabea.  
Oiñak neketan urratzen dauzkan  
biotz erruki gabea,  
asko kostea zerbaitegatik  
sari izaten ohea.

9

Ondo juteko maitasuna da  
gauza derrigorrezkoa,  
edo bestela izan lezake  
dena alperrikakoa.  
Alderdi batek duanarekin  
ez leike izan naikoa,  
alde bietan bear du izan  
biak erdi-banakoa.

10

Gure Jaungoiko justuak egin  
komeni ainbat mirari,  
nere biotza fedez aberats  
zabaldua neskatxari.  
Geroztik zenbat aldiz esana  
nago nere buruari:  
etzan komeni edo bestela  
lazoan nintzan erori.

*La Voz de España, 1976.07.22*  
*Nekez bada ere liburua*

# Eun urteko utsuna

---

1

Uztaillaren ogeita baten,  
gure Euskalerra ontan,  
eun urteko utsune bat zan  
ospatu Bergara ortan.  
Ikusgarizko gertakizuna  
ikus genduna bertan,  
ezin ukatu au izan zala  
aundia aundienetan.

4

Sarri izan oi duan bezela  
ainbeste gauza berezik,  
Euskal Erriak tokia eman  
izan oi zioten pozik.  
Etzekarkiten kalterik ezer  
mesedea pranko baizik,  
etzegokion desegiterik  
sobratuak egon ezik.

3

Euskal Erriak beregan zitun  
garai baten anparuak,  
deituraz dira deitzen diranak  
Euskal Erriko Furuak.  
Lege aldetik beretzat ziran  
bere lagun zearuak,  
milla zortzireun irurogei ta  
amaseik deseginduak.

5

Bergaran erri-ordezkariak  
Fuero oien aldetik,  
eraso die lanari berriz  
beste guztien aurretik.  
Saillara baten an agertuak  
lau probintzi auetatik,  
irurogei ta zortzi ordezkari  
beste ainbat erritatik.

3

Politikakin sarri oi dira  
orrelako komeriak,  
argirik egin ez al zezaten  
moztu zizkaten ariak,  
Anparorikan ezak geroztik  
sortu ditun ondoriak!  
Ainbat urtean gozatutzean  
ez al zituan beriak?

6

Errespeturik apalenakin  
Juan Karlos erregeari,  
bertsoen bidez nai nizkioke  
gaur egin zenbait eskari:  
aspaldi ontan ai geran eran  
aurrera ez gaitezen ari,  
eman bezaizka bere Fueroak  
gure Euskal Erriari.



7

Esan egarriz nintzan guztia  
orra nik esan bertsoan,  
eginbear au ere sortzen da  
ustegabeen batzutan.  
Lenago ere ari geranez  
ikusten egun auetan,  
Fueroen alde egin zutenak  
baziran mundu onetan.

8

Esan dedana, egun auetan  
ari geranez ikusten,  
lenago ere bateonbatzuk  
egiña izango zuten.  
Olako gauzak ondo gordeak  
batzutan dira egoten,  
nereak ere gerta liteke  
serbitutzea noizbaiten.

*La Voz de España, 1975.08.04*  
*Nekez bada ere liburua*

# Parroko zanari

---

1

Zor nizkiola gogoratzean,  
ona emen nekez baten,  
alaia ez da baiña olako  
gai asko ez da izaten.  
Ain mingarria berez izanik  
ezin asi naiz esaten  
zer naigabea igaro bear  
izan degun Arrasaten.

2

Bera zanantzat naiz gutxi izan  
itzegin nai nuke umil.  
nere barruan orretarako  
asmoak artuta nabil.  
Norbaiten billa gure artean  
eriotza noiznai dabil,  
urrillan bian altaran bertan  
parroko jauna zaigu il.

3

Erri guztian zuzendari ta  
serbitzari izan da-ta,  
ogeamabost urtean etzan  
bere tokitikan palta.  
Zalantzarikan gabe bazuan  
gizonak zerbait aparta,  
Mondragoi ontan utzita joan da  
beintzat naigabe galanta.

4

Erakutsita utzi du ondo  
buruz etzala baldarra.  
esku ta oiñez berriz bazala  
izan alean azkarra:  
Esan nezake alakorikan  
bera ote zan bakarra,  
danon aurrean bere tokian  
il zan Jose Luis Iñarra.

5

Nola beartsu, ala aberats,  
guztiok bere bearrez,  
bidezkoa zan gu gelditzea  
umezurtz gisa negarrez.  
Don Jose Luisek egin duanik  
egitea ez da errez,  
izan ezean ark egin duan  
giza-maitasun indarrez.

6

O, Don Jose Luis, ari natzaitzu  
zeru alderuntz bertsoan,  
goxotasuna sortu zenduna  
ainbeste toki otzetan.  
Esan nezake, testigu izan  
naizenez urte batzutan,  
on egiten zu aberatsena,  
aberats aberatsetan.

7

Onegilleak bertan izanik  
atseden itxaropena,  
nere fedeak ez du zalantzik  
zu zeruetan zaudena.  
Gure Jainkoak izan zaituna  
mundutikan eramana,  
eskatzen dizut zerutik ere  
oroi zaitezen gugana.

1976'ko Azaroak 6  
*Nekez bada ere* liburua

# Don Jose Maria

---

1

Doble naigabe izan zaiguna  
Arrasaten eroria,  
bi gizon aundik bizitza oni  
emanez bukaeria.  
Lena tristea izan zitzaigun,  
oraingoa ez alaia:  
len parrokoa joan zitzaigun,  
orain don Jose Maria.

2

Auxe da auxe alabearra,  
entzun, sortu ginduzuna;  
jakiñik gaude nai dezunean  
eraman al gaituzuna.  
Sinisten degu orretarako  
baimen osoa dezuna,  
saritu gabe etzazu utzi  
ainbat serbitu dizuna.

3

Eraman digu gure gizona  
Jainkoak mundu ontatik,  
ez dituana gutxi izanak  
esnaraziak lotatik;  
ogibideak sortu zalea,  
eliz-gizona bestetik,  
zeruan toki izan dezala  
mondragoitarren partetik.

4

Agertu danez apartietan  
aintzat artua zutela,  
bidezkoa da itzegiteko  
toki ematen ditela.  
Erakutsita joan da ondo  
buruz etzala motela,  
ainbeste kristaun ogibiderik  
etzun sortuko bestela.

5

Gizon aundi bat joan zaigula  
izan dezagun goguan,  
beti lanean aritu zana  
egin naiean zeguan.  
Esan dutena ondo esana,  
ezin neurtu baliuan,  
lenago asko egiñak geio  
egin zezan nai genduan.

6

Len etzegoan iñor neurtzerik  
aritutzean batera,  
bizi diranak ezagutzeko  
izango dute aukera;  
arek ezpaitu geiago egingo,  
joan da eternidadera,  
emen gelditu geranok orain  
neurtuak izango gera.

7

Gure artetik joanberria  
zeran don Jose Maria,  
egiten dizut parrokoari  
egin nion eskaria:  
mundu ontatik etzera joana  
lanikan egin gabia,  
bestetik ere lagun zaiguzu,  
izango degu premia!

*La Voz de España, 1976.12.12*  
*Nekez bada ere liburua*

# Pixti ankabikoak

---

1

Bertsotarako aukerazale  
baiña sarri gai tristiak,  
gertatzen dana gerta leikela  
lanak ditu sinistiak;  
zenbait garrantzi izan lezake  
urrutira irixtiak,  
kristau agertu bear danean  
baldin bagera piztiak?

2

Kristau izaten ainbesteraíño  
arrote, errukarriak,  
ala agertzen ari zaizkigu  
sortzen zaizkigun berriak.  
Albaiteroangana dituzte  
bein da berriz ekarriak,  
gizonak gaitzez mingain-motz utzi  
ditun ardi elbarriak.

3

Txar egiteak artu al ditu  
on egitean lekuak?  
Okerrak zuzen joateko ez dira  
bideak orrelakuak.  
Naikoa kalte izan oi dira  
piztiak egindakuak,  
piztiak dira auek ere, bai,  
baiña ankabiñakuak.

4

Era ortako jokabideak  
ez dira onerakuak,  
baizikan egin beintzat bai gaizki  
eta gero gerokuak!  
Berriro diot, piztiak ditun  
egintza berberekuak,  
gorputzez dira diferenteak,  
biotzez antzerakuak.

5

Gogoan nunbait izango dezu  
dezula kristau izena,  
ori zeurekin erabiltzeko  
bakarrikan eztezuna.  
Beartzen zaitu besterik gabe  
betetzen eginkizuna,  
eskubiderik txarrerako ez,  
onerako al dezuna.

6

Ain zuzen ere bera izanik  
aberetan apalena,  
zuk artu dezun arazorako  
artu ezin litekena.  
Nundikan nora, baiña, gizona,  
olako burutapena?  
Ezer onetik lortu nai dunak  
bide ori du azkena.

7

Guzti oni zuk ezpadiozu  
garrantzi asko emango,  
ori len ere nere burutik  
pasa gabea ez nago.  
Ni ez nengoen beste ainbeste  
entzunik inoiz lenago,  
gogora zazu etzabiltzala  
zabiltzan bidetik ondo.

8

Egintza oiek onaren alde  
ezer ere ez dakarte,  
lenago ere ariko zera  
jakiñean orrenbeste.  
Ez jakiñean ari baziña,  
arren!, konturatu zaitte,  
abere otzan errugabeak  
ez dituzu asko maite.

*La Voz de España, 1977.02.04*  
*Nekez bada ere liburua*

# Etxea lendabizi

---

1

Inozentzio Olea jauna,  
ezagunago “Legazpi”,  
bere bertsoak irakurtzen naiz  
aritua ni gain da azpi.  
Bergara aldean ikusi ditu  
berez zenbait argi izpi,  
gai oni buruz esan naiean  
arkitzen naiz ni gaur itz bi.

2

Arazo oni nik ere dizkat  
astindu batzuek eman,  
baiña nik ezin argi izpirik  
ikusi diot iñolan;  
Ez jakiñikan ez leike egon  
daukagunen berri modan,  
etxea baiño auzoa leno,  
ez dakit ori nola dan.

3

Problema oni eragiteko  
beta artzeko zai negon,  
gure artean klase ontako  
oiturarik len etzegon.  
Gure gazteak badituztela  
eztakit zenbat alde on,  
baiña etxeko arazoetan  
gaur iñork ez du nai egon.

4

Oitura au zan zalantzik gabe  
erentzitik zetorrena  
ain berezia, jatorrizkoa,  
maitasunak zekarrena.  
Premirik bazan arduratzen zan  
etxean ume zarrena,  
gaur ez da iñor arduratutzen,  
au da emen okerreña.

5

Etxe aldeko eginkizunak  
beti dauzkate egiñak,  
ez dira asko konturatuko  
sortzen dituzten samiñak;  
auzoan beti egin bearrak  
iñoiz ezin egin aiñak,  
bata joan da bestea etorri  
egun guztiak berdiñak.

6

Oso bakanak ez ote gera  
beintzat pertsona nausirik,  
bizitzan zear izandakorik  
aukeran egun lasairik.  
Gaur ere berriz kezkatzen gaitu  
gauza batzuk ikusirik,  
sortuko al da au konpontzeko  
kapaz dan demokrazirik?



7

An da bestean arreta biziz  
ai dirala ikusita,  
premisakoena ezagutuzten  
beren ustez ikasita;  
ainbat oitura jatorrizkori  
ateak itxiz josita,  
munduan bada zer konpondua,  
baiña etxetik asita.

9

Kristau artean usatutzeko  
izan arren itsusiak,  
moda ortako tratua orain  
ubarituzten asiak.  
Eldu zaizkigu etxeraiño len  
atzerrian ikusiak,  
gure aurreko zar aiengandik  
ez ditugu ikasiak.

8

Amoriorako itxura pranko  
alde guztitan tarteko,  
bakoitzak bere zenbait atsegin  
gozatzen usa arteko.  
Sarritan gauzak aldatzen dira  
andikan urtebeteko,  
konponbidetzat diburtzioa  
alkar saldu ta erosteko.

*La Voz de España, 1977.05.22*  
*Nekez bada ere liburua*

# Bertso Berriak

---

1

Berriro ere gerturatzean  
San Juan egunetara,  
gure asmoak eta ametsak  
jarri ditugu pestara.  
Antolatzaile diranak dabiltz  
batera eta bestera,  
danen gogoko zerbait zuzendu  
naiean Arrasatera.

2

Pesta aundirik etzaigu samur,  
egin ditzagun laburrak,  
diru zororik ez degu eta  
zainduz ditugun apurrak.  
Ez gaitzela ibilli gero  
bata bestien bildurrak,  
gutxi egingo badegu ere  
izan ditezen jatorrak.

3

Zenbait mudantza sortu zaizkigu  
urte batetik bestera,  
bi gizon aundi agur egiñak  
ditugu biak batera.  
Berriak ere ari zaizkigu  
irixten gure artera,  
prez beteak utsik gelditu  
zitzaizkun tokietara.

4

Don Jesus, gure zaindaritzara  
nola eldu berri zeran,  
une auetan aurkitzen zera  
sail berriaren aseran.  
Zertaz badezu zeri erantzun  
izango dezu aukeran,  
ea guztiok zoriontsuak  
luzaro izaten geran.

5

Artu dezuna erri onetan  
danen aurreko mailla da,  
besterik ez du bere berdiñik,  
bera bakarrik soilla da.  
Eroso bizi al izateko  
bearbada ain zailla da;  
Jaunan laguntza izan daizula,  
gizonentzat egiña da.

6

Otsaillaren emeretzian,  
artsalde ederrenean,  
zuaitz aldatze txalogarri bat  
ekintza jatorrenean,  
ospatu zana gure Arrasaten  
enparantza barrenean,  
gero gertatu zanak dionez,  
unerik okerreanean.

7

Erriko seme ain ospetsua  
zana Sebero Altube,  
etxeak sarri izan oi ditu  
orrelako zenbait abe.  
Enparantza au oraindiokan  
zegona bautizo gabe,  
egun orretan egin zutena  
aren deituraren jabe.

8

Arrasateko semea zanak  
gerora Altube jaunak  
erri aldatuz Gernikan zitun  
eman bere fruitu onak,  
euskaldun kutsuz aberastuak  
berak egin zitun lanak.  
Ortikan datoz bi erri auen  
arteko artu-emanak.

9

Ainbesteraiño entzutetsua  
dan Gernikako Arbola,  
aren zaiñetik ziur sortua  
uste gendun bagendula;  
baiña ondoren izan zuana  
izanik erantzun aula,  
esan nai al du beti onela  
jarraitu bear degula?

10

Gure enparantzak ondo jantzita  
ondo emango lukela,  
zalantzik ez det geientxuenak  
iritzi ori dutela.  
Bide egokia erakusteko  
gu geu jantzita gaudela,  
edo bestela sinistu gero  
alperrik ari gerala.

*Nekez bada ere liburua  
La Voz de España, 1977.06.22*

# Naparroari

---

1

Lengo egunean naiz  
kontuan erori,  
Naparroa, bertsotan  
zaizuzela ari.  
Jarriak omen daude  
beraz zenbait sari,  
eraso bearrean  
baigaude lanari,  
mintzatu bearrean  
zeri edo ari.

2

Egunkarian dira  
azaldu berriak,  
egillien izenak  
gabe etorriak.  
Arreta biziz ditut  
nik irakurriak,  
zeiñenak diran ziur  
ezin igarriak,  
berotuak izango  
zaizka belarriak.

3

Bertsuak egin ditu  
maixu baten gisan,  
bere buruan zenbait  
amets ibili zan.  
Naiz egilleak bere  
izenik ez esan,  
berak bazekin ondo  
bai zertan ari zan,  
lotsagarriakgatik  
ezta ori izan.

4

Ezta edozein izan,  
bada bera norbait,  
bertsotan jarri ditu  
ainbat gauza polit.  
Neri beintzat guztizko  
sorpresa eman dit,  
nik ere esan naiak  
bai irtengo balit,  
aztuko zat alare  
esatea zerbait.

5

Artarako zaudena  
aukeratua zu,  
Naparroa maitea,  
au entzun zaidazu:  
anaitzat zaitun batek  
itzegiten dizu,  
nere agur beroa  
arren artu zazu,  
auzo erriko seme  
beartsu bat nazu.

6

Baditut nik ametsak  
gauzak esateko,  
esan gabe ez nago  
ezer gordetzeko;  
asko egoki jarten  
naiz aleginduko,  
zure gorantzan zintzo  
pozik arituko,  
bear ainbat etzaitut  
baiña goratuko.

7

Erbestekotzat zuk ez  
gaituzu artuko,  
senide ezpatera  
ain gera gertuko.  
Bertsotan idazleak  
zaizkitzu sortuko,  
gure almen guztiak  
ditugu neurtuko,  
batzuek lentxeago  
gera agortuko.

8

Zerbaigatikan zera  
zu aukeratua,  
baldintza aberatsez  
zaude osatua,  
ezin lezaizukena  
iñork ukatua;  
izango dezu franko  
zeiñek aitortua  
zuga bada aukeran  
zertaz mintzatua.

9

Artu al zaituala  
zenbait une larrik,  
ordea badakizu  
etzaude bakarrik.  
Izaten ezpadezu  
ezerren okerrik,  
nortasunean eztu  
iñork zure urrik,  
zuk ez dezu iñoren  
kontseju bearrik.

10

Goraberak ditugu  
iñoiz ez ainbeste,  
konponduko al dira  
danak nolabait e.  
Izan gaitezen beintzat  
danok alkar maite,  
demokrazia martxan  
jartzen dala laiste,  
zuk nai dezuna egin,  
libre izan zaite.

1977-ko Uztaillak 23 eta 24  
*Nekez bada ere* liburua

# Perurena indartsuari

---

1

Gutziz arrigarria  
zeran Perurena,  
nundikan nora dezu  
alako almena?  
Ez aitortutzekotan  
zuzenki den-dena,  
ixilik egotea  
litzake onena.

2

Esan nai nizukena  
auxe da lenena:  
txundituak dakizu  
guztiok gaudena;  
Bakoitzak, ai, bagendu  
zuk dezun laurdena!  
Ori da, ori grua  
egiñik zaudena!

3

Ain umea zeranez  
gertatzen zaizuna,  
jolasari diozu  
zeure maitasuna.  
Orretan dezu zure  
egokitasuna,  
ori da jostailua  
aukera dezuna.

4

Jostailu oiekin zu  
ain zaude abilla,  
zure gradukorikan  
zeu bakarra soilla.  
Ume zerala nola  
igo dezun mailla?  
Aurrerako daukazu  
konpromiso zaila.

5

Oraindik ain gaztea  
beraz zu izanik,  
zeiñek uste geiago  
ezin al dezunik?  
Azkeneko gaillurra  
ea jo dezunik?  
Ez dezazula jetxi  
zure emankizunik.

6

Iritxi baiño leno  
sasoi onenera,  
etzaitezela beintzat  
asi goitik bera.  
Bestela arrigarri  
len izan bazera,  
arrigarriagoa  
gero izango zera.

7

Osasunean dago  
asko gora-bera,  
bere laguntza gabe  
gauza gutxi gera.  
Gaiñerako kontuak  
zure kontu dira,  
igotzeko badezu  
oraindik aukera.

8

Landarea ziñan zu  
sortu alakoa;  
arbola egin zera  
gerri lodikoa.  
Lur onetik izaten  
dezula naikoa,  
izar bear zenduke  
itzal aundikoa.

1977-ko Abuztuak 5  
*Nekez bada ere* liburua

# Sakabi soiñujoleari

---

1

Bertso batzuek eskeñi naia  
aspaldiko lagun oni,  
kinto lagunak, erri bateko  
semeak gera zu ta ni.  
Euskal Errian ainbesteraíño  
ezaguna dan Sakabi,  
biok biotz bat bezela gera  
gorputzez izan arren bi.

2

Aizu, Faustino, zure soiñuak  
entzutean nik emendik,  
besterik gabe ikusten zaitut  
bizi zerala oraindik.  
Guk bagenduzen lagun geiago,  
ezta berririk iñondik,  
ez uste izan gu ere emen  
beti-betiko geranik.

3

Ori orrela dala're baiña  
gu alegindu gaitean,  
ez aztu gero zor au degula  
Jaunak nai duan artean,  
soiñu ta bertsoz aitzen emanaz  
bizi geran bitartean.  
Bear bagaitu deia izango  
degu alakoan batean.

4

Aitatutako gure lagunak  
ezin orrenbeste esan,  
aiengan ere sasoia eta  
bizi desioa bazan.  
Gure gaiñera loteri ori  
zuzen-zuzen erori zan,  
saia gaitezen gu otoitzean  
zeruan gerta ditezan.

5

Zure soiñuak entzun orduko  
datorkitena burura,  
emezortzi bat urte genduzen  
inguruko garai ura;  
orain paseak arkitzen gera  
irurogeitikan gora,  
kalderra izan baldin bada're  
joan da gure denbora.

6

Pestak dirala, erromeriak,  
eztai eta bautizoak,  
zure soiñuak nunaitan dira  
xamurrak eta gozoak.  
Zuk alaituak erri, auzo ta  
mendi, zelai ta basoak,  
gutxi ez tala ez ote dizu  
iñoiz entzun itxasoak?



7

Zure soiñua ain aberatsa  
mundu dana zaletua,  
gauz atsegiña sarritan oi da  
izan ere maitatua.  
Iñork ikusten etzaitun arte  
oso eziñeratua,  
maite izan dezun lanari zaude  
jarraitzera beartua.

8

Nik gogoan det zuri entzuna  
dala iru lau bat urte:  
«Guk utzi gabe, bezeruak gu  
berak utziko gaituzte».  
Oraindik ezta ikusi beintzat  
gertatu danik ainbeste,  
pixka batean jubilatzerik,  
Sakabi, etzazu uste.

9

Euskaldunak zer gozatzen duan  
zu ikustean lanean,  
entzun utsakin ikusten zaitu  
zu egokitasunean.  
Olakoxea zera zartzara,  
berdin sasoi zendunean,  
entzutekoa zure soiñuen  
otsa asitzen danean.

*La Voz de España, 1977.09.11*  
*Nekez bada ere liburua*

# Gurasoen kezka

---

1

Aurten udiak ez gaitu ase,  
opor denborak joanak,  
kanpotar asko beren lurrari  
ikustaldi bat emanak.  
Bero zakarrak ez gaitu beintzat  
arnas artzera eramanak,  
baiña ez gera emengoak e  
danak etxean egonak.

2

Batzuek toki aldatze bear  
osasanak beartuak,  
beste batzuek atsedan premiz  
beren buru nekatuak.  
Ez al ditugu baiña oraindik  
diru pixkak bultzatuak?  
Iñun kabitu ezin diranak  
ia erdi erotuak.

3

Bide zuzenez diru gaiñezka  
oso erreza ez dago,  
ainbat ez duan, duan itxuran  
ez dabillenen ez nago.  
Ain zuzen baiña iñor gaitz orrek  
artua baldin balego,  
urrutira jun bearrik gabe  
nun neurritatu badago.

4

Ez ote zaigu gertatzen baiña  
oraindik okerragoa?  
Dirurik gabe edo berekin  
dibertitzeko gogoia.  
Gai ontan sarri ez al da agertzen  
senarra bareagoa?  
Alegia maiz askozaz ere  
andrea areagoa.

5

Gure gazteak berriz jakiña  
ondartza edo basoan,  
or egonduek toldo azpitan  
opor denbora osoan,  
Geien batean neska ta mutil,  
danak armoni gozoan,  
eurak dakite nola konpondu  
diran kristau arazoan.

6

Etxean izan oi dituztenak  
amarekin komeriak,  
ainbat alditan entzuten ditu  
geio ezpada beriak.  
Ez ditu jartzen beren gogozko  
batez ere janariak,  
nola ez ditu izutzen toldo  
azpiko egoeriak?

7

Berdin zaiote igande edo  
jai aundiren bat eltzian,  
ez dira asko ezagunduko  
ibilleran da jantzian;  
batzutan gaizki jantzita eta  
bestetan larru utsian,  
garai bateko itzala eta  
lotsak betiko etzian.

8

Itxusi zaigun guztiagatik  
ain errez esaten degu:  
«Emen ez gendun onelakorik,  
kanpotik etorri zaigu».  
Era orretan itzegiteko  
ainbeste danok dakigu,  
besterik gabe gure biotzak  
askatzen ote ditugu?

9

Gurasoak gu ez ote gera  
arazo ontan lenena,  
zor ditugunak bai ardura ta  
bai maitasunik onena?  
Ikusi arren gure izakerak  
xelebretuak daudena,  
egia ote gurea ez dala  
esanda libre gaudena?

10

Guraso onak biotza dauka  
bere seme-alabetan,  
nunai ta noiznai nai dituanak  
ikusi bide onetan.  
Geureak edo geure ez diranak  
ditugu gure lurretan,  
nork ontzat artu faltik dutenik  
ezin esan berriz bertan.

*La Voz de España, 1977.10.09*  
*Nekez bada ere liburua*

# Urte berriari

---

1

Milla beatzireun irurogei ta  
au emezortzigarrena,  
oiñez ikasten ari dan aurtxo  
txikien gisa zaudena,  
eskatzen dizut izan zaitezen  
aspaldikorik onena;  
nik esan gabe zuk badakizu  
premis beteak gaudena.

2

Bearbada ni presaka zuri  
eske asiko nitzaizun,  
baiña premiak ez du txantxarik,  
arren!, zaidazula entzun.  
Zure aurretik igaro danak  
nolabaiten du erantzun,  
erruki zaitez, okerrenetik  
ia libratzen gaituzun.

3

Une batetan eman gabea  
bizi izateko pozik,  
ezinbestea, estuasuna  
alkarren gainean baizik.  
Batzuk ia jan, besteak ito,  
egiñaz noizean noizik,  
azkenik ezer sortzeke joana  
mixeria izan ezik.

4

Igaro dana guztiz kaldarra,  
okerra zetorren lendik,  
aurretik joanak etzigun eman  
bear gendun ondasunik.  
Au esanakin bai ote degu  
baiña guztia esanik?  
Konturatutzen ote gera gu  
zenbat merezi gendunik?

5

Nolakoa da Alguztidunan  
aurrean zure konduta,  
zor dizkiogun itzala eta  
errespetoa galduta?  
Santu egunak, ainbat jai aundi,  
komeri utsez kenduta,  
merezi aiña sortuko digu  
egitan maite gaitu-ta.

6

Noiz asi bear ote degu guk  
biotz onez ta kariñuz?  
Bazterrak ondo aseak daude  
beti-betiko engaiñuz.  
Nola lezake jairik ukatu  
lan geio egin enpeiñuz?  
Ez lanerako jarritakoak  
zintzo beteko bagaiñuz.

7

Batzuk presaka, besteak geldi,  
komeriak ubaritu,  
kasturakoak ugaldtu eta  
lan orduak galestitu.  
Zenbat aldiz guk on izenean  
gauzak ditugun gaizkitu!  
Guk jostailutzat erabilteko  
Jaunak jarriak ez ditu.

8

Guk alkarrekin zorrik ez, beraz,  
baizik danok artzekoak,  
langille eta ordaintzailleak  
sarritan antzerakoak.  
Kontzientzitik ez gera aurkitzen  
barru aberatsekoak,  
onela gabiltz gabiltzan modun,  
senide biotzekoak.

9

Gure buruan jabe gera gu  
bakoitza gure ustean,  
baiña sarritan erortzen gera  
gizon soillak izatean.  
Maixu onaren erreñu danak  
ukatu ate-atean,  
ez gabiltz ondo aintzat artuta  
ari ez geran artean.

10

Argitasunak baldin badira  
guregan iñoiz ez beste,  
nola gabiltza premizkoena  
aaztuta gabiltz ainbeste?  
Gure gaiñetik ezer badala  
gutxi kezkatzen gaituzte,  
besteak baiño oiñarri geio  
ezezkoak ez dituzte.

*La Voz de España, 1978.01.12*  
*Nekez bada ere liburua*

# Aurtzaro-zartzarori

---

1

Zerbait mintza naiean  
bizitzari buruz,  
denbora joatean  
egontzake damuz,  
naiz ala egitea  
kosta guri erruz,  
gauzak artu bearra  
dago emen moduz.

2

Ortara banaiz ere  
ni alegindua,  
bizitzan beti ez naiz  
nai aiña zaindua;  
orain urteen karga  
dalarik gaindua,  
oiñak astundu eta  
burua arindua.

3

Zenbaitek biak ditu  
berdintzat egiñak,  
aurtzaro-zartzaroak  
dituzten eziñak,  
Olako pentsakerak  
ditu ez dakiñak,  
ez dute iñun antzik,  
ez dira berdiñak.

4

Zarra nolanaite're  
danen bearrean,  
nai ta ez bearko du  
jarraitu zarrean;  
bitarte aurra dator  
gora indarrean;  
berdin dala? Etzegok  
toki ederrean!

5

Datorren bitartean  
aurtxoa argitzen,  
era berean zarra  
dijoa illuntzen;  
bata bere muiñetan  
indarrak ubaltzen,  
bestea urrituaz  
dijoa erortzen.

6

Aurtzaro irriparrez  
mundura begira,  
zarra berriz juteko  
gertatzen ari da.  
Aldatu ezik gauzak  
sistema berrira,  
oraiñ arte jarraitzen  
duana ori da.

7

Aurtxo lore kutsuz  
sortu dan pipita,  
etorkizunarentzat  
ain gauza polita;  
zarrak bizitza bidez  
dauka ikasita  
joan bearra dula  
guztiak utzita.

8

Izatez ez geranez  
iñor arrizkuak,  
geuregan baititugu  
geure arrixkuak.  
Kristauok baigiñake  
laister urrituak,  
izan ezean ere  
ortan berriztuak.

9

Etorkizun bideak  
aurrak alaituak,  
lentxeagora arte  
zarrak serbituak;  
iritxi zaizkionak  
ezin segituak,  
ez al zaizka paltako  
zeiñek jarraituak!

10

Zarrak ez duan arren  
aurrak ainbat parre,  
orrek ez du esan nai  
dagonik asarre.  
On egiten saiatu  
dalarik alare,  
kezkati ez baidauka  
zertan egon ere.

*La Voz de España, 1978.02.26*  
*Nekez bada ere liburua*

# Udaberriari

---

1

Negutik ortxe nunbait  
gaude ateriak,  
palta diran egunak  
dira uskeriak.  
Poza sorten du uda-  
berri atariak,  
abesten asi dira  
txori kantariak.

2

Udaberria, zatoz  
aliek azkarrena,  
bagera iñoiz izan  
geran bearrena.  
Negua gendun izan  
zeiken zakarrena,  
ez aztu orain zure  
txanda datorrena.

3

Zure itxaropenez  
ainbeste osasun,  
udaberria, izen  
ona nola dezun:  
Neguak errukirik  
iñorentzat etzun,  
ea zuk danok pozik  
utzitzen gaituzun.

4

Zuretzat ditut nik gaur  
esan nai bakarrak,  
izutu gaitu alde  
guztitako txarrak;  
batez ere gaixoak  
eta gure zarrak,  
geien erasanduak  
neguen indarrak.

5

Negua egitea  
ere garaiz nai zan,  
nolakoa zan ere  
ia aztu baizan;  
baiña bai egin ere  
baldin bear bazan,  
piztiak berentzako  
ezta ona izan.

6

Zuregatik diogu  
beste orrenbeste,  
ondoegi portatzen  
zeranik ez uste.  
Sarritan sortzen dezu  
ez dakit zer naste,  
konduta txarra ontzen  
arduratu zaite.



7

Zu gabe ezin goza  
degu osasunik,  
eztare premizkorik  
beste ondasunik;  
baiña zuk ez egiten  
izena dezunik,  
nola ez utzi pasa  
zerala ezaunik?

8

Erregetza neguak  
erantsitzen dizu,  
iru illabeteko  
zeu zerala maixu.  
Eskubidea gauzak  
aldatzeko dezu,  
zeuk irtenda neguan  
utzitzen gaituzu.

9

Bein baiño sarriago  
nago ikusita,  
bertso polit askoak  
zuri eskeiñita.  
Naiz ni egon ez arren  
ondo iritzita,  
ez dizute eskeintzen  
beti merezita.

10

Udaberriko zenbait  
ekaitz ta zenbat otz,  
negua bera baiño  
okerrago, zorrotz.  
Ala ta're zurekin  
goxo zenbait biotz,  
zer izango ote zan  
ona egin ezkeroz?

*El Diario Vasco, 1978.03.16*  
*Nekez bada ere liburua*

# Arratiako gazte talde bateri

---

1

Biotza zuzentzean  
gaur Arratiara,  
Arrasatetik nua  
dei bat egitera,  
izanak baititugu  
zenbait gorabera,  
baiña maite gera ta  
konponduko gera.

2

Arratiako gazte  
talde bat ain zuzen,  
lorailan zazpian  
gurekin mindu zen.  
Borondate onaren  
palta nola etzen,  
bearrezko zaigu ta  
konpondu gaitezen.

3

Iritxi ziran txistu-  
lari eta guzi,  
tokia egin asmoz  
nai aiña jolasi;  
erriko enparantzan  
dantzan ziran asi,  
kalezaiak ordea  
dana galerazi.

4

Eztabaida batzuek  
izanak zituzten,  
gazteak alakorik  
buruan etzuten.  
Beurak dibertitu ta  
jolastu nai zuten,  
aitortu bear degu:  
arrazoia zuten.

5

Leialtasuna sendo  
gazteak agian,  
geroztik naigabeak  
erakutsi naian.  
Iritziak dituzte  
jarri agirian,  
irakurri ditugu  
guk egunkarian.

6

Gazte taldean sortu  
kezkak bereala:  
demokrazia maillan  
oker ai gerala.  
Kalezai ta alkate,  
erria iguala,  
gai orretan gu baiño  
geiago dirala.

7

Olako istilluak  
guretzat naitzuan  
dalako bizi geran  
bizitza dantsuan,  
Esango ditut gauzak  
nik nere zentzuan:  
egun artan errurik  
inortxok etzuan.

8

Danok gaude jakiñik  
aspaldi egona,  
berrogei bat urtean  
ikasi deguna;  
barruraino sartua  
gelditu zaiguna,  
*ezin liteke* baizik  
emen etzegona.

9

Guzti ori gogoan  
izanik, nik uste  
ez gendukela bear  
mindu orrenbeste,  
Entzun, Arratiako  
naiz zar da naiz gazte,  
berriro ere onuntz  
etorri zaitezte.

10

Goxo nola guk artu,  
ezpaidakigu-ta?  
Baiña uzten zaituztet  
ala aginduta.  
Borondatea beintzat  
gugan badegu-ta,  
auzo-erri gertuko  
baiño ez gera-ta.

*La Voz de España*, 1978.06.11

*Goiz-Argi*, 1978.

Nekez bada ere *liburua*

# San Antonio bustia

---

1

San Antonio aurtan asarre  
ez al zaigu etorririk?  
Aspaldi ontan ez gendun izan  
neurri ortako euririk.  
Nekazaritzan etzun izango  
iñork lan asko galdurik,  
erromerira joateko ere  
etzuan egin girorik.

2

Atsegiña ez urikan iñun  
aurkitu ezin danean,  
sortuko bada bide luzean  
ibili bear danean.  
Etzan gertatu au Antonio  
doatsuen egunean,  
alde guztitan ezin iñora  
iñola aldegiñean.

3

Gu ari geran une auetan  
gaiñak artu egarran.  
ikusi nola gertakizunak  
oraindik moda zarrian.  
Zenbat kandela bedeinkatuak  
piztuak une larrian?  
Zerbait bazekin esan zuanak  
«Ura ta sua neurrian».

4

Danok beartzen gaituna bera  
baldin badago ezere,  
danok asetzen gaituana da  
luzera edo motzera.  
Bazter guztiak urak artzean  
gauetik eta goizera,  
guztiok degu zer ikusia  
modu bat edo bestera.

5

Gaiñez eginda aldentzen dana  
probetxurikan gabea,  
alde ezinda traban badago  
ez berriz askoz obea.  
Ain konpostura gaiztoa palta,  
baiña ez ona sobrea,  
orra or nola agertzen zaigun  
guztion Jaun da Jabea.

6

Gizonak bere aldetik izan  
arren asko borondate,  
olakoetan utsen urrengo  
tokia baizik ez dute.  
Etxe bat urez betea ustu  
naiean ainbeste jente,  
bata ustu ez eta bestea  
utsa zegoena bete.

7

Arrokereiak sarri eragin  
izan oi digu ain zuzen,  
nolabait ere bide artara  
joaten gera errezen.  
Zein ezer gutxi geran begira  
pixka bat jarri gaitezen,  
gure almenak neurtuak daude  
nora iritxi leikezen.

8

Larrialdia igarotzean  
bartzarrak ondoezean,  
ainbat jan gauza gerturatuak  
geldituz ezerezean.  
Alper-alperrik ariko gera  
larrosakin ametsean,  
guztion arte jaso bearra  
daukagu naitaezean.

9

Neurri laburrik ezin iritxi,  
luzea ezin kabitu,  
eza gogorra, gaiñezkak berriz  
naigabe asko oi ditu.  
Bizitza onek, laburra dala,  
problema beintzat baditu.  
Errukitsuak bere garaian  
danok sarituko gaitu.

1977-ko Uztailak 3

*La Voz de España*, 1978.06

*Nekez bada ere* liburua

# Pesta nagusiak Arrasaten

---

1

Zure altzoan bizi naizenak,  
biotzeko Arrasaten,  
nere barruan badituz kezkak  
zenbat zor ote dituten.  
Aspaldi ontan pestak zuretzat  
giro gozorik etzuten;  
komeni bada aurtengo auek  
ia eskeintzen dizuten.

2

Zori txarrean sortu zaizkigu  
nun irabazirik ezak;  
kastutarako ditugu berriz  
beti lenengo ametsak.  
Irabazirik gabe kastuak  
ez dira berriz jolasak.  
Dirurik gabe pestak alaitzen  
ez ditugu lan errezak.

3

Buruko miñez aurkitzen gera  
irabazirik ezakin;  
erantzun bear zabalak eta  
nola erantzun ez jakin.  
Pestarik ere ez dago berriz  
antolatzerik utsakin.  
Dagokiguna burutatzea  
asko egiten gutxikin.

4

Naiago nuke klase ontako  
kezkarik gabe banengo,  
arazo oni ez bainioke  
onenbeste eragingo.  
Zintzo izaten daukagu gure  
eginkizuna lenengo.  
Gu ez bagera arduratuzten  
bestek ez digu egingo.

5

Zuk, Arrasate, izan dituzu  
nolabaiteko uneak;  
zenbat naigabe gure zaindari  
onak, San Juan doneak!  
Pesta garaian urrutiratzen  
diran aiek xelebreak.  
Alde egiten dizuten aiek  
ez dira zure semeak.

6

Jende garbiak ez beza egin  
pesta garaian alderik,  
jende narratxak ez dezan izan  
narratxerako lekurik.  
Aiek artara saiatzen dira  
baldin badute aukerik.  
Zikinkerian izan ezean  
ez dute beste pestarik.

7

Arreta jartzen baldin badezu  
ibillera ta jantzira,  
esango dezu: «Ote natxiok  
erotegira begira?  
Erri euskaldun bateko pestak  
onelakoak al dira?  
Gure euskaldun garbi apaiñik  
nundik eta nora dira?».

8

Era ortako eragozpenak  
gure artean aukeran;  
bestelakorik sortzea gaitz da  
gu ari geran jokeran.  
Oberatzeko itxurak urri  
artzen diotan tankeran.  
Ez al dirudi danok antzeko  
biurtu ez ote geran?

1978-ko Sanjuanetan  
*La Voz de España*, 1978.06.23  
*Nekez bada ere* liburua

# Gazte ezkongaiak

---

1

Gertatzen ari danan  
berri eman nezan,  
ezkongai bikote bat  
nerekin bildu zan;  
naiz bizar-ille uzte  
alde ni ez izan,  
etxean ditut eta  
nik ere zer esan?

2

Nunbait alkarrengana  
biak oso maite,  
oi dan bezela beuren  
ametsak dituzte;  
alkarrentzako dute  
milla borondate,  
baiña goibeltasunak  
sortu nolabait e.

3

Ezin asez dabilta  
ageri ta oste,  
alkarrengana bilduz  
igande ta aste;  
izan nai baluteke  
senar da emazte,  
lenbiziko pausoak.  
emanak dituzte.

4

Emaztegaiak bere  
eskariak laite,  
zenbait urtetan aixa  
zitezkenak bete.  
Mutillari diona:  
«Txukun jarri zaitte,  
bizar orrek etzaitu  
edertutzen bate».

5

Mutillak segi naian  
gaurkotasunean,  
etzion aintzat artu  
lenen esanean;  
baiña neskatxak esan  
berriz zuzenean:  
«Berandu izango da  
zuk nai dezunean».

6

Goibela azten berez  
txikitik aundira,  
bizarra ta illea  
dana biurrira;  
konpiantzak jetxiak  
irutatik bira,  
alkar menperatzeko  
oso bildur dira.



7

Emaztegaia etzan  
aldatzen alare,  
makurtzeko etzegon  
bitatik bat ere;  
senargaiak oraindik  
erantzunez bere:  
bizardunak daudela  
aldaretan ere.

8

Neskatxan erantzuna  
ez baizan petrala:  
lotsa bizar azpian  
gordetzen dutela;  
gaurko komenentzirik  
aiek etzutela,  
zer ikasi geiago  
eman zituztela.

9

Kemenik gabe jantzi,  
bizarrik ez kendu,  
era orretan ezin  
liteke apaindu:  
Klase guztitarako  
alperra mantendu,  
olakoagandik zer  
espero bear du?

10

Ezin adierazi  
zer poz sortu ditan,  
ez baidago neurtzerik  
ori nolanaitan;  
ez dago ikusterik  
ainbeste nunaitan,  
ez dirudian ainbat  
kezka ezkongaitan.

1978-ko Uztaillak 8

*La Voz de España*, 1978.07.08

*Goiz-Argi*, 1978.08.05

*Nekez bada ere* liburua

# Ateak itxi gerrari

---

1

Bertso-jartzaille onen berririk  
nik ez nuan lenagotik,  
baiña ordea ezaguna da  
izenordez *Galtzaratik*.  
Orain badakit bere bertsoak  
agertu dituztenetik,  
ederki asko aitzen eman du  
aberats dala onetik.

2

Igaro diran egun bakarrak  
ekaiñan ogeitik onuntz,  
gure lurrean illetak dira  
indarra izanak erruz.  
Egun aietan onek bertsotan  
gauzak esan zitun moduz,  
etzitekean berdin gertatu  
guk aintzat artu bagenduz.

3

Mintza-erazo gure lurra ain  
gaizki zegoan larriak,  
geroztik emen gauzak ez dira  
egokiago jarriak.  
Izan ditugu odol-ixurtze  
tamal ikaragarriak,  
au ikusita negarrik nola  
egingo ez du arriak?

4

Bertsoen bidez zuk, *Galtzaratik*,  
eman zendun aditzera,  
aintzakoz iñork ez artzeakin  
erruduna zu etzera,  
Nik ere orain egin nai nuke  
zuk egin dezun antzera,  
izugarriak gertatzen dira  
une batetik bestera.

5

Nere iritzia gure artean  
akats gordin bat degula,  
litekena da baiña ez nago  
ni oso oker nagola:  
kristau bakoitzan biziak berdin  
berdin prezio duala,  
guztion erruz ixurtzen dala  
ixuritzen dan odola.

6

Ilketa batzuk ezeztatuak  
modu bat edo bestera,  
beste batzutan gutxienean  
ixildu egiten gera.  
Beste batzuek batzun aldetik  
txalotuak izan dira,  
gauza onikan ez degu egingo  
onela ari bagera.

7

Beste biderik ez duena da  
ain eginkizun estua,  
kristau izena nai degunontzat  
derrigor juxtu-juxtua.  
Iñorentzako ere ilketa  
ez da iñoiz legezkoa,  
dan tokikoa dala danok zor  
baitiogu ezezkoa.

8

Nik gogorrena gogoratzen det  
gauzak ola daudenean,  
okerrenera ote goazen  
danok zuzen-zuzenean.  
Ez gaude emen makurtutzeko  
iñor besten esanean,  
gerra sortutzen ote gabiltzan  
demokrazi izenean.

9

Ezjakiñean aurkitzen gera  
gaitasunez nola gauden,  
baldin bagera erakusteko  
aukera badegu emen.  
Odol-ixurtze tamalgarriak  
ixil ditzagun lenbailen,  
ateak itxi zorion ordezt  
gerrarik sortu baiño len.

*Nekez bada ere liburua  
La Voz de España, 1978.07.18*

# Arrigarriena

---

1

Arrigarritan arrigarriña  
zertaz arriturik eza,  
ori bait degu gure bizitzak  
eskeiñi digun sorpresa.  
Ez al dirudi begiratzean  
dana ote dan jolasa?  
Konturatzeko, jabe naizen au  
ofizio aproposa.

2

Ainbeste lege ta kapitulu  
gizonak egindakoak,  
artikulu ta seiñaleakin  
gaitzat jarritakoak;  
aspaldi ontan nik oni buruz  
badauzkat nerekoak:  
ez ote diran ia oraintxe  
danak alperrikakoak.

3

Nola ez mintza gertakizunak  
onela diran ezkerok,  
naiz berdin samar izango dala  
uste izan onezkerok?  
Beste bidetik gauzak artzerik  
nola lezake espero,  
kristau dotriña alde batera  
baztertu degun ezkerok?

4

Lenbizi beurak gordeta gero  
ain garbitasun senduan,  
aurreko aiek utzitakoa  
erentzi bat bagenduan;  
ez gindezen gu bizitzen ari  
itsu ta ia galduan,  
ez egon baiña gaur ezjakiñik  
nun zer egin bear duan.

5

Nola kontuak eman orduan  
erantzun bearra degun,  
nere barruan sortu da kezka,  
nerekin dago gau ta egun.  
Ondorengoai era berean  
uzteko geranok zordun,  
autsi deguna ia nundikan  
nora utziko diogun.

6

Onek erantzun bakarra dula,  
barkatu bekit Jainkoak,  
onela gabiltz une xelebren  
ontan etorritakoak.  
Lenagokoak gauza guztiak  
nunbait alperrikakoak,  
gurekin nasi ez ote dira  
aztuko lendikakoak?

7

Erentzi orren zale ez nunbait  
gaur ondoren datozenak,  
erosoago gertatzea nai  
azaldu al dituztenak,  
Iritzi oiek dirala nago  
zazpitan bostenak,  
laster arindu nai lituzkela  
neke guztien azkenak.

8

Kristau dotriña ikasiak gu  
oraindik emen bagera,  
erakutsitzen aleginduak  
agintzen duan erara.  
Gazteak aintzat ez badu artzen  
gauza orren gorabera,  
besterikan zer egin lezake  
eman baizaio aukera?

9

Baldin egia izan arren ni  
kezkaz betea nengola,  
ala bearrez konturatu naiz  
dan-dana garbi dagola:  
baldin gazteak ez badu artzen  
bere gain dunen ajola,  
erakutsitzen saiatu danak  
bera bete duala.

*Nekez bada ere liburua  
El Diario Vasco, 1978.09.03*

# Zenbat sortu nai neurtu

---

1

Danetik osatzea  
zail da familia,  
sarritan izan oi da  
zerbaiten premia.  
Gure etxean gendun  
kotxe baten naia,  
bertsotarako au da  
artu detan gaia.

2

Oi dan modun ametsak  
berekin gaztiak,  
kotxe txar bat bear da  
zer buruaustiak!  
Eskuratu zituzten  
prezio guztiak,  
merkerik ez ordea,  
danak galestiak.

3

Nolabait betetzeko  
ez egin promesik,  
urtzea baiño eztu  
diruak errezik.  
Erosi bear orrek  
ezpaitu jolasik,  
preziotan etzegen  
bakar bat erreusik.

4

Noizbait bat aukeratu  
alako batean,  
erosoena zala  
nor bere ustean.  
Saltzailleak diona  
ori ikustean:  
egon bearra dezu  
iru illabetean.

5

Beraz ez degu emen  
ainbat lan eskasik,  
zuzen neurtu eziña  
zenbat egin baizik.  
Geiegi sortze orrek  
nunbait ez du pozik,  
izan ote da klase  
ontako krisisik?

6

Edozein gaitan degu  
berdiña ekintza,  
eskutik nai genduke  
zenbat sortu giltza.  
Jan bear degunakin  
antzera gabiltza,  
erosotu bearrez  
gaiztotzen bizitza.

7

Eman baiño aurretik  
eskura kotxerik,  
berekin ez baizuan  
itxura besterik,  
ez gendun diru geio  
ordaindu usterik,  
zegonetan etzegon  
baiña erosterik.

8

Jarriko al diogu  
onelako draga?  
Ori jarrita askoz  
seguroago da;  
lenak uts egiterik  
balitz baezpada,  
bear izango luke  
geldituko bada.

9

Argiak ere jarri  
dizkagu argitzat,  
artu izan ditunak  
kodigoak aintzat.  
Uts egiterik balitz  
beste bat ordaintzat,  
gauean usatzeko  
bearko du beintzat.

10

Luzatutzen gaituzte  
aixa noranaira,  
obegarrizko danak  
gaiñetik baidira.  
Len bost galesti zana  
orain igo seira,  
saltzailleak iritxi  
nai zuan tokira.

1978-ko Urriak 4  
*Nekez bada ere* liburua

# Danekin bizi bear

---

1

Gure opiziuia  
beti ez alaia,  
kalezaiena nai det  
esan, alegia;  
emen komeri asko  
agertzen baidia,  
bizi egiten gera  
alare ordia.

2

Lansaritzen zaizkigu  
orain bi aldiko,  
luzaroan ez dira  
oraintxe ariko.  
Beste batzuek gera  
denbora gutxiko,  
berririk bai ote da  
iñor etorriko?

3

Maxiatzen gaituzte  
batzutan gogotik,  
nai gabe egindako  
oker batzuegatik;  
zuzenik egiten ez  
laguntzen albotik,  
bearbada ez dute  
arrazoien paltik.

4

Uste gutxien dana  
sarritan begira,  
berriak zabaltzeko  
gertu noranaira;  
gaiñetik gauzak samur  
ikusten baitira,  
barruratzean erruz  
aldatutzen dira.

5

Beti ez ain alaiak  
kaleko oiua,  
atsegiñik gabeko  
pitxi jostailluak.  
Ez dira ezagutzen  
batzun jenuak,  
poza da serbitzea  
kristau seriuak.

6

Jartzen dituzte beren  
gogozko saioak,  
zeiñek ur eman ere,  
ain dira iaioak!  
Badirudi dirala  
aldrebes jaioak,  
erotuko luke bat  
txatxu arraioak!



7

Ainbat gauz ikusten da  
berrogei urtean,  
ainbat pertsona klase  
dan erri batean.  
Bizi bearra dago  
guztien tartean,  
zartu gera giñanak  
len sasoi betean.

8

Berriro esatera  
noa lena bera,  
gu ere beintzat emen  
nunbait bizi gera;  
ez duna izan bear  
nor bera bandera,  
danontzat dator emen  
bestela galera.

9

Erriak merezi du  
propaganda onik,  
al dan modukoak geu  
sarritan izanik.  
Bizi gerala beintzat  
bitan naiz esanik,  
bakar bat nola ez da  
sartzen euskaldunik?

10

Beregan ditu onek  
bere izkutuak  
jai ta aste, gau ta egun,  
baigaude lotuak;  
len maillan ez geranak  
diruz sarituak,  
euskaldunak ez gaude  
gaur onla oituak.

*La Voz de España*, 1978.11.11

*Goiz-Argi*, 1978.12.02

*Nekez bada ere* liburua

# Garrantziko zerbait nai esan

---

1

Garrantzikoa zerbait nai esan,  
nundik eta nora asi?  
Aukera badet erakusteko  
nik zenbat dedan ikasi.  
Asmo onakin ari naizenez  
ez gelditu nai itxusi,  
munduko gure etorrerari  
mintzatzen noa lenbizi.

2

Ainbat euskaldun seme-alaba  
Jainkoak munduratuak,  
aberats kutsu aundirik gabe  
pobriengandik sortuak;  
biotz aundiko ama on batzuk  
beren altzotan artuak,  
garbitu eta bularrez ase,  
jantzi eta gozatuak.

3

Gure etorrera negarti ori  
berez dana alakoa,  
bate denbora galtzerik gabe  
ama bat bearrekoa;  
azi ta ezi sor baitzaizkio  
danez erru gabekoa,  
Jaunak nai dula egingo baitu  
ortikan aurrerakoa.

4

Txantxetakoak ez izan arren  
aurrak dakarzkion lanak,  
ama on batek poz askorikan  
artu izan ditu danak.  
Ala gertatzen ez dan arekin  
dauzkatzu etorkizunak,  
dijoanentzat zer izango du  
datorrenentzat ez dunak?

5

Etorrerakin ari naizela  
juera daukat goguan,  
mundu ontara etortzen geran  
geientxoenen moduan,  
Almenak auldu zaizkion zarrak  
kargarik ezin eruan,  
zeiñek jasorik ez baldin badu  
ea zer egingo duan!

6

Arazo auek gure bizitzan  
berdiñak ziran lenago,  
komentzitik geiago gera,  
aitortu bearra dago.  
Baiña biotzez ez ote ziran  
lengoak aberatsago?  
Gure ondoan santuak baiño  
etziralakoan nago.

7

Egokitasun ugaritzeak  
ez du gutxitu problemik,  
lenago baiño aundiagoak  
eta geiago oraindik.  
Komenientziz aseko geran  
itxurarik ez inñundik,  
urren pausoa nora emango  
ote degu guk emendik?

8

Zerbait gerala uste osoan  
sarri izaten gera gu,  
uste bakarra gauza utsa da,  
agertu egin bear du.  
Gure bizitzan baldin onetik  
sendo egiten badegu,  
ala egiña azken orduan  
etzaigu izango damu.

*El Diario Vasco, 1978.11.17*  
*Nekez bada ere liburua*

# Santomasak Arrasaten

---

1

Gauzak pentsatzen jarri gaitezen  
gure artean biziro,  
Santomas eta Gabonak dira  
gerturatuak berriro.  
Euskalerria agertzen zaigu  
problematsu ta serio,  
ekaitz zakarra baretu eta  
ea jartzen zaigun giro.

2

Santo Tomasez gure azokak  
ezagunak asko jentek,  
ori orrela dan ezkeroztik  
onela uste du batek;  
argi egiña len izan dana  
ainbat eta ainbat urtek,  
aurtengoakin beste bat geio  
espero du Arrasatek.

3

Batzuk azoka amets dutenak,  
erromeria bestiak,  
gizaldietan iraun duana  
gaur naikoa lan eustiak;  
eragozpenak uxatutzeko  
problemaz gaude betiak,  
dan-dana jator konpontzeko gai  
dirala nago gaziak.

4

Gaitasunean geran aiñakin  
eman ezik okerrera,  
bide luzean, nere iritziz,  
joan gindezke aurrera.  
Kristau legeak botatzezkeroz  
apurtuta bazterrera,  
bakar-bakarrrik gaitasun orrek  
garamazki negarrera.

5

Santo Tomasen ondoren orain  
atzetik datoz Gabonak,  
berriztutzeko Jesus Aurraren  
etorrerako egunak.  
Gure gaitasun berezi oiek  
usatzeko guztiz onak,  
Urte Berriak euzkitzen gaitun  
len illunetan egonak.

6

Illobi danak ildakoz bete,  
senda-etxeak zaurituz,  
trixkak ugari bazterretan da  
diru-etxeak utsituz:  
itz baten esan nai nukeana:  
bizibideak gutxituz;  
gauzak orrela ikusten ditut  
gaur-gaur bezela begituz.

7

Urte Berriak lore apaiñez  
jantzi beza gure lurra,  
aurrerakoa ez dedin izan  
lengoa bezin gogorra.  
Alde batetik edo bestetik  
erasoa ta zigorra,  
gauzak obero aldatutzea  
oso zaigu derrigorra.

8

Bide tristetik jarraitu gabe  
berriro noa pestara,  
Santo Tomasen egitaraua  
ez da oraindik atera;  
baiña badakit gure gaztiak  
ari dirala artara,  
itzuli naian garai bateko  
Santomas Arrasatera.

9

Txalogarria gure gazteak  
duten asmo borobilla,  
Santomas jaiak jatortzea da  
beren eginkizun soilla.  
Zenbateraiño poztutzen naizen  
esatea baizait zailla,  
biotz-biotzez opa dedana:  
dana ondo irten dedilla!

10

Bertso batzuek moldatzea zan  
gazte auen egarria,  
eginkizun au neregana da  
zuzen-zuzen eroria:  
nik ere berriz nere aldetik  
serbitu nai det erria;  
ondo igaro urte zar au ta  
obeto asi berria.

*El Diario Vasco*, 1978.12.15

*Zeruko Argia*, 1979.01.14

*Nekez bada ere* liburua

# Lagun bi lansaritzean

---

1

Milla beatzireun irurogei ta emezortziz abenduan, bertsoz nai nuke adierazi zer gertakizun daguan: gure bi lagun ditugularik lansaritzeko orduan, gizon auekin gutxienean nik onenbeste zor nuan.

2

Bi gizon auen kondaira dana lanak dira esateak, serbitzallerik biotzez beuron maillakorik izateak. Kalezai onak izaten dira igaro auen urteak; batak berrogei gerturatuak, besteak ditu beteak.

3

Bat Errioxan Haro-n sortua, bestea da emengoa; gisa ontako lagunartea ain degu gaur egungoa. Tarte baia gutxienekoa emengoa edo angoa, zorionetan konpontzea da dan-danetan lenengoa.

4

Zintzo izaten aspertu gabe orain arte bezin sendo, urrena asten zoazten sailla gozatu alai ta ondo; norbere erruz bizitza oni ez ezer galdu egundo, urte batzutan ikus gaitezen, Eujenio ta Fernando.

5

Eske ez ari alper-alperrik bidezko eztan ainbeste, justo-justoan biziko gera Jainkoak nai duan arte; sortu dedilla mixeri gabe bizi izateko beste, lansaritzea ez dedin gerta pozgarri ainbeste triste.

6

Lagunarekin bizitzak ditu ain eskabide gogorrak, artu-emanak maite ditunak bete bear derrigorrak; lan egin utsez ezin bukatu lan-lagun arteko zorrak. bertso auekin agurtzea du erabaki Arriolak.

Egillearen paperetatik.  
Eujenio Barrutiabengoa eta Fernando Saleco lan-saritzean.

# Lengusu erlijiosa bateri

---

1

Gutziz alai zerana, Lutxi,  
alai nai dizut erantzun,  
bertsolaririk lengusurik zuk  
dezunik bai al zenkizun?  
Bertsoen bidez agertzen dizut  
seguru jakin dezazun,  
zale baziñan jakin banuan  
lenago egingo nizun.

2

Iruditxo, agiri dana  
Jesus Aurren etorrera,  
zuk zuzendua gure etxean  
izan duana sarrera;  
nundik zetorren konturatzean  
egin genion arrera,  
ea ez geran nagi izaten  
emendik eta aurrera.

3

Iñoiz ez baiño obeto dala  
izanda ere berandu,  
erderaz bada esaera bat,  
berak ala esaten du.  
Ainbat urtean ikusi gabe  
zer dala-eta egondu,  
gu nolakoak geran ederki  
beorrek erakusten du.

4

Ain aide urrak geran ezker  
pentsa gertzake bakoitzak:  
urrutiratu bear badira  
urrutiratu gorputzak.  
Olako zerbait eskatu oi du  
mundu ontako bizitzak;  
eztago zertan urrutiratu  
ordea gure biotzak.

5

Bearbada zuk ikusi naia  
ni bertsuetan zer naizen;  
oraingo auek etzaizkit irten  
iñoizkorikan errezen;  
zer moduzkoak diran zuk esan,  
auetxek dira ain zuzen,  
orra or nere bertsuak, Lutxi,  
baldin bear bazenduzen.

6

Agiri onek agertzen dizu  
nik artu nuan karrera;  
aukeratutzen asita ere  
nik egin nuan aukera;  
besterik egin ezin duanak  
beti jun oi da pobrera,  
onekin ez det ala ta ere  
naigabetuko euskera.

7

Kristau artean badegun arren  
ez nai ainbeste goi-bera,  
Jaunari esker etxe aldean  
danok osasunez gera.  
Gabon jai danak une auetan  
ia bukatuan dira,  
agur, ba, ea ikusten geran  
urrengo uda aldera.

Arrasaten, 1979.01.05  
Egillearen paperetatik



# Aldakuntzak Arrasaten

---

1

Bertsotarako gai berezirik  
noiznai ez danez izaten,  
arituko naiz merezi duan  
ustean zerbait esaten,  
gure artean ez dakianik  
balego jakin dezaten,  
une auetan gertakizunak  
ditugunez Arrasaten.

2

Jaiak gaiñean genitunean  
egin nituan bertsuak,  
nola irtengo ote zitzaizkun  
agertuz kezka batzuek;  
ikusiz gero gure gazteak  
lanean ain gogotsuak,  
biotz-biotzez eskeinka nator  
nere zorion gartsuak.

3

Ikusitzean gai berezitik  
gugan pranko badagola,  
zerbait jatorra sortu naiean  
ez nolanaiko ajola.  
Nai det aitortu barren-barrendik  
pozez betea nagola,  
oiñarri onek bere fruitua  
gaiñez emango duala.

4

Pesta aukera jartzea nai da,  
gaiñera debaldekoak,  
ordaindu arren nai dan ainbeste  
ez daude orrelakoak.  
Izan ditugu emen gizonak  
oso adur alaikoak,  
beste batzuek alaitzeko ´re  
ez dira nolanaikoak.

5

Oso erreza izan ez arren  
uztea alde batera,  
nai beste ezin goratu dedan  
gai oni noa uztera;  
beste zertxobait mintza naiean  
aldatzen noa bestera:  
gaur Arrasaten gertatzen zaigu  
aldakuntzaren bezpera.

6

Gizatalde bat ain langillea  
ogeitamar bat urtian,  
ala bearrez Altuna jauna  
talde guztien aurrian;  
errien alde lana egiñak  
al izan duten neurrian,  
uzten gaituzte berri-berriak  
ezagutu bearrian.

7

Maite izanik saiatu dira  
biotzez errien alde,  
ainbat urtean amets onakin  
lana egiñaz debalde;  
jun dan aspaldi giro onik ez ta  
gogait egiñak bestalde,  
orain batere iñork kentzeke  
beurok beuron kasa alde.

9

Arrera onez artu dezagun  
orain datorren Jestora,  
gerta liteke izatea gu  
danok berekin gustora;  
gauzak ikusten asiko dana  
sartu ta pixkat gerora,  
alde pixka bat aurkituko du  
ataritikan barrura.

8

Gure errien zuzendaritza  
zutenak beren eskuan,  
amaika bazter argitu dute  
len zegoena zokuan.  
Danen gogoa betetzen ezta  
erreza auen lekuan,  
osasanakin gorde ditzala  
Jainkoak urte askuan.

*Nekez bada ere liburua  
El Diario Vasco, 1979.01.07*

# Bertso Berriak

---

1

Beartsuaren etorkizuna  
zintzilik beti agian,  
nik ikusten det nerea beti  
ari batetik doi-doian.  
Otsaillaren zazpigarrenez  
ez nenbillena len goian,  
motorrarekin irrixt eginda  
laster asko nintzan beian.

2

Lentxeagotik nik bizkarrean  
irurogei ta bi urte,  
ala ta ere motorrarekin  
serbitu naiz oraiñarte,  
Nik lanerako oraindik izan  
arren zerbait borondate,  
zapu gisako erori auek  
beldur-beldurrez naukate.

2

Jolasik ezin egin lezake  
esan dedan adiñakin,  
ala ta ere gertatu nintzan  
zezakenik gutxiñakin;  
orain geldirik egon bearra,  
ala ta ere miñakin,  
nere txokoan irakurgai ta  
radio-telebistakin.

4

Egiz bagera gure giroa  
oberatu bearrian,  
dirudienez aurkitzen gera  
gutziz une ederrian.  
Zein baiño zeñek eskeintza obeak  
auteskundeen aurrian,  
nai ta ez gera oraingoz ona  
aukeratu bearrian.

5

Ainbat lantoki agonian da  
beste ainbat dira itxi,  
lan grebak eta auteskundeak  
orra berriro iritxi.  
Ez al dirudi zenbait poztuak  
ez ote gauden onetsi?  
Ikusten danez aurreratuta  
ez genduken diru gutxi.

6

Ezin bereiztu politikoak  
zer jokurekin dabiltzen,  
promesak egin garaian auek  
nola ez diran beldurtzen;  
irradi bidez ari diranak  
gure erria serbitzen,  
askatasun da kristautasunaz  
lenguan ziran mintzatzen.

7

Guregan bear deguna zerbait  
nolabait ere balego,  
ainbeste ezin konpondu emen  
ote genduke izango?  
Premizkoena falta bazaigu  
gure artean lenengo,  
botu oiekin denbora pasa  
baizik al degu egingo?

8

Ainbat problema dudarik gabe  
guk emen kezkarriak,  
egintza beltzez inguratuak  
guztizko errukarriak;  
ez omen dira errudun utsak  
diotenez egilliak,  
orretaraxe beartzen beraz  
emengo jokabidiak.

9

Mundu onetan ezin gindezke  
izan zorrik gabekuak,  
bakoitzak danok ditugu emen  
bear derrigorrezkuak;  
egintza oneko erantzunakin  
ordaindu bearrekuak,  
bestetarako baimenak nundik  
nora ditugu sortuak?

10

Zu, gurasoa, agintaria,  
erakusle edo gazte,  
etzaizu oso ezezaguna  
Bilbon gotzai Uriarte;  
urte azkenez guztion alde  
idatzi duna nai beste,  
irakur zazu eta ez dizu  
kalterik egingo bate.

*El Diario Vasco, 1979.03.08*

*Goiz-Argi, 1979.06.17*

*Nekez bada ere liburua*

# Udaberririk gogoangarriena

---

1

Milla beatzireun irurogei ta  
emeretzigarrenean,  
aurkitzen gera udaberririk  
gogoangarriean;  
era luze bat igaro eta  
bestearen aurrenean,  
bere fruituak emango ditu  
garaia datorrenean.

2

Radio bidez ari zaizkigu  
eskeintzen beren programak,  
beren tokiak bete garaiak  
gerturatu zaizkienak.  
Gu berriz emen serbitzariak,  
lengoen mirabe onak,  
orain berriak serbitutzeko  
asmo berdiñez gaudenak.

3

Guk mirabeak lengoengandik  
biotz onezko tratua,  
merezi edo merezi gabe  
beti baitegu artua;  
itxaropenez aurrera berdin  
gutxinaz izatekua,  
ez digutela izango iñork  
biotz onik ukatua.

4

Uko egiterik eztagoena  
esan bear det lenengo,  
nere barruan au gordetzeko  
naikoa leku eztago;  
dana aldatzen ari danean  
aldatze'eztana badago,  
batean ezin al nezakena  
bi bertsotan det esango.

5

Errian bere ordezkariak  
geldi ez dira egongo,  
errian alde onik egiten  
alegin dute egingo.  
Onartzekoan eskerrik iñork  
ordez ez baiña emango,  
arritzekoa dalarik ere  
aldatze'eztana or dago.

6

Programa eskeintza izendatua  
lengoan zan Arrasaten,  
politikoek, saillara batek,  
orduaz itz egin zuten.  
Radio bidez izan zalarik  
egona nintzan entzuten,  
lengoentzako bakar bat berak  
esker onikan etzuten.

7

Arazo oni irizten diot  
nik osokoa tamala,  
esker onik ez izatekotan  
zail da izaten leiala.  
Orain ardura artzen dutenak  
beurak gero beriala,  
orain artean irten diranen  
gisa irtengo dirala.

8

Biotz zabala eskatzen duna  
gaur gizon auen ardura,  
gu zuzentzeko gai danik ote  
dagon datorkit burura.  
Gure izatea gertatzen dala  
neri datorkit gogora,  
kontraeskutik uztartutako  
ganadu baten modura.

9

Problema beti izan ditugu  
gure bizi arazotan,  
urritu naian ari gerala  
geitu ere bai batzutan;  
ez beza iñork kargurik artu  
ortikan libratzekotan,  
borondatea eta pakea  
izan zuen biotzetan.

10

Eginkizun au bete bearra  
daukat zuzen-zuzenean,  
agintariak, alda zaitezte  
erri onaren senean.  
Nere bertsuok izan gogoan  
egiten dezutenean  
agurra eta ongietorria  
mirabeon izenean.

*El Diario Vasco, 1979.04.15*  
*Nekez bada ere liburua*

# Jai nagusiak Arrasaten

---

1

Pixka batean ixilduz geroz  
berriro bertsuetara,  
oitura oni ni ez nijoa  
ezezkorik ematera;  
eginkizun au gerturatzen da  
sanjuanakin batera,  
jai nagusiak gaiñeratzean  
bein berriz Arrasatera.

2

Ogibiderik gabe gazteak  
zer etorkizun daukate?  
Galde au bera len egin nizun  
juxtu orain urtebete.  
Aurten berdintsu aurkitzen gera  
ez jakiñean noiz arte,  
zer deritzazu arazo ontaz,  
biotzeko Arrasate?

3

Zure altzoan sortu ta azi  
goi laguntzakin nasian,  
ondorenean ezitzen berriz  
etorkizunen pozian;  
ainbeste kosta ikaskizunak  
gutziz denpora luzian,  
fruitua eman garaian orain  
etxean nora ezian.

4

Nunaikoari ogia emanaz  
etxeko soillen lekuan,  
bizitu gera almen guztia  
eskuan degulakuan;  
ama baigiñan danontzat naiko  
bular bazendulakuan,  
ugalduko da antzualdia  
noizbait igarotakuan.

5

Tristeia, beraz, etorkizunik  
iñundik agiri eza,  
ainbeste gazte nora ezean  
ezpaita gero jolasa.  
Bizitza zer dan konturatzeko  
bear bada aproposa,  
antzu unerik gabe segitzen  
ezpaita beti erreza.

6

Jai nagusien kontura orain  
esan bear det au ere:  
gauza aundirik egiten ez da  
erreza dirurik gabe;  
geiegizkoak biurtzen gaitu  
baita're iñoiz abere,  
egingo dana egin alaiki  
gutxi egingo bada're.

7

Gauzak benetan artzen badaki  
Arrasaten gazteriak,  
aurrera egin bear danean  
ez dira iñoiz nagiak;  
alde txar danak apaindu eta  
jartzen dituzte loriak,  
jantziko diran itxaropena  
daukagu aurtengo jaiak.

8

Erri ordezeko auta-berriak  
ikutzea derrigorra,  
berenganatzen asi diranak  
esperientzi apurra;  
korritu duten bidea danez  
oraindik oso laburra,  
bertsoen orde zuzentzen diet  
zoriona ta agurra.

9

Borondatetik izan aberats,  
iñoiz ez azaldu gordin,  
oiñarri sano jatorrak sortzen  
egin zazute alegin.  
Labore ona jaso nai dunak  
azia ona erein,  
ala ta ere danon gustorik  
ezingo dezute egin.

10

Jaun berezi bat aukeratua  
alkate gure Ardanza,  
gogoan degu bera degula  
gaur Arrasaten ardatza;  
buruz argia, biotzez ona,  
begia berriz zorrotza,  
bere ametsa bakarra baita  
erriari gora bultza.

*El Diario Vasco, 1979.06.27*  
*Nekez bada ere liburua*



# Oporrak irixtean

---

1

Oporrak irixtean  
ikastetxetara,  
gurasoeri nator  
dei bat egitera:  
ez ajolagabetu  
guztiok batera,  
urrengorako ere  
kontuak atera.

2

Erakusle ta ikasle  
oporraikin alde,  
ikastetxeak orain  
bakardadez daude;  
txarkeriak ez bitza  
artu bere mende,  
bear diranerako  
berriz ere gorde.

3

Ardura zeñena dan  
ez aritu galdez,  
guztiona degunez  
egun eta gabez,  
Gurasook geiago  
guraso geranez,  
ondatu gabe zaindu  
ditzagun mesedez.

4

Etorkizunarekin  
badezu ardura,  
agertu zaite beintzat  
guraso modura.  
Aztu gabe nai dizut  
ekarri gogora  
semeak ekartzea  
aski dan mundura.

5

Azken urte auetan  
dira agertuak  
ondaketak guztizko  
indarrak artuak,  
opor garaian autsi  
eta apurtuak;  
ori eragoztera  
gaude beartuak.

6

Ondatzen ikustean  
maiz alegiñean,  
ikusten da itzalik  
ez dana gaiñean.  
Geien baten daudenak  
zentzu ariñean,  
amar urtez azpitik  
sarri adiñean.

7

Gaurko gure guraso  
izate berriak  
ez ote ditu auek  
danak ekarriak?  
Ez dakit nundik diran  
baiña etorriak,  
gure lurtean bota  
dituzte sustraiak.

8

Ondaketari poztu  
ainbestetxeraiño,  
eraso baitiote  
umeetaraiño.  
Aur-zai ez dan arek  
baiña egundaiño,  
gaur badu beste lanik  
zeregin au baiño.

9

Umezurtzak oi ziran  
jabegabetuak,  
aita-ama edo biak  
gabe geldituak.  
Gaur berriz esatera  
gaude beartuak:  
gure laiñezak gaitu  
sakabanatuak.

10

Ikastetxea kristau  
oiñarria dala,  
eske dago berari  
zor zaion ajola;  
ez lezakena utzi  
ala edo ola,  
orrela jarraitzerik  
eztago iñola.

*El Diario Vasco, 1979.07.13*

*Goiz-Argi, 1979.07.21*

*Nekez bada ere liburua*

# Sal-erostegiak

---

1

Ez diranak neretzat  
maiz errezegiak,  
bertsotan noiznai zaizkit  
sortzen lantegiak.  
Dituztelarik aiek  
egin eskariak,  
aitatzera nijoa  
sal-erostegiak.

2

Saldutegietako  
anaia-arrebak,  
geienetan ez dira  
izaten alperrak.  
Dituzten asarreak  
eta irriparrak,  
alkar serbituzeko  
dira derrigorrak.

3

Auek osatzen dute  
pameli bikaiña,  
erriko gorabera  
neurtzaille apaiña;  
noiz dirua dagoan  
aurrez badakiña,  
lanerako garaian  
zintzoa ta piña.

4

Saillari ekin arren  
nola edo ala,  
lanerako dutenak  
berezko ajola.  
Ikustean bizia  
ortik badagola,  
laister ikasten dute  
naikoa eskola.

5

Alperrik da ikasten  
nunbait egondua,  
berez ezpaldin bada  
kristau onradua;  
asi aurretik naian  
lenengo gradua,  
egingo du atea  
ixteko modua.

6

Lana egiten dute  
alkar anparuan,  
danak bat osatuta  
beti seguruan;  
bakoitzak bere saila  
aurrera eruan,  
konpontzen dira anai-  
arte zearuan.

7

Saldutegian bada  
erreza ez dana,  
ala ta ere baiña  
konpontzen dutena:  
bakoitzak izatean  
danok tenple bana,  
gogo txarrez badago  
agertuaz ona.

8

Egon utsak ugari  
aspaldi alare,  
saldutegian orain  
pranko ez al daude?  
Pazientzian premiz  
eiztarien pare,  
ez duanak erosi  
bear badu ere.

9

Dirurik eza eta  
gaurko salneurriak,  
alkarturik daudela  
badirudi biak;  
ontaraiño're gaude  
orain eroriak,  
etorriko al dira  
denbora obiak.

10

Nere entsaioa da  
gaur onerañoxe.  
poz-pezirik aritu naiz  
beti bezelaxe.  
Bertsotan aritzean  
noiznai onelaxe,  
beste gauza guztiak  
aztu berelaxe.

*El Diario Vasco, 1979.09.09*  
*Nekez bada ere liburua*

# Donostiarren bisita, 1979

---

1

Urrillak zitun ogei ta zortzi  
izanikan larunbata,  
Mondragoi ontan izan genduen  
donostiarren bisita.  
Felix Ugalde izan genduen  
beste sei lagun artuta,  
Felix eztago oraindiokan  
jaioterria aztuta.

2

Ainbat eskiña alaitua da  
abesten da soiñujole,  
gazte garaian izandakoa  
bazterrak alaitu zale.  
Galdetu nion orain bai al zun  
ordun zun ainbat umore;  
eranzun zidan damu zuala  
gutxi izana alare.

3

Beren tartean idazle Andoni  
jauna izandu genduan,  
asti gutxikin baiña agurtzeko  
zoria nik izan nuan.  
Zerbait geiago itzegiteko  
zaletasuna banuan,  
baiña eziñak ez du barkatzen,  
bearko du urrenguan.

4

Gauza jakiña guk aitzakiak  
beti izaten ditugula,  
baiña batere uste gabetan  
bisita izan gendula,  
Gauzak egoki ateratzea  
erreza ezta orrela;  
nai gendukena pozik egon da  
pozik junak ziñatela.

5

Gure atsegiña gure artean  
zuek ala izatea,  
beste batean etortzeko ere  
gogoakin juatea.  
Erri batean beren semea  
izan oi dute maitea,  
donostiarroi berriz nola ez  
zabalik utzi atea?

6

Bertso eskaria izan nuan da  
orra or nere apurrak;  
motzak dirade, baiña otxanak,  
apalak eta xamurrak.  
Beste ainbeste noiznai iterik  
izango ez detan bildurrak,  
emen prisaka agurtu giñan  
eta or berriz apurrak.

Egillearen paperetatik

# Bertsolarien Txapelketa Nagusia

---

1

Bertsotan Txapelketa  
Nagusiarekin,  
Turismo Etxeak du  
ardura berekin;  
len maillan onena nor  
ote dan nai jakin,  
epai-maian badute  
naiko lan orrekin.

2

Euskal Erriak duan  
jostaillu polita,  
aukeran ditu baiña  
bata bera baita;  
gizonaren burua  
neurtzaille aparta,  
iñoiz erortzerikan  
ez dedilla gerta.

3

Derrigorra ezta ni  
gertu ibiltzia,  
baiña nai nuke eman  
nere iritzia:  
txapelketaren bidez  
ez ezagutzia,  
onena nor dan lengo  
gisa gelditzia.

4

Onak ditugu oso  
ez bat, bi ta iru,  
Jaungoikoari esker  
gutxiñaz amairu.  
Eman dezaiotela  
bear ainbat diru,  
etzaio ajolarik  
zein danikan buru.

5

Zerrenda lanerako  
indartsu daudena,  
emango dute auek  
bakoitzak berena;  
zorionez oraingoz  
aberats gaudena,  
ez da errez esaten  
zein dan bizkorrena.

6

Euskalduna danantzat  
ez da dudoso,  
soil-soilki gurea da  
bertso arazoa.  
Seme au euskerak du  
berea osoa,  
biak dira semea  
eta gurasoa.

7

Bertsuak bazaizkigu  
noiznai bereziak,  
oraingo leiaketak  
dira nagusiak.  
Auen ateraldiak  
oi dira biziak,  
utziko dizkigute  
bai zer ikasiak.

9

Bukatu ondorean  
txapelketa lanak,  
jaso ta agertzean  
pilla baten danak,  
izango dirala-ta  
nago oso onak,  
graduaten baditu  
gradua duanak.

8

Bein bear da aukera  
eskeintzen zaizute,  
noizean beinka aintzat  
artutzen zaituzte.  
Nai dan guztia ez da  
izaten oinbeste,  
zuen egin bearra  
beteko dezute.

*El Diario Vasco, 1979.11.03*  
*Nekez bada ere liburua*

# Aita Lukas

---

1

Zuzenduaz prantziskotar batzuegana, badaukat bertsoetan zerbait zer esana; ez dira eske inor azaldu nigana, baiña badaikit bertsozaleak dirana.

2

Arrasaten prantziskotarren konbentua, lengoan urak zuan geiena artua; ain zuzen egun artan bakar gertatua, sakristiraiño zana ura jabetua.

3

Zeiñek estalirikan ez dagon lekuan, gauzak agertzen dira berealakuan. Prailleak izanda're berdin alakuan, ez nago etxe-zaiak ez diralakuan.

4

Nere betebearrak ala beartua, kalezai antzera ni aruntz biurtua. Praille bakarra nuan bertan aurkitua, bi seme Debakoak giñan alkartua.

5

Bera da Aita Lukas Irutangoiena, makiñatxo bat gauza bikain dakiena. Biltzean une artan biok alkarrena, ura trili gozua egin genduena!

6

Umetan biok giñan eskolan asiak, izan oi genitunak tratu bereziak; ark asko ta ni gutxi giñan ikasiak, munduan nola geran ikusten biziak.



7

Ark al zun da ikasi,  
nik ura're ezin,  
danera ezta errez  
ikasten da artzain.  
Lukas ikasten etzan  
azaldu edozein,  
nai izan balu aixa  
egingo zan gotzain.

9

Orra or, Aita Lukas,  
nik egin ekiña,  
baldarra izango da,  
ain naiz ezjakiña;  
baiña gogoz beti naiz  
aritzaille piña,  
ai zeruan olaxe  
bilduko bagiña!

8

Baita da ikasia  
lurreko berriak,  
Kubatik egiña da  
joan da etorriak;  
ez diran arren gutxi  
tarteetan erriak,  
danak zerubidean  
dituna jarriak.

*El Diario Vasco*, 1979.10.05

*Goiz-Argi*, 1979.10.13

*Nekez bada ere* liburua

# Azaroa 1979, Arrasaten

---

1

Bizitzan gutxiena  
aspertzen gaituna,  
bata dirua ta  
eguraldi ona;  
jakin arren auekin  
aski ez deguna,  
ez degunean maite  
degu osasuna.

2

Urte guztian beti,  
uda eta negu,  
adiskide auekin  
bizi naia degu.  
Beste gauza danokin  
aspertzen gera gu,  
baita auekin ere  
nai aiña bagendu.

3

Beste zertxobait ere  
aitatzera noa,  
beti badegulako  
gutxi-geiagoa;  
atsegin zaigunetik  
asko naiagoa,  
badegu problema bat  
serioagoa.

4

Bizitzak zartzaroa  
azkenen zatia,  
asko kostatzen dana  
ara iritxia;  
arteraiñoako danak  
ondo irautia,  
.....  
zeruko atia.

5

Zartzaroa naiz guri  
alaia egin ez,  
bizi danak bere du  
bidezkoa danez;  
esan egiozu bai,  
zaletasun onez,  
bide artatik arren  
etzazula ies.

6

Lenbizikotik artu  
senda egokia,  
izango badu ere  
miña ta nekia;  
izan bear duana  
zeuk erabakia,  
zure biotzari zuk  
emanaz bakia.

7

Misterio orrekin  
ez gaudenok ziur,  
azken zati orrekin  
gera oso beldur;  
itxaropen onakin  
pasa leike samur,  
bizitza txatxu oni  
egiteko agur.

8

Emen bizi geranok  
sarri justu-justu,  
gauza gutxik oi gaitu  
poztu eta puztu;  
berton jarraituzeko  
sekulorun gertu,  
.....  
nola guri sartu?

1979-ko azaroan  
*Nekez bada ere* liburua  
4/7 eta 8/7 lerroak falta dira.

# Ezbearrak opor garaian

---

1

Milla beatzireun bizi geran au  
larogeiren aurrekoa,  
ezta izango samin batzuek  
iñun sortu gabekoa.  
Nik, Arrasaten bizi naizenak,  
dakit Arrasatekoa.  
Naigabetua dagon biotzak  
badauka esatekoa.

2

Oporrak eldu ziran garaian  
danok bagendun programa,  
baiña batzuntzat txarra gertatu,  
naiz beste batzuntzat ona.  
Toki askotan igaroko zan  
atsegiña eta broma,  
eztago gaizki ondorenean  
kontatutzeko dagona.

3

Lendabiziko sorpresa gendun  
Salaberritar Ion Joxe;  
nere biotzak sekula ez du  
aztuko gizon uraxe,  
Derrepentian sortzen baitira  
eriotzak orrelaxe:  
une batean txoratzen eta  
illobira berealaxe.

4

Erri osoan ezagutua  
Ion Joxeren bizitza,  
udaletxean lana egiñaz  
gaiñera zun arakintza:  
Bere biotza irabaztea  
iñontzat etzan lan gaitza,  
uste gabean kamioan du  
aurkitua eriotza.

5

Gero urrena Miren Jaione  
Muguruza Urrutia,  
ogeta lau bat urte inguru  
zitian andre gaztia,  
Joxe Ixio Mauri Bilbao  
gaizkituen emazia;  
Mont Blanc mendian izoztu eta  
bat il da, bizi bestia.

6

Ala dirudi baiña etziran  
joango eriotz billa,  
gertatzen dana datorrenean  
iges egitea zailla.  
Bada beste bat gizon gaztea  
bestalde etxean illa,  
gogoan izan zertan ari dan  
batek bakarrak dakilla.

7

Orra danetik ezbeartuak  
eta ala beartuak,  
joan diranak zalantzik gabe  
joatera beartuak.  
Erri batean geienok gera  
ezagun edo gertuak,  
ezbearretan izan oi gera  
naigabetan aitortuak.

8

Jaso ditzagun gure buruak,  
jaso ditzagun biotzak,  
beregán ditu oiñaze eta  
naigabeak eriotzak.  
Premian diran familieri  
eskeiñi gure laguntzak,  
joan zaizkigun aieri berriz  
zuzendu gure otoitzak.

9

Urtea joan, urtea etorri,  
beti ondoren gogorak,  
iñola moduz ezin ukatu  
biziarekingo zorrak.  
Ordaindu bear bana ditugu  
guk sortuok derrigorak,  
ez baidizkigu arazo ontan  
errespetatzen oporrak.

10

Nere usteak agertu asmoz  
bertsuetan det itzegin,  
gure Jainkoak bereak gaitu  
nai duanean otsegin;  
neurri bakarra ez lezakena  
iñolaz iñork utsegin,  
ola ez balitz gurekin emen  
etzan izango atsegin.

1979-ko azaroan  
*Nekez bada ere* liburua

# Bizirik ez ostu

---

1

Milla beratzireun irurogei ta  
emeretzigarrena au,  
bakea nun dan ez jakiñean  
gabiltza egun eta gau.  
Berri bat onik iristerako  
txarrak sortzean iru-lau,  
pizti gisara ez al gabiltza  
kristau izenarekin geu?

2

Zu, Urte Zarra, eskatu nizun  
nik itxaropen osoaz  
ia etortzen ziñan pakea  
eta zorion gozoaz;  
baiña zurekin, orain artean  
gauzak bestera dijoaz,  
oker bazeuden okerragoak  
utzita laister bazoaz.

3

Giro illuna aurkitu zendun,  
oraindik geiago beztu,  
lenago lasai ez giñan eta  
zuk jarri gaituzu estu.  
Bazter guztiak ondatu eta  
ainbaten biziak ostu,  
pakea asko pobretu eta  
gorrotoa aberastu.

4

Gizonak ditun eskubideak  
or nunbait zeatz autsirik,  
alkarrentzako erruki gabe  
ostutzeari asirik;  
gure biotzak seta gaiztoz ta  
gorroto utsez josirik,  
kristau izenik baldin badezu  
etzazu ostu bizirik.

5

Auxen da auxen buruzpidea!  
Zenbat gauza negargarri!  
Beti onela, urtea joan  
eta urtea etorri.  
Iñola moduz pakerik ezin  
eman diogu alkarri,  
bide ontatik zer etorkizun  
ote lezake ekarri?

6

Daudenak orain bizitzarekin  
jabetzen lendabiziko,  
gogora zaitex giro onekin  
zer dutenik ikasiko.  
Ez ote dira ezertan baiño  
lenago osten asiko?  
Etzazu aztu etorkizun au  
biarko edo etziko.

7

Naiz ez gertatu fruitua eman  
garaian ain indartsuak,  
arazo ontaz ez dira gutxi  
nekatuak jakintsuak.  
Nereak ere izan lezazke  
bear bada berdintsuak,  
baiña biotzik onenarekin  
egiñak dira bertsuak.

8

Noiz arte ari bearra degu  
arazo onen kontura?  
Deadarrikan ez al da eldu  
aintzat artzeko lekura?  
Edo barrura ez baiña dana  
erortzen al da kanpora?  
Nola ari gera danok arrika  
gure etxeko teillatura?

9

Kristau izenik duanak ezin  
ezjakin egin sekula,  
preziorikan gabea dala  
ixurtzen dagon odola.  
Gogoan izan ezin besteak  
azkena sortzen duala,  
ori baiño len konpondutzeko  
baldin al bada iñola.

*Nekez bada ere liburua  
El Diario Vasco, 1979.12.05*

# Burutazioa

---

1

Argazkigiñak, nornaik bezela,  
norbere opizioa,  
zenbait itxusi eder biurtzen  
badute apizioa,  
Nigan sortu da arazo ontaz  
zerbait mintza desioa,  
xelebrea da, baiña auxe da  
nere burutazioa.

2

Al balu iñork izkutu danak  
ezagutzera iritxi,  
opizioa ezagutzea  
esaten zaio orretxi;  
maite dedala, zailla deritzat  
bertsolaritza onetsi,  
zailla dalako ote ditugu  
baiña bertsolari gutxi?

3

Bertsolarien norgeiagoka  
Baldan, lengo egunean,  
zerbait ikasten egona nintzan  
entzuten nengoanean;  
bezero eta sastre gisara  
bi bertsolari lanean,  
ura jazteko telik etzula  
esan batek azkenean.

4

Bertsolariak egoki asko  
aitzera eman abotsez,  
kristau baldarrak nola batzuek  
izaten geran gorputzez;  
sastreak lana pamaren billa  
anima eta biotzez,  
egoki jazten zail da ordea  
borondate on soil utsez.

5

Opizialak bere lanari  
izanik ainbat kariño,  
zer naiago du bezero danak  
pozik utzitzea baiño?  
Ain propaganda garbia naian  
ez kerik eta ez laiño,  
saiatutzen da buru ta biotz  
berak ler egiteraiño.

6

Zenbait bezero berriz nabarmen  
bere baldarren baldarrez,  
besteak baiño obetoago  
oraindik jantzi bearrez,  
gaiñerakoak atzeratuaz  
bere iseka ta parrez,  
naiz egon arren ixpilluari  
begiratzeko bildurrez.



7

Konparatzeko egokiena  
ez al da argazkigiña?  
Opizioa beste bat dala  
eginkizuna berdiña.  
Beregan duan betebearra  
ez du oso atsegiña,  
eder biurtu bearra baitu  
danik kristau itxusiña.

9

Injiñeroak arraiak egin  
eta tresnari begitu,  
zulo ta muno itxusi asko  
oi ditu apain biurtu;  
baiña guztizko erreztasunez  
maknaz egiten ditu,  
bertso lanetan ez lezakete  
makiñakin baliatu.

8

Bertsolariak bere gain baitu  
bere maillan bere zorra,  
aldiz eskatzen zaio batera  
betebear derrigorra;  
guzti orrekin erantzuteko  
gai bera baita bakarra,  
bertsotan eta opiziotan  
dana du jakin bearra.

*El Diario Vasco, 1980.01.27*  
*Nekez bada ere liburua*

# Auteskundeak

---

1

Martxo illaren bederatzian  
berez badegu aukera,  
izakera au aldatzekoa  
dagoanetik ohera.  
Alkarren aurka aritze onek  
danontzat dakar galera,  
danak ez dira asarretuko  
gu konpontzen ezpagera.

2

Ainbat billera egiten dira  
pakea arturikan gai,  
batzuek alde aitortzen dira,  
besteak ordea ez nai.  
Zailla dan arren ez al dabilta  
gerran dabiltzanak alai?  
Premi danakin ezin dutenak  
pakean alde esan bai.

3

Ari gerala iñola moduz  
bukatzen eztan auzian,  
lenaz gaiñera orain jarria  
ain itxura itsusian.  
Buruia nola jaso diteke  
gu ari geran klasian?  
Zure baietza zeñentzat dezu  
pakearentzat ezian?

4

Eguna joan da eguna etorri,  
itxaropenik galtzeke,  
Euskalerrian bada ametsik  
egitara biurtzeke;  
ez dira gutxi ari diranak  
iñoiz burutik kentzeke,  
ez ditekela gauz onik egin  
pakea aintzat artzeke.

5

Noiznai usatu al izateko  
gauzak noiznai ez eskuan,  
aukera onen zai dagoana  
Euskadi urte askuan.  
Orain noizbaiten iritxi eta  
une larri ta nastuan,  
etzazu beintzat alperrik galdu  
ain ordu bearrezkuan.

6

Obra bakoitzak eskatzen ditu  
gai zaizkion oiñarriak,  
gaiñerakoan izan oi ditu  
ondoren errukarriak;  
arduraz artu ezean berak  
eskatzen ditun neurriak,  
danak autsiak izan ditezke  
pixu ikaragarriak.

7

Euskalerrriak egarririkan  
ezin aserik izan du,  
ala izanik deskontentuak  
sarritan ditu azaldu.  
Onez aurrera kargamentuak  
lotu gabe jun bear du,  
baiña bidean erori eta  
ez dedilla gero galdu.

8

Nolabait ere azpi laua ta  
erren gabea bear da,  
orduana karga lotura gabe  
bide luzean jungo da;  
txikienikan ere trangorik  
gabe iñola al bada.  
gaiñerakoan erori eta  
galdu aixa egingo da.

*El Diario Vasco, 1980.03.08*  
*Nekez bada ere liburua*

# Arrixkua

---

1

Lendabizitik gure aurrean  
egon arren agirian,  
zartzaroaren berririk iñork  
ez daki gazte garaian.  
Eziñezkoa dabillenantzat  
jaiki bizi dotorian,  
norbera ez dan bitarte jartzen  
zartzaroan atarian.

2

Beltzena emen gazte garairik  
iñoiz nabaitu eza da,  
baiña zarrentzat onena ere  
negua beti otza da;  
orain berriro etorri arte  
aurtengoa're pasa da,  
baiña zarreri etzaie joango  
erantsitako pasada.

3

Arrazoi aundiz zarrak ezpaitu  
neguantzat beldur gutxi,  
datorrenean ezin diona  
iñolaz aterik itxi.  
Mundu ontatik eramatera  
aurten ezpada iritxi,  
urrengorako bide ertzero  
amaika bagaitu jetxi.

4

Bizitza ontan borroka eta  
suprimeturik izan du,  
gauzak sarritan okertu errez  
baiña kostata zuzendu;  
baiña negua eta urteak  
beltzenak zaizka azaldu,  
bi etsai auk erruki gabe  
gizona oi dute galdu.

5

Jakinduritik ustez ez gaude  
lenago ta orain berdin,  
bizia zerbait luzatutzeko  
askozaz obeto orain.  
Uste orretan egiten degu  
asko ta asko alegin,  
ez baiditeke bi etsai auen  
aurka beste ezer egin.

6

Ala ta ere auk ez dira  
gure problema guztiak,  
bizia bera ezeztutzeko  
gertu badaude gaztiak.  
Ixilik artuz dalako drogak,  
gaiñera ondo kostiak,  
gero ondoren eriotzpetik  
irtenbide galestiak.


7

Bidezkotzat ez artuak arren  
orrela gera nabaitzen,  
jakiñak gaude berriz bestalde  
nolatan diran mintzatzen:  
ez ditugula beren usteak  
gurasuok konprenditzen,  
ez diot ezetz, baiña nik ez det  
erreza danik pentsatzen.

8

Onelakorik gertatu danik  
ezta agiri sekula,  
ez agertzean norberak bere  
biziagatik ajola.  
Nik ez det uste konprenditzea  
oso erreza dagola,  
eziñezkoa egiten zaigun  
zerbait eskatzen zaigula.

*El Diario Vasco, 1980.03.23*  
*Nekez bada ere liburua*



San Juan parrokia,  
Arrasate.

# San Juan jaiak, 1980

---

1

Lan txikitxo au irakurtzean  
gogoratuko zaizute,  
Arriolaren bertsuen berri  
lenago're badezute.  
Aspalditxoan bertsuak jartzen  
aitzen naizena nazute,  
bein da berriro gaitzat ditut gaur  
San Juan da Arrasate.

2

Urte osoan egun bakarra  
dan arren ere San Juan,  
zaindari ona gure albotik  
beñere etzaigu joan;  
ezin obeto erakutsiaz  
bere maitasuna gudan,  
norbaitek dio postu oberik  
ia nun artuko duan.

3

San Juan jaiak nola berriro  
gerturatutzen datozen,  
Arrasateri bertso batzuek  
eskainitzera goazen;  
ez jakin arren orretarako  
zenbateraiño gai naizen,  
saiatuko naiz gauzak esaten  
al deteneraiño zuzen.

4

Ainbat urtean bizia neri  
ematen ari danari,  
maitasunikan onena ezin  
ukatu Arrasateri;  
bearbada gu une guztitan  
ez gera egoki ari,  
pozgarrizkotik urri gabiltza,  
bestelakotik ugari.

5

Irabazirik gabeko askok  
goi-goi maillako kastuak,  
okerragoak ez diranean  
ala ta ere bidezkoak;  
dalako drogak diran ezkerro  
artaraiño gogozkoak,  
etorririkan gabeko joanak  
osasunen kaltekoak.

6

Kezkek sortzean zein aldetara  
irten ditezkean gauzak,  
oraindik biar gero dalarik  
ez dira esan errezak.  
Ixtillu danak sortzen dizkigu  
gure konfiantzik ezak,  
gure gazteak nai dutenean  
danera dira kapazak.

7

Ni aurkitzen naiz nere burutik  
gogoraziko nukela,  
garrantziko dan zerbait aztua  
izan diteke bestela;  
askotxon ustez gazte askori  
gogozko etzaiotela,  
bateronbatzuk lana're gero  
egin bearko dutela.

8

Etorkizunen illuntasunak  
azkenik ez du agiri,  
ori da emen sortzen duana  
konfiantzarik-ez ori;  
artaraiñoko zaletasuna  
agertutzean drogari,  
berdin ez dana berriz bestetik  
kariñu gutxi lanari.

9

Ni bertsuetan asi naizenak  
jaiak artuta tarteko,  
beste gauz asko Arrasateri  
neuzkan baiña esateko;  
beste modutan eginkizuna  
erdizka nuan beteko,  
ez al da obe droga zikiñak  
izkutatuta betiko?

10

Berez izatez izan ditezke  
aurtengo jaiak pobriak,  
ordea ontzat artuko dira  
baldin badira garbiak;  
izan ezkerero drogarik edo  
kutsu zikiñik gabiak,  
zalantzik gabe izango dira  
pobriak ainbat alaiak.

*Deia*, 1980.06.22

*El Diario Vasco*, 1980.06.22 (4-gna

falta)

*Nekez bada ere* liburua

# Argazki apaiñak

---

1

Bertsotan ez duanak  
norberak perezik,  
mutu zer egon ez du  
gogoz ari baizik;  
une auetan ez du  
zeri ari ezik,  
iragilarietaz  
aintza leike pozik.

2

Egunkariak beren  
betebear piñez  
ari dira arazo  
oni eragiñez;  
itxas ertzak daudenak  
jendez lendik gaiñez,  
jantzi nai lituzteke  
argazki apaiñez.

3

Kristautasuna baldin  
badago jazkeran  
ez dakit laister nola  
agertuko geran;  
naiago estaltzeke  
azaldu aukeran,  
amak mundura ekarri  
genituzan eran.

4

Eragozpena balitz  
bein utseratuko,  
zaletasunik ezta  
gaur atzeratuko;  
lotsa aldetik iñor  
ezta lotsatuko,  
itxusi batzuk baizik  
ez dira estaliko.

5

Gure artean bada  
ainbat moda mota,  
berriagatik zarra  
bazterrera bota;  
len iragi-jantziak  
asko badu palta,  
urtego urtean dana,  
ori luze jota.

6

Turismoaren alde  
ona emen noraiño,  
iritxi gera bera  
maitatutzeraiño;  
erazgozpenak xetuz  
ainbestetxeraiño,  
errezago da urak  
garbitzea baiño.



7

Batzutan argi egin  
bearra Judasi,  
baiña beste gauza bat  
badago lenbizi:  
itxasoak zikiñak,  
ainbeste ur gazi,  
garbitu ezik ezin  
asko irabazi.

8

Asirik dauden arren  
neurri berriakin,  
aski izango al da  
neurri bakarrakin?  
Etorkizuna ez da  
azaldutzen bikain,  
ertzak apaindu arren  
itxasoak zikin.

*El Diario Vasco, 1980.08.10*  
*Nekez bada ere liburua*



Korpus eguneko prozesioa.

# Oillo zintzoa

---

1  
Aurrezki Kutxa Probintziala  
ongille biotzekoa,  
premia dagon tokian iñoiz  
etzera esku utsekoa;  
zuregan beti itxaropena  
laguntza arkitzekoa,  
zu zera oillo arrautz jartzaille  
zintzoen antzerakoa.

2  
Amets gozotan bustia nago  
ni gai au aukeratzian,  
aundi-txikirik ez det kontuan  
nik izan konparatzian;  
oilloa eta Aurrezki Kutxa  
berdin-berdiñak etzian,  
baiña ez dago gutzia oker  
neronen kontzientzian.

3  
Oillo abirik ez leike utzi  
danak jaso ta uts-utsik,  
bestela ez du berriro jartzen  
abian bertan arrautzik;  
Aurrezki Kutxa, berdin zerala  
nik ezin esan baietzik,  
danak jasotzen ditun arentzat  
zuk bai al dezu laguntzik?

4  
Zalantzik gabe zu baizaitugu  
probintziaren biotza,  
zu baizaitugu gelditzen ez dan  
burpilla onen ardatza;  
zu baizaitugu iñola moduz  
utsitzen ez dan zuaitza,  
zu bai zaitugu familia bat  
oso-osoan bizitza.

5  
Laguntza sortzen zaillagoa da  
ez dan lekuan biotzik,  
zailla dan gisan burpilla joaten  
ez baldin badu ardatzik;  
zuaitza, etzaite iñoiz gertatu  
pruiturikan gabe utsik,  
bizitza, etzazu iñoiz iritxi  
familian eriotzik.

6  
Gutziz aundia probintzian zu,  
aundia zaitugu izan,  
famili baten ama bat bera  
izango baziña gisan;  
arrokeririk zukan ez dezu,  
aritzen zera noblezan;  
ez naiz aspertu, baiña ordea  
geiago ezin det esan.

1980, abuztua  
Egillearen paperetatik

# Gero uztera ezkeru

---

1

Arantzazuko Egutegitik  
lenbizi orri batzuek  
irakurriaz, ondorenean  
Zubiarrainen bertsuak.  
Biak azaltzen dituzte nere  
ustez kezka berdintsuak,  
etorkizunaz ote gabiltzan  
gu oso arduratsuak.

2

Egutegiak ez du ikusi  
gugan indartsu kemenik,  
aur ez geranak Aurren Urtean  
ez eskeintzeko omenik.  
Ori dala ta gure artean  
bada galdetzen duenik  
zer eskeiñiko duan geiago  
obena opa izanik.

3

Zubiarrainek bertsoen bidez  
bere kezkek agertuko,  
zer erentzia degun eskutan  
ondorengoei uzteko;  
oso pijoak ez gera izan  
genitunari eusteko,  
ondorengoak aixa dituzte  
baiña berriak sortuko.

4

Ikusitzean zenbait gaztengan  
gaur egungo jazkizuna,  
zeiñek gogoan ez du izango  
biarko etorkizuna?  
Azkeneratuz goazenontzat  
gu geron emankizuna,  
ez da agiri nun bukatzen dan  
zor degun etorkizuna.

5

Gure problemak naikoa astun  
bagenituan linguak,  
berri-berriak sortzen badira  
emen nor aleginduak?  
Osasunaren aurka kastuak  
noraiño dira gainduak?  
Zoritxarreko biurtzeraiño  
geu eta ondorenguak.

6

Arazo ontaz gure artean  
marmarrik degu egiten,  
etorkizuna ikusitzean  
gure ustez nolabaiten;  
zenbait albiste badegu baiña  
asi dirala nunbaiten  
kosetxa sortu asmo osoan  
petrolioarekin.

7

Munduko gauzak ez izan arren  
alde batera utziak,  
ikusitzean amets gozoak  
ia erabat autsiak,  
ez dira gutxi etorkizunaz  
aurkitzen oso etsiak,  
ondorengoak ezpaidituzte  
ontzat gure erentziak.

9

Gure aurrekoak ere joanak  
ditugundik eta gero,  
gu gurasuok konturatzeke  
garaia da onezkero,  
nolanai ere gu ez gerala  
emen izango luzaro,  
dana utzita berdintsu dala  
gero uztera ezkerro.

8

Ondorengoak bere ardurak  
noizpait artu bear ditu,  
aldapik gabe gainberik danik  
ez dezatela sinistu.  
Gurasoaren goibeltasunak  
zu ondatzen ote zaitu?  
Konpiantzarik-ezak komeri  
asko sortu izan ditu.

*El Diario Vasco*, 1980.10.01

# Garaian garaikoa

---

1

Esan bearrik gabe  
zaigu gogozkoa,  
alegia, garaian  
bere garaikoa.  
Udakin bagenduan  
beldurra naikoa,  
egingo al genduan  
guk onelakoa?

2

Igaro danez gero  
diardu gogotsu,  
uda azkenak ere  
beraren berdintsu;  
eguzkia bai dago  
oraindik indartsu,  
eguraldi ederra  
beti naitsu-naitsu.

3

Eguraldi onakin  
naiz gu pozik josta,  
berarekin bakarrik  
gabiltz ozta-ozta;  
geiago bear degu  
kosta alak kosta,  
garaian garaikoa  
au bakarra ezta.

4

Guk izan bagiñuan  
bear ainbat zentzun,  
garaian garaikoak  
geiago bear zun;  
naiz eta udazkenak  
gaizki ez erantzun,  
sagardoan usairik  
ezin degu entzun.

5

Sagardo arazotan  
sortu bada gaitza,  
gaztaiña arazotan  
berdintsu gabiltza.  
Ekarri duana da  
auen eriotza:  
beren tokian jarri  
duten piñu beltza.

6

Zenbait iritzi eman  
ezkeroztikan nik,  
ez nago beste ezer  
badagokidanik:  
piñuak toki ori  
merezi zuanik,  
sagar eta gaztaiñen  
parekoa danik.

7

Gizona menpean du  
irabazpen gaiak,  
zerbait galdu dezaken  
kezka geiegiak.  
Piñu, sagar, gaztaiñak  
ez dira anaiak,  
baiña beregan ditu  
danak goza naiak.

8

Ez da berdiña iru  
zugaitzen konduta,  
piñuak sagar eta  
gaztaiñik ezta-ta.  
Ala ere nunbaitxo  
bizi bear du-ta,  
baiña ez sagarra ta  
gaztaiña kenduta.

9

Galestia kenduta  
jarriaz merkia,  
piñua biurtuaz  
gure olerkia,  
euskal gizona al da  
gauza egokia?  
Piñuentzat al dezu  
zure errukia?

10

Dalako piñuakin  
zera zu ariko,  
baiña ez jaskizunez  
geiago dalako.  
Gutxi baiño ez dizu  
berak lagunduko,  
pamilian ez dizu  
goserik kenduko.

*Nekez bada ere liburua,  
9 eta 10gn bertsoak ez beste danak  
El Diario Vasco, 1980.10.25*

# 1980, euskaldunak Everest gaillendutako urtea

---

1

Mendizale jatorra,  
asi naizenean,  
zugana natorkizu  
zuzen-zuzenean,  
bertso batzuk eskeiñiz  
zeure izenean;  
alperrik gaude zerbait  
egin ezenean.

2

Mendia dezun orrek  
aintzat maitasunez,  
jarraituko al dezu  
ortan osasunez;  
nekeak artu alde  
artzen dituzunez,  
dana egiten dezu  
zoriontasunez.

3

Pagoak, aritz edo  
berdin da piñua,  
danentzat badezu zuk  
zeure kariñua;  
naiz egon busti edo  
elur da laiñua,  
mendirako beti zuk  
zeure enpeiñua.

4

Ainbeste neke edo  
tratu txar artzeko,  
mendizaletasuna  
ez dezu saltzeko.  
Bertsuen bidez nator  
danak eskertzeko,  
mendi oiek biurtzen  
dituzun etxeko.

5

Mendia zuk goguan  
beti gau ta egun,  
ala ta ere berak  
zu ez zaitu lagun.  
Azkenera baiño len  
au esan dezagun:  
arrek ez zaitu iñoiz  
izango ezagun.

5

Ez dira ipui utsak  
aurtengo azaiñak,  
euskaldun mendizale  
batzuek egiñak;  
burutik argi eta  
zimelduak zaiñak,  
Everest-i artuak  
dizkiote gaiñak.

7

Ezin aztu dezaket  
ontaz oroitzia,  
izango dezu ona  
nun erakutsia;  
esan nai nizukena  
zeñi erantsia,  
mendizale jatorra,  
zure erentzia.

1980-ko azaroan  
*Nekez bada ere* liburua



# Ortuella

---

1

Desegiña barrunbe  
batean aur pilla,  
Jaunak beregandua  
du aingeru sailla.  
Alakoa izanik  
ezbearran mailla,  
ondo esplikatzea  
neretzat lan zailla,  
baña ezin nolana  
aztu Ortuella.

2

Aurrak barrunbe artan  
usotxoan gisan,  
ezbearra gaindutzen  
bitartean ai zan;  
derrepentean goia  
bera erori zan,  
nolana ere une  
beltza bear izan,  
ama askok lezake  
sakonago esan.

3

Seguridadeari  
amaikatxo neurri,  
bear ainbat alare  
ezin baiña jarri;  
zenbat arraia eta  
zenbat argi gorri,  
oraindik ezkutuak  
or da emen sarri,  
parean artzen duan  
gaixoa errukarri.

4

Seguridadea ain  
gauza derrigorra,  
sarritan oi duana  
nunbaiten bigurra.  
Zuzen joatea da  
gutxitan ziuerra,  
berdin da gero zarra,  
gazte edo aurra,  
len da orain eriotza  
beti da gogorra.

5

Bear bada erreza  
etzegon ikusten,  
akatsa bazegoan  
ordea nunbaiten.  
Argirik gabe gauzak  
ez dira egiten,  
ez baiña Jaunak beti  
naikoa ematen.  
orra or aur gaixoak  
nun pagatu duten.

6

Aritu izan gera  
batzutan ojuan,  
oillarra bezin arro  
lekuan-lekuan,  
izate onen jabe  
bageralakuan,  
sabela berdindu ta  
armoni bapuan,  
naiz gero orrelaxe  
erori zepuan.

7

Gure artean diran  
ezdabaidakoak,  
geientxoena dira  
alperrikakoak.  
Batek daki egiten  
gauza neurrikoak,  
gaiñerakoak dira  
erdipurdikoak,  
oraingoz aingeruak  
nai zitun Jainkoak.

8

Bertso auen bitartez  
natorkizu, Jauna,  
nolabait ere nai det  
zuzendu Zugana.  
Ez degula merezi  
eske nagoana,  
badakizu premirik  
asko badeguna,  
erruki izan zaitez,  
arren!, guregana.

*El Diario Vasco*, 1980.11.02

eta 1980.12.02

*Nekez bada ere* liburua

# Guardia zibillen etxea botatzekoan

---

1

Agurka gaude askona izan da  
gero il zeran etxia,  
zure illetak izateko're  
garaia da iritxia.  
Orain artean zutik egoten  
izan bazaizu utzia,  
ez ote zizun zenbaitek opa  
lenago lurra jotzia?

2

Zuk ez dezuna tokia eman  
barruan besterik egin,  
zutaz etzuan modu txarrean  
iñork zergatik itzegin;  
batzuek eta besteak danak  
zuretzat izanik berdin,  
Jaunak nai bedi pake santua  
zu gabe iritxi dedin.

*El Diario Vasco, 1980.11.23*

# Zepoak

---

1

Ni Arrasaten udal-ertzaiña  
aspalditik nola naizen,  
beren tokian gauzak jartzera  
bein da berriro goazen.  
Berri emaille eibartarraren  
saillean okerra bazen,  
Arrasateko berriak atzo  
ez zituan eman zuzen.

2

Arrasateko zepuak dira  
amaika eta ez zortzi;  
oraindik berriz gurpil bateri  
ere etzaizko erantsi.  
Gertu daudena jakin utsakin  
erriak ondo iritzi,  
besterik gabe orain badaki  
kotxean nun nola utzi.

*El Diario Vasco, 1980-12-12*

# Santomasak 80

---

1

Erleak beti lore zaleak  
azaldu oi diran gisan,  
Arrasateko erriak ere  
San Tomas maite du izan;  
lenago beste modu batera  
ospatua izan oi zan,  
bertso zerrenda serioaska bat  
sortzeko naiko gai bazan.  
guzti-guztia ezin det baiña  
pixka bat nai nuke esan.

2

Santa Eulalia irixterako  
Sortzez Garbia pasia,  
auen ondoren datorrena da  
urrengo Santa Luzia;  
egun auekin pesta kutsua  
or nunbait degu asia,  
guk Arrasaten San Tomasekin  
degunez zer ikusia,  
gero Erregen igaro arte  
diru bearra luzia.

3

Eguna igaro nolabait eta  
gaubean erdi galduan,  
pozikan gera ez gaitunean  
guztiok urak eruan;  
ur eta guzti ostiralean  
programa asi beruan,  
bein da berriro loteria da  
beste nunbaitera juan,  
pixka batgatik etorri balitz  
ondo artuko genduan.

*El Diario Vasco, 1980.12.26*

# Esker ona

---

1

Beintzat igaro diran  
joan dan urteetan,  
bertsolariak datoz  
Santo Tomasetan.  
Izanik diran eran  
berdin aurten bertan,  
ain zuzen gertatzen naiz  
eurakin zorretan.

2

Lau gazte dira artu  
zutenak partia:  
San Migel da Letona,  
Urain da Beitia.  
Eginkizuna zuten  
egoki betia,  
bazterrak alaitzeko  
ai zer laukotia!

3

Gazte auek ez zaizkit  
azaldu edozein,  
ez ditut eskertuko  
ondo bizi guzin,  
Egin zutena baiño  
geio beintzat ezin,  
laurak nere gorantzan  
kantuz zein baiño zein.

4

Ez daukagu guztia  
larros ikusterik,  
baiña ez dala gaude  
arantzak besterik.  
Ez dezagula galdu  
onaren usterik,  
oraindik azaltzen da  
onezko gazterik.

*El Diario Vasco, 1980.12.28*

# Frai Rufino

---

1

Artu-emanak zenbat  
geiago irauno,  
prantziskotar au zaigu  
gero ezaguno;  
orain sukaldari da  
artzai zana leno,  
bere bizitz osoa  
on egiñaz sano,  
olakoxea degu  
gure Frai Rufino.

2

Erlijioso auek  
iñoiz, izan ere,  
pobrezak ezpauidu  
izutzen batere;  
maitasunaren kezka  
geio askoz ere,  
sabela erdi utsik  
ibilirik ere,  
Rufino sukaldari  
bada-ezbadare.

3

Sukaldelari onek  
nola diarduan,  
berak daki noiz ta zer  
egin bear duan;  
dana beti du gertu  
bear dan orduan,  
andik ez du irtengo  
ez iñork galduan,  
Rupinok ondo daki  
zer egiten duan.

4

Beti azaltzen dana  
ain biotz oneko,  
gure Jaunan saria  
ala du jasoko.  
Beraz ez da egiten  
gaizto izateko,  
bear bada guleriz  
ez du iñor aseko,  
baiña goserik ere  
ez bear baitu pasako.

5

Sukaldelari onen  
berezko dotea:  
zabalik eukitzea  
danontzat atea;  
beti ez du izango  
despentsa betea,  
baiña premiz danari  
zerbait ematea,  
onen ardurapean  
danak suertea.

6

Guk egiten ditugun  
alegintxo banak,  
gugan sortu oi ditu  
utsezko afanak;  
guk egiñak dirala  
pentsatzean danak,  
Rufinon modukoak  
ain gera bakanak,  
olakoa izaten  
dira emen lanak.

7

Lenbiziko baldintza  
ain pake osoa,  
gizona dalarikan  
dirudi usoa,  
alderdi guztietan  
izanaz gozoa;  
adixkideak, beraz  
ez da nekosoa,  
gai danarentzat orra  
bizitza osoa.

8

Egiñik arren ere  
aukera obetzat,  
zale ez geran zerbait  
sarri da guretzat;  
lagun gaiztoa artu  
dezula laguntzat,  
edo geroxeago  
arek zu gaiztotzat,  
olako lanik ez du  
Rufinok beretzat.

*Nekez bada ere liburua  
El Diario Vasco, 1981.01.04,  
7 y 8-gn bertsoak izan ezik*



San Frantzisko eliza.



# Don Kalisto

---

1

Sendagille bat itzuli zana  
gugana Arrasatera,  
zorionean au gertatu zan  
berrogetabi aldera;  
goseak sortu zuan gaitz txarra  
asita zegon aurrera,  
bera izan zan jarri ziona  
lendabiziko barrera,  
lansaritzean egin daiogun  
zorretan gauden arrera.

2

Sendagille au gurekin degu  
juan zan guda ostetik;  
langille ona danez gaiñera  
atsegiña da bestetik.  
Bere saillari jarraitzaillea  
arratsalde ta goizetik;  
testigu ona, berak badaki  
zer jaiotzen dan gosetik,  
kontuz aitzeko dio, ordea,  
maiz geiegizko asetik.

3

Sendagille au ain zuzen degu  
on Kalisto Ieregi,  
eztana iñoiz azaldu izan  
lanerako erdi nagi;  
zabaldtu ditu ia itxian  
aurkitzen zan zenbait begi,  
zer esanik ez illun da triste  
zegoan asko arpegi,  
zer zor diogun konturatuko  
ote gera gu geiegi?

*El Diario Vasco, 1981.01.22  
Nekez bada ere liburua*

# Patxi Barbero

---

1

Eginkizun au gogozko izanik  
ain zuzen nere barruak,  
sarritan sortu izan oi zaizkit  
zeregin okerraguak.  
Erabaki det azaldutzea  
bertsozko nere lerruak,  
onetaraxe bultza egin dit  
gizon baten erreguak.

2

Aspalditxotik nere bertsuen  
aitamenez ari zana,  
konturatu naiz egarri ori  
ukatzekoa etzana:  
zarauztar on bat, Patxi Barbero,  
entzutez nekin bazana,  
aren semeen aitañarreba  
dala bera dit esana.

3

Gure artean amaika olako  
ixil-ixilik badago,  
aren bertsoak erradiotik  
entzun nitun nik lenago.  
Esan didanez, gizarajoa  
anka bakartua dago,  
bertsotan ura ni baño obea  
ez danikan ni ez nago.

4

Anka bat galdu zenduan, Patxi,  
zer zelako ezbearra!  
Bizia gorde nai bazenduan  
bear bada derrigorra;  
erabakia artu ordua  
izango zendun gogorra,  
anak bi, baiña bizi bat degu  
ordea bakar-bakarra.

5

Gerrara eraman nindutenean  
banitun ere senduak,  
nik ere anak aurkitzen ditut  
ia erabat aulduak;  
aberi danak ez dizkidate  
izan ondo konponduak,  
konposturarik onenak baiño  
obeak dira sanuak.

6

Bizitza onek eskeintzen dizka  
bakoitzari zenbait doai,  
kristau batzuen baldintza baita  
beti azaltzea alai.  
Anka bakarrez moldatutzeko  
gu danok ote gera gai?  
Arazo ontaz gôratu ere  
egiterik neuk ez det nai.

7

Patxi gertutik ezagutzeko  
nik ez det komenientzik,  
gutxio berriz bertso batzuek  
ezeztatzeko biotzik.

Zauden moduan zuk ezpadezu  
eskatzen beste laguntzik,  
bertso aldetik ez al zaitugu  
beintzat edukiko utsik.

1981-ko Otsaillak 22  
*El Diario Vasco*, 1981.02.22  
*Nekez bada ere* liburua

# Joxe Manuel Arriolari erantzuna

---

1

Joxe Manuel, jabetua naiz  
zer bertso jarri dituzun  
zuk gizon baten esana nunbait  
zintzoki egin nai zendun;  
ori dan bezin su piztaillerik  
bai ote da beste iñun?  
Zuk ez dakizu bertso oiekin  
zer poza eman didazun.

2

Nere semea aitagarreba  
Aretxabaletakua,  
neri bertsoak jartzearren zu  
sarritan zirikatua;  
ona izanda, zuk zintzo egin  
Errastiren enkargua,  
olako saltsak jartzea orrek  
ez du lendabizikua.

3

Irratitikan egona zera  
nere bertsoak entzuten,  
anka bat moztu zidaten baiña  
jarraitzen diot kantatzen.  
Bertsoetan zein geiago ote dan  
orrek al zaitu kezkatzen?  
Nere ustetan, probatu arte  
oso zailla da jakiten.

4

Anka bat moztu bear zutela  
artu zan erabakia,  
ondo diozu, nik une ura  
izan nun oso larria.  
Zalantzik gabe aguro artu  
nuan nik erabakia:  
anka birekin il baiño geio  
bakarrakin bizitzia.

5

Guda txar artan izan ziñala  
zalantzarikan ez dago,  
zauritu ere egin ziñala  
igerri diot aguro;  
orain anka oiek melartxeago,  
lodiagoak lenago,  
itxu-itxuan naiago nuke  
zure moduan banego.

6

Irurogei ta iru urtetan  
neri sortuak okerrak,  
bolara artan egin nituan  
izugarrizko negarrak.  
Jaunari esker Patxik oraindik  
baditu doai ederrak,  
umorearen paltik ez daukat  
Jaungoikoari eskerrak.

Patxi Barbero, Zarautz  
*El Diario Vasco*, 1981.03.08

# Aita Garaialde eta biok

---

1

–Aizu, Joxe Manuel,  
kalezain jatorra,  
badet gaur zuretzako  
bertso bat gogorra.  
Utzita gure atean  
auto edo motorra,  
aguro asko badegu  
multa edo zorra.

2

–Aita Garaialde jauna,  
bejaundegizula,  
gaur bat uste gabetan  
arrapau nazula.  
Bertsotan e ikusi det  
gatza badezula,  
agurtu nai zinduket  
bertsolai bezela.

3

–Ostiraletan berriz  
feria dalako,  
gure eliz aurrean  
enbarazo pranko;  
txorizo eta murtzilla  
ta urdaiazpiko,  
bapo ostiraletan  
eliz aterako.

4

–Agurtzea baida nere  
lana lenengoa,  
ostiraleko feria  
da bigarregoa.  
Barkatu zaiozute  
astean beingua,  
bijilia bada berriz  
bete agindua.

5

–Aizu, Joxe Manuel,  
nere tokaioa:  
kanpokok libre, etxekok  
debekazioa.  
Jakin nai nuke onen  
esplikazioa,  
ez al da istori au  
naiko serioa?

Egillearen paperetatik.

«Bertso auek Aita Garaialde fran-  
tziskotar fraileak eta nik trukatuta-  
koak dira.»

# Pelota

---

1

Euskal Erriak pelotarien  
seaskak or eta emen,  
Arrasatek e berea badu  
orain da orain baiño len.  
Mondragonesa irugogei bat  
gertu urte or zebillen,  
geroxeago beste batzuek  
azaldu zitzaizkun gailen,  
orain ostera Barandiaran  
orra or nola dabillen.

2

Barandiaran berdindu zaila  
ainbestekoxe leiala,  
gizon modura gizon utsa ta  
pelotan berriz zimela.  
Buru ta anka, beso ta gerri,  
iñundik ez da argala,  
jarraitzen ditu pelotaririk  
pizkorrenak bereala,  
zeiñek ez daki bere egintzak  
puntarengoak dirala?

3

Gure kondairak jarraitzekotan  
ain dirana derrigorrak,  
pelotarien seaskak dauzka  
baldintzak bete bearrak.  
Uts unerikan gerta ez dedin  
izan bear ditu aurrak,  
orain urrengo itxaropenak  
gugan ditugu ziurrak,  
Barandiaran ez danerako  
erantzungo dula Urrak.

*El Diario Vasco, 1981.03.08*

# Aozaraza ta Erkizia

---

1

Bertsotarako gaia bear da,  
zer aukeratu jakiñ ez,  
emen ari naiz zerbait naiean  
alegin danak egiñez;  
gauz ontarako ez naiz arkitzen  
ez burubide bikaiñez,  
gaur eguneko berria au da  
mundu guztiak dakiñez:  
oñatiarra Aozaraza,  
errezildarra Ibañez.

2

Aozaraza eta Ibañez  
biak erlijiosoak,  
garai aietan emandakoak  
maitasunezko pausoak.  
Euskal Erritik Manilaraiño  
irixi ziran usoak,  
urruti artan artu zitunak  
eriotzan erasoak,  
orain diranak lurralde artan  
aldaretara jasoak.

3

Lareun bat urte inguru dala  
Filipinas-era joanak,  
orain Manilan aldaretara  
jasoak bi euskaldunak.  
Beren biotzak maitetasunez  
ain aberats zituztenak,  
beren indarrak bultza eginda  
urrutira eramanak,  
maitasun ura ase eziñik  
beren biziak emanak.

*El Diario Vasco, 1981.03.22*

4

Geroztik gure izate onek  
aldaketarik egin du.  
ala ta ere gure egintzak  
ez dira asko bikaindu:  
gaizki egiten ezin gindezke  
gu edozeiñek berdindu,  
era onetan baldin bagoaz  
gureak ia egin du,  
len bizia eman egiten bazan  
orain egiten da kendu.

5

Ezin iritxi zaigu garaia  
zerbait zentzunez jazteko,  
oraindik gaude alkarri ezer  
konprenditzen ikasteko.  
Nolabait ere moldatzen gera  
guztiok alkar nasteko,  
ez gaude beintzat geurekortasun  
triste oneri uzteko,  
iñola moduz iñoiz alkarri  
bizirikan ez osteko.

6

Bein da berriro berealaxe  
Aste Santuan gaituzu,  
batzuek emen ariko gera  
bijili, barau da errezu;  
beste batzuek norabait juanda  
igaro naian erosu,  
gurutzetikan Kristok egin zun  
otoitzen jabe dituzu:  
«Ezpaitakite zer ari diran,  
Aita, barkatu zaiezu».

*Nekez bada ere liburua*

# Berriro natorkizu

---

1

Patxi Barbero jauna  
buruan nuan-da,  
berriro natorkizu  
pixkaten egonda;  
zuk ere aixa ala  
naiko zenduan-da,  
egokiago gauzak  
etortzea lan da,  
asi giñanez bestek  
bidea emanda.

2

Biori izatean  
bertsuak atsegin,  
zaletasunak bein da  
berriro bultz egin,  
ezin duana nere  
burutik aldegin;  
ez dezaioGUN beintzat  
alkarri utsegin,  
bidea eman baizik  
Erraztik ez du egin.

3

Aurkitu detanakin  
oso pozik nago,  
umore ona zukan  
oraindik badago;  
zuri irakurtzean  
agirian dago  
ixilik egon baiño  
kantuan naiago;  
zer izan ote zera,  
Patxi, zu lenago?

4

Ortik pasa naiz eta  
ez dezaket uka,  
zeiñek alaitu ere  
gazteak badauka;  
zu zauden gisan baiña  
oi dira banaka,  
biotzez opa dizut  
etzaizula buka,  
baliorik geiena  
oraingoak dauka

5

Laguntzen dizularik  
beintzat osasunak,  
zuregan baidituzu  
berezitasunak,  
nere iritzi danak  
baitira zuzenak,  
alderdi onak asko  
zukan dituzunak,  
betiko bear luke  
olako gizonak.

6

Nik ere urte batzuk  
munduan baditut,  
oraindik ala ere  
geiago nai ditut;  
ez noa ezeztatzen  
artu al baditut,  
zure gisako gutxi  
ezagutu ditut,  
gutxigotako ez da ta  
zoriontzen zaitut.

*El Diario Vasco, 1981.05.10  
Nekez bada ere liburua*



# Kilometroak 81

---

1

*Kilometroak larogeta bat*  
irten zaigu aurreruntza.  
Altuna jauna parte artzean  
bagenduan konfiantza.  
Bera bakarra etzan ariko.  
izango zuan laguntza,  
baiña zalantzik eztagona da:  
bera izan da ardatza.

*Nekez bada ere liburua*

# Aur bertsolarien nor geiagoka

---

1

Lengoan Baldan parte artu du  
ia Euskadi osuak,  
aur bertsolari txapelketara  
bilduaz gure uxuak.  
Modu batera edo bestera  
bere nekea pixuak,  
nortasun aundiz azaldu ziran  
aurren gaiñetik maixuak,  
Arrasatera iritxi dira  
ain zuzen berri gozuak.

2

Leniz aldetik txapelketara  
gertututako aurrak jun,  
nik itxaropena ona nerekin  
lenengo-lenengotik nun.  
Maixua beti lanean ai zan  
aspertu gabe gau ta egun,  
ezta gauza bat aurkitzen dana  
uste gabean edonun,  
oneri esker Leniz aldeko  
aurrak ditugu txapeldun.

3

Leniz ballaran ezaguna dan  
gizon bat bertsozalea,  
bertsolari gai diran aurrentzat  
berak baitu eskolea.  
Eman bearra dagon ezker  
emen bakoitzai berea,  
gizon au ñoiz ezta azaldu  
lanean gogo gabea,  
zorionikan biozkorrenak  
zuri, Patxi Goikolea.

*El Diario Vasco, 1981.05.14*

# San Isidro jaiak, 1981

---

1

San Isidrotan jai bereziak  
Musakolako auzoan,  
ospagarriak gerta ditezen  
gizarte oso-osoan,  
andre ta gizon, zar, aur da gazte  
armoni gozo-gozoan.  
Len onek ere, gôratzen gera,  
gaurko itxurik etzuan,  
nekazaritzak ondotoxo ere  
zeregin geiago zuan.

2

Nekazarien Zaindari ona,  
diruanganako griñan  
nekazaritza baztertu degu  
iru xemei ta erdiñan;  
etxeak jaso, fabrikak jaso,  
jolestokia Antoñan;  
zer bedeinkatu ugariorik  
izango zendun auntsiñan,  
zure onetik irtengo zendun  
xixtrin bat izan baziñan.

3

Bearbada gu ez ote gaude  
gure erruz ain itsusi?  
Gauzak egiten ez degulako  
bear bezela ikasi;  
ogia aztuz tokia eman  
ainbesteraíño jolasi,  
gauean lorik ezin egiñak,  
onla ez leikela bizi;  
gauzak egiten ez dakienak  
besterik ez du merezi.

4

Erruki gabe nekazaritzan  
lana egiten danean,  
askotxo dira ez dakitenak  
baiña gaude jakiñean,  
jolas gogorik gabe lo ondo  
egiten dala gauean,  
lan sari baten eskubidea  
lortzen dula zuzenean,  
salatzaillerik ez da azaltzen  
urrengoko egunean.

5

Ari gerala ondorengoak  
gatik obeto bearrez,  
eskatzea zor diogun zerbait  
geuk uko egiñaz errez;  
jolas tokiak gertatu baiña  
lanean erakutsi ez,  
uste dute maiz era orretan  
dana datorrela berez,  
geronen erruz ez ote gera  
lertu bear gu negarrez?

6

Nekazaritzaz ez ote goaz,  
luzera edo motzera,  
zuloa duan sare orretan  
pilla baten erortzera?  
Gertatu gera, itsas olatu  
azkar batzuen antzera,  
zer ari geran ezjakiñean  
zearo baztertutzera;  
ez ote gera iritxi bear  
berriro aintzat artzera?

7

Nere barruko kezakak bait dira  
argitaratu errezak,  
alaitasunaz pobreak dira  
nere bertsuen babesak;  
jaiak tarteko diran ezkeroz  
ez bait dira aproposak,  
ordea baiña noiz ez dira gaur  
jaialdi edo gaupasak?  
Alaitasunez igaro bai ta  
gaiñeztu gaitzala pozak.

Egitarauan agertu ziran  
*Nekez bada ere* liburua

# Baserriko maiorazkoak andrea aukeratzeko zalantzak Atxukarro sendaetxean gaixo zalarik

---

1

Lema onek sortu du  
marmarrada franko,  
erru guzti-guztia  
Atxukarrok dauko;  
bera balego ere  
neskatxen lekuko.  
beti ori entzunaz  
etzun egon naiko.

2

Neri etorri zaizkit  
azaltzeko kantuz  
ez daudela Ixio  
Marikin kontentuz;  
ari dala neskatzak  
tratoreaz nastuz,  
ia aurrerakoan  
aritzen dan kontuz.

3

Atxukarro lanean  
Argari josirik,  
Paskuali dabilki  
goi-goira jasorik;  
propagandari eutsi  
naiean bizirik,  
andregaiak ez dute  
or zer ikusirik.

4

Paskualikin dago  
artu-emanetan,  
aren alde egin naiz  
ari da benetan;  
nai aiña propaganda  
egin tratoretan,  
baiña neskari utzi  
beren lekuetan.

5

Izan ere ari dan  
eginkizun mota,  
barkatu lezaioke  
alakoa da ta;  
lana egiten baidu  
ainbeste moduta,  
ezin arritu, asko  
itzegiten du ta.

6

Mintzatzeko garaian  
naiz egon aldea,  
zail da baiña izaten  
akatsik gabea;  
neskak azaldu dute  
beren naigabea,  
konponduko zerate  
nik uste ordea.

1981, garagarrillean  
Egillearen paperetatik

# San Juan jaiak, 1981

---

1

Ain zuzen ere gerturatzean  
bein berriz San Juan jaiak,  
Arrasateri bertso batzuek  
baditut eskeiñi naiak.  
Gauden unean sinisteak naiz  
izan arren komeriak,  
uste gabea ia irteten  
zaizkigun alai-alaiak.

2

Lansaritzea gaiñeratzean  
sortu dit nere ardura,  
zer etorkizun ote dagoan  
neretzat onez gerora;  
nolanai ere iristen noa  
beste askoren gradura,  
nere bertsoak azkenak dira  
aurten kalezai modura.

3

Gure errian kale ertzetan  
sarritan dira izaten  
orri batzuek, bestien tarte,  
ala dutenak esaten:  
lana gutxio egin guztiak  
egin al izan dezaten,  
nere iritziz beste neurri bat  
bikaiñagoa bazuten.

4

Ez egiteko neurri ortatik  
saiatzen gera alegin,  
besterentzako egin beldurrak  
gugandik ez du aldegin;  
gaiñetik sortu bear badegu  
droga zikiñentzako lain,  
obe genduke guztiok eta  
gaiñera geiago egin.

5

Gure eziñak menperatzeko  
kezka baldin bagenduan,  
danok dakigu azoka onek  
zer mailla iritxi duan;  
lana eginda ari bagera  
karga ezin arinduan,  
egin ezetik lenago ere  
badakigu zer dagoan.

6

Gazte maitea, zor dizugunez  
bear dizugu lagundu,  
poz geiagokin egingo gendun  
dei au entzungo bazendu:  
baliteke zu konturatzea  
noizbait danean berandu,  
geiago egin bear da eta  
gutxio alperrik galdu.

7

Ikusten danak ekarrarazten  
duana au da burura,  
kristau izenik daramanantzat  
eziñezkoa dan aura:  
bere burua leiza zulora  
botatzen dunen modura,  
dana galduta ez ote dion  
ainbati asko ardura.

8

Lenago ere gure artean  
akats gaiztoa bazan-da,  
etzan ordea ain arrigarri  
ainbeste ikasi etzan da:  
pameli, erri, nazio, mundu  
ondo konpondu ezinda,  
konpon ezin au nola diteke  
danontzat ona izanda?

1981-ko Sanjuanetan  
*Nekez bada ere* liburua



Joxe Manuel atabala jotzen.

# Lansarituak

---

1

Egokitzen naiz mintza bearrez  
Kiroldegiaren alde,  
gure bizitzan eginkizunak  
une guztietan daude:  
lansarituak aruntz joatera  
onez beartuak gaude,  
urte geiago lortzeko eskola  
ematen danez debalde.

2

Sortu berri dan eskola onek  
ezerren aurkarik eztu,  
bakar-bakarrik lansaritu  
osasuna aberastu;  
sendagille ta botikarako  
jun-etorriak mieztu;  
baldin geiegi ez baldin balitz  
sasoia berriro piztu.

3

Nolanai ere zerbait berezi  
eskolak badu berekin;  
eskatutzen du aruntz joateko  
borondate onarekin;  
konpromisorik ez du jasotzen  
joan ezin danarekin;  
jendeak kontu izan lezake  
ango suspentsoarekin.

4

Bizi osoan lanaren mende  
izan geranak egonak,  
lansaritzean uste genduan  
bukatu zirala danak;  
jolaserako gogoak berriz  
ia diranez joanak,  
orra orain nun eskeinten dizkun  
berriro eginkizunak.

5

Txemaren bidez egunkaririk  
jaso degu abixua:  
gure onerako baizik ez dala,  
oso dala prezisua;  
ez genezake bestalde neurtu  
biziaren balixua,  
Joxe Errasti jauna omen da  
gure eskola maixua.

*El Diario Vasco, 1981.07.01  
Nekez bada ere liburua*



# Aita Garaialderi

---

1

Aita Garaialde jauna,  
oraindik oraintsu  
zu zirikatu naian  
ni asi gogotsu.  
Erantzuna izan det  
bost bertso mamitsu,  
uste ez nitun gauzak  
esan dizkidatzu,  
nere ixil guztiak  
jakin baidakitzu.

2

Aita Garaialde jauna  
sermolai trebea,  
bertsotan e etzera  
gatzikan gabea,  
Jaunak eman dizkitzun  
doaien jabea,  
urte asko-askotan  
zaitzala gordea  
zuri ixil-ixilik  
utzita obea.

Egillearen paperetatik

# Joxe Manuel jaunari beste Joxe Manuelek

---

1

Lagun Joxe Manuel.  
artu det zurea,  
bertsotan egindako  
karta dotorea.  
Nunbait ere entzun dezu  
gauza xelebrea:  
nola dan moja-fraillen  
jateko legea.

2

Sagar ederrak mojak  
ganbaran jasota,  
usteltzen asi arte  
ondotxo gordeta,  
Usteltzen asitakok  
jan banakatuta,  
moja gaixoentzako  
postre ona da ta.

3

Fraillen jokabidea  
ez da, ez, orrela:  
beti onenak jan da  
utzi an ustela;  
usteltzeko astirik  
ez utzi bestela,  
orregatik obea  
frailleen sabela.

4

Pekatua deritzat  
usteltzen uztea,  
ainbat balio duan  
sagar ta udarea.  
Beraz etzait gustatzen  
mojen jan-legea:  
piñenak utzi eta  
ustelak jatea.

5

Zuk beintzat ez dituzu  
ustelduak jaten,  
zure itxura ederrak  
ala du esaten.  
Badakizu multakin  
dirua irabazten,  
ta diru ugariz sagar  
ederrak erosten.

Egilleraren paperetatik

# Gotzaia

---

1

Gaur eguneko gertakizunak  
artaraxe eraginda,  
iru-lau bertso bein da berriro  
ixilik egon ezinda;  
au izate au baldin zearo  
itzaltzen ez baldin bada,  
gure kondaira bizi danentzat  
ementxe geldituko da.

2

Urzelai jauna berri emalle  
asper eziñak dionez,  
Setien jauna, gure gotzaia,  
ari da geure izanez.  
*Udalpe* elkarte entzutetsuan  
berakatz zopak goiz janez,  
mendizale bat geiago egiñik  
Udalaitzera joanez.

3

Mintzagaietaz ariko gera  
gu geure irudimenez,  
bakoitzak berak bere gustoko  
zenbait iritzi emanez:  
gure Gotzaia elkartetara,  
berdin mendira joanez,  
eskubidea beregan baitu  
bera're gizona danez.

*El Diario Vasco*, 1981.07.16

# Oporrak

---

1

Bear baiño len gauzak esanda  
ez danez obe izaten,  
azkenera arte ez naiz aritu  
gai ontaz ezer esaten.  
Erri ontatik joan bearra  
majiña batek bazuten,  
opor illean danok lau katu  
gera egon Arrasaten.

2

Aurretik ainbat ikusi eta  
diru aldetik ain estu,  
gauzak orrela gertatutzeak  
gero asko nau ni poztu.  
Ez al dirudi estuasunak  
zerbait ote diran aztu?  
Opor garaia eldu danean  
bazter danak aberastu.

3

Itxas ertzetan jendea erruz  
zegoan otsa bazegon,  
Arrasatetik nunbait baziran  
ez geñekian baiña non.  
Erria utsik ikusi arren  
ni ere ixillik negon,  
ez dagola iñor esateko ere  
emen bakar bat etzegon.

4

Lengo igande arratsaldean  
askotxo azaldu dira,  
beren oporrak igarotzean  
berriro etxe aldera.  
Alkarrengana bildu ta askok  
erantzuna ta galdera:  
Zuek zer moduz dezute igaro?  
Gu ondo ibili gera.

5

Aukerakoak dirala nago  
opor garaian bertsuak.  
Emen badira urte osoa  
opor daukaten batzuak.  
Opor garaian dituzteenak  
eskubide berdintsuak,  
len oporrean dagonak nunbait  
bitan dauzka deretxuak.

6

Derrigorrezko oporrez ainbat  
biotza lertutzeraiño,  
beste batzuek lan egiteko  
asmo gabe oraindaiño,  
alaxe izan bear dutela  
sinistuta egundaiño;  
obe genduke danok lan egin  
oporrak doblatu baiño.

*El Diario Vasco, 1981.09.04  
Nekez bada ere liburua*

# Dorletako Ama

---

1

Milla beratzireun da  
larogeta bata,  
Leniz baillaran degu  
egun bat aparta;  
Ama Dorletakoa  
etxe gabe da-ta,  
urriaren amarra  
dago izendatuta,  
Gatzagan parrokira  
dago aldaketa.

2

Ama Dorletakoa,  
otz eta beruan  
ortxe egoten zera  
udan da neguan;  
zure etxea nola  
erortzen dagan,  
seme-alabok danok  
deguna buruan  
ia jartzen zaitugun  
toki seguruan.

3

Zure etxea dago  
itsusi jarria,  
teillatua baitzaio  
beruntz eroria,  
barrura dator kio  
ura ta euria;  
eginkizuna danez  
geuria-geuria  
ia laster egiten  
dizugun berria.

4,

Orain dagon moduan  
gaizki dagola-ta,  
aldatzeko asmoak  
dauzkate artuta.  
Orain beste aldean  
estalperatuta,  
ez al degu utziko  
erabat aztuta,  
berria egitera  
gaude beartuta.

5

Teillatu gabe ain da  
etxea tristia,  
barrura sartzen zaio  
ura ta bustia;  
ondatutzen baidago  
eleiza guztia,  
asko kostako zaigu  
berria astia,  
baiña egin bearra  
daukagu bestia.

6

Arren entzun zaiguzu,  
Dorletako Ama,  
berria altxatzeko  
egiña da plana;  
Jakiña dago asko  
kosta bear dana,  
baiña egingo degu  
alegintxo bana,  
zure laguntzarekin  
lortuko da dana.

Egillearen paperetatik

# Lansaritzerakoan

---

1

Milla beratziareun da  
amaseigarrenez,  
ni munduratu nintzan  
jarrita dagonez;  
larogeta batean  
orain goazenez,  
zarra izateko naiz  
presarik izan ez,  
lansaritzera noa  
langille naizenez.

2

Larogeta batera  
amaseitandikan,  
bitartean izan da  
goraberarrikan;  
sasoia nuanean  
zerbait oraindikan,  
baiña ia onenak  
alde duandikan,  
ez nago jarraitzeko  
modun nagonikan.

3

Lenago puntakoak  
izan ez diranak,  
goguan det onenak  
nagola emanak;  
iñoiz ezagutzeke  
pakezko on-onak.  
nolabait ere dira  
denborak joanak,  
gorde neza aurrera  
len gorde nauanak.

4

Eguna luzenean  
gendun inguruan,  
lansarituko nintzan  
ustean nenguan.  
Alkate jaunak baiña  
bai zuan goguan,  
obe zala pixka bat  
geroxeaguan,  
ea lansaritutzen  
naizen orainguan.

5

Banekian jendeak  
bazuala kezka,  
asko aritu zaizkit  
aspaldi galdezka:  
«Zure lansaritzea,  
Arriola, noiz-ta?».  
Arrasatek olako  
galderak maiz dauzka,  
oni aurrea artzen  
lan erreza ezta.

6

Ogeta emeretzitik  
onera bitarte,  
orra or berrogeta  
pasatxo bi urte.  
Nere izatearen  
berri badezute,  
zuen serbitzaria  
izan bainazute,  
gogo biziz eskertzen  
zaitut, Arrasate.

*El Diario Vasco, 1982.01.02*

# Mintegia

---

1

Erabakia azalduko du  
beti bezela geroak,  
lagundu bear dutenak dira  
gogoak eta moduak;  
aue taz kanpo zer ikusirik  
ontan badauka giroak,  
albeit ondoen nai nuzke bete  
artutako enkargoak.

2

Ezagutzen nun nere bertsoak  
maite zitun banakia,  
omenaldian zearo baita  
ordea erabakia.  
Ez nekiana, atea dago  
berentzako irekia,  
Leniz aldeko bertsozaleak  
eskeiñi dute tokia.

3

*Almen*-go aurrak zerbait berezi  
dakarte nere burura,  
Goikoleatar Patxik artzen du  
aingeru auen ardura.  
Nere bertsoak zaizkie nunbait  
beren ongarrri modura,  
begiratzean onek bai dula  
*mintegi* baten itxura.

4

Bertsotarako zaletasunak  
biotza maiz ikutzen du,  
nerea ere geroago ta  
geiago astindutzen du;  
neskatxetaraiñoakoak dira  
bertsolai soka azaldu,  
Arriola onek lenago baiño  
arretazago jartzen du.

5

Onelakoxe ardurik gabe  
aritua naiz lenago,  
gogoratzeke nere bertsoak  
tokirik zuten izango.  
Aurrera ere ez ote nuan  
obe alaxe banengo?  
Jakiñaz gero orain aurrera  
zeregin geiago dago.

6

Bertsozalea danak beregan  
duala nago aukera,  
bi eginkizun betetzekoa  
eroso biak batera:  
ainbat alditan gertatzen dana  
konturatzeke norbera,  
bertsoak izan gogoan eta  
aberasten da euskera.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1982.01.21

# Aurrerapenak

---

1

Arazo oni buruz  
gaur lendabiziko  
zedozer mintza naian  
natzaio asiko;  
aurrerapenik gabe  
ez gera biziko,  
baiña zorionetik  
ez gaitu aseko.

2

Aurrerapenak ainbat  
alde on badauka,  
baiña ordea zerbait  
beti badu aurka;  
ez dakiña biurtzen  
guztia ordeka,  
beti uzten du zerbait  
nunbaiten aldapa.

3

Nundikan norakoak  
nere irteerak?  
Gertatu ditezkenak  
olako galderak.  
Ezagutzeko jartzen  
dizkitzu aukerak,  
esku artean dezun  
arazoak berak.

4

Automatiko izena  
duanetakoa,  
aterki bat eskuan  
artzea naikoa;  
bi eskuz usatzeko  
alde gutxikoa,  
bakarra duanantzat  
erdipurdikoa.

5

Berdin da eskubia  
edo naiz ezkerra,  
edozein da zabaldu  
garaian azkarra;  
itxi garaian baiña  
du biren bearra,  
nundik sortuko ditu  
duanak bakarra?

6

Aurrerapenen alde  
saiatu lanean,  
ia eusten diogun  
gutxiñez lenean.  
Guztia beti alde  
lortzen degunean,  
atsedenduko gera  
zorion onean.



7

Ez ditekena falta  
bizitzan ametsik,  
bera gabe eztago  
emen bizi-pozik;  
aurrerapena ezta  
ori bera baizik,  
bearrezkoa degu  
arraioak ezik!

8

Aurrerapenak lortuz  
zenbatez gorago,  
erantzun ohea du,  
ikusia dago;  
Geldi gaur ainbat gizon  
maiz etzan egongo,  
ordu gutxio lana  
ere etzan egingo.

9

Dirudiela ere  
dana bereztua,  
etorkizuna dago  
zearo beztua.  
Zer bidetan dijoan  
ikusten gaiztua,  
onena bada ere  
ezin sinistua.

10

Gure aurreko zarrak  
etorkizunantzatzat,  
arduratsuak ziran  
ondorengoentzatzat;  
etzeuden izan ere  
oker ortik beintzatzat,  
naikoa komeria  
izan da guretzat.

11

Etorkizunagatik  
egun eta gauak  
bizitzan amaikatxok  
baditu galduak;  
gero izatekotan  
zeiñek lagunduak,  
zer egingo digute  
gure urrenguk?

12

Onelatsu ote zan  
len ere bizitza?  
Ala geu ola izanak  
ola ote gabiltza?  
Dana ikusten degu  
illuna ta beltza,  
derrigorrezkoa da  
degun konfiantza.

*Egillearen paperetatik*

*El Diario Vasco, 1982.03.20 eta 21*

# Urrezko eztaiak

---

1

Mailla ori lortzean  
gure senidiak,  
nabaitu ditut barren-  
-barrenetik deiak.  
Dagokidan aiñean  
nik erantzun naiak,  
odola tarte dala  
ez barkatzen gaiak,  
guzti au sortu dute  
urrezko eztaiak.

2

Nik ere orretara  
diranen odola,  
gogoratzen det bere  
garrantzia dula;  
ez uste zerbait aintza  
naian ez nagola,  
bikote au deituraz  
auk ditugula:  
Joxe Mari Alberdi,  
Maria Arriola.

3

Gai auk ez diranez  
izan oi aukeran,  
ia nola moldatzen  
naizen idazkeran.  
Ain bikote bikaiña  
beren izakeran,  
Bizkai aldera joanak  
diran arren egan,  
sortuak dira sortzez  
Itziar da Deban.

3

Afrikara gudari  
lenengo pausuan,  
ondoren arrobira  
lanera jo zuan.  
Geroztik Joxe Marik  
bizitza osuan  
ogibidea beti  
toki nekosuan,  
arkaitzari aritu  
zaio erasuan.

5

Maria eta biak  
senar da emazte,  
esposatu zirala  
orra zenbat urte,  
Berrogeita amarrak  
orain bear bete,  
seme-alabak ere  
lau izan dituzte,  
billobak ere amar  
beintzat badituzte.

6

Beartu baizituan  
senar-emaztiak  
Markiñan bizitzera  
beren izatiak.  
Apirillen azkenez  
beteaz urtiak,  
ospatzera dijoaz  
urrezko eztaiak,  
zorianak biotzez,  
senide maitiak.

Egillearen paperetatik

*El Diario Vasco*, 1982.04.18

# San Isidro jaiak, Musakolan, 1982

---

1

San Isidro eguna  
berriro badator,  
bitarteko artuta  
bertsuakin nator;  
ospatu nai luteke  
Musakolan jator,  
Zaindari ona, arren,  
errukitsu betor.

2

Ditugarik ere  
gaur nastu samarrak  
oraindik baditugu  
bertako bakarrak;  
ezagutuzten ditut  
musakolatarrak,  
nekazariak eta  
itzaiak jatorrak.

3

Goserik ez genduan  
inguru auetan,  
naiko arto-babarrun  
egiten zan bertan;  
batez ere beiñepein  
iru baserritan:  
Axeri, Mugategi  
eta Zabaletan.

4

Baldin bagera ere  
azi artakoak,  
ez gaude emen orain  
eun urtekoak;  
karobi erretzalle  
ziranetakoak,  
biurtu gera guztiz  
aopiñekoak.

5

Lan gogorretik aiek  
aukeran zituzten,  
baiña guleritikan  
batere etzuten;  
ardotik tantoren bat  
izaten bazuten,  
wisky-ren izenikan  
beintzat etzekiten.

6

Sukaldari apaiñak  
bazterrikan bazter,  
goserik ez daukagu  
Jainkoari esker;  
auntziñako jakiak  
utzi giñun laster,  
arto ta babarrunaz  
eztaukagu ezer.

7

Ain zuzen baditugu  
gaur egun gazterik,  
itxaropen onetik  
daudenak beterik;  
buruan dituztenak  
bait dira besterik,  
eztagola-ta nago  
urrik ematerik.

8

Euskaldun nekazari  
izenaren jabe,  
diranak ezin pasa  
bertsorikan gabe;  
festa gozo batzuek  
nolanaitara're,  
pobretxuak izango  
baldin badira're.

Egillearen paperetatik  
Festen egitarauan azalduak

# San Juan jaiak, 1982

---

1

Milla beatzireun goazen au da  
laroge ta bigarrena,  
gure San Juan zaindari onan  
eguna badatorrena,  
al balitzake arrasatetar  
danak bildu alkarrena,  
zalantzik gabe au izango zan  
festarikan ederrena.

2

Ez det aztutzen, beste ainbeste  
ibili ziran bezela,  
ni ere gudan tiro artean  
or ibilia naizela;  
gure biotzak bildu premiaz  
konturatu gaitzela,  
ezaguera ta maitetasuna  
nagusitu ditezela.

3

Nere eskeintzak bein da berriro  
izan arren bertsozkoak,  
gu gaudenetan erreza al da  
sortzea umorezkoak?  
Bagenituzke aurka gabeko  
on egite gogozkoak,  
San Juan jaiak izango ziran  
usai gozo-gozozkoak.

4

Erri maillako bertso egintza  
urtean bein San Juanez,  
Arrasateko Jai Nagusiak  
aiek izaten diranez;  
arazotako bat loratu da  
bere berezitasunez:  
gaur *Arrasate Musical* dago  
goian sona nabarmenez.

5

Milla beatzireun iruroge ta  
zan amalaugarrenean,  
ain zuzen ere lora illean,  
Igokunde egunean,  
musika banda sonatu ura  
desengindua zanean,  
oker nengoan il egin zala  
bertsoetan nionean.

6

Il etzan egin, adar guztiak  
izan zitzaizkan autsirik,  
ala bearrez enborra bera  
zan gelditua osorik;  
oraindiokan zorionean  
jarraitzen duna bizirik,  
geroztik irten zaizkan loreak  
badute usai gozorik.

7

Erosoago igaro gogoz  
errian ezin egonaz,  
askok ospatzen dute San Juan  
norabaitera joanaz;  
jokabide au ezin onartuz  
ni beti nere jardunaz,  
jatorragoa badala nago  
alkar maiteak izanaz.

8

Erosotasun billa pausorik  
eman bearrik emendik,  
gusto berdiñak ez dira baiña  
nik ez deritzat dagonik,  
arazo ontan Euskal Erria  
aurreko puntan egonik,  
ala ez balitz bera genduke  
lortu premia lelenik.

*Egin*, 1982.06

# Eskerrak emanez

---

1

Uribarri auzoa,  
neu ala naizenez,  
auzoko lansaritu  
guztien izenez,  
gu danok gorde naian  
berezitasunez,  
egon leku polit bat  
eskeiñi dezunez,  
biotzez natorkizu  
eskerrak emanez.

2

Anai-arrebak, izan  
biotzak jasoak,  
zorionez gogoan  
baigaitu auzoak;  
maitasunez zabalduz  
biotz ta besoak,  
eskeintzen dizku egon-  
toki eroak,  
igaro al ditzagun  
gure une gozoak.

3

Erri ordezkariak  
auzoan jabetza,  
gugatik alegiñak  
egiten dabilta;  
lansarituakingo  
daukaten oroitza,  
ondo gorde naian  
gutako bakoitza,  
erosoago egin  
nai digu bizitza.

4

Parroko jaunak berak  
zer egiñik badu,  
etorri zitzaigula  
urtea inguru;  
geroztik aspertzeke  
lanean diardu,  
al baginduzke danok  
biurtu aingeru,  
olakoxea degu  
Mikel Aranburu.

*El Diario Vasco*, 1982.07.08

# Futbol txapelketa nagusia

---

1

Milla bederatzireun  
larogeti ta bian,  
San Juan, San Pedro ta  
San Fermin aldian,  
Euskadin ere bai ta  
berdin Españian,  
ostikozko jokoak  
guztiz ots aundian,  
mundu guztia neurtzen  
baita futbolian.

2

Kirol ori da neri  
ez ditana deitzen,  
ala ta ere zerbait  
naizena serbitzen;  
futbolik gabe ezta  
gaur errez bizitzen,  
mundu guztia danez  
berekin oroitzen,  
maitatzera or nunbait  
gaituzte beartzen.

3

Ez dakit nundik egin  
zuan etorrera,  
baiña bai ez dutena  
utzi bazterrera;  
kirol traketsa danez  
beti gogorrera,  
alkar trili eginda  
sarritan lurrera,  
ur otzez bustitzean  
altxa ta aurrera!

4

Futbolariak lurra  
sarri baitu joko,  
askotan bultz eginda  
baita eroriko;  
ur otzakin bustiaz  
aurrera jarraiko,  
bear bada len baiña  
trebeago aiko,  
gaztea izan bear  
baiña ortarako.

5

Ostikozko neurketa  
asi bazan asi,  
aspaldi beste ezer  
ez degu ikusi.  
Ia-ia ez al degu  
geuk ere ikasi?  
Batzuk galdu ta beste  
batzuk irabazi,  
geien dana irtengo  
ote da nagusi?

6

Neurketa aurten emen  
erori, ain zuzen,  
mundu zabal ontatik  
orrenbeste izen;  
lurralde oietatik  
gugana zetozen,  
auen zai amaikatxo  
emen aurkitzen zen,  
futbola ez da zelaian  
bakarrik jokutzen.



# Nere jaiotetxeari

---

1

Kantu auen zai ote zaude zu,  
biotzeko jaiotetxe?  
Burura etzait iñoiz etorri  
lenago onenbestetxe;  
prest zauden ori zure altzoan  
artzeko noiznaitan ortxe,  
zure semeak biotzez maite  
zaitun Debako Goikoetxe,

2

Gauzak badira biotza oso  
errez ikutzen dutenak,  
neretzat ere badira batzuk  
aixa tiratzen nautenak,  
Sortu ta azi geran txokoak  
nola ez izan maiteenak?  
Nekez bada ere, zuretzat dira  
nere kantu politenak.

3

Begiratzeak obe itxurak  
dituzten ainbat bazterri,  
nere burura zenbat olako  
gauza ez dute ekarri!  
Zer esker eman sortu ta azi  
gaitun toki baldar orri?  
Aitortzen dizut, luzera ez da  
zearo gaizki etorri.

4

Nere barruak amaika aldiz  
ontaz neri itzegin dit,  
zer erantzunak ere baditut  
berriz itzegingo balit;  
albotik sarri ikusi oi da  
makiña bat gauza polit,  
ez aztu bear baiña ordea  
danean dagola zerbait.

5

Komenientziz au esatea  
ikasleak baliteke,  
ez dute uzten asko eskatzen  
zaietela esateke.  
Nere iritziz, premizkoena  
ikasi bear luteke,  
lana eginda jan bear danik  
ez daki lautik batek e.

6

Ikasgaietan garrantzizkoen  
bera zala-ta, lenago  
kristau dotriña erakutsita  
ikasi oi zan lenengo;  
Orain tokirik baldin badauka  
ez ote du azkenengo?  
Ori orrela izatekotan  
emen gauz onik ez dago.

7

Dalako autopista dontsuak  
zu epini ziñun dantzan;  
oiñarritikan irendu eta  
ia-ia erdi balantzan.  
Iraungo zendun itzaropenik  
geiegi iñundik etzan;  
biotz-biotzez eskertzen zaitut  
ez baiziñan beintzat etzan.

8

Une gaiztoak izan zenitun  
txarrena ia elduan,  
larri alditan agertu ziñan  
nunbait or erdi galduan;  
seme-alabok zuk beti zutik  
jarraitzea nai genduan,  
iñork ez daki zenbat bizi-poz  
guretzako orrek duan,

9

Zure errukia nai det eskertu  
biotza bete-betea,  
zuk ez gaituzu utzi nai izan  
gu emen nolabaitean;  
gaur edo biar, luzena etzi,  
gu goazen bitartean,  
guk nai genduke zure tokian  
zu or gelditu zaitean.

10

Ikasia au erripa ortan  
erasoak eruatzen,  
iñola moduz ez genduan nai  
zeu ikusterik erorten;  
estualdiak izan dituzu,  
zuk beti aurrera irten,  
jarrai zaiozu datozenari  
zure altzoa ematen.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1982.08.12,  
7, 8, 9 eta 10-garrena ez beste  
danak.



Goikoetxe, Deba, egillaren jaiotetxea.

# Zaarrentzat etxea

---

1

Artua duten erabakia  
gaur Arrasaten notizi:  
zaarrentzat etxe berri bikain bat  
jasotzen nai dute asi;  
konpostura on bat egin naiean  
premier dagon zenbait gauzi,  
laiño arteko zenbait maitasun  
barruan ditezen bizi.

2

Ontzat baidago artu bearra  
konpostura on guztia,  
maitasunari diruen bidez  
tokia irabazia;  
zarrak etxean enbarazorik  
eman gabe ikustia,  
etzan ohea gertatuko, ez,  
ez bat eta ez bestia.

1982

Egillearen paperetatik

# Zakur jabegabeak

---

1

Kalezai izatetik  
ni lansaritua,  
gaurko mintzagai ontaz  
oso jabetua;  
geroztikan enkargu  
askotxo artua,  
auxe da auxe lanak  
ezin bukatua!

2

Bigarrenko orrian  
*Cartas al Director,*  
*El Diario Vasco*-an  
egi pranko dator,  
bidegabekeriak  
salatuaz jator;  
ni ere iritzi bat  
ematera nator.

3

Zakur jabegabeen  
kontura muturka,  
batzuek alde eta  
beste batzuk aurka;  
nai nuke esplikatu  
apurka-apurka:  
errua jabe gabe  
uzten dunak dauka.

4

Gozatu baldin badu  
usatu orduan,  
zakurra maite izanaz  
lagun zar moduan,  
gero zertan uzten du  
or desanparuan?  
Berak ez daki zenbat  
kalte egiten duan.

5

Kaltebiderik iñoiz  
etzazu bereztu,  
zure ardura bada  
nola dezu aztu?  
Bete bearrak bete  
al dezula justu,  
zakurrak jabe gabe  
gauza onik eztu.

6

Zure jokabidea  
madarikatua,  
ez ditekena izan  
iñoiz onartua.  
Etzaizu damutuko  
jator portatua,  
besteontzat ez utzi  
zeuri sobratua.

*El Diario Vasco*, 1982.09.05

# Lengo denborak zer ziran

---

1

Ikusi eta irakurtzean  
Txema Urzelaik diona,  
egunkariko argazki batek  
bertsoetara narama.  
Eskoriatzan Zaimutz auzoa  
leniztarrak ezaguna,  
zeru txiki bat dirudiela  
izan bear du egona.

2

Sarritan entzun izan degunez  
ezta gogora-gaiztua:  
zerura joan nai dunak izan  
bear duala justua;  
eziñezkoa ez dala baiña  
ain dala bide estua,  
Zaimutzen dute zeruagatik  
kamio-egintza aztua.

3

Bukatu zaigun abuztuaren  
ogeta bederatzian,  
auzoko soillak amalau bildu  
erlijioso jantzian;  
alaz guztiaz ere ordea  
oraindik danak etzian,  
beste amaika dira Afrikan,  
Arjentinan da Asian.

4

Danak alkartuz eman ondoren  
meza nagusi bikaiña,  
kanposantura bisita zuten  
prozesioan egiña.  
Zeruak parte artu zuala  
ain dago gauza jakiña,  
bitartekoa gertu zuten  
Dorletako Ama Birjiña.

5

Beraz amabost baserri danak  
ditu Zaimutz auzoak,  
auetan bizi izan dituzte  
senide ta gurasoak;  
ez dituanak geiegi poztu  
bide zabal erosoak,  
auek egiñak zerurantz ditu  
bideak mundu osoak.

6

Beraz auzo au alde ortatik  
ezta egon ezaldian,  
ogei ta amabi erlijioso  
sortuz gauden gizaldian.  
Zuzen kontaktzen dituztelarik  
beintzat zenbat izan diran,  
or agiria Euskalerrian  
lengo denborak zer ziran.

*El Diario Vasco, 1982.10.19*

# San Tomasko peria

---

1

San Tomasko peria  
oso da lengua;  
Arrasaten zarra da,  
ezta oraingua.  
Aurtengo ere emen  
egitaraua,  
iñork aztu ez dezan  
aitatzera nua.

2

Abenduan ogei ta  
bigarren eguna,  
San Tomas bigarrena  
ospatzen deguna;  
jendea ibiltzen da  
ara eta ona;  
egualdi txarra sarri  
egin oi duana.

3

Olako eragozpen  
batzuek gaitik e,  
guztia konpontzen da  
baiña nolabait e:  
trago bakarren ordezt  
bi artzen dituzte,  
egualdi txarrari zer  
egin badakite.

4

Utzi ziguten aiek  
San Tomas erentzi,  
ezin aztuko degu  
izanik berezi;  
etzituzten guk degun  
ainbat komenentzi;  
eginkizun bat degu:  
galdu gabe eutsi.

*Egillearen paperetatik*

# Aita Santua Loiolan

---

1

Millaz gaiñetik bederatzireun  
gaude larogeta bian,  
gertakizunik sonatuenak  
ditu uda azkenian:  
auteskundeak igarotzean  
girorikan onenian,  
Aita Santuan bisita gero  
berriro ondorenian.

2

Ala bearrez gertakizunak  
oso bikaiñak dira ta,  
makiñatxo bat gauza on degu  
izateko aginduta;  
ondoren ona izatekoa  
nago itxaropenduta,  
au gertatzea ez al da obe  
naiko premi badegu ta?

3

Aita Santua beti bezela  
artzai bikaiña izanez,  
gure artera azaldu zaigu  
kontseju onak emanez;  
gure eziñak arindu naian  
bearrezkoa zaigunez,  
aurrez jakiñik etorri baida  
berak aitortu duanez.

4

Bisita onen ondorenak ez  
jakin zer izango diran,  
onak txarrikan ez duana bai  
jakiña dago segiran;  
lenago ere Aita Santuak  
Erroman biziko ziran,  
gure lurrera bisita egiñik  
ez dago baiña kondairan.

5

Zegon tokian Aitak bazuan  
aspaldi gure berri ta,  
seme-alabok gu izan ere  
beti gera bigurri ta:  
eman oi ditun zenbait agindu  
eman ditu etorrita,  
joana degu gauzak utziaz  
argi ta garbi jarrita.

6

Bisita oni zer arrerakin  
egin diogun jaramun,  
ondorenean berealaxe  
izango baita ezagun;  
bata besteei min emateko  
griña gaiztoan gau ta egun,  
etsai bizitza baztertu eta  
nola ez biurtu lagun?

*El Diario Vasco, 1982.11.28*



# Ezkontza austeak

---

1

Azken txapelketako  
azken egunean,  
*Emakumea* gaia  
azken-azkenean;  
zortzi bertsolariak  
gogotsu lanean,  
gauzak utzi zituzten  
azkenik leanean.

2

Gaiari errespetoz  
zioten eraso,  
emakumeen alde  
mintzatuaz gozo.  
Bakoitzak bana goian  
jarri zuten oso,  
danak bear lukete  
norbait zeïñek jaso.

3

Egun on baten nor ez  
ezkondu gustora?  
Komeriak burutuz  
ezkontzan kontura;  
laister aldatutzen da  
norbaiten postura,  
ezkontza apurtzea  
dute konpostura.

4

Oso maiz gertatua  
esatera nator,  
zenbait emazte iñoiz  
mintzatu da jator:  
Alako ezkongaitan  
etzan izan mozkor.  
Geroztik izatea  
andran erruz dator.

5

Senarrakin agintzen  
diranetik asten,  
zenbait andrak ez daki  
zer egiten duten;  
ez diotenez beste  
biderik ematen,  
gauzak joan bearra  
dute nolabaiten.

6

Ezin konpontzeraiño  
balira iritxi,  
senarran aurka dator  
geienbat iritzi;  
oiñetaraiño bere  
izen ona jetxi,  
ero-etxeratua  
ez omen da gutxi.

7

Bizi-alargun andrak  
alkarteetara,  
noizpeinka biltzen dira  
batzar oietara,  
dituzten naigabeak  
argitaratzera;  
ondoren, aztutzeko,  
gozotegitara.

8

Gure agintariak  
zenbat buruauste  
ezkontza austien gain  
izaten dituzte;  
eleiz-gizonak beintzat  
beste danak beste,  
aien baimenaren zai  
gaudenik ez uste.

9

Alkartzeko garaian  
zerbait nai ta gogo  
nabaitzen degun esan  
bearrik eztago.  
Apartatzerik baldin  
bada geroago,  
baimena alperrik da  
bakartu ta gero.

10

Beti izan geranak  
libertade gose,  
alde ortatik ezin  
nolanaitan ase;  
alperrik eman milla  
libertade klase,  
nai ainbat ezin guri  
eman inñolaz e.

11

Erregla bereziak  
daude autatuak,  
jarraitzera gaudenak  
danok beartuak.  
Baiña noiznai alkartu,  
noiznai bakartuak,  
erreglak ez dituzte  
izan onartuak.

12

Jarraitzera ezkerok  
goazen bidetik,  
eztaiak ugaltzea  
baditeke ortik,  
Ikus diteke, jarri  
ezkerok arretik,  
jatetxeak artuak  
urte bat aurretik.

*El Diario Vasco*, 1983.01.29 eta 30

# Pixtalari abilla

---

1

Ain apostu politik  
ez det entzun iñoiz,  
egia dala dudik  
ez bait dago berriz;  
nik ikusi ez badet  
ere nere begiz,  
ikusi duanakin  
izketan egon naiz,  
gabaz etzan ospatu  
baizik egun argiz.

2

Urtarrillen ogeta  
iruan domekan,  
patinak erantsita  
oiñen azpitan,  
Udalaitz mendiaren  
arkaitz zakarretan,  
zailtasun aundi gabe  
altu bajuetan  
gazte bat iritxi zan  
gaillurrean bertan.

3

Asitzeko garaian  
mendiari beetik,  
inguruan etzegon  
testiguen paltik;  
goraka zijoala  
juezan aurretik,  
jolasean bezela  
patinotan zutik,  
artuko nuzke ala  
igotzeagaitik.

*El Diario Vasco, 1983.02.02*

# Urteko batzar nagusia

## Uribarriko jubilatuetxean

---

1

Milla beratzireun da  
larogeta amairu,  
martxoaren ogeian  
aurten izan degu:  
jubilatuetxan giñan  
Uribarrin bildu,  
bazkaltzen egon giñan  
eun bat inguru.

2

Amaika ta erdietan  
izan gendun meza,  
etzan zearo bete  
auzoko eleiza;  
gero ondorenean,  
urteroko gisa,  
jubilatuetxean  
gendun juntaixa.

3

Idazkariak zuan  
gertu eramana,  
urteko gora-bera  
garbi zun emana;  
iñork etzuan ezer  
aurka beregana,  
gero bazkariakin  
bukatu zan dana.

4

Lendakari berria  
ere egiña dago,  
maixu modura lana  
egiña lenago;  
itxaropena degu  
dula erantzungo;  
deituraz: On Frantzisko  
Álvarez Serrano.

5

Gertatzen ari danaz  
ez gaude konporme:  
Uribarrin giñan gu  
edonorren pare;  
bagiñan serbizio  
apal biren jabe,  
biak kendu ta utzi  
gaitu bate gabe.

6

Olakoak agintzen  
dagoenengandik,  
maite omen gaituzte  
alare oraindik;  
ez degu itxaropen  
neurritz geiegirik,  
zarrok utzi gaituzte  
egoak mozturik.

7

Zarra berez egonik  
edade aulian,  
errez al zaio egoten  
umore onian?  
Egan egin al leike  
nator ni galdian,  
zertarako ez utzi  
egoak aldian?

8

Izan da norbait zegon  
pixka kentzekoa,  
ia noiz izaten dan  
ondo jartzekoa;  
jubilatu-etxea  
egon utsekoa,  
beti antzu dagoan  
beien antzekoa.

Egillearen paperetatik

# Uribarriko eleiz berritzea

---

1

O, Uribarri maitagarria,  
zutaz nai nuke gaur mintza,  
gure eleiza konpondu eta  
tajutu naian dabilta;  
premis zegoen zerbait lortzeko,  
bide beretik gabiltza,  
fededunentzat pozgarri utsa  
gertatuten dan egintza.

2

Kristau bizitza eleizak oi du  
aberastu ta sakondu,  
eleiza gabe ezin diteke  
fedegirorik mantendu;  
estal-berritu dutenak dabilta  
barua naian konpondu,  
eleizak ere apaindu eta  
obetoago ematen du.

3

Parroko jauna ez du poztu oi  
zenbait aizezko afanek,  
era berean ez du izutzen  
edozein estuasunek;  
beti erantzun zuzena baidu  
datorkion zenbait lanek,  
ondo gabeko biotza baidu  
Aranburutar Mikelek.

4

Ala bearrez guregan zerbait  
bearrezkoa badago;  
lagunduzeko borondatea  
almena baiño geiago.  
Merezi duan maillan laguntzen  
bai ote degu jakingo?  
Zalantzik gabe alegin danak  
artan ditugu egingo.

*El Diario Vasco, 1983.02.10*

# San Andres auzoa eleiza gabe

---

1

Arrasateko auzo apala,  
deitura dezu San Andres,  
lortu ez dezun zerbait badezu  
zuk ere denporez aurrez;  
nolanai ere badezu zerbait  
jarri zaizuna aldrebes,  
iñoiz ez dira egintzak izan  
berriketak bezin errez,  
norengatik dan ez dakit baiña  
zaude eleiza bearrez.

2

Bost bat millatan inguratuak  
dituzun bizi lagunak,  
danak ez dira izango baiña  
sail aundi bat fededunak;  
ortik ez aztu ez dituzula  
oso gutxi euskaldunak,  
urte luzetan eleiza eske  
auzoantzako daudenak,  
entzungorrikan ez du merezi  
antsi orrekin dagonak,

3

On Benantzio Otaegi da  
auzoko parroko orain,  
eleiztar danen zuzendaritza  
artua dauka bere gain;  
eginkizuna betetzen onek  
egingo baitu alegin,  
konturatzen da lana badula  
parroko batentzako lain,  
bere eleizik ez dun bitarte  
ezin du ordea egin.

4

Euskal Errian jantziak gera  
bietatik oraindaiño,  
zoritxarrean jetxiak gera  
baiña ia-ia beeraiño;  
apaizik sortzen gure lurrean  
ezta gero atsegiña,  
eleiz berririk zutitutzea  
gero ta zaigu eziño,  
errezagoa zaigu alare  
apaizik sortzea baiño.

*El Diario Vasco, 1983.03.10*

# Tresna autsi baten gisan

---

1

Euskal Erria ikusitzean tresna autsi baten gisan, aspaldi ixilik egonak ere asiak esan da esan. Beste bakar bat geiagogaitik ez leike geiegi izan, bere semeak aurka baditu erri gaixo au joan zan.

2

Trebetasunak zer balio du gure seta eta teman, osagairikan premian dagon gaixoai eman ezenan? Ez on da ez txar, etorkizunik ez dago oraingo leman, maite oiua asko ibili eta eriotza eman.

3

Beraz ez opa izatezkeroz gaixoari osasunik, semeengandik ezean nundik espero laguntasunik? Aruntzagoan bizi diranak ez digute maitasunik, diru danokin alde dutenaz ez daukagu jaskizunik.

4

Euskal Erria zauriz betea, alde guztitatik miñez, okerragoa, osatzeko gai izango geran jakiñ ez; beste tokitan ere dabilta gauz onik egin eziñez, asi baitira orain al dunak al duan dana egiñez.

5

Bein da berriro Aste Santua gaiñeratu zaigunean, penitentzia egin garaian gaude onen-onenean. Gaitzerdi dala aitortu bear ala gertatuenean, negar guztiak baldin badira Jainkoaren izenean.

6

Alkar maitatzen saiatutzeko al danik eta ondoen, kristau izena damakigunok danok entzungo genduen, gurutzeratu zuten orduan Kristok nola esan zuen: «Barka zaiezu, ezpaitakite, Aita, zer egiten duten».

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1983.04.01



# Onaren zale

---

1

Dibertsioen mende  
izan ez arren zor,  
nork bere gaitasunak  
azaltzen ditu or.  
Ez naizen au moldatzen  
nik nai bezin pizkor,  
bein da berriro bertso  
batzuekin nator.

2

Atsegin zitzaidanez  
ez nintzan asi goiz,  
baiña nere bertsoak  
azaltzen dira maiz.  
Irakurlea zail da  
asetzen guleriz,  
onaren zale dala  
orain oartu naiz.

3

Argi geiago dago  
zenbaiten buruan,  
gauzak plantatzen daki  
beti goraguan;  
ez gerala berdiñak,  
au izan goguan,  
besterik ori baiño  
zer naiko genduan?

4

Irakurlea, egin  
bear dizut galde,  
ain zuzen suerteko  
baiño ote zaude?  
Egillea ari da  
dibertitu alde,  
alegiñak egiten  
lanean debalde.

5

Bertsoak izan dute  
jabe burutsurik,  
mintzazale iaierik  
eta gogotsurik.  
Nekez ikusi oi da  
oso jakintsurik,  
auek ez dute kate-  
dratiko itxurik.

6

Zenbait errota-arririk  
io oi du lakar,  
irin gozoa askok  
bereizten du azkar.  
Dan onela alare au  
esatera nakar:  
bertsolaria nekez  
mintza oi da zabar.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1983.04.24

# Basarri jaunari

---

1

Zu etzerala aurrena ortan  
jakiñik nago lenbizi,  
zure gisara ari diranak  
sarritan ditut ikusi;  
Basarri jauna, or zera baiña  
zu ere aiekin nasi,  
udaberria desaidatutzen  
etzaitezen arren asi.

2

Udaberria ez du egiten  
guk nai bestekoa ona,  
gogora zazu ordea lendik  
ainbat alde eztagona;  
ni gôratzen naiz len ere txarrak  
egin izan zituana,  
ezagun zaizu karobi erretze  
asko egin ez dezuna.

3

Arto ereiteko karea egin nai,  
guztia jarria gertu;  
irurogeta amabi ordu  
su bizitan bear ditu;  
itxogiteko zai egon eta  
azkenik euriak artu,  
ote bustirik ez erretzen da  
egurrengana beartu.

4

Aurtengoa ere ezta izango  
bearbada ain aparta,  
izan ere gu konformatzea  
zearo erreza ezta.  
Ona egiteak egiten al du  
orain len ainbeste falta,  
gure lurrean gutxiñaz orain  
alako lanik ez da-ta.

5

Udaberriko egualdi onak  
ematen digute lanik,  
zeiñek esan gu lenago iñoiz  
ala aritu geranik?  
Gauden aldiak pasa ta artzen  
ez badu itxura onik,  
bizi geranok berriro ere  
ez pentsa libre gaudenik

6

Gizonak badu eskubidea  
bizitzekoa egoki,  
onerakoak ainbeste txarrak  
grñiak ordea dabilzki;  
Jauna beraren eskubideak  
lortu aizeak damazki,  
aiek lortzean askoz biziko  
ote giñake obeki?

1983.05

Egillearen paperetatik

# Jaionetxo

---

1

Jaionetxoren gertakizunaz  
jabe egin naizenean,  
bertso batzuek moldatu naiak  
sortu zaizkit zuzenean.  
Ura sustoa erori zana,  
Jainkoaren izenean!  
Pozik alare sustoa beste  
ezer izan etzanean.

2

Lengo igande arratsaldean,  
Donostiako Igeldon,  
aurra berekin zegon ustean  
ama luzarotxo egon.  
Aurra izkutatze onek azaldu  
zitun amaika biotz on,  
urren goizean aurkitu zuten,  
aurra ederki lo zegon.

3

Telebixtatik ikusi nuan  
ango uneak zer ziran,  
lenbizikoak oso larriak,  
gero alaiak segiran;  
ikusi utsez neri barruak  
zirrara egiten zidan,  
or ixpillua bizitzan gure  
gauzak nolakoak diran.

4

Bi urte ta erdi bakarrik zitun,  
oraindik etzun besterik,  
aingeru-guarda berekin zan da  
arek etzeukan galtzerik.  
Bakardadean gaba pasatzen  
asi da aurra gazterik,  
negar otsera etzuan izan  
iñork aura aurkitzerik.

5

Nola diteken ez dakit baiña  
gure pozak eta penak,  
biak ditugu uste gabean  
alkar saltzen dakitenak.  
Lengoan ordu gutxi barruan  
gertatu baziran denak,  
«Luzeak ziran» diote ordea  
ardura artu zutenak.

6

Lenago ere esan det eta  
biotz onik ageri da,  
aur-galtze alde edo aurkako  
bere orretaz ari da.  
Gertatu dana ikusiz gero  
nere galdera ori da:  
arazo ortan kabitzen al da  
orrenbeste eztabaida?

Egillearen paperetatik

*El Diario Vasco*, 1983.06.11

# San Juanak, 1983

---

1

Zu, Arrasate, berriro ere  
urtea erdia joan da,  
bizi bagera berealaxe  
berriz ere San Juan da;  
etzazu utzi nolabaiteko  
arrera otz bat eginda,  
lenago ere izan alean  
maitea baizenduan da.

2

Ezin ukatu une gaiztoak  
zuretzat beti daudena,  
kaskarretik maiz ugari eta  
oso bakan berriz ona;  
ala ta ere inguratzean  
Zaindariaren eguna,  
gure artera beti ekarri  
izan du alaitasuna.

3

Irabazbide gabe ainbeste  
dagon moduan egonik,  
ez gera gutxi naigabez eta  
kezkaz beteak gaudenik;  
etzaio oni iñondik ere  
agiri irtera onik,  
orrez gaiñera zer izango zan  
ez balego San Juanik?

4

Aintza zuretzat izan dedilla,  
o Zaindari doatsua,  
atsekabeak arintzaillea,  
ain zerana indartsua;  
naigabetuak dauden biotzak  
alaitzaille gogotsua,  
bein da berriro bedeinka beza  
Arrasate paketsua.

Jaien egitarauetik

# Uztapide il da!

---

Zu, Uztapide, Euskal Errian  
dakiguna da lenengo,  
zure entzuterik ez duan asko  
ez dala emen egongo;  
zutaz amaikak itzegin du ta  
oraindik du itzegingo,  
bear ainbeste esateko gai  
ez gera baiña izango.

Egillearen paperetatik

# Erleak Donostian kaleetan

---

1

Otsailleko elur da  
izotzen ostian,  
denborak erantzun du ,  
nere ustian.  
Aize, euri, eguzki  
sarritan nastian,  
aukera ona beti  
legor da bustian;  
lur jira guztian,  
noiznai ez bestian,  
loreak jartzian,  
astian, astian,  
erleak paseatu  
dute Donostian.

2

Abere txiki auek  
dituzten arteak,  
zaillak izango zaizkit  
danak esateak.  
Lanerako piñeza  
ta borondateak  
arduratutzen ditu  
beren izateak;  
orma zar tarreak  
dituzte maiteak,  
nunai alkarteak,  
kaleak beteak,  
aurten lendabiziko  
beraneanteak.

3

Mugitzen diranean  
toki aldaketan,  
eskurtsio zaleak  
erleak tartetan,  
irixten diranean  
Donostin kaleetan,  
eragotzia dagon  
geldilekuetan,  
jeixten dira bertan  
kontrako marketan,  
ertzaiña kezketan  
kentzeko arretan;  
ez da beintzat alare  
juan gruatan.

4

Gertatzen diran arren  
pixu gutxikuak,  
dira gruak eraman  
ezin alakuak.  
Artzen dituztenean  
beroi lekuak,  
ez ditu ikaritzen  
pixu aundikuak;  
ertzaiñen jokuak  
sarri olakuak,  
beretatikuak  
Astigarragakuak,  
laister jasotzen ditu  
ango parrokuak.

5

Txikiak izan arren  
aundi dira senez,  
arrigarriak dira  
berezkotasunez;  
Astigarrako apaizak,  
ikusitzen denez,  
poliki artzen ditu  
maixua izanez;  
itxurak diranez,  
artimaiña onez,  
artzen ditu errez  
ejenplu emanez,  
ertzaiñak ezin duna  
berak egiñez.

6

Auek egiten duten  
etorri ta joana,  
ezta izaten gaua  
baizik eguna;  
piñeza utsa baita  
azaltzen dutena,  
ain ejenplu bikaiña  
eskeintzen diguna;  
pamilia dana  
ez dana bakana,  
gelditzen eztana  
ara eta ona;  
koperatiban egin  
oi dute lana.

7

On Jose apaiz onak  
dauzka merituak:  
Donostiko kaleak  
ditu garbituak;  
bederatzitaraiño  
izanik artuak,  
badirudi dauzkala  
berekina oituak.  
Gozozko tratuak  
nork ez onartuak?  
Asmatzen kontuak,  
or daude kakuak;  
pranko parrokiario  
zaizko geituak.

Egillearen paperetatik

*El Diario Vasco*, 1983.08.03,

1, 2, 3 eta 4-garrena.

# San Bartolome jaiak Uribarrin

---

1

Abuztuaren ogeta laua  
Bartolome doatsua,  
Uribarriko auzotarrentzat  
guztiz egun ospetsua;  
meza nagusi batekin gendun  
gorestu santu altsua,  
aintza eskeiñiz gorestu ere  
zaindari errukitsua.

2

Egun batzuek aurreragotik  
egitaraua artuak,  
jaietarako programarekin  
giñuzten enteratuak;  
meza ondoren amaiketako  
bikaiña jubilatua,  
gazte leialak izan gaituzte  
errespetoz serbituak.

3

Gure egunetan badira ere  
gauzak alaxe jarriak,  
uste gabeen sortzen zaizkigu  
guztiz naigabe larriak;  
baiña ez aztu baditugula  
gazte adoragarriak,  
auentzat zarrak gertatzen gera  
egitazko erregiak.

4

Jubilatuak itzal gozotan  
aintzatuak izateak,  
agertzen digu beren biotzak  
badituztena gazteak;  
poztutzen gaitu auzoko jaiak  
ain bereziki asteak,  
milla esker ta bide ortatik  
igaro jator besteak.

*El Diario Vasco, 1893.09.02*



# Leniz auzoa

## Zarautzko Euskal Astean

---

1

Mintzatu naiak baditut baiña  
nundikan asi ez dakit,  
Zarautzko azken Euskal Asteak  
bertsotara dei egin dit.  
Arrasatek an parte artzean  
ni ere ikutu nunbait,  
ikusitzean esaten errez  
eztan beste gauza polit,  
saiatu naia badet argiak  
baldin lagunduko balit.

2

Frontoi *Zinema*-n irailak zazpi,  
ain zuzen asteazkena,  
mailla txikian bertsolariak  
leiaketa egin zutena;  
txapelketa onek gure *Lizardi*  
*Saria* bere izena,  
amar gazteak eskeiñi zuten  
al zuten emankizuna,  
Leniz auzoak erakutsi du  
bein berriro gorespena.

3

Ostegunean, irailak zortzi,  
berdin *Lizardi Saria*-n,  
trikitolari txikiak orain  
berriro toki berian;  
amazazpi bat bikote bertan  
parte artuak baziran,  
batzuk bestien ondoren danak  
lana egiñak segiran,  
gorputzez txiki oraindik baiña  
artez zein aundiak diran.

4

Urren egunez, ostiralean,  
berriro toki artan bertan,  
dantza librean zazpi bikote  
jokatuak txapelketan;  
baldarkeririk gabe ariñak  
azaldu ziran benetan,  
trebeak ziran esku ta oiñez,  
biguiñ gerri-belaunetan,  
sasoia eta bizitasuna  
nabarmen zegon danetan.

5

Era ontako emankizuna  
Zarautzko Euskal Asteak,  
poz ematen du ainbeste gauza  
bereziak ikusteak;  
neurri batean edo bestean  
beti berena kosteak,  
azken gaillurra babestu eta  
eman dizkigu ospeak,  
Arrasateko berdin sailla dan  
gure orkesta gazteak.

*El Diario Vasco*, 1983.09.22

# Lapurtzat artzen dituzte

---

1

Ez baldin bada beintzat bizitzen  
bat arkaitzezko biotzaz,  
derrigor mindu bearko zaio  
betiko emengo otzaz.  
Baldin oroitu ezkeru beintzat  
auek daukaten bizitzaz,  
iñola moduz ezin ausartu  
zer gertatzen dan arrantzaz.

2

Zenbat alditan ote dituzte  
begiak bustiko malkoz,  
arraietara joanik itxaso  
dana betea oztopoz?  
Baldin Portugal ez baldin bada,  
bada beti Marruekos,  
arazo ontan prantzesak beurak  
ez daude obeak askoz.

3

Sarri egona naizen arren ni  
buruan ezin sartuta,  
uste dedanez gertatzen danaz  
bai nago konturatuta.  
Enbarazotik baztertzen gaitu  
itxas erditik artuta,  
guk ezin egin aieri ori  
geu aurrez atxilotuta.

4

Ikusten denez, gu beti gaude  
aientzat enbarazoan,  
naiz apartera joanik eta  
naiz frantzesakin auzoan,  
Pizti batzuek bagiña gisa  
artzen gaituzte lazoan,  
orretarako guk gure saillik  
ez al degu itxasoan?

5

Noiznai ikusi al genezake  
ainbat tratu ta ajuste,  
gauzak konpondu nai dituztela  
gu ziur jartzen gaituzte.  
Baiña garaia eltzen danean  
balio asko ez dute,  
arraietara joandakoan  
lapurtzat artzen dituzte.

6

Arrantzaleen bizimoduak  
beti du gogorran pama,  
izan gogoan Jesus Jainkoak  
bein batez egin zuana.  
Erreztasunik ez datorkigu  
iñundik ere gugana,  
berez gogorra xamurtutzeko  
a zer nolako sistema!

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1983.11.20

# San Tomas, 1983

---

1

Arrasatek au berea oso,  
noiztik ez det ateria;  
abenduaren oge ta bian  
Santo Tomasko peria;  
egun berean zozketatzen da  
urteroko loteria,  
egun ontatik azaltzen zaigu  
Gabon jaien ataria.

2

Zati ontxo bat eroritzea  
loteritik oneraxe,  
erabakiko degu zer egin  
berekin berealaxe.  
Peria baiño ez al genduke  
guretzat obe orixe?  
Gabon jai oiek ez al genduzke  
alaituko orrelaxe?

3

Periagatik esango nuke  
egitan zale bagera,  
ganadu peri batek bear du  
berezi zaion aukera.  
Iñola moduz ez bultza egin  
bein da berriz bazterrera;  
al baletzaio tokirik eman,  
ekarri erdi-erdira.

4

Berriz peria berpiztu arte  
zenbaitek ezin du etsi,  
nolabait ere periak badu  
beregana zenbait garrantzi:  
Nere aldetik nik ere badet  
bere gain zenbait iritzi:  
len gendunari zer dala-ta ez  
genion bizirik eutsi?

*El Diario Vasco, 1983.12.21*

# Zarren dibertsioa

---

1

Zure deitura entzutetsua  
Zarautzko Barbero Patxi,  
zugana bertsoz iritxi naiak  
berriro zaizkit iritxi.  
Auek ikusiz zure biotzik  
ez dedilla beera jetxi,  
berri orrekin, besterik gabe,  
ez nazu poztutzen gutxi.

2

Zure berriak jakin irria  
nigan sentitzen nuan-da,  
bizitza ontan batek ez daki  
lagun on bat nun daukan-da.  
Íñoiz olaxe azertatzen da  
ixil-ixilik egonda,  
orain guztiok jakiña degu  
bertso bidez zeuk esanda.

3

Atsegin izan lezaidakela  
ni egon arren ustean,  
bixitatzeko zabiltz ordea  
batean eta bestean.  
Txoria ote zeran datorkit  
gauzak ola ikustean,  
konprenditzeak baditu lanak  
zabiltzala oinbestean.

4

Au ikasiko zenduana zuk  
batere ez det dudatzen,  
Xenpelar zanak kantatu zuan  
bertsoa zait gogoratzen.  
Korrika ikusi zuan bidetan  
ark ankamotza korritzen,  
au gezurra zan, baiña nago zu  
egitan ote zabilzen.

5

Zeuk diozunez jarraitzen dezu  
lortua daukagun modan,  
Urbasan ere egonaldia  
beraz egin dezu udan.  
Nor baiño ñor gutxigo ez danez  
jarrai olaxe errondan,  
urrogokoan ere etzazu  
berri txarragorik eman.

6

Zenbat denbora danik ni ez naiz  
gogoratzen zuzen-zuzen,  
baiña lenago ere bertsoak  
biok trukatu ginduzen.  
Zuk ez dakizu ni bertsoekin  
zenbat dibertitzen naizen,  
esaten dizut au geixeago  
bertsotan ari zaitezen.

*El Diario Vasco, 1983.12.27*


# Omenaldia

---

1  
Omenaldia lendabizitik  
eman banun ere ontzat.  
nare barrena maiz galde egin dit:  
zer dala ta ori neretzat?  
Zer dala eta Euskal Erriak  
artu bear nau ni aintzat?  
Omenaldia gogoratzean  
biotza eroritzen zat.

2  
Iragarrita zegoan eran  
itzez eta idatzita,  
Urtarrillaren ogeta iruan  
Donostian gendun zita;  
jaialdi ura bizi ondoren  
ala nago iritzita:  
zorra ugari badaukatela  
Arrasatetik asita.

1984.01.24



# Urteurrena

---

1

Egin zenidazuten  
omenen kontura,  
Goikolea gogotsu  
nigana kantura.  
Nire aipamena zan  
ark zuen ardura,  
gordean zuan dana  
bota zun kanpora;  
zeritzan lekura,  
ordea gertura,  
au, ori ta ura  
zizkidan lepora;  
ala ta guzti ere  
biok gustora.

2

Udaletxean nuan  
artutako zorra,  
morroi nintzanez nuan  
bete bearra.  
Goikolea arkitzen  
izutu xamarra,  
kalean galtzeraiño  
manuskritu zarra;  
ez anka bakarra,  
oiñezko azkarra,  
buruz ez baldarra,  
bazun bere garra,  
azkenik ere Maxu  
joixok adarra.

1984.01.24

Egillearen paperetatik

# Omenaldiaren inguruan ibiliak

---

1

Gauza aundirik nigandik iñork  
ez dun arren itxaroko,  
zertxobait irten ditekeala  
ez dute danak aztuko;  
esker beroak ematea det  
gogozko eta gustoko,  
zor deten maillan egin al banu  
asko nintzake poztuko.

2

Uste gabean erori zaigu  
esker onezko omena,  
gu poztutzeko zalantzik gabe  
dagonik eta onena;  
saria jaso degunez gero  
egin ditugun lanena,  
biotzez egin zaiguna degu  
biotzez artzen lenena.

3

Izkuntzarentzat ongarri ona  
gerta diteken ustian,  
bertso idazten alegindu naiz  
gaia sortu dan guztian,  
kilkerren gisa beti gordean  
belarren batzun azpian;  
ezagutzeko aukera ona  
dezute gaur Donostian.

4

Onuntz etortzen ikusi eta  
ainbeste euskaldun jende,  
zorionean euskera maite  
dunik oraindik badaude;  
guk egindako lanak ainbeste  
aintzat artuak badaude,  
gure esker on eta agurra  
ainbat luzaroen gorde.

Egillearen paperetatik

# Uribarriko kanpantorreak eun urte

---

1

Zenbait arrazoi tarteko dala  
orra zenbait bertso berri,  
auzoan bizi naizen ezkerro  
aitatuaz Uribarri.  
Íñoiz begira egon al zera  
kanpantorre zorrotz orri?  
Eun urteko pitxi bat baita  
polita da izugarri.

2

Norbait izan zan orduan ere  
gauzak zuzen eramana:  
materialak, errazioak  
eta egindako lana;  
arkitektoa barruan dala  
obra zuzendu zuana,  
on Mikel gure parroko jauna  
dauka zer kosta zan dana.

3

Ogeta amabost milla errial  
danera kostea baita,  
txikia dala aitortu bear,  
baiña oso da polita;  
obra maxkala danik ez uste  
diru gutxitxo dala-ta,  
ez aztu zutik irauten dula  
eun urte baditu-ta.

4

Gauza jakiña ordularia  
auntziñakoa duana,  
jubilatua dagon itxuran  
aspaldi ontan zegona;  
baiña etzegon jubilatua,  
atsedentzen da egona,  
opor luzeak eman ondoren  
lanean jarri dutena.

*El Diario Vasco, 1984.02.09*



# Oraindik urrutirago

---

1

Oso denbora luzea zendun  
ixil-ixilik igaro,  
eta ondoren bertso alaiak  
eskeiñi zenitun gero.  
Zu ikustean, bidezko danez,  
poztu nintzan ni zearo;  
tristexeago zabiltz ordea  
geroztik, Patxi Barbero.

2

Zuk diozunez zure semean  
kotxea dute ostua,  
besterenakin jabe egiten  
jendea dago listua.  
Arek zer bide artuko zuan  
jakitea da gaiztua,  
semearentzat kaltea eta  
aitarentzat diskustua.

3

Zure bertsotan irakurtzen da  
zuk onela diozula;  
zuen semeak kotxea bere  
lanbiderako zuala;  
ostu dunari lanagatik bost  
izango zaio ajola,  
ezpadiardu gaiñera esanaz  
Euskadi jasotzen dula.

4

Kontzientzia eta lotsia  
paltako gendun lenago,  
baiña oraingoz joanak dira  
askozaz urrutirago,  
Mundu onetan itxaropena  
galtzea da azkenengo,  
lotsagabeen artetik berriz  
ez ote degu irtengo?

5

Oraindiokan, olatu onek  
gu emen artu gaitu-ta,  
ezingo gera jarri biotzak  
aitzan eran gogortuta.  
Baiña ezta ere, etzaitz jarri,  
Patxi, barrendik lertuta,  
bestela ere daukazinakin  
naikoa badaukazu-ta.

6

Abenduaren lauko bertsotan  
zuk esaten zendunari  
oso polita iritzi eta  
berriro natzaizu ari.  
Jaramonikan egitekotan  
nere kontseju aueri,  
eskatzen dizut aurrera ere  
jarraitutzeko lanari.

*El Diario Vasco, 1984.02.29*

# Joxe Manuel Arriolari

---

1

Bein da berriro Arrasatetik  
Patxi Barberoi bertsuak,  
aitortu bear oiek zirala  
oso ondo moldatuak.  
Aien ordaiñak moldatzen lagun  
egingo al dit Jainkuak,  
erantzun gabe uztea zail du  
oso zure modukuak

2

Patxi Barberon penak arindu  
asmoz zera zu asia,  
eta eskerrak bidalitzia  
dezu ondo merezia.  
Bertso gutxitan agertzen dezu  
esan nai dezun guzia,  
baiña biontzat obeko degu  
gauz au alde bat uztia.

3

Or eta emen nunai badaude  
gaur orrelako piztiak,  
ale batzuek erortzen dira,  
baiña zaila da guztiak,  
Lanik ez eta jan bear onek  
ditun istillu gorriak,  
Euskalerria goraldutzeko  
oiek dira gudariak.

4

Jatortasuna zoritxarrean  
badijoa goitik beera,  
geren etxetik irteteko guk  
pozik ez degu zartzera.  
Amarra edo *kangrejo* gisan  
egiten degu atzera,  
bizi izateko poz aundirikan  
bai al da onez aurrera?

5

Azken aurreko bertsuarentzat  
ez det izan erantzunik,  
ez gero pentsa gauza orrekin  
asko poztutzen naizenik.  
Baiña oraindik itxaropena  
zure gain badadukat nik,  
ez det pentsatzen egunen baten  
azalduko etzeranik.

6

Bertsuen bidez ari gera gu  
agur egiñez alkarri,  
orruntz joatia nola eska zuk  
ibili ezin danari?  
Zu etortzea neretzat poza,  
sinista zaidazu ori,  
beso zabalik emen nago ta  
nai dezunian etorri.

Patxi Barbero, Zarautz  
*El Diario Vasco*, 1984.04.01

# Aita Garmendiari bere urrezko eztaietan

---

1

Berezi utsa zeran  
Aita Garmendia,  
eta osatzen dezun  
zure Lagundia;  
zuen lagunak mundu  
guztian or dia,  
pentsatzen jarrita ere  
zein gauza aundia,  
gure Jaungoiko onak  
egin zizun deia!

2

Deia jaso zendun da  
zuk saillari ekin,  
baita jarraitu ere  
orain arte bikain;  
jaso zendun deiari  
erantzuten jakin,  
jarraitzen dezularik  
osasunarekin,  
aurrera ere zalantzik  
eztago zurekin.

*El Diario Vasco, 1984.03.19*

# Futbola

---

1

Kiroletan lenengo  
maillan gaur futbola,  
Euskalerrria bera  
aurrena degula.  
Ori askotxon ustez  
garesti dagola,  
merkatu egin bear  
ala edo ola.

2

Telebixtatik nintzan  
lengoan egona,  
ikusi naiz Madrillen  
Bernabeun zegona.  
Talde bat katalana,  
bestea euskalduna,  
etzan futbol bakarra  
ango ikuskizuna.

3

Futbola zala uste  
gendun an auzia,  
propagandatik ala  
gendun ikasia.  
Baiña etzan futbolez  
bukatu guzia,  
ondoren ere bazan  
an zer ikusia.

4

Katalanen artean  
Maradona dago,  
arek konpromisoak  
dizkie emango.  
Izena daukan eran  
sarritan *Armando*,  
baiña etzaio irten  
*leoiekin* ondo.

5

Emengo diru danak  
izan arren bere,  
eztagola dirudi  
konforme alare.  
Nunbait izan nai luke  
danon jaun da jabe,  
eman egiten ditu,  
baiña bai artu're.

6

Futbolari on otsak  
zituzten entzuten,  
Arjentinatik beste  
berririk etzuten.  
Orain ari da bera  
nor dan erakusten,  
ekarri zutenak e  
errua bazuten.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1984.05.19

# Jai nagusiak Arrasaten

---

1

San Juan dabilkite  
ezpaitan aurrak,  
San Juan dabilkite  
biotzetan zarrak.  
Gure gazteak daude  
aitatu bearrak,  
ez izateko festa  
garaian baldarrak;  
jaso zuen biotzak,  
arrasatetarrak!

2

Gauz bat da Zaindaria  
bera izatea,  
bestea zerbaitekin  
beti etortea,  
Aurreko urtean gendun  
*Monterron* parkea,  
aurtengo *Iturbide*  
zarrentzat etxea,  
orra Jaunaren naia  
ta bodondatea.

3

Pozik gera ainbeste  
lortu degulako,  
izan ere ez baita  
gutxigotarako.  
Bi gauza garrantzitsu  
beintzat errirako,  
faltako da oraindik  
zerbait egiteko,  
egingo da ordea  
beste baterako.

Egillearen paperetatik

4

Beti eztagon arren  
nai aña lortzerik,  
asmorik bikaiñenik  
egi biurtzerik,  
eztago baiña beste  
biderik artzerik:  
ez dagonean geldi,  
lotan gelditzerik,  
ez da komeni zeatz  
dana bukatzerik.

5

Burutu arren ere  
milla gauz berezi,  
gogoan izan bear  
deguna lenbizi;  
oraindik ez deguna  
guk ondo ikasi,  
diruz ordaindu gabe  
biotzak erosi,  
pakea litzateke  
festetan nagusi.

6

Ainbeste eztabaida,  
ainbeste zalantza,  
bakoitzak bereari  
tira eta bultza;  
sarri beera egiñaz  
gutxitan goruntza,  
pakerik ez badegu  
ekartzen onuntza,  
anai-arrebak onla  
zertako gabiltza?

*El Diario Vasco*, 1984.06.24

# Joane Iturbe artzaia il da

---

1

Artzai geiago badira illik,  
ez dute izan bertsozik,  
zail da izaten kondairik Joanek  
izan duan gisakorik.  
Fabrika baten nagusi-txofer  
urtetan zan nekaturik,  
mendira alde egin zuana  
osasanak bearturik.

2

Garai aietan zana oraindik  
dan *Unión Cerrajera*,  
Arrasaten zan lan-tokirikan  
bikaiñena ordun bera,  
Joanek zuan nagusi aien  
txofertzarako aukera,  
berrogeta bat urte zitula  
utzi zuan bertanbera.

3

Izenez *Bidesoro* deritzan  
baserri pakeosuan,  
sortu zan Joane gaur Arrasate  
dan Bedoñako auzuan.  
Gazte denboran askoren gisa  
fabrikaruntza jo zuan,  
iri askotxo ikusiz gero  
bizi izan da basuan.

4

Dalako *Unión Cerrajera*-ko  
jauntxoentzat Joane zer zen?  
Bazirudian maite zutela,  
konpianza paltik etzen.  
Bizitza aura Joaneri baiña  
gorputzak ez aprobaten,  
baserritarra mendiarekin  
obeto nunbait uztartzen.

5

Joanek zebillen burubidea  
ara ta ona txopertzan,  
ez baizekian ez noiz zutitu,  
gutxigo berriz noiz etzan.  
Ler egiteko zorian zegon,  
gutxigotarako etzan,  
etzuan adin ori lortuko  
kontuan jausi ezpazan.

6

Olatsu lortu al izan ditu  
larogei eta bat urte,  
komeri latzak builla artetik  
paketara eldu arte.  
Seme-alabak ez ditu izan  
anai-arrebak ainbeste,  
artaldearen jabe egiteko  
aiña bai baiña, nik uste.

Egillearen paperetatik

*El Diario Vasco*, 1984.08.05



Artaldea Portaloi aurretik.

# Patxi Barbero jatorrari

---

1

Larrañagatar Frantzisko jauna,  
bestela *Patxi Barbero*,  
agur gozo bat eskeintzen dizu  
Arriolak bero-bero;  
artu-emanik ez degu biok  
udaberritikan gero,  
luze joango zaizula nago  
zuri ere onezkeru.

2

Ama Bijiña Arantzazuko  
egun aundia da eta,  
gipuzkoarrok Ama gozoa  
izan e bera degu ta.  
Zer poza artu nuan goiz artan  
egunkaria artuta  
zabaldutzean zure bertsoak  
zeuzkala konturatuta.

3

Bertso aietan azaldu dezu  
pasadizo eta berri,  
udako zure ibili oiek  
poztu naute izugarri;  
bizi nai eta umoretik zu  
etzabiltza oso urri,  
gisa ortako albisteakin,  
Patxi, zu azaldu sarri.

4

Zure bertsoak irakurtzeak  
bertsotara bultza neri,  
bialdu nizkon dozenerdi bat  
idatzita Basarriri;  
zori txarrean andrea ordun  
zitzaion ill berari,  
orregatikan edo ez dakit  
bertsorik ezta agiri.

1984.10.22

Egillearen paperetatik



# *Iturbide Egoitza*

---

1

Gaurko eguna Arrasatentza  
egun gogoangarria,  
zaarrentzat eta beartsuentzat  
ona emen etxe berria;  
Ardanza jaunak une onetan  
moztua du lokarria,  
beste lan gabe artaraxe da  
Donostitik etorria.

Zertan berriztu ezta egongo  
leendik jakiña izanda,  
baiña kalterik eztu egingo  
bein da berriro esanda:  
Ardanza jauna len ere geldi  
egotekoa etzan-da,  
bukatu ere berak egin du  
asi berak egin zun-da.

3

Ala bearrez egiten dira  
makiña bat obra polit.  
au ikusita, gauza jakiña,  
neri poza ematen dit:  
bakoitzak bere errian gauzak  
goian ikusi nai nunbait,  
ia Arrasaten berriz ez geran  
agertzen iñor nolabait.

Zaarrentzat eta beartsuentzat  
kabia zu, *Iturbide*,  
eskatzen zaizu gerta zaitezen  
guztiontzat etorbide;  
uste gutxien danean zure  
premiak sortzen dirade;  
Arrasatentzat zeru gozo bat  
izango zerala gaude.

1984.11.09

Egillearen paperetatik

# *El Diario Vasco*-ren urrezko eztaiak

---

1

Ogeta amalautik  
larogetalaura,  
mende erdi bat justu  
justu igaro da.  
*El Diario Vasco*-ren  
adiña ori da,  
ogeta amalautik  
lanean ari da.

2

Lantegi onek badu  
naikoa teori,  
beti jarraitu dio  
asi zan lanari;  
ateak zabalduaz  
milloika berriri,  
zenbat serbizio on  
Euskal Erriari!

3

Asko izango dira  
zuztarrik gabiak,  
entzun izan ditugu  
gezur ots aundiak.  
Gaizki itzegiten du  
geiegi jendiak:  
erdiak ez ditula  
ekartzen egiak.

4

Lantegi ortan jende  
argia bear du,  
egunkariak iñor  
garaituko badu;  
ala ta guztiz ere  
lanik izango du,  
nolanai ez gaituzte  
irabaziko gu.

5

Periodiko egintzak  
eskariak ditu,  
lenbizi langilleak  
iaioak nai ditu.  
Bere lanak iaioak  
eskeintzen baditu,  
irakurleak ere  
argituko gaitu.

6

Zu, *El Diario Vasco*,  
zeure nortasunez  
lanean ari zera  
berezitasunez.  
Mende erdi da asi  
ziñanetik oiñez,  
bertso batzuk eskeintzen  
dizkitzut omenez.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1984.12.02

# Aste batean, Gipuzkoan

---

1

Gure bistatik Jauna egoten  
zaigun arren ezkutuan,  
egun auetan ez dakit ez dan  
egon ia agertuan.  
Batzuk kixkali, besteak ito,  
ainbat kristau ixtripuan,  
bi egunetan, bat tarte dala,  
aste baten Gipuzkuan.

2

Lenbizikoan beraz laiñoa  
izan omen zan tarteko,  
kristauak beren tresna ta guzti  
sutara eramateko;  
pilla aundi bat sendaetxera  
ondoren puska bateko,  
beste batzuek beren biziak  
utzi zituzten betiko.

3

Bigarrengean itxasoa da  
jarri dituna esiak,  
zakarraldian kamioratuz  
bere ur labain gaziak;  
andik pasatzen zijoazenak  
irrixt eginda jausiak,  
nunbait beretzat bear baizitun  
an zijoazen biziak.

4

Ango oiñazeak gutxi zirala,  
au da au *paradisoa*:  
batzuentzako eriotza ta  
bestentzat amenazoa.  
Bi auentzako berdiñak dira  
aurra eta gurasoa,  
ase eziñezko gertatzen dira  
sua eta itxasoa.

5

Iñola moduz ezin nabaitu  
eriotzan ataria,  
argi ta garbi ageri zaigu  
zer dan gure uskeria.  
Ikusi degu ainbat tokitan  
negarra ta eroria,  
Gabonetara iritxitzeko  
asti gabe loteria,

6

Biok gogorrak, sua, gizonen  
serbitzaillea zeranez,  
eta itxasoa berriz gizonen  
bizibidea izanez,  
Deskuidatuak derrigor paga  
bear du, ikusten danez,  
errukiz ez da ortik libratzen  
iñor, itxurak diranez.

*Egillearen paperetatik  
El Diario Vasco, 1984.12.22*

# On Jesus apaizari

---

1

On Jesus, oso erreza etzat  
baiezkoa ematea,  
erabakita dagola nago  
zu guregandik joatea;  
berri orretaz nere biotza  
eztago pozez betea,  
noiznai ta nunnai bete dedilla  
Jaunaren borondatea.

Egillaren paperetatik

# Sarasua anaiak nungoak

---

1

Aretxabaletan jaioak ango  
gure ustez bear zuten,  
egunkaritik pixkana-pixka  
ia lelotzen gaituzten.  
Sarasua anaiak Zumaiakoak  
dirala datoz esaten,  
orretarako arrazoirik guk  
ez degu berriz ikusten,  
nun jaioa dan gizona ez al da  
legez angoa izaten?

*El Diario Vasco*, 1984.12.20

# Berri kezkarria

---

1

Gure egunkari *El Diario Vasco*-an,  
bizitzen ari geran  
urtarrillen lauan,  
berri kezkarri bat  
irakurri nuan:  
gosea sortu dala  
berriz Gipuzkuan.

2

Benetako gosea  
gertatzen da triste,  
jolasa danik inork  
ez dezala uste.  
Lekuko izana bat  
emen naukazute,  
probatu nuan zer dan  
ikasteko beste.

3

Noiz arte jakin gabe  
inork inundik e,  
pixka bat mesedezko  
ote litzaiguke?  
Iru bat illabete  
gutxienetik e  
probatuta obeto  
jakingo genduke.

4

Ez ditugu maiteak  
arazo umillak,  
bestetara dirudi  
gerala abillak,  
I're bai ta ni're bai  
ortan gu mutillak,  
zaborrera boteaz  
ogi-barra pillak.

5

Bear bada etzizun  
inork erakutsi,  
aurreko aien lana  
zan ori lenbizi:  
kaxku bat zaizunean  
lur gaiñera jausi,  
mun eginda jasotzen  
ez dezu ikasi.

6

Ez diran arren eurak  
bizkorrak zearo,  
artuko ote naute  
txoro eta aro;  
seiñale orrek aintza  
bear dula nago,  
zaborrera ogirik  
zer bota eztago.

*Egillearen paperetatik  
El Diario Vasco, 1985.01.27*

# Apaizen urrezko eztaiak

---

1

Donostiako apaiz buruak  
onartu ta baimendua,  
berezi utsa gertatzen dana  
berri bat da zabaldua.  
Gipuzkoarrak apaiz zerrenda  
izateko omendua,  
urrezko eztaiak ospatuzeko  
garaia zuten gaindua.

2

Emezortziko zerrenda, beraz,  
iritxiak omentzera,  
lengo denborak orra or nola  
gelditzen diran atzera.  
Modan pasea dagoan tresna  
baztertuaren antzera,  
ez leike berdin gerta emendik  
berrogeitamar urtera.

3

Omendu auek berrogeitamar  
urtean egindakoa,  
iñola ezin izan diteke  
iñork neurtu alakoa.  
Zenbat kontseju ta errezo on  
ondo eskeiñitakoa!  
Alaz ta ere Euskalerriak  
oraindik ez du naikoa.

4

Zenbat konjuru diran egiñak  
euskal gari-soroari,  
baldin aztua bazaigu ere  
aspaldi ontan lan ori,  
laister gogora lezaio zenbait  
baserritar amonari,  
gari pixka bat ordaintzen zien  
katilluan apaizari,

5

Gu ez geranok ez geran arren  
geiegi konturatuko,  
apaiz izate ori beti zan  
serioa gertatuko.  
Len baiño galbai estuagoak  
gaur apaizak egiteko,  
danen bearra bizitza oni  
aurpegia emateko.

6

Ezingo diran arren izandu  
mundu ontan betikoak,  
konturatzen naiz ez ditezkela  
izan oso mutikoak.  
Oraindiokan bukatu gabe  
emengo egitekoak,  
erakutsiak daude dirala  
artzai onenetakoak.

*El Diario Vasco, 1985.05.15*

# Omenaldi aundia

---

1

Ikusi eta irakurtzean  
ainbeste berri pozgarri,  
bertsotarako gogoia zeñi  
ez lezaioke etorri?  
Arrera on bat eskeñi naian  
Zarauzko irudi orri,  
zorionikan biozkorrenak,  
adiskide on Basarri!

2

Asko ariko gatzazun arren  
guztiz arreta piñean,  
beren tokian gauzak jarri naiz  
biotzez alegiñean,  
ez ote gera ordea danok  
geldituko eziñean?  
Gai ote gera zu goraltzeko  
bidezkoa dan aiñean?

3

Nere barruan nabaitzen dedan  
ura aitortzera nua:  
gai naizelakoz ez daukadala  
neuk beintzat nere burua.  
Ni ziur nago Basarriri au  
etzaiola asko ardura,  
zorionsua iñork aipatu  
bearrez ez dagon ura!

4

Zenbat izango ez ote dira  
olako ateraldiak?  
Esan bearrik gabeak dira  
Basarriren alderdiak.  
Berezi utsak gertatzen dira  
bera dan bezin aundiak,  
urtez beerago balego obe  
genduan Euskalerrriak.

5

Zu esnatzean aurkitu zendun,  
Basarri, zer mugitua,  
bertsolaritzaz asi ziñan da  
kirolakin segitua.  
Biontzat dezu gure lurrean  
mailla ona garaitua,  
zu joanda ere izango dezu  
naiko zeñek aitatua.

6

Zarauzko erriak izan zaituna  
ain gogotsu maitatua,  
omendu eta zure irudia  
berak dizu zutitua.  
Zure emaitza euskal lur ontan  
zeñek ez du nabaitua?  
Arriolaren ustez ez dezu  
oraindikan bukatua.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1985.06.13



# Onak obeak

## Bertsolari berri gazte baten asmorik ederrenak

---

1

Gauza askorik ezin azaldu  
urri dagonak doaitik;  
bertsoak maite ditut, ordea,  
ezaguera detanetik;  
amaika aldiz dibertsioa  
niganatu da bertsotik;  
ez naute danak ase izan oi  
oso onak izangatik.

2

Ain bertsolari ona zeranak  
bertso ona lortzen maiñaz,  
zure saiotan aritzen zera  
trakets mintzatzeko griñaz;  
beste askotan lizunkeria  
ezpaiñetatik ereiñaz,  
ona ohea izan liteke  
beti jator itzegiñaz.

3

Ain aberatsa doaiz zeranak  
gogoan ez ote dezu?  
Bertsotan gozo mintzatzutzea  
oso premizkoa zaizu;  
bear luketen probetxu gabe  
bestela joango zaizkizu;  
entzuleari mingotsen orde  
gozoa eman zaiozu.

4

Bertsotarako sena dezuna  
erakutsi dezu lendik,  
bere kasatan zugan sortua,  
erosia ez iñundik.  
Ez ote dezu ordea zerbait  
falta zaizuna oraindik?  
Zure entzuleak atsegin baizik  
ez baidute nai zugandik.

5

Ona zerana jakiñik ere  
bertsotarako teknikan,  
baldin badezu bertsotan minkor  
aritzeko oiturikan,  
etzaizu joango merezi dezun  
aiñean entzulerikan,  
ofiziale ona izanik ere  
ez dezu izango lanikan.

6

Izen onari eutsi edo ez  
ez dakizula izan berdin,  
saiatu zaitetz entzulerikan  
urrutiratu ez dedin;  
zure garaia datorrenean  
etzaitetz jokatu arin,  
asko al dezun orrek euskeran  
alde al dezuna egin.

7

Jakin ezazu gure izkuntza  
dagoala gaixotua,  
okerragoa berriz gaixorik  
ezin dula uxatua;  
izan gaitezen sendagilleak,  
dezagula osatua,  
muga gabeko zure almenak  
badezu nun usatua.

8

Gure euskera une estuan  
eta larrian dagonez,  
sendagillerik ez dualako  
bizirik ezin iraunez;  
zu al dezuna saiatu zaitez  
Ama jartzen osasunez;  
ajola osoz mintzatu zaitez  
sendagillea izanez.

9

Adin onekin entzuna nago  
ni askotxo bertso saio,  
baiña zenbaiti gozo mintzatzen  
miñik urratzen al zaio?  
Ni bearbada asko eskatzen  
norbaiti ari natzaio;  
asko al duan ari geiago  
beti eskatutzen zaio.

10

Semeak gaitu gure izkuntza  
il zorian dagoanak;  
ez ote zaigu bururatuko  
zer eskatzen digun Amak?  
Premizko zaizko une larrian  
semeak ajoladunak;  
alperrik galdu gabe badezu  
nun baliatu almenak.

11

Izan gaitezen euskera Amatzat  
degunok bere jabeak,  
ez dira izaten seme leialak  
aman ardurik gabeak;  
ez urratzekotz ama gaixoan  
alde abilidadek,  
nola osatu bear du ama  
ajolik ez dun semeak?

12

Bertsolaria, euskeran alde  
ari zerala diozu,  
etzazu uste premizko ez dunik  
ala egiten badezu;  
baiña bertsoan txukunago zuk  
oraindiokan al dezu,  
ala egiten aleginduaz  
geiago egingo dezu.

Egillearen paperetatik  
*Aranzazu*, 1985, 06.07,  
11 eta 12-garrena izan ezik

# Botoak

---

1

Iru astean emen  
izan degu builla,  
alderdi politiko  
danak boto billa;  
dabilkiten eskola  
ulertzea zailla,  
geien dituna goren  
exeri dadilla.

2

Zutelarik bakoitzak  
danak beren meta,  
bertara eldu naian  
zenbat zalaparta!  
Ixilik dagonari  
nai nion nik bota;  
ezin, ordea, danak  
ibili dira-ta.

3

Egiña baidigute  
franko propaganda,  
ezer ez du iñork galdu  
ixilik egonda.  
Ordea egitazko  
gauza ola al da?  
Jenero ona ixilik  
egonaz saltzen da.

4

Botoak irixtea  
premiatzkoa zen,  
Jaunaren izenean  
bein poztu gaitezen;  
botuakin batera  
euria ain zuzen,  
orain denetik degu,  
aurrera goazen.

5

Botuak izan dute  
bein berriz zaratik,  
lenbizi aspertu bat  
beti dago ortik;  
euria ere ekarri  
dute orregatik,  
Gorbachov bera ezta  
etorri gutxitik.

6

Egin digundik ainbat  
eskeintza ta jardun,  
izan bearko dute  
norbaitzuek zordun;  
eskeintza utsez iñoiz  
ez gera gu lagun,  
batez ere zarrontzat  
ia zer on degun.

Egillearen paperetatik

# Manuel Lekuonari

## Iparragirreraren doñuan

---

1

Oiartzuarrak beren seme ta  
apaiz izan zutenari,  
omen aste bat eskeintzen doaz  
Manuel Lekuonari;  
arregan degun zorra  
ezin aztu iñola  
euskal bertso zaleori;  
nik itxaro det omen asteak  
utziko dula nabari.

2

Lekuonatar On Manuel, zuk  
euskera maite zendula,  
bertsoen alde zer egin zendun  
nik ezin neurtu iñola;  
agirian dagona  
asko egin zenduna  
ez daiket aztu sekula:  
bidezko baita, zuaizti orrek  
fruta eman bear zula.

3

Gogotsu ezik jakintsu ere  
On Manuel genduala,  
orregaitikan irten baizaio  
bere obra ain mardula;  
batzuk aundixeago,  
besteak xexeago,  
dana da fruta arbola,  
goraberarik garrantzitsuna  
kalidadean dagola.

4

Arbola batzuk fruta berdea,  
beste batzuek gordiña,  
beste batzuek oso kaxkarra  
baiña goxoa ta piña;  
batzuk gordiñen alde,  
besteak goxo zale,  
ori da gauza jakiña,  
ugari eta aundi-ederrak  
nai izaten dira baiña.

5

Zeiñek ez daki gure gustoak  
diferenteak dirana?  
Danak ase nai izatekotan  
aukera ona onena;  
berde edo oria,  
aundia edo txikia,  
gogozkoena zaiena;  
arra barrenen duan fruta da  
gutxien gustatzen dana.

6

Frutak beregan izanik ere  
iru edo lau kolore,  
bear duana azaldu oi da  
gusto onekoen zale;  
zuaitzen zori txarra,  
eta ezta ederra,  
gaitzak artu badu mende;  
emango ditu gusto txarreko  
ainbat eta ainbat alde.

Egillearen paperetatik

# Besterenak errezago esango genduzen

---

1

Ekainak ogeta bat,  
ebanjelioak  
gogo erazten ditu  
gauza serioak;  
adibidez arima  
baten balioak,  
erlijio saillean  
gure istilluak,  
menperatzen gaituzte  
maiz demonioak.

2

Esandako egunen  
ogeta batean,  
eta San Luis eguna  
bera izatean,  
etzan edozein egun  
denbora batean,  
aundiki ospatzen zan  
urtean-urtean,  
Euskal Erriko jende  
gazteen artean.

3

Gaur bagera ordea  
jende burutsurik,  
auntziñako oiturak  
erabat autsirik;  
ia alde batera  
ditugu utzirik,  
nunbait aintzat ez dute  
merezi artzerik,  
batez ere badute  
eleiza kutsurik.

4

Arrasateko zenbait  
gizon ezagunek,  
parregarriak bere  
ateraldi aiek.  
«Urtea luzea dek  
–esan oi zun arek–.  
baiña Pazkoazkoaz  
bete bear badek,  
aitortzeko garaia  
laster etortzen dek».

5

Jaunak ori orrela  
jarria ain zuzen,  
bakoitzak bere faltak  
aitortu al ditzen;  
besteren ardurarik  
ez digu eskatzen;  
obeto serbitua  
bestera izango zen,  
bestenak errezago  
esango genduzen.

6

Kristau dotriña aztua  
gertatu ez dadin,  
kristau dotriña estua  
etzazu desegin;  
pekatuen azpitik  
nai dunak aldegin,  
egin beza sinisten  
duanak alegin,  
ez dakitenak jakin  
dezaten zer egin.

7

Nola oitura zarrrik  
kontutan ez duten,  
gaur ari da amaika  
gazte nolabaiten;  
alkarri zenbat kalte  
egiten dioten,  
bearbada esnatu  
litezke noizbaiten,  
ustez dakiten danak  
ez dute jakiten.

8

Gazteak nola alde  
gaur zurrinbillotik,  
bera aldatzen duan  
olatu artatik?  
Ondatzen duna berak  
ezagutugaitik,  
lotsa baidatorkio  
maiz beste aldetik,  
orrelaxe dabilta  
zortzi amarretik.

9

Laiñezez bete eta  
egitean gaiñez,  
eredu izatetik  
urrun aldegiñez,  
dirua poltxikoan  
da kotxe apaiñez,  
bide illunak eta  
luzeak egiñez,  
iñola moduz ezin  
ase atsegiñez.

10

Nork ez daki aizea  
arrotu oi dala,  
eta kalteak egin  
izan dituala,  
ordun danok erabat  
aspertzen gerala?  
Itxaropena orrek  
ematen duala:  
Jaunak nai duanean  
baretuko dala.

Egillearen paperetatik

## ***Loiola irratia*** **zillarrezko eztaietan**

---

1

Loiola Irrati baliotsua  
zure entzulea nazu,  
joan dan ogeta bost urteotan  
makiñatxo bat serbitzu  
premian dagon gure izkuntza  
oneri egin diozu,  
egiten ari zera eta aurrera  
egiten segi zaiozu.

2

Xamur gogoan izatekoa  
euskaldunontzat Loiola,  
Euskal Errien biotza dala  
ezin aztu guk iñola;  
lur jira oni irratia bidez  
aixa mintzatzen zaiola,  
zeru berari San Inazion  
bitartez deitzen diola.

3

Edozein gai ta arazoetaz  
franko itzegin diguzu,  
ogeta bost urtera ezkeru  
erantzuna bear dezu;  
bagera ainbat bertso jartzaille  
eta beste ainbat maixu,  
ez dakit zuzen ariko geran  
baiña erantzungo zaizu.

4

Zail izango zan izan e ala  
gerta ez zitekeala,  
nik gogoan det zure aurkako  
egintzak izan dirala;  
nere iritziz garrantzitsuna  
esango det bereala:  
geientxoena zure lanakin  
oso pozikan gerala.

5

Zure bitartez millaka berri  
garrantzitsu agertuak,  
ordu guztitan euskal sukalde  
geienetan serbituak,  
urruti samar gertatu arren  
dituzu gerturatuak;  
zure mesede ongarrietaz  
oso gaude oartuak.

6

Meza santua, errosario,  
itzaldi eta otoitzak,  
euskal etxetan gertatzen diran  
ezbear da eriotzak;  
zuzen emanez azokatako  
sal-neurriaren emaitzak,  
berdin zertatik nun salgai dagon  
ikasi dezan bakoitzak.

7

Nun egin eta zer egiña zuk  
ikusi zenduanean,  
bitan pentsatu bearrik gabe  
asia ziñan lanean;  
geroztik beti ari zerana  
bikain aritu alean,  
zu gabe ez dakit zer izango zan  
orain onla gaudenean.

8

Au irixtean zalantzan ezin  
iñola ninteke egon,  
au aitortzeko aspaldi ontan  
beta artzeko zai nengon;  
*Loiola Irrati* euskaldun orrek  
baditu ainbat alde on,  
baiña zatirik bereziena:  
*Ezbearrean Zorion.*

9

Egun guztitan *Ezbearrean*  
*Zorion* goizean goizik,  
misteriorik badula nago  
onek *berezia* ezik:  
nekez ainbestez egingo dio  
gaixoai gaitzak igasik,  
ordea gutxi al da uztea  
egun guztirako pozik?

10

Euskaldun biotz sentikor aiek  
sentitzen gera antsizko,  
lur jota dagon izkuntza oni  
ote diogun eutsiko.  
Irratia, zu jantzi dezu ta  
aurrera dezu jantziko,  
ontan gaudenok iñola moduz  
zu gabe ez degu etsiko.

Egillearen paperetatik



# Irudiak

---

1

Berri emaille prestuen bidez  
askok jakingo dezute,  
idazkiz eta argazkiz gauzak  
argi azaltzen dituzte.  
Ni ere nere bertsoen bidez  
saiatuko natzaizute,  
arrizko irudiz apain jarria  
baidigute Arradate.

2

Iñoiz egona ote da gero  
bizitza oraingo gisa?  
Ainbeste dago lanik gabe ta  
besteak ainbeste prisak;  
iru euskaldun, italitar bat,  
arjentino, japonesa,  
Corpus eguna irudigintzan  
lanean dutenak pasa.

3

Arrasatek gaur sortua baitu  
irudiz zenbait aukera,  
gizatasuna ugaritzeko  
jokaera al da bera?  
Zoritzarrean aurkitzen dana  
eroria naiko beera,  
sekula bada eta premian  
oraintxe aurkitzen gera.

4

Irudi oiek jarri dituzte  
gaurkotasun utsezkuak,  
ez ote gera konturatuko  
ez dirala berezkuak?  
Kanpandorrean azpian daude  
len ere eder askuak,  
zertan erantsi bear zaizkie  
Satan gisako eskuak?

5

Erritarra edo erbestekoa,  
pizti gisan dabilzanak,  
zeuk badakizu etzerala ari  
egiten egintza onak.  
Ari bazera kendu naiean  
ustez sobrean daudenak,  
utzi zaiozu, kenduko ditu  
artarako dagoenak.

6

Geiegitan zuk zeure eskutik  
baimena dezu artua,  
era orretan deritzazuna  
noiznai dezu burutua.  
Iñola moduz gizalegera  
ezin zera makurtua!  
Zure iritzia eman zazu ta  
dana dezu bukatua.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1985.08.29

# Esker xamurra

---

1  
Garagarrillan ogeta seian,  
Donostian Aldanondon,  
bertsojartzaille sail bat bazkaltzen  
alkartuta giñan egon.  
*El Diario Vasco* onen gonbita  
egun artarako zegon,  
geroztik nere esker xamurra  
azaldu naiean nengon.

2  
Beti ez baiña al duna iñoiz  
azaldu izan dan modun,  
askotxo ziran gu gonbidatu  
ginduztenak geugaz ordun.  
Uste gutxien gendun garaian  
azalduz esku zabaldun,  
*El Diario Vasco* etzan bakarrik,  
Basarri ere an gendun.

3  
Esan bearrik eztago ordun  
gu pozik giñala irten,  
beren bertsotan berriz biltzeko  
aitamenak bazituzten,  
Ez al da obe ordea egon  
orain urtebete baten?  
Astia eman ia berrero  
gonbidatutzen gaituzten.

4  
Jakiñaz gero bertsoen alde  
ez degula ezer artzeko,  
eziñezkoa ez izan arren  
zailla ala gertatzeko.  
Ez litzateke zearo gaizki  
etorriko guretzako,  
ala izan ezik garaia degu  
geure baitan jokatzeko.

5  
Urtean beingo billera alaia  
al bagenduke iritxi,  
bidean jarri gaituzte eta  
al dala eldu orretxi.  
*El Diario Vasco* orri izan  
itzala eta onetsi,  
bide onean jarri gaitu ta  
ezpaitigu egin gutxi.

6  
Jakiñak gaude nun eta nola  
alkartu giñan lenago,  
ni konporme naiz urtebetera  
gertatu dedin urrengo.  
Andra ta guzti alkartutzea  
berezia dala nago,  
antolatzeko Manterolari  
diot baimena emango.

*Egillearen paperetatik*  
*El Diario Vasco*, 1985.10.24



*El Diario Vasco-k antolatutako bertsojartzaile billera.*

# Urtebetera

---

1  
Ezin azturik ospakizunak  
pasa ta urtebetera,  
*El Diario Vasco* egunkarian  
urrezko eztaietara.  
Bere garaian saiatu zana  
berri ona ematera,  
egun orretan bezeroentzat  
*Extra* bat zuan atera.

2  
*Extra* ura nik, gauz askorekin,  
oitura dedan modura,  
sinistu gero armarioan  
arduraz gorde nuala.  
Ez uste izan ala egiña  
damutua naguala,  
norberetzako agiri gisa  
serbizioa duala.

3  
Gertakizunak Euskadin eta  
aruntzago gertatuak,  
bere bitartez izan ezean  
ezin ala kontatuak.  
Klase guztitik eta, jakiña,  
mailla guztietakuak,  
berrogeitamar urten artean  
daude errepertituak.

4  
Denboran buruz iges egiñak  
zaizkitzun gauzak burutik,  
ala nai izan ezker aixa  
atera leizke bertatik.  
Urtea eta eguna ere  
azaltzen zaizkitzu zutik,  
pasaratxo bat eman utsakin  
irtengo zera dudatik.

5  
Gure problema politikoak  
eta ekonomikoak,  
beti badira ere, ditugu  
ugarienetakoak.  
Era berean gure kirolak  
mota guztietakoak,  
*Extra* orretan danak dituzte  
bakoitzak beren lekuak.

6  
Berrogetamar urte auetan  
makiña bat gorabera,  
lekuko izan geran batzuek  
oraindik gelditzen gera.  
Ez al lezake ainbeste dagon  
tokitik ezer atera?  
Bertso sail batzuk mamitutzeko  
badago or gai aukera.

*Egillearen paperetatik*  
*El Diario Vasco*, 1985.12.08

# Merkatu Batua

## Iparragirreraren doiñuan

---

1

Batean ere ipurdiakin,  
bestetan berriz buruaz,  
beti aurrera egin ametsa  
naiz sarritan beia joaz;  
bukatu da urtea,  
asi degu bestea  
bukatutzeko asmoaz,  
ain zuzen ere orain artean  
irabazian baigoaz.

2

Bizi danantzat pasa bearra  
derrigorra gertatzen da,  
aurten sarrera bi dira baiña  
bakarretikan irtenda;  
ainbeste aitatua  
Europa Merkatua  
guretzat orain asten da;  
ia potzura erortzen geran  
soka guztiak etenda.

3

Ainbat alditan irakurria,  
nik ez nekian bestela;  
zeiñek sinistu europatarrak  
artu bear ginduztela?  
Ain aundiak diranik,  
gu txikiak izanik,  
gure premia zutela;  
esker oneko izango gera,  
onak izan ditezela.

4

Nola ez giñan gu ausartuko  
europatar izatera,  
lagun aundi bat guganatzeko  
iritxi bada aukera?  
Nungoak gera lendik?  
Ez jakiñik oraindik  
goazen zorionera;  
bestela oso txikiak baiña  
biotzez aundiak gera.

5

Barruan artze ori etzaigu  
izan uste gabekoa,  
maita gaitezen Merkatu Batu  
europatar dalakoa.  
Lagun onak izanez,  
jokabide zuzenez,  
gutxia edo askoa,  
gizalegea gerta dedilla  
kontzientziz tajuzkoa.

6

Gure arrantzale gizarajoei  
eman gabe ainbeste min,  
Frantzi aldeko fruta ixurtze  
oiek ere bukatu bein.  
Lagun onak izanik,  
egon ez dedin lanik,  
beti bata bestean gain,  
mixeri gabe bizitzeko lain  
sortzera egin alegin.

*El Diario Vasco, 1986.01.29*

# Gazte ezkonberriak

---

1

Aitak esandakoak  
balio badute,  
gazte ezkonberriak,  
entzun zaidazute;  
sasoi bete-betean  
aurkitzen zerate,  
ain zuzen biok berdin  
ogeta seina urte,  
etorkizuna aurrez  
aurre daukazute.

2

Zuen sasoiak zenbat  
balio dun orain,  
kalkulatu're ezin  
lezateke egin;  
luzaro iraun dezan  
egiaz aletin,  
proetxurik kentzeke  
ez dezan aldegin,  
besterik ezpaidago  
aldentzen bada bein.

3

Badakit ondo asko  
badakizutela  
aita ezjakin utsa  
izan dezutela,  
baiña esperientzi  
pixka badetela,  
bizitzan zailtasunak  
joko zaituztela,  
maitasunez gainduak  
izan ditezela.

Egillearen paperetatik

# Esku genduana

---

1

Dalako *Otan*-eri  
buruzko jarduna  
aitatu gabe ez da  
len ere egona;  
egin diogu geure  
esku genduana,  
zuzena ote zaigu  
egin dioguna?

2

Zer egin zeñek esan  
pranko izan degu,  
ixilik egoteko  
kasta ez gera gu.  
Itxuan jokatzeko  
ainbeste erregu,  
geroak egiñaren  
berri emango du.

3

Ezezko, baiezkoa,  
utsa eta eza,  
asmatutzea ez da  
zearo erreza.  
Amalauko bat zaila  
gertatzen dan gisa,  
politikoak berriz  
jokorako presa.

4

Utsen urrengo nere  
iritzi goibela,  
badakit garrantzirik  
pixkik ez duela.  
Zer egin degun asko  
geuk ez dakigula,  
ez bada baizik dana  
dala datorrela.

5

Politikoen lana  
beti betikoa,  
ezetza ta baietza  
erabiltekoa.  
Alkarrentzat laguntza  
beti aurkakoa,  
propaganda nolabait  
ere egitekoa.

6

Norbait beti badegu  
guk berriz begizko,  
gezurrik aundienak  
artuaz egizko.  
Aintzat artzeagatik  
degu erru asko,  
zentzutuko al gera,  
baiña ordea noizko?

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1986.03.20

# Jose Donea

---

1

Jose Donean egunak aurten  
ekarri digu sorpresa,  
Euskal Errian ainbesteraiño  
nastuak nola gabiltza?  
Kanpo aldetik dana agiri zan  
aste egun baten gisan;  
barrunbe aldetik jai aundi baten  
itxuran berriz eleiza.

2

Dana ikusi ondorenean  
ezin nintzalarik gia:  
kanpo aldetik lan eguna ta  
elizan barrendik jaia,  
Nere buruan sortu zitzaidan  
gauza erabaki naia:  
lenbizikoa oker zegoan,  
bigarrena zan egia.

3

Jose Donean egun aundia  
aste gisa ikusita,  
nik ez dakit nork saldu gaituen,  
zeiñek gauzkan erosita.  
Bera Zaindari izanik ere  
alde batera utzita,  
aste egiñak ditugu, beraz,  
arotzengandik asita.

4

Egia da ni egun orretan  
kontuan jausi naizela,  
gauzak ez dira, batzuek beintzat,  
nik uste nuan bezela.  
Lan programa geuk antolatua  
berezia izango zala,  
zailtasun danak edo geienak  
Madrillekin genduzela.

5

Kanta berakin gabiltzan arte  
lanik ez dagoala-ta,  
lan ordu oiek nundik moztuko  
beti or ari dira-ta.  
Ez det ulertzen lan egun geiok  
nola egin lezaken falta,  
alaxe balitz ere osatu  
San Jose geldi lagata.

6

Zeiñek artuko ote du aintzat  
era ontako jarduna?  
Nere deskarga emen dijoa  
gogo biziz nengoana.  
Egin artean nere barrua  
ez da soseguz egona,  
norbait izango ote dan nago  
ixtimatuko duana.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1986.04.27



# Entzun, Ibai-ertz

---

1

Amaikagarren eguna urriak,  
zer berri ote zetorren,  
egunkaria eskuratu nun  
al nuanikan lasterren;  
gure *Ibai-ertz* adiskidian  
lana egal baten zekarren,  
gaiñera iñoiz aritu danik  
garratzen eta gogorren.

2

Zalantzik gabe pasadizuak  
berriztutzeko asmotan,  
azaltzen zaigu egunkarian  
dalako idazlan ortan;  
munbait Jexuxi etzaizka azten,  
eztagoanean lotan;  
garai bateko mikeleteak  
ibili ditu agotan.

3

Aizazu, Lete, egon zindezke  
zu arrazoi tajuzkuan,  
gure adiskidetasunik ez det  
jarri nai nik arrixkuan;  
baiña neu izan banitzan ere  
mikeletien lekuan,  
neu ere nago aien antzeko  
izango nintzalakuan.

4

Ni ziur nago, Jexux, zu mutil  
ona izango ziñana,  
baiña bakoitzak berea beti  
maitatzen degu geiena;  
nik ikusten det mikeleteak  
zer ikusi bazutena,  
eskerrak beraz geroxegoko  
adiskideak gerana.

5

Tiragoma oiek emanak dira  
makiñatxo bat zer esan,  
mutikoentzat beste jostailu  
oberik ez leike izan;  
etxe osteko argirik edo  
kristalik apurtzen bazan,  
orduane ere mikeletea  
errudun gertatuko zan.

6

Ni ere ori ikasia naiz,  
aixa esaten dezute:  
«Kobratutzean ajolik zuei  
ezergaitik etzaizute;  
erriko gauza zuena balitz  
bezela gorde zazute.  
ortarakoxe erriak zuei  
ordaindutzen baidizute».

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1986.30.06

# Jokabide ezberdiñak

---

1

Sarri entzundakoa  
ikusi ta jakin,  
alderantziz gerala  
batzuk besteekin.  
Nik oraiñarte ori  
nola zan ez nekin,  
ikusten da ordea  
jokabideakin.

2

Batzuk azalbeztera  
dijoaz aparte,  
urrutiko eguzkia  
aukeraten dute:  
Malaga ingurua  
edo Alikante,  
urreagokoakin  
ezer ez daukate.

3

Beste batzuek gabaz  
ibili nai dute,  
auek eguzkiari  
bildurra diote;  
ez dira lotarutzen  
egunsentirarte,  
eguna argituta  
ikusi ditezke.

4

Lenen jokabidea  
bada ain apaiña,  
bigarrenkoa ez da  
iñorentzat diña.  
Gabezko ibilia  
egunezko eziña,  
nekez gertatu oi da  
oso gizongiña.

5

Aukera ere pranko  
dute ortarako,  
zaleei gau-pasarik  
etzaie paltako.  
Antolatzen dituzte,  
eta antolatuko,  
ezpaitira jenderik  
gabe geldituko.

6

Lo egiten ez uzte  
orrek, beraz, lanak,  
aitzeki orrek sortzen  
ditu beste planak.  
Bullari alde egiñez  
ote dira juanak?  
Diruak ez al ditu  
gero erru danak?

*El Diario Vasco, 1986.07.23*

# Euskalerria izan berriz

---

1

Erreskadako Bizkaiko erriak  
Barrika, Plentzia, Gorkiz,  
ibai ertzean egoitza baten  
bi astean an egon naiz.  
Gure izkuntzik ez entzuten da  
Euskal Erria izan berriz,  
“muñez euskaldun soillak gera gu”  
esanez konforme dabiliz.

2

Askotxok ditu parabola ori  
usatutzeko oiturak,  
beren ustean dituztelarik  
euskaldunen egiturak.  
Besterik gabe aski zaizkie  
dituzten euskal deiturak,  
illunpe danen estalgarriak  
gertatzen diran pinturak.

3

Zenbaitek egin nai izan arren  
mintzatzeko lain jakin ez,  
beste sail batek, al izan arren,  
al duten aiña egin ez.  
Tajuz jantziak dauden ustean  
euskal deitura apaiñez,  
izkuntzak berriz ez dauka ezer  
antzerkiz eta ipuiñez.

4

An nengoala irakurri nun  
jakintsu baten kritika,  
pobrea dala esaten baidu  
bertso-idazleonez teknika.  
Euskal kultura jasotzekorik  
izaten dala aldika,  
serbizioz gabeak berriz  
sartzen dirala gurdika.

5

Egintza fiñik iñola moduz  
neregandik ezin irten,  
baiña egiteko gogoak ez dit  
orregatik aldegiten,  
Gaiñerakoak nik ezin neurtu  
zenbateraiño al duten,  
alegiña egin gabean faltaz  
txarrik ez du iñork eginen.

6

Jaun Aranaldek kalidaderik  
ezaz gaitu gu salatzen.  
arrazoia du, bide beretik  
danok joan ez gaitezen.  
Nola ordea lanak obetu  
len bagera alegintzen?  
Usatze ez duten euskaldunekin  
ez da orrela gertatzen.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1986.10.19

# Ala zeu azpira sartu

---

1

O, Perurena, bazter gabeko  
indartsu euskal anaia,  
lenago ere ez naiz bertsoak  
zuri eskeiñi gabia.  
Ainbestez ezin konpormatu naiz,  
geiago nai nuke saia,  
atseden gabe aritzeko lain  
dagonez zuregan gaia.

2

Lendabizitik goitik asita  
gorago iritxi naia,  
ematen ari zeran frutua  
gertatzen da ugaria;  
trapua balitz bezela aixa  
dantzatzen dezu arria,  
oraindiokan ez dirudi zuk  
ikutu dezunik goia.

3

Gorputz lodia eta aundia,  
goxo beruntza makurtu,  
arria artu lurretik eta  
berriro gora zutitu.  
Nola egiten dezunik ori  
ezin iñola ulertu:  
arkaitza altza egiten dezun  
ala zeu azpira sartu.

4

Ortarakoxe jaioa nunbait  
izan zera aproposa,  
arri altxatzen arrigarria  
zuk daramazun konpasa.  
Irureun kilokoa lartxo  
bultzatu zendun goruntza.  
bere tokira iritxi eta  
aurrera zitzaizun pasa.

5

Gazte askorik ikasi zendun  
arriarekin zer egin,  
bi eskuakin baliatuaz  
eta bakarrakin berdin.  
Lurretik artu eta gerrira  
ekartzen dezunean bein,  
bultzateko bi geiago eman  
eta bizkarrera arin.

6

Aldiko arri astunagoak  
aldiko altxa dituzu,  
ori ikusten mundu osoa  
ondo oituak gauzkatzu.  
Egunen baten ezin dezunik  
nork sinistu bear dizu?  
Eta, okerrenea, lendabizi zeuk  
sinistu bearko dezu.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1987.02.19

# Gure izatea

---

1

Gure izate onek baditu  
beregana bere txistiak,  
ortatik sortzen zaizkigu gero  
maiz okerreko ustiak;  
une guztiak nai genituzke  
gerta ditezen eztiak,  
lanak baditu sarritan zertan  
ari geran bereiztiak.

2

Seme geienok maitatzen degu  
lendik datorren ardatza:  
arrantzaleak izan badira  
segizioa arrantza;  
beste pilla bat nekazariak  
edo bestela artzanza;  
kontu utsakin bizi izateko  
sail gogorretan dabilta.

3

Beste sail bat da industrialia  
eta komertziantia,  
geien batean izan oi dana  
ikasitako jentia;  
iñoiz gertatu izan da zuzen  
bide garbitik joatia;  
baiña sarritan bada, estafa  
ezpada, diru faltia.

4

Ikasi oiek jarri ezean  
al lezateken arreta,  
gauzak erortzen joan litezke  
gaur oso modan daude ta:  
kristau dotriña ez badamate  
biotz ondoan gordeta,  
alperrik asko ikasi dute:  
bearrezkoena palta.

5

Garrantzitsunak diranez ezin  
aztu gure bankeruak,  
enkargatuak diranez gero  
zaintzeko gure diruak;  
ortarakoxe aukeratuak,  
gizon atsegin iaiuak,  
ala ta ere izan kontua  
ez bait dira aingeruak.

6

Gizonak ere ain zuzen gera  
al dakit zenbat tamaiño,  
biotzan aunditasunik ez du  
iñork neurtu oraindaiño;  
besten akatsak salatu gogoz  
makiñatxo bat enpeiño,  
errezago da norbere aldetik  
gabea izaten baiño.

7

Olatu batek egiten ditun  
gisa igo ta jeixteak,  
lekuko gaitu urte gutxiko  
gora-berak ikusteak;  
danok dakigu zein diran gure  
eguneko albisteak,  
zerk ote dakartz zine-etxeak  
beren ateak ixteak?

8

Mundu onetan saiatzen gera  
bizitzen milla moduta,  
orretarako eskubidea  
bakoitzak beregan du ta.  
Ote lezake ordea bizi  
guztia aintzat artuta?  
Oraintxe gera goiko maillan da  
segituan lurra jota.

9

Gure guraso zarrak oroitzuz  
berdintsua gure martxa:  
batean bera erortzen gera.  
bestean al bada altxa;  
igo ta goian jarraitutzea  
naiko gertatzen da gatxa,  
orretarako gai izatea  
pentsatu ez tala txantxa.

10

Gizonantzako akatsik badu  
gizonak maiz nunbaitean,  
Kristogan degun ixpillu ortaz  
begira ari gaitean;  
onura batzuk jasoko ditu  
bearbada noizbaitean,  
baiña eztauka ona izaterik  
iltzen ez tan bitartean.

II Basarri sarira bialduak  
Egillearen paperetatik

# Urrezko eztaiak

## Doiñua: Iparragirre abilla dala...

---

1  
Loraillaren amaikakoa  
ain gertakizun bikaiña,  
Euskalerrian izan duala  
nago bere eragiña;  
amabi apaiz jaunak,  
gipuzkoarrak danak,  
ain ospakizun apaiña,  
apaizgintzakin Urrezko Eztaiak  
Donostian, alajaiña!

2  
Arostegi ta Arrindarekin  
zerrendari asiera,  
Arruti eta Auzmendi ere  
iru ta laugarren dira.  
Ondoren Azkarate  
ta Galartza datozte  
zerrendan erdi aldera;  
oraindik beste sei badauzkagu  
ortik eta amabira.

3  
Zazpigarrena Goikoetxea,  
zortzigarrena Labaien,  
Monedero ta Sukia datoz  
len aitatuén ondoren.  
Gero Zubizarreta,  
Arriolakin buka  
amaika ta amabigarren;  
ia atsedén zorióntsua  
orain zuentzat datorren.

4  
Nunbait lenbizi zuek saillari  
ondo gertutu ta ekin,  
erakutsia dezute gero  
egin dezutenarekin;  
ekaitzaldi gaiztuak  
zaizkitzute sortuak  
baiña menderatzen jakin;  
Urrezko Eztaiak burutzerako  
lan egin dezute bikain.

5  
Zer ikasia eman dezute  
bakoitzak banan-banan da,  
premis danéan batak besteai  
laguntza egiz emanda.  
Urrezko Eztai bidez  
askotxo dago galdez:  
Ainbat apaiz al zegon ba?  
Galdera orrek toki gutxi du,  
egin egiten ziran da.

6  
Ulerterreza gertatzen baita  
nola duten galdetuko,  
aspaldi ontan apaiz berririk  
ikusten ez degulako.  
Garai baten genbiltzan,  
sendagillerik etzan,  
meza berriak gogozko;  
gaur alderantziz geran errua  
zeiñi diogu botako?

*El Diario Vasco, 1987.05.17*

# Joxe Letona zanari

---

1

Joxe Letona zanaz natzaizu  
atseden gabe oroitzen,  
lenago ere artu emanak  
zerbaitgatio genduzen;  
orduaz ere misteriozko  
lanak egiten zenduzen,  
zerua eta lurra urbiltzen  
biok saiatu gaitezen.

2

Arrasateko semea ziñan,  
nabarmen zendun agiri,  
zure garaian ekin da ekin  
aritu ziñan lanari;  
on egillea gertatu ziñan  
sortu ziñan erriari,  
maite zendula egintza bidez  
azaldu zendun nabari.

3

Zuk ogibide nagusia  
*Roneo*-n zendun moduan,  
ni kalezaia erri osuan  
morroi jarrita nenguan,  
*Roneo*-z kanpo udaletxean  
lanik izaten zenduan,  
bien bitarte, gauza jakiña,  
maiz itzegiten genduan.

4

Zure ardura faltaz *Roneo*  
etzan irtengo galduan,  
nik ere berriz bete bearra  
bete nai izaten nuan;  
noizbaiten biok gertatu giñan  
alkar ia-ia minduan,  
alkarren arte giñun aldeak  
goxo ezin berdinduan.

5

Zuk *Roneo*-ko nagusi danak  
aldiz zeure aginduan,  
ni berriz erri osuan morroi,  
alde ederra zeguan;  
*Roneo*-z kanpo egin zendunaz  
askotxok zaitu goguan,  
agurtutzeko beta eman gabe  
azkenik presaka jua.

6

Arrasatetar gizon argi bat,  
Joxe, zuregan gendun da,  
juana zera zure errian  
argitasunak emanda;  
gure artean ziñan artean  
presaka bizi ziñan da,  
ez ote zera presaka ari  
orain zerura juanda?



7

Mundu ontatik betikotasun  
osora zaude juanda,  
ala bearrez gure Jainkoak  
beretzako nai ziñun da:  
ain zuzen ere egintza onik  
eginda utzi zendun da,  
juan arren ere egin dunangan  
esperantza izaten da.

8

Egiñak egin, egin dezunaz  
asko konturatu gabe,  
oraindiokan norbaitek aixa  
egin lezateke galde:  
ia zer egin zenduan bada  
zure erriaren alde;  
ez litzateke erantzun zaila,  
egintzak lekuko daude.

9

Ez genezake iñolaz aztu,  
lan egin zendun askotxo;  
zalantzik gabe erriak ori  
ezagutzen du ondotxo;  
esango dizut zein arazotan  
eregin zendun gutxitxo:  
bestela ondo aritu ziñan,  
euskera aldetik urritxo.

10

Zure erria orain ari da  
gozatu eta babestu;  
eginda utzi dezunengana  
keja txikienik eztu;  
mundu onetan gertatu ziñan  
serbitzari eta prestu,  
zerutik ere Arrasatetzaz  
arren ez zaitea aztu.

Egillearen paperetatik

# Aurten bai ote dagoan

---

1

Gauza bera nik eztakit zenbat  
aldiz entzunda nagoan:  
gaizki egiña bizi osoan  
izaten dala gogoan;  
iraillean Arantzazun guk  
billera izan genduan,  
gogoan baidet ia berriro  
aurten bai ote dagoan.

2

Gaizki egiña babes lekuan  
jabe izan bear bada,  
irizten diot ondo egiñak  
obea bear duala;  
*El Diario Vasco*-n bi urtetako  
erantzuna da mardula,  
irugarrenez nai badu ere  
ixtimatuko degula.

3

Besterik gabe, ez al dirudi  
naiko nabari dagola  
lana egiten baiño eskean  
askoz ohea nagola?  
Baitare baiña ezin ukatu  
danetakoak gaudela,  
nik ikusten det batzuek lana  
erruz egiten dutela.

4

Olea, Lete, Aierbe eta  
gutxixeago Lertxundi,  
bertso jartzaille diranez gero  
egin dira idazlari;  
lo egon ezik une batean  
ez dauden gizonak geldi,  
ainbeste berri nola aurkitzen  
ote dituzten nago ni.

5

Gure lan oiek iñork batere  
izan gabe beartuak,  
guk borondatez ainbat alditan  
izan ditugu artuak;  
*El Diario Vasco*-ren aldetikan  
gogo onez onartuak,  
bein da berriro eskertu eta  
dituztenak sarituak.

6

Pixkana-pixka urte mugara  
inguratutzen goaz ta,  
ni pozez nago berriz billera  
laster izango dala ta:  
Basarri jauna, gure gidari  
bezin eziña zera ta,  
ospatzen bada iñola moduz  
gugandik etzaitetz falta.

1987.09

Egillearen paperetatik

# Eiztari segurua

---

1

Oillarren gain bertsoak  
izan ditugu len,  
umoreaz aspertu  
eziñean geunden;  
geroztik beste berri  
batzuk nola dauden,  
ixilik egotea  
ezta errez emen.

2

Debako zisne orrek  
badu zer esanik,  
eman badute beintzat  
albiste zuzenik.  
Ez derizkiot oker  
ariko naizenik,  
ain zuzen neu angoxe  
semea izanik.

6

Irukoa numero  
desberdiña izaki,  
parejaka askozaz  
baitator obeki.  
Eiztariak pentsatuz  
gero bereziki,  
berdinduta jartzea  
zuan erabaki.

4

Bitartean eizean  
egin nai zuan da,  
zisne oiek zebiltzan  
tokira joanda.  
Gogozko zun jokia  
nunbait ori zan da,  
bat etxeratu zuan  
tiro bi emanda.

5

Orra zenbait gizonek  
duan talentua,  
irukotea baitu  
bikoteratua.  
Zergatiokan eztu  
bat geiagotua?  
Debara eraman du  
gutzizko lutua.

6

Erriak ez duanez  
barkatu asmorik,  
ondo kostako zaio,  
eztago dudarik.  
Zigor orrek ez dauka  
jarrita mugarik,  
zisnea ordaintzeko  
ez dago dirurik.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1987.11.20

# Katu baten eriotza

---

1

Bertsoak jarri nitun  
bein batez *Mustafaz*,  
katuaren bizitzaz  
doai eta tranpaz.  
Sasoiko egon arren  
gerriz eta ankaz,  
zartzarora eltzeko  
ez da izan kapaz.

2

Eiztari gaizto batek,  
bere buru zoroz,  
etxeko atarian  
bota digu tiroz.  
Biotza aldatuta  
nabil oso giroz,  
agur egin nai diot  
bertso apal, txiroz.

3

Mingaiña aterea,  
gorri sudur-mintzak,  
izen gabeak dira  
olako ekintzak.  
Odol tantoak eta  
asarrezko printzak,  
garbituko al ditu  
arratseko intzak.

4

Tristea biurtu zan  
etxeko mintzoa,  
ain baigendun maitea  
*Mustafa* zintzoa.  
Txarkeriz kargatuta  
zeukan kartutxoia,  
arekin garbitu du  
gure katutxoia.

5

Biotz dana kutsatu  
digu beazunak,  
bertan zaiñak boteaz  
gorroto-asunak.  
Bestela ezin egin  
ain obra lizunak,  
ez itzazula aztu  
esan zaizkitzunak!

6

Mesedez, ez geiago  
onuntza agertu,  
pazientzi zakurik  
eztaiguzu lertu.  
Arantza emen daukat  
biotzetik gertu,  
zeu gabea izanik  
au ezin ulertu.

*El Diario Vasco*, 1988.01.24

# Arma ixilla

---

1

Mikeletiangana  
zeure asarrean,  
goibel idatzi zendun  
igaz agorrean,  
baiña gertatzen ari  
danaren aurrean,  
*Ibai-ertz*, zutaz nago  
mintza bearrean.

2

Etorkizuna moztu  
zizutela eta,  
azaldu zendun zugar  
zenduna gordeta.  
Ni nago erantzuna  
eman nizula-ta,  
berriztu alde eman  
al didazu beta?

3

Naiz eta ez izutu  
edozein gauz utsek,  
eulien arnasketak  
edo ega otsek,  
aixa zapaltzen gaitu  
milla arazo latzek,  
iñork baiño obeto  
daki *Ibai-ertz*-ek.

4

Oso gazterik zendun  
pabrika sortua,  
tiragomaz osatu  
naian merkatua.  
Etzendunez artean  
legeperatua,  
zizuten desegiña  
eta zatitua.

5

Tiragoma bakarra  
erregalo emanez,  
ari da propaganda  
bere alde egiñez.  
Jexuxek jokutzen du  
beti buru onez,  
bezeroak nai ditu  
itxurak daudenez.

6

Orretarako eman  
dezunez aukera,  
zure arma ixilla  
bear det atera.  
Ez naizen arren ere  
jungo zisnetara,  
lenago joango naiz  
ni basurdetara.

*El Diario Vasco*, 1988.02.14

# Il da koñadua: Martin Salegi

---

1

Irurogeta amabostean  
arreba il zan, ez zarra,  
beregatzean amaitu arte  
barka etzion gaitz txarra.  
Pamilirako emaztea ta  
ama, artean pizkorra,  
utzi zituan bost alaba ta  
alargun bere senarra.

2

Alabak zeuden lau ezkonduak,  
ezkongai zegon bakarra,  
zazpi urtekin poliok joa,  
gorputzez naiko baldarra,  
Aitakin norbait enkargatzea  
nola baizan derrigorra,  
alaba elbarri Mari Teresak  
izan zun egin bearra.

3

Aita urtetan aurrera joana:  
irurogei ta amabi;  
osasunetik bestalde etzan  
aurkitzen aberatsegi;  
elbarri zegon alaba, ordea,  
ez baizan aurkitzen nagi,  
amairu urtean geroztik berak  
lagundu dio aitari.

4

Mari Teresak bere gain artu  
oso piñeza osuan,  
azkeneraiño jarraitu ere  
bere aitan serbitzuan,  
batzutan lana erruz egiñaz,  
besteetan errezuan;  
bere bidetik dabillen Jaunak  
nunbait alaxe nai zuan.

5

Beregan zeuzkan zailtasunekin  
baldin asko ezpazuan,  
atsekabetan aita laguntzen  
ain zeregin nekosuan;  
galdera auxe egingo nuke  
nik iritzi dudosuan;  
sano balego egin zun aiña  
ia egingo ote zuan.

6

Onegilleak lenbailen baidu  
azaldu dedin gogua,  
aita iltzean ala egin du  
lenbiziko erregua:  
bere barruan nabaitzen dula  
danontzat esker berua,  
auzoan beti aurkitu dula  
pranko zeñek lagundua.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1988.03.19

# Naigabe latza!

---

1

Futbol kutsuak bertso kutsua  
ixtimatzen dun antzera,  
alderantzira berdintsu dala  
nijoa ni aitortzera.  
Ez dezagula ordea bota  
batak bestea utsera,  
Euskal Errian egin dezagun  
beintzat alkar serbitzera.

2

Zer naigabea futbol-zaleak  
azkenean eramana,  
irabazlea gendun ustean  
gure Errealak emana!  
Erreal Madrill irabaztean  
ustez egin gendun dana,  
aixa galtzen da asko kosta ta  
irabazitako fama.

3

Futbol-zaleok zuen aldetik  
zerbait erru badezute,  
kirolagatik zer dala eta  
ola txorutzen zerate?  
Etzaituztenez iñoiz aseko  
zorionetik nai beste,  
jokoa ola gertatuko da  
mundua mundu dan arte.

4

Amairu egunean iru partidu  
jokatu ta bat ez galdu,  
Errealari ordun puntorik  
ezin zezaioken kendu.  
Edozein zala, menperatzeko  
bazeukan naikoa modu,  
baldin Toshackek atsedentzera  
eraman izan ezpalu.

5

Futbolariak Andaluzira  
atsedentzen eramana,  
obe bearrez amar-amabi  
egunean an egonak.  
Aruntz joatean onak ziranak  
gero ez dira ain onak,  
ez al zituzten gero an utzi  
eramandako kemenak?

6

Aritu gabe emen oiuka,  
zalaparta ta zarata,  
ni ziur nago berriro ere  
gertatuko gerala-ta.  
Nolanai ere oraingo ura  
aurrera pasa da eta,  
ez gaitzela ondoren joan  
ez degu jarraituko ta.

Egillearen paperetatik

*El Diario Vasco*, 1988.04.14

# Urrezko ezta albistea

## Doiñua: Iparragirre abilla dala.

---

1

Ez da ugari entzun oi dana  
urrezko ezta albistea,  
len baten berri eman nuan da  
orain datorkit bestea;  
Domingo Arriola,  
Salegitar Anjela,  
senarra ta emaztea,  
garagarrillan ogei ta seian  
dute ospatu ustea.

2

Senarra Deban Goikoetxeko  
semea ta nagusia,  
soldaduzkako bi urte kendu  
ezkero bertan bizia.  
Bere emazte leiala,  
Arragako alaba,<sup>1</sup>  
latz bizitzen ikasia;  
aiek ez dute ikasi zer dan  
oraindik langabezia.

3

Ez det aztutzen beren bizitzak  
badula zerbait meritu,  
egin dutena baiño geiago  
ote diteke kabitu?  
Bata beti gogotsu,  
bestea ere alatsu,  
ezpaitira errenditu,  
gaur ere ezerk baiño geiago  
eziñak ondatzen ditu.

4

Irurogei ta amasei urte  
emaztearen adiña,  
irurogei ta emezortzi da  
senarra orain egiña.  
Zortzi bat urte dala  
andreak ezbearra:  
eskua galdu alajaiña;  
bakarrarekin egiten du ark  
zenbaitek birekin aiña.

5

Anai arteko gerra erdizka  
zegola ezkondu ziran,  
dibertsioak alde bat utzi  
eta lanera segiran,  
Amaika aur ekarri,  
zortzi bizitzen jarri  
erakutsiaz nor diran;  
neurri ortako egitekoak  
badakizute zer diran.

6

Senide biotz-biotzekoak,  
gozatu zorion bete,  
bakar batzuek lortu oi duten  
maillara eldu zerate.  
Zuen ogei billobak  
eta bi-iru illobak  
inguratuko zaituzte;  
Jauna eskertzeko egokiera  
ezin ohea dezute.

*El Diario Vasco*, 1988.06.26

<sup>1</sup> Arraga, Itziarko baserri bat da.



# Berriro etxera

---

1

Gogo gabe egona  
egun batzuetan,  
berriro probatzera  
noa bertsoetan.  
Ez naiz igaro une  
gozo-gozoetan,  
eskerrak jausi nintzan  
esku altsuetan.

2

Uztaillaren seian  
asteazkenean,  
ez nintzan aurkitutzen  
egoera onean.  
Sendaetxera joan  
nintzan zuzenean,  
ez naiz asarre ontan  
irten naizenean.

3

Juan Barrenetxea len  
ez nun ezaguna,  
ala mintza zitzaidan  
sendagille ona:  
«Este alperra dezu  
gaixotzen zaituna,  
utzita joango zera  
sobre daukazuna».

4

San Permin egunean,  
goizean goizetik,  
aterea ninduten  
egoera artatik.  
Zutik jarri ere bai  
urrengo egunetik,  
an bai egiten dala  
lana txit gogotik.

5

Norbere gain arturik  
dagozkietenak,  
aurrera eramaten  
dituzte an lanak,  
sarritan ez ain gutxi  
sortzen zaizkatenak;  
pamili bat bezela  
ari dira danak.

6

Aurpegia emanaz  
duten ainbat lani,  
alegintzen dirala  
ain dago nabari.  
Irurogei ta ditut  
urteak amabi,  
konpondu ta bai lixto  
etxera bidali.

*El Diario Vasco, 1988.08.04*

## IV Basarri Saria, 1988

---

1

Zarautzko Udalak antolatzean  
berri *Basarri Saria*,  
eratzailleak aurtengoakin  
dute laugarren aldia;  
bakoitzak berak erabiliaz  
gogozkoen zaion gaia,  
bertso-paperak leiaketara  
egiten digute deia.

2

Dei egin dunak berak eman dit  
laneratzeko aria,  
zerbait egin al lezakeanak  
orain duala garaia;  
Jesus Jainkoak bein batez berak  
esan zuna alegia:  
zeiñek lan egin *mies* generala,  
uzta dala ugaria.

3

Kezkagarria kristau danantzat  
parabolan arazua,  
arreta biziz jabetutzea  
gauza guztiz prezisua;  
langille paltaz uzta galtzea  
gertatzen da penosua,  
lastoa ezpada izan dedilla  
alea zeñek jasua.

4

Borroai aundi bat ez al dirudi  
euskal gizonen zentzuna?  
Ez al du jaso Euskal Erriak  
sarri merezi etzuna?  
Nolabaiteko giroan lanak  
nolabaiteko erantzuna;  
ona edo txarra gozaten degu  
geuk sortutako oiartzuna.

5

Ez al dirudi berde gaudela?  
Ez ote gindezke eldu?  
Luze egiten bazaigu ere  
bearbada ezta berandu.  
Bertsolariak bere bidean  
al balezake lagundu,  
bakoitzak berak bere aldetik  
al duna eman bear du.

6

Etorkizunaz Euskal Errian  
badegu plan aproposik;  
baiña al degu batzuk besteak  
baztertu asmoa baizik?  
Danon gustoa egingo duan  
euskaldunik sortu ezik,  
bai al daukagu maitasunean  
danok bizitzeko pozik?

7

Berri on ori iritxi dedin  
naiz ari aspaldi eske,  
iñola moduz ezin sinistu  
gerta ditekenik laste;  
danon gustoa norbaitek egin  
lezakeanik nork uste?  
Orri itxogitera ezker  
astiro ari gindezke.

8

Ikusi eta Euskal Erriko  
gaurko gure elkarte,  
ez al dirudi alperrik dala  
naigabetan egotea?  
Neketsuena egiten zaigu  
itxogiten jakitea;  
danen gaiñetik egin dedilla  
Jaunaren borondatea.

Egillearen paperetatik

# Patxi Barberoren eriotza

---

1

Milla beatzireun larogei eta bederatziko Erregen, gure egunkari *Diario Vasco*-n berri triste bat zetorren. Patxi Barberon eriotzaren berri mingotza zekarren, neretzat gizon atsegiña zan asko tratatu ez arren.

2

Barkatzen ez dun eriotz orrek errukirikan ez du-ta, mundu ontako artu-emanak utziaz erdibituta. Gure otoitzak eskeiñi bear besterik ezin degu-ta, egunen batez gugana ere inguratuko zaigu-ta.

3

Batak bezela besteak ere bakoitzak bere gustuak, iruditzen zait ote giñuzen alkarren antzerakuak. Dibertitzeko bertsoak giñun gu biok aukeratuak, bertsoen bidez izan genitun izan genitun tratuak.

4

Mundu ontatik juteko etzendun bearbada ainbat antsi, baiña eriotza datorrenean ari ezin iñork eutsi, Indar guztiak bilduta ere ezin baita eragotzi, nolana ere gure Jainkoak aztuta etzaitu utzi.

5

Gizatasunez jantzia eta borondatea ez gutxi, Jaunari aintza eman zenion eta zenduan onetsi. Atsedenean gozatutzeko garaia zaizu iritxi, bere erreinuan gorde zaitzala eraman zaitunak, Patxi.

6

O, Larrañaga, betiko atsedean bera gozaten zaudela, asper eziñik ni zure alde otoitzean nagoela. Zure maiteak izan diranak ainbat olaxe daudela, zure bidean sartuak gaude, or gaituzu bereala.

*El Diario Vasco*, 1989.01.19

# Elizkizun berezia

---

1

Eginkizun bat politagorik  
ezindakoa izaki,  
alegin danak egingo ditut  
bera betetzen egoki.  
Urtarrillaren ogeta bian  
biotza zitzaidan jaiki,  
ikusi eta elizkizuna  
aberasten bereziki,  
bertso batzukin jarraitutzea  
nik ala det erabaki.

2

Kontzezionista frantziskanoak  
baditugu Arrasaten,  
beti barruan daudenak dira,  
ez dira inoiz irteten.  
Jai egunetan meza entzuten  
ni sarri naiz an izaten.  
Salaberria on Pedro jauna  
aldaran meza ematen,  
Aramaioko eleiz-koroak  
aundiki abestu zuten.

3

Kontzezionista frantziskanoak  
ogeta lau antxe baten,  
umildadean ari diranak  
toki itxi-itxi baten.  
Etengabeko penitentzia  
gogo utsez dute egiten,  
inork ez daki guztion alde  
zenbat errezatzen duten,  
alare ez dute mundualdi au  
laburragoa irauten.

Egillearen paperetatik

4

Nik nola esan Aramaioko  
koroan aunditasunak?  
Parte artuak amasei andre  
ta ogei ta bat gizonak.  
An giñan danok abesti aiek  
pozik genitun entzunak,  
azkenik txaloz eman ere bai  
esker onezko erantzunak,  
sarriagotan bear lirake  
alako elizkizunak.

5

Ez det ikasi nola izan dan  
gauza orren asiera,  
kontzezionistak ala koroa  
zein luzatu zan aurrera.  
Dan modun dala kezkarria  
ezta orren gorabera,  
guretzat ondo suertatu zan  
etorritzea parera,  
uste gabean eman ziguten  
gozatutzeko aukera.

6

Eliza ere ederrago da  
ala epinitakuan,  
Ama Birjiña eta Jaunari  
errezo eta kantuan.  
Une aietan etzegen inor  
ia-ia loak artuan,  
sentitzen giñan zeru-bidean  
jarriak geundelakuan,  
zeru-giroa aixa sortzen da  
pakea dagon lekuan.

*El Diario Vasco*, 1989.02.02

# Lengo egun batez

---

1

Lengo egun batez egunkarian  
begira nintzan jarria,  
ta zabaltzean Basarrin lanak  
zabaltzen ditun orria,  
nun ikusten det dalako *Nere  
bordatxotik* pozgarria,  
pozez gaiñezka ematen diot  
nere ongi etorria.

2

Berri illunak jarria nindun  
kiebran lendabizitik,  
egunkarian Basarrin lanik  
ageri etzan unetik.  
Atseden luze baten ondoren  
gaixorik begi aldetik,  
ondo sendatu gabe asi da  
bere *Nere bordatxotik*.

3

Bein da berriro aurkitu arren  
bertso batzuk moldatu naiz,  
orretarako ez da izaten  
aukera geiegirik maiz.  
Zenbatek neri ez dit galdetu:  
«Zearo nagitu al aiz?».  
Basarri bajaran egon danean  
ni oporretan egon naiz.

4

Dirudianeaz, lanerako nik  
ez nun enkorru gogorrik,  
gaiñerakoan agian ez nun  
errez artuko oporrik.  
Biar-etziko ez ikustean  
nere aurkako okerrik,  
lan uzte orrek iñoiz ezpaitu  
rekuperatu bearrik.

5

*El Diario Vasco*-k ekarri arren  
millaka kontu jario,  
Basarrin maillak ordeaz zerbait  
berezi ematen dio.  
Bera gabarik nere iritzian  
ezpaitu urrik balio,  
ezin danean pasa bearra,  
ia zer erremerio!

6

Beraz, Basarri, serbitu gabe  
bizi ere etzerala,  
aldi onetan ikusia da  
ain premizkoa zerala.  
Zure irakurle eta entzule  
pranko euskaldun badala.  
gure Jaun eta Jabeak bere  
naia kunplitu dezala.

*El Diario Vasco*, 1989.10.2

# Jubilatuak I

---

1

Oroigarrizat jende eldua  
ezta inola itsusi ta,  
zartzarorako errezoa ta  
kantua eta musika;  
askozaz obe aztutzen badu  
sendagillien bisita,  
onak izaten saia gaitezen  
neronengandik asita.

2

Bizitzan zenbat arazo oni  
eskeiñi gabe zatirik,  
eguna joan da eguna etorri  
arre ta arre besterik;  
presaka bizi danak ezpaitu  
ezertarako astirik,  
jubilatzean ezin ordea  
eman prisaa aitzakirik.

3

Eguneroko arre ta arre  
beste pozik ez duanak,  
jubilatzean atsedentzeko  
egin izan ditu planak;  
zoriontsuak gertatzen gera  
konta al genezakenak,  
ez dira gutxi jubilatzeko  
astirik gabe joanak.

4

Zarrari guztiz gogozko zaizko  
jasotzen ditun omenak,  
urte luzeak latz igaro ta  
gozo gero ondorenak;  
badira itzez eta idatziz  
pozez jartzen gaituztenak,  
erri batentzat gu omen gera  
apaingarririk onenak.

5

Txalogarriak itzez da egintzaz  
biotzak jasotzekoak,  
dudarik gabe gertatzen dira  
zartzara laguntzekoak;  
alde on oiek ezpaituzte  
nolanaitan neurtzekoak,  
ote gera gu *Patrimonio*  
*Artístico*-n antzekoak?

6

Bereziki guk, jubilatuoak,  
len, orain eta geroan  
bizi gaitezen maitasunean  
da alkarren anparoan;  
Jaunarengana inguratuak,  
beti toki seguruan;  
alaitasunez goza dezagun  
bizitza au luzaroan.

1989.10

Arrasateko jubilatuen aldizkariaren  
leen zenbakian.

# Jubilatuak II

---

1

Denboraren antzera  
jira eta buelta,  
nai izan arren ere  
guk ezin degu ta:  
denbora igaroa  
dago igarota,  
gaitz erdi dagonean  
aprobetxatuta.

2

Kartak, jokia eta  
trago ta tabako,  
berentzat dituztenak  
maite ta gogozko;  
ke artean igaroa  
ordu asko ta asko,  
perretxikuak janda  
nekez dira ilko.

3

Eztago jokatzetik  
danok modu baten,  
bakoitza bere griñak  
gaitu eramaten;  
ezin ulertu menpe  
nola artzen gaituzten,  
ke artetikan zenbait  
ez dira irteten.

4

Badirudi beregan  
badula zerbait e,  
gizona menperatzen  
duna nolabait e.  
Beste gaiñerakoan  
nola lezateke?  
Kartera ta osasuna  
bientzako kalte.

5

Utzi nai eta ezin  
aurkitzen dan aura,  
iritxi dedin arte  
galtzeko gradura;  
gaitza sartua zaio  
zearo barrura,  
bakoitza bizitzen da  
nor bere modura.

6

Beste biderik ere  
nai dunak badu-ta,  
galdu-bidea berak  
dezala gorrota;  
txistorra ta turroirik  
izango al da ta,  
Gabonak ere orain  
gaiñean dira ta.

Arrasateko jubilatuen aldizkariaren  
bigarren zenbakian.



# Sekula onelakorik!

## Doiñua: Ezkondu eta ezkongai

---

1

Sekula onelakorik,  
bazter danak legorturik,  
suteak ugariturik.  
Aurten bustiak eztu usteldu  
babarrun eta artorik;  
urtegiak agorturik,  
mundu dana kezkatuturik,  
ez al da errogatibarik?

2

Esan nai det nolabaite,  
premiak beartzen naute,  
burutzen deten zerbaite.  
Errogatibik egin ez dala  
badira askotxo urte;  
sinisten dutenak bate  
itxaropena daukate,  
ori askok ez dakite.

3

Urte onen etorreran  
eta neguan sarreran  
euririk etzan aukeran.  
Gero eguzkiak gogor berotu  
bera duan denboran;  
legor geiago udaran,  
da zer gure jokaeran?  
Ia noraiñotzen geran.

4

Ditugun apaiz guziak  
geienak dira nausiak,  
lengo denboran biziak.  
Ez ote ditu gero kezkatzen  
oraingo euri eskasiak?  
Letania bereziak  
eta erregu luziak  
ez dira abesten asiak.

5

Ain udate gogorrian  
gaizki busti-legorrian  
ur mixerian aurrian.  
Ezpaidirudi euririk berriz  
degunik oso urrian,  
onlako une larrian,  
erregutu bearrian  
egin dezala neurrian,

6

Jarria bere aulkian  
eta danak irekian,  
Jauna zai bere tokian.  
Euri eskean Berarengana  
fedez zuzendu gaitian;  
egizko premi betian,  
al duala sinistian,  
ia beste nork leikian.

Egillearen paperetarik  
*El Diario Vasco*, 1989.11.26

# Sua ta aizea

## Doiñua: “Iparragirre abilla dala”.

---

1  
Udazkenean gailendu zana  
oraindik indartsu dago,  
nekatuago dagonik beintzat  
ez du ezagun izango;  
errenkada luzian,  
gure euri eskasian,  
orrelakorik egundo!  
Ote gaituzte danok aizeak  
aldi ontan eramango?

2  
Abenduaren amazpian  
asi zana amaseian,  
egualdiari dagokionez  
gutziz planta itxusian;  
larritasunez dantzan,  
gutxigotako etzan,  
ez egoera lasaian,  
sua ta aizea nagusituak  
ziran Euskadi guzian.

3  
Bazter guztiak ezerreztuaz  
suak bere erasuan,  
aizearekin, bera gelditu  
zezaken ezer etzuan;  
baserri ingurutan  
etzegon iñor lotan,  
nagusi baizan basuan;  
Deba ibaia iru tokitan  
aixa asko pasa zuan.

4  
Aizeak berdin, ondamendia  
sortu zuan itxasuan,  
bera menpean artuko zunik  
ark ere ezer etzuan;  
zalarik jaun da jabe  
suan laguntzik gabe,  
gutziz era indartsuan,  
erruki gabe ainbeste kristau  
ur azpira sartu zuan.

5  
Itxasoa ta sua aizeak  
asarre arazten duala,  
nere ustea ordea au da:  
indartu egiten ditula;  
ezin aztu iñola  
erregaia zegola,  
egondu bada sekula;  
oker danokin bizi gaitezen  
ori gogoan degula.

6  
Ain zuzen zanez bertsolarien  
txapelketako bezpera,  
beste aldetik bildurgarrizko  
sutea ordun astera;  
batzuk suari eustera,  
besteak Donostira,  
bietarako aukera;  
alde ederreko eginkizuna  
gendun batetik bestera.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1990.02.18

# Azokarik ez?

---

1

Santomas ingurutik  
asiak festetan,  
ezer gutxi egiñaz  
iru-lau astetan;  
jan da edan ondo eta  
lo egin bestetan,  
eztago jarraitzerik  
neronen ustetan,  
oraingoz ala ere  
nator ni protestan.

2

Erri ordezkariak  
dearduenean,  
azoka plazeari  
dagokionean,  
itxi egingo dala  
urte azkenean,  
jarri gaituzte aurrez  
jakiñen gaiñean;  
ez gaituzte epiñi  
armoni onean.

3

Kanpotik saltzailleak  
diranez etorten,  
aukera geixeago  
dutenak ematen,  
azokan merkeago  
dutenak erosten,  
badakite itxiaz  
gero zer daukaten,  
ia zein etxeoandrak  
onartzen dizuten.

4

Plaza lendabiziko  
unetik asita,  
aldrebes utsa dana  
gaude ikusita;  
egokixeagoa  
dauka merezita;  
arazo konpon-zailla  
dala ikusita,  
errexena baterez,  
dagona itxita.

5

Jakiñik errikoak  
zer esan oi duten,  
kanpokoak dirua  
nola daramaten,  
ordea beste zerbait  
ez dute esaten:  
merkeago degunik  
aiekgaitik jaten,  
sufritu eziñak lanak  
dizkigu ematen.

6

Azokaz sekula ta  
beti serbiturik,  
bera gabe al dago  
erria uzterik?  
Batzuk ez izan arren  
ajola askorik,  
ordea baditugu  
oraindik besterik:  
pobreak ez al dute  
bear errukirik?

Jubilatuen aldizkaria, III

# Oiñez ikastea gero ta zailago Betroiaren doiñuan

---

1

Mundura etorri ta  
lenbiziko aldiz  
aman laguntzaz oiñez  
ikasia goiz;  
gero bizitzan zear  
ezbeartua maiz,  
nolabaiteko zenbait  
ondoren ugariz;  
ainbeste eroriz  
ornitua zauriz,  
oiñez aztu berriz,  
gauzak goibel egiz;  
oiñez ikasten milla  
neke artua naiz.

2

Ogei urte nitula  
indartsu gorputza,  
tantaia baizijoan  
oraindik goruntza;  
anai arteko gerran  
nuan gudaritza,  
iltegrira beartuz  
gutako bakoitza;  
ango lerketa otsa,  
bazan eriotza,  
odolan emaitza,  
samiñez biotza;  
tantai indartsu aura  
laster zan beruntza.

2

Gauden mendeak egin  
neretzat aukera,  
garai txarrez mundura  
nere etorrera;  
bigarren amarkadan  
erditik aurrera  
lenen munduko gerra  
orduana aldera;  
andik urte bira  
aren bukaera,  
baiña emezortzira  
berrien asera;  
gutxigatik ez nindun  
sartu lurpera.

4

Ogeta amaseian  
aura panorama:  
gerra lertu zan eta  
zuzen geugana;  
sentitzen genduanok  
kontzientzi bana  
galdetzen gendun: «Zeiñek  
eman du ordena?».  
Ain zan nabarmena,  
desegintzen dana,  
betirako etzana,  
etzan gutxi joana;  
auraxe zan karrera  
nik egin nuana.

5

San Agustin egunez  
illunabarrian,  
ez nintzan aurkitutzen  
itxura ederrian;  
metrailla puska neukan  
sartua iztarrian,  
aragiak erre ta  
ia kiskalian;  
etzana lurrian,  
odola korrian,  
ain une larrian,  
ixtillu gorrian;  
eriotza ikusi  
nuan urrian.

6

Beste asko baiziran  
berdin eroriko,  
inguruan banitun  
franko antzerako;  
giro txarra orduan  
an zegoalako,  
jasotzera etziran  
laster etorriko;  
itxogin beariko,  
gauza ez joateko,  
nion nerekiko:  
«Ementxe nauk ilko».  
San Agustiñek etzun  
ordea naiko.

7

San Agustiñi nion  
gogoz erregutu;  
arren bere laguntzaz  
nazala osatu;  
etzegon arren ere  
sendatzea gertu,  
laguntzaille oberik  
ezin egokitu;  
etziten ukatu,  
nintzan oberatu,  
ezin daiket aztu,  
nai diot eskertu;  
barkatu ezin banaiz  
belaunikatu.

8

Goiz ikusi nizkion  
nere buruari  
izkutatzeko baiño  
geiago aberi;  
erre ta zatituak  
nerbio geiegi,  
alare konfiantza  
nion geroari;  
konpontze lanari  
ari eta ari,  
naiz egon nabari  
zailla dala ori;  
al dala askoz obe  
eutsi lengoari.

9

Berealaxe nintzan  
erori kontutan  
nere anka ezberra  
zegola lotan;  
ezin ordea etsi  
iñola modutan,  
ebakuntzaz konpondu  
zezakelakotan;  
ala izatekotan,  
asi giñan ortan,  
zaiñak txertuketan,  
jarraituz lenetan;  
konformatu bearra  
nengoanetan.

10

Ogeta amar urtera  
berriz istripua,  
aura zan berriz ortik  
onerakua;  
onetik irtetzeko  
zan aukeratua:  
bi tokitatik beste  
anka apurtua;  
len bat alakua,  
indargabekua,  
arteraiñokua.  
ez al zan naikua?  
Zartzaro ona artzeko  
itxura bapua.

11

Ari nintzan ni nere  
eginkizunean,  
motorrak jo ta bota  
ninduean;  
ondoren berrogeta  
amar egunean  
altxatu gabe egon  
bearra oiean;  
jaiki nintzanean,  
len aiña naiean,  
nere auldadean,  
ezin egonean;  
aurrerakada egin  
nuan zardadean.

12

Lenak asko ez dirala  
istripu geiago:  
motorrakin erori  
nintzan geroago;  
izotza zegon eta  
zegon labaiñago,  
baldar dagonarentzat  
berriz areago;  
norbera aulago.  
jausi errezago,  
altxa nekezago,  
ikusia dago:  
oiñez ikasitzea  
gero ta zaillago.

Egillearen paperetatik

# Zezena

---

1

Euskal Erria jatorritikan  
zezen zalea nola dan,  
Arrasateko idazle batek  
artu du lanik beregan.  
Plazarik plaza ibilia da  
bere oporretan udan,  
gordeak dauzka zenbait idazgai  
jaso ditunak or da an,  
irakurleoi azaldu asmoz  
orain urrengo bolaran.

2

Gure lurrian lenago ere  
ditugu aspaldikoak,  
bertso bikaiñak arazo oni  
norbaitek jarritakoak,  
amaika aldiz billera askotan  
gogoz abestutakoak,  
gertakizunak Pasaian egun  
batez gertatutakoak,  
zezenak zuzen itsas erdira  
salto egin zunekoak.

3

Agian jaio an egingo zan,  
bizi izana basuan,  
utzi zioten bitarte beti  
ain toki pakeosuan;  
zori txarrean itsas aldera  
alde txarrera jo zuan,  
ala ta ere nik aiña modu  
igarirako bazuan,  
pixka batgatik ito zezaken  
arrixkurikan etzuan.

4

Ainbeste urte ez dala bada  
baita ere gertatua,  
Eibarren plazan izan da etxera  
bidea zuten artua;  
oi dan bezela zezena zegon  
asto bateri lotua,  
eroskor aldi batek artuta  
soka zuan apurtua,  
etxera itzultzen jabea etzan  
ordun gutxi nekatua.

5

Animaliak eta gizonak  
ura artu zuten tratua!  
Txakurren iges trenen zubia  
laster zuan pasatua;  
nola zegoan berriz tunela  
bertan zan izkutatua,  
berriro ordun izan zuana  
jabeak eskuratua,  
atzeruntz pasa zubia eta  
berekin etxeratua.

6

Zubi ura maiz igarotzeko  
zenbait zailtasun badaude,  
bi alanbreren gaiñetik joaten  
ez dagonez milla alde;  
badaezpada're bear du izan  
aize zakarrikan gabe,  
baldin mozkorrik ez baldin badu  
norberetzat askoz obe,  
zezena ere etzan izango  
baiña berrogei erralde.

7

Konturatzen naiz norbaitek aixa  
maxiatuko nauala,  
zezenen kargak botatzekoa  
zubi ura ez dagola:  
astunagoa trena gaiñetik  
ibili bear duala,  
gauzak badira konprenditzerik  
eztagoanak iñola,  
airoplanoai ere aidean  
zerbaitek eusten diola.

8

Jatorriz gaude zezena dala  
euskal lurrean sortua,  
jolaserako izan zuana  
gizonak aukeratua;  
pixkana-pixka zabaldu eta  
zaiguna garestitua,  
gaur zezenezko pesta dagonez  
diru asko pagatua.  
orain jolasa gertatzen zaigu  
diruakin trukatua.

Egillearen paperetatik  
(Urzelai jauna Arrasateko kronikalaria;  
1998 ingurukoak dira, ez dakit  
eguna.)



# Berrero jubilatua

---

1

Arrasate gu jubilatuen  
lau etxe ditun iria,  
danon artean sortua degu  
gerontzat aldizkaria;  
irugarrengo zenbakia da  
ilbeltzean ateria,  
miragarria idazten duten  
batzuk duten umoria,  
lenbizikoa melarra baiña  
azkena irtena lodia.

2

Umerez ondo jantziak zarrak  
genituna banekian,  
baiña ez dakit aritzen diran  
beti tema egokian;  
beren ustean izanik ere  
abillak sexolojian,  
arazo ortan zarrak ez dakit  
zer amets egin leikian,  
eziñezkoa ezin da eta  
obe utzita pakian.

3

Amoriorzko gai orri buruz  
zenbat esamesa polit,  
arrigarria gertatzen baita  
neri grazi egiten dit;  
irugarrengo adiñak ere  
ezpaitu aztutzen nunbait,  
ezta gertatzen aspergarria,  
ez du eragiten gogait,  
zartzaro ontan dibertsioa  
sortu bear da nolabait.

4

Irugarrengo adiña beti  
gertatzen da pentsagarri,  
gure bizitzen azken zatia  
deitu oi diot nik orri;  
ainbat alargun, gizon da andra  
itza emanaz alkarri,  
zarren artean sortzen dalarik  
millaka kariñu berri,  
baiña bautizu bearrik iñork  
ez du oraindik ekarri.

5

Lena jarraitu orde z nait nuke  
aitatu bere lekuan,  
bera ainbeste edo geiago  
premizkoa dalakuan;  
gure zarrak or nun leiaketan  
eta ez nolanaikuan,  
beren buruak nekatutzeko  
aukera-aukerakuan,  
jakin dedanez aritu dira  
jo ta su brixka jokuan.

6

Kartak zenbaiti gogozko zaizko  
arratsalde ta goizian,  
aiek usatzen gozatutzen du  
betarik duan guzian;  
dalako brixkan edo tutean  
eta sarritan musian,  
aritu berri dirala nago  
leiaketa latz-bizian,  
Uribarriko zarrak ain zuzen  
irtenak irabazian.

Jubilatuen aldizkaria, IV

# Agortu zaila

---

1

Beregan baduanez  
berezitasunik,  
ari natzaio egiten  
gai oni jardunik;  
berriz ere eztago  
segitu eziñik,  
ez deritzat agortu  
beldurrik dagonik.

2

Zarrago ta zailago  
artzea urteak,  
zer pentsatua dakar  
pentsatzen jarreak;  
burutik oiñeraiño  
maiz ajez beteak,  
alde on gutxi dauzka  
zarra izateak.

3

Esan oi dizkigute  
ainbat pasadizo,  
zarren eragozpenak  
jarriaz eroso;  
aldapak lautu eta  
biurtuaz liso,  
zarra dala ordea  
nola aztu erazo?

4

Sendagilleangandik  
edonoiz oarrak,  
gustoko gauz askotan  
aginduz oporrak;  
ez gaitun bitartean  
jotzen derrigorrak,  
aiekin gu sarritan  
gera entzungorrak.

5

Ezetzta ematean  
zale zeranari,  
baietz emana dago  
suprimentuari.  
Nor bere modutara  
nola ez ibili?  
Zertako kaso egin  
sendagilleari?

6

Zardadea uxatzeko  
biderik onenak,  
ez utziaz aldetzen  
nor bere kemenak;  
ainbat aldiz nor bere  
eskuan daudenak,  
gorde gaztetan izan  
dituzun laurdenak.

Jubilatuena aldizkaria, V

# Ibillaldia

---

1

Uribarriko jubilatua  
beste batzuekin nasi  
San Antonio eguna aurten  
ez gendun pasa itsusi;  
ibillaldia Naparroara,  
alderdi aura ikusi;  
jubilatuen batzorde orrek  
txaloak ditu merezi.

2

Lendabiziko egonaldia  
Lizarragako Iratxen,  
amarretako pixka bat ere  
artu gendularik antxen.  
Esaten gendun: «Bizi izateko  
toki polita ementxen».  
Gero andikan Erri-berrira  
eldu giñan berealaxen.

3

Gaztelerako deitura arek:  
Naparroako *Olite*;  
bera ikusten ibili giñan  
bazkal ordua egin arte.  
*Zanito* deitzen zaion otel bat  
ain zuzen ere badute,  
auntzkuma erretzen arraiok ezik  
dotore asko dakite.

4

Ase ginduzten asi ta lenen  
berdura presko gordiñez;  
berriz berdura, baiña ezta berdin  
egositakoa zanez.  
Gero auntzkume errea sendo  
bustia ardo naparrez,  
gozo zati bat inguratua  
kopa, puro eta kafez.

5

An zeregiñak bukatu eta  
etxera-bidean berriz,  
unetxo baten atsedentzeko  
aukeratu gendun Gasteiz;  
egun osoa igaro ondoren  
guztiok armoni alaiz,  
poz-pozik danok etxera giñan  
oraindio egun argiz.

6

Egia danez gaiñera mundu  
ontara aur gatoztela,  
entzun izan det zartzaroruntza  
aur biurtutzen gerala;  
jubilatuen batzordekoak  
ori gogoan dutela  
dirudi gure ibillaldiak  
antolatzen dituztela.

Jubilatuen aldizkaria VIII

# Oporrak eta festak

---

1

Ainbat gazte ta sasoi oneko  
erantsiz eskola-aurrak,  
ta ez gutxitan etxean ezin  
egonean gauden zarrak,  
bakoitzak berak al dun neurrian  
artu ditugu oporrak;  
bakar bat bera ez du aztuta  
utzi nai gaur Arriolak.

2

Gaiñerakoak erri aldetik  
aldendutzen diranean,  
opor garaian etxe zain ere  
zarrak gaude geiengan;  
sarritan obe danak joanda  
kezketan egonenean,  
berri gaiztoak eltzen bait dira  
gutxien uste danean.

3

Etxetik irten eta berriro  
etxera itzulitzera,  
joan dan arek ulertzen al du  
etxekoen egoera?  
Berri on gutxi irixten baita,  
au da emen gora-bera,  
beti badago edo ixtripua  
ez baldin bada kolera.

4

Asi ta segi ari naizenez  
bertsotan ari berari,  
zerbait besterik ikututzea  
ordea dagokit neri;  
opor garaian festatik ere  
izana degu ugari,  
bate denbora galtzerik gabe  
aprobetxatuz danori.

5

Abuztuaren ogeta lauan  
lenbizi San Bartolome,  
Uribarriko zaindari ona  
bera degu mendez mende;  
bein da berriro gauza irten zan  
gu jubilatuen alde,  
norbaitzueri esker beroa  
azaldu bearrez gaude.

6

Egun gutxira auzo berean  
egitarau dotoria,  
oraingo ontan zaindari edo  
beste santurik gabia;  
jubilatuei eman ziguten  
sekulako afaria,  
aldi onetan ni izan nintzan  
ondoena ateria.

Jubilatuen aldizkaria IX

# Udia igaro ta udazkena eldu

---

1  
Udia igaro ta  
udazkena eldu,  
onek gero negua  
ekarriko digu;  
beragan duan arek  
bear ainbat modu,  
eta zenbait probetxu  
udiarri kendu,  
neguari zer egin  
ere jakingo du.

2  
Eragozpen gabeak  
badira almenak,  
etxean egoteko  
ez gera gu onak;  
ez ditugu ibili  
txantxetako lanak,  
bakoitzak bere naian  
egindako planak,  
txarrago daude egin  
ezin al dutenak.

3  
Ekaina, uztailla  
eta abuztuak,  
irurok zein baiño zein  
il eder askuak;  
laugarren egiten du  
irail prestuak;  
ez dira gertatuak  
beti pozezkuak,  
baiña mundu osuak  
ditu gogozkuak.

4  
Egun batzuek dira  
oraindik bakarrik,  
sarri ez det egin ain  
ibili ederrik;  
jubilatu-etxea  
dunez Uribarrik,  
bidaiak antolatzen  
zeiñek eman urrik?  
Ondo ibiltzera eztago  
urrun joan bearrik.

5  
Irailak emeretzi,  
zortzirak aldian,  
goiz jaiki ta zai jarri  
giñan atarian;  
laster atera giñan  
auto dotorian,  
*Castillo de Butron*-a  
jun ordu ta erdian,  
gero bazkari ona  
gendun Busturian.

6  
Gutxi dala enara  
billera ikusi nun,  
bidaia preparatzen  
bear duten ordun;  
Urrilla irixtean  
ezin emen iraun,  
kristau batzuk bagera  
txori oien modun,  
negua pasatzera  
izango da nor jun,

Jubilatuen aldizkaria, X

# Urrezko eztaiak

---

1  
Noizbeinka bada ere  
izan ez arren maiz,  
iñoiz lenago ere  
alegindua naiz,  
Urrezko Eztaia  
bertsozko opariz;  
bein da berriro nator  
ta arreta aundiz,  
oraingoakin bada  
irugarren aldiz.

2  
Begiratzuz norbere  
ingurumarira,  
jaio, azi ta bizi-  
tu geran sendira,  
ortara irixteke  
joanak badira,  
jetxi gera oraingoz  
ia-ia erdira,  
askotatik jakiña  
geiago eltzen dira.

3  
Baserria deituraz  
*Antzondo* Deban da,  
*Aitzondo* bear zuna,  
ala da izan da.  
Ango nagusia ta  
ango etxeoandra,  
senarra Joxe Mari,  
andrea Dominga,  
ez bizi izanak beti  
naiko lo eginda.

4  
Eun da berroge ta  
emezortzi urte  
osatzen dituztenak  
orain bien arte.  
Senarra an jaioa,  
andrea ez aparte,  
kondaira dezentea  
bizitzan daukate,  
Urrezko Eztaia  
borobiltzen dute.

5  
Zortzitatik zazpi aur  
azi zenituzten,  
soldaduzkan bestea  
galdu zitzaizuten;  
ogei ta bat billoba,  
iru-illoba bat irten,  
Urrezko Eztaia Eguna  
ospatuz Arraten,  
ia Amarengana  
urbiltzen zeraten.

6  
Albizu-Arriola,  
Arriola-Albizu,  
sekulako nastea,  
Ama, or daukazu.  
Maiatzaren bostean  
bilduko zaizkizu,  
Jaunaren bitarteko,  
arren, Zuk egizu,  
zure laguntzarekin  
lagundu zaiezu

Egillearen paperetatik

*El Diario Vasco*, 1990.04.28

# Jubilatuen omenaldia, Arrasaten Doiñua: ezkondu eta ezkongai

---

1

Arrasateko erriari,  
zarren maitatzailleari,  
gutziz zaiona nabari.  
Bein da berriro jarraituz bere  
urteroko oiturari,  
jalgiatz ona ta ugari,  
etzaio azkenik ageri,  
esker beroak berari.

2

Garagar illen bikoa,  
larogei ta amarrekkoa,  
aitatzeko modukoa.  
Omenaldia Arrasateko  
zarrori egindakoa;  
naiz izan urterokoa,  
aurten mailla altukoa,  
errez ez aztutzekoa.

3

Zegokiona egunari  
meza santu ta itzaldi,  
asera eman jaiari.  
Koruan bazan organu eta  
biolin da abeslari;  
beste talde bat dantzari,  
arretaz beren lanari,  
San Juanen zan dan ori.

4

Jarraituz gure saillari,  
mezaren ondorenari,  
iñor etzegoan nagü.  
Ekin genion bazkaria zan  
alderako bideari;  
janari eta edari,  
aukeran dana geiegi,  
egin zezaken igari.

5

Bazkalondoan zozketa,  
erregali banaketa,  
izketan egin tartekoa.  
Erregali bat zozketa gabe  
eskura emana da-ta,  
oso berezia baita;  
jabe egiña ni naiz ta,  
lagun on baten apeta.

6

Bukaera berezia,  
norgeriagoka bizia,  
zar-gazteen pantasia.  
Gizonezko ta andre artean  
erabaki zan auzia;  
andrezkoa nagusia,  
ark zuan irabazia,  
or bukatu zan guzia.

Egillearen paperetatik

*El Diario Vasco*, 1990.06.17

# Kabi dizdiratsua

---

1  
Kabi dizdiratsua  
gaur zeran bezela,  
luzaro serbitzeko  
izan zaitezela;  
negurako beroa,  
udako itzala,  
itxaropen orrekin  
sortua zerala,  
Jaungoiko on altsuak  
bedeinka zaitzala.

2  
Gogoan daukatena  
noa esatera,  
sendientzat etzaitez  
gertatu galera;  
au da nik gaur egiten  
dizuten galdera:  
zauden bezain apaiña  
izango al zera,  
emendik eta beste  
berreun bat urtera?

3  
Oiñez abiatzea  
zaudena zorrian,  
beti ezingo zera  
egon oporrian;  
sendia ibili da  
joan da etorrian,  
baiña nai dute bizi  
modu jatorrian,  
zu zaute erantzuna  
eman bearrian.

4  
Ain zuzen zutitua  
toki nabarian,  
kamiotikan zaude  
oso agirian;  
bista kentzen dizunik  
ezer ez parian,  
Legution Goikoetxe  
auzo dotorian,  
Albiña urtegia  
dezu atarian.

5  
Maitasunen indarrak  
zutitu arazo,  
bestela nola gaindu  
ainbeste arazo?  
Zenbat buruauste ta  
zeregin nekoso!  
Alare iñor ezta  
ipiñi dudoso,  
bazerala dirudi  
naiko pasaizo.

6  
Itz baten au da zuri  
eskatzen zatzuna:  
sendia gozatzeko  
zure gaitasuna;  
gogoratu bearra  
dago osasuna,  
andik dago zintzilik  
gure etorkizuna,  
zukan itxaro degu  
gure jazkizuna.

1990, Egillearen paperetatik



# Jubilatuen etxeen lanak

---

1

Bertso batzuek azaldu naia  
aukera ona dagonez,  
zerbait berria beti sortzen da  
denbora aurrera joanez;  
jubilatuen arazoari  
eragin batzuk emanez,  
neretzat bide-bidera dator  
neu ere ala naizenez.

2

Jubilatuen etxeak ere  
badituzte beren lanak,  
ez dira berez beren kasetan  
aurrera joaten diranak;  
ala bearrez guk Uribarrin  
ditugu gidari onak,  
eman bearra zegon pausoa  
oraingoz gera emanak.

3

Martiak zitun amasei egun  
ain programa serioan,  
Euskal Errian eutsi naiean  
gabiltzan usuarioan,  
Itxaropengo Aman eleizan  
meza bat izan genduan,  
urte barruan il diran aiek  
izan genduzen goguan.

4

Meza ostean mai ingurutan  
jarri arazo ginduzten,  
gidari onak urte osoko  
kontuak eman zituzten;  
borondaterik onenarekin  
lanik asko izan zuten,  
lotsaz kolkoan gordetzekorik  
ezertxo ere etzuten.

5

Naiko astuna zalarik ere  
lanak aurrera eramaten,  
gure zai gendun bazkari onak  
poza bai zuan ematen;  
Junta berriztu bear gendun da  
aukeraketak egiten,  
botuetara lenago egonak  
berriro geienak irten.

6

Txalagarria gidari aien  
lan egiteko modua,  
zarrenganako dituztelarik  
laguntza ta anparua;  
iñun failorik ez dute eta  
argia berriz burua,  
merezi añan nik ezin jaso  
Iñaki eta Murua.

Jubilatuen aldizkaria, XV

# Arrasate Telebista

---

1

Lenago etzan zerbaiten jabe  
Arrasateko erria,  
urte onetan telebista du  
bere aur jaio berria.  
Ni bisitara etorri naizen  
aitona zar elbarria,  
nere partetik egiten diot  
nere ongi etorria.

2

Aurtxo txikia iñola moduz  
eztana iñoiz errudun,  
etxean aurrak izan ditunak  
ondo daki zer bear dun:  
maitasuna ta goxotasuna  
edonoiz eta edonun;  
ia aur ori gure izkuntza  
ibiliz azitzen degun.

3

Aurtxo polita, oiñez asia  
gutziz pauso egokian,  
Jainkoak berak bakarrik daki  
nora iritxi leikian.  
Oztoporik ez, arren, ipiñi,  
utzi dabillan pakian,  
oso jostaillu polita degu  
aundi egin bitartian.

4

Jostaillu utsa baiño geiago  
zerbait guretzako zera,  
gure izkuntzak zugan duala  
gaude milla gora-bera.  
Bera usatuz aundi egiten  
gu aleginduko gera,  
aman izkuntza aberasteko  
izango dezu aukera.

5

Ote degu guk gure izkuntza  
goiean ezin eutsia,  
edo al degu ajolik gabe  
bera erortzen asia?  
Geure arduragabekeriaz  
geuk eman eriotzia;  
aurtxoa, orra zure gaiñera  
datorkizun erentzia.

6

Euskal alaba edo semetzat  
zauden orrek entzun beza;  
barkatu baiña ote dabiltzu  
jokabide aldrebasa?  
Zu euskalduna izango zera  
baiña maiz erderaz mintza,  
ajolik gabe zure izkuntzari  
uko egiten zabilta.

*Egillearen paperetatik  
El Diario Vasco, 1990.07.29*

# Uribarrin jaiak, 1990

---

1

Iraillak zazpi, zortzi  
eta bederatziz.  
ostirala, larunbata,  
igandea erantsiz,  
Uribarri auzoak,  
oiturari eutsiz,  
jaiak eratu ditu  
gozatzeko antsiz.

2

Jaiak eratzen dira  
urtetik urtera,  
egun berdintsuetan  
gutxi gora-bera;  
Ama Arantzazuko  
eguna aldera  
autatu ezazute,  
egoki da bera.

3

Igaztik aurtenera  
zertxobaiten poza,  
naiz eta ez dan arren  
txoratzeko gauza;  
urte osoa ezta  
alperrikan pasa:  
jarri digute martxan  
Bermioko gasa.

4

Jator serbitu gaitun  
butano bonbona,  
lengo egunean da  
gure etxetik joana;  
ogeta sei urtean  
gurekin egona,  
morroia izan degu  
zintzoa ta ona.

5

Gaitularik apal da  
alaiki serbitu,  
gaur olako morroiak  
badauka meritu;  
alare ez diogu  
berekina segitu,  
beste bat etorri ta  
beregandu gaitu.

6

Aren berri lenago  
ikasi gendun da,  
aprobak baigenduzkan  
lenago eginda;  
aura etzan ibiltzen,  
oiñez etzekin da,  
bestea berriz bere  
kasa ibiltzen da.

7

Ain apain iritxi zan  
berri au atera,  
pizkor azaldu zigun  
zekarren aukera;  
komententzia da  
emen gora-bera,  
bapo gabiltza diruz  
osatzen bagera.

8

Ez al gabiltza berdin  
ainbat arazokin,  
igarian egiñaz  
komententziakin?  
Ordea nai duanak  
irten bereakin,  
lenbizi igarian  
bearko du jakin.

9

Gendukalarik ere  
gendukana ontzat,  
guk aixa saldu degu,  
nik ala deritzat;  
berria ederrago  
beti da guretzat,  
ezer alderdi onik  
baldin bada beintzat.

10

Auzotar arreba ta  
auzotar anaiak,  
bein da berriz auzoan  
festarako deiak;  
gertatzen diralarik  
erabat alaiak,  
nekez aspertzen gaitu  
festa geiegiak.

Egitarauan agertu ziran

# Jubilatuen jaia Arrasaten, 1991

---

1

Arrasaten urtetan  
gabiltzan planian,  
aurten ere jarraitu  
diogu lenian;  
ain zuzen ekainean,  
lenengo egunian,  
San Juan Zaindaria  
jaien atarian,  
zarrari eskeiñia  
zan omenaldian.

2

Gendun jubilatuen  
jaia deritzana,  
nola ez egun oni  
eman zeritzana?  
Parroko jauna degu  
azaldu etzana,  
bazun beregan zerbait  
berak nai etzuna,  
danok nabaitu gendun  
beraren utsuna.

3

San Juan parrokian  
meza zan eguardin,  
barrendik guztiz egun  
aundia zirudin;  
dantzarien saioa  
bazan meza erdin,  
andik irten da zarrak  
batzuk oso arin,  
bazkari ona gendun  
gero kiroldegin.

4

Zeremoni bitxiak  
urtero bezela,  
gure alkate jauna  
aurrez aurre zala,  
zarrak giñanik iñor  
oartzen etzala;  
une bat gertatu zan  
etzana motela:  
bikote zarrenari  
jarriaz txapela.

5

Aitatzeaz Albina  
Madinabeitia,  
beste gabe ez al da  
zerbait esatia?  
Bere maillako asko  
musikan ezitia,  
mezatan agertu bat,  
bazkaltzen bestia,  
urteak ditu askotxo,  
ai balitz gaztia!

6

*Sudo* da aitatzera  
orain nijoana,  
lenago aitatzea  
merezi zuana;  
ezta txantxetakoa  
egin zuten lana,  
moldatu zutenetik  
alako eguna,  
zorionak biotzez,  
Zeziaga jauna.

*El Diario Vasco*, 1991.06.16

# Emakume izan nai

---

1

Ain zuzen egun artan  
apirillak amar,  
egunkarian gendun  
Pablo Ruiz Escobar;  
emakumea izan  
nai zula ta abar;  
ni beintzat nere baitan  
jarri nindun mar-mar.

2

Beraz kenduaz lendik  
zitun trepetxuak,  
emakume biurtuz  
gero deretxuak;  
iragiaz etzuna  
balio itxuak,  
plastikozkoak jarri  
dizkote petxuak,

3

Gizonen trepetxuak  
kenduaz lenengo,  
berriro ez diote  
gerrarik emango;  
alderdi onik ere  
zerbait beti dago,  
erroide arrixkurik  
ez baitu izango.

4

Orretara etzunez  
iñork beartuko,  
erabaki ariñik  
etzuan artuko;  
emakumetza zunez  
beraren gogoko,  
*cáncer de mama*-rikan  
etzaio sortuko.

5

Gizonen trepetxuak  
Pablok gorrotoko,  
ez du aiekin berriz  
iñor serbituko;  
ez duan arren berak  
ere gozatuko,  
abortatu bearrez  
ezta gertatuko.

6

Nor ezta konturatzen  
daukagunaz modan?  
Jaunak emandakoak  
ainbat aldiz sobran.  
Ote ditu kendu ta  
sartuak kontserban?  
Ala transplantatzeko  
ote ditu eman?

7

Izakiaren gauzak  
pijoak ain zuzen,  
norbereakin zenbait  
ez baiña asetzen;  
Pablok ere bereak  
ez zitun onartzen,  
noiznai aldatzekoak  
obeak genduzen.

8

Norbere tresna izanik  
ainbat traba al du?  
Ixtimatu bearrez  
bere gogoz kendu.  
Aurpegian bizarrik  
Pablok baldin badu,  
azala leun jartzeko  
ezer egin al du?

9

Tresna orien erruz  
geiegi konflikto,  
gizonari sortuak  
nai ez beste pleito;  
Pablo kentzen joan da  
polito-polito,  
deitura bera ere  
aldatu ta kito.

10

Dirudienez ezer  
ez du eziñezko,  
berak ere ordea  
ez du sinistuko;  
egitan emakume  
ez da sentituko;  
ai zikirua balitz  
erreta jateko!

Egillearen paperetatik

# Anestesia

---

1

Anestesia, etzeran arren  
zurekin gustatzekoa,  
une larritan gertatzen zera  
derrigor bearrezkoa;  
bakarra zera al dezuna eman  
beta zerbait lortzekoa,  
neurri zuzenez ez usatzean  
zera zu okerrekoa.

2

Uskeri onek jarria nauka  
ni guztiz trantze gaiztuan,  
oiñazez ezin burutu eta  
oso nabil deskustuan;  
agiña daukat erdi ustela  
nola serbitzen eztuan,  
ateratzeko zure bear naiz  
neurri zuzen da justuan.

3

Ezbear batez joan zitzaidan  
begi bateko bistia,  
zailla zitzaidan lengo erdirik  
bakarrakin ikustia;  
eskatzen nuan lenago aña  
ikustera irixtia,  
zure bitartez bata kenduta  
jarri dirate bestia.

4

Etena eta este sobrea  
alde alaiak ezta,  
biak nerekin ditudala ni  
egon naiz kezka betia;  
zure laguntzaz moztuaz sobre  
zegoan este zatia,  
ekintza batez lortu al izan  
dute etena jostia.

5

Osasun ezak ez dizkit sortu  
nolanaiko komeriak,  
nere gorputza ondoeztean  
maiz oiñaze ugariak;  
gaixo jartzean danak minkorrak  
gitxurdin, gibel, bariak,  
anestesia, aspaldi ontan  
supritu ditut neuriak.

6

Ezer lortzeko zerbaitek bear  
eman ortarako beta;  
zuk ori bera egiten dezu  
orretarako zaude ta;  
au ondorena zoriontsua  
gutxurduna aldatuta!  
Zer atsegiña burutu deten  
gaixo zegona kentuta.



7

Gorputza motel aurkitzen eta  
guztiz eziñeratua,  
zarra naizenik ez uste baiña  
arnasik ezin artua;  
sendagilleangana joatean  
odola ziten neurtua,  
esaten ziten: «Zure biotza  
oso dago nekatua».

8

Nekatuak nik danak nituan;  
buru, anka ta gerria,  
sendagilleak biotza dala  
ziten denon iturria;  
konpontzekotan ain egoera  
astuna eta larria,  
gaixoa kendu eta sana  
bear nuala jarria.

9

Bizia mozten zetorren eta  
zerbait egin bearrez bein,  
itxaropena zuregan nuan,  
zu egongo ziñala zain;  
beta emateko arazo ori  
zuk artu dezu zure gain,  
ondo irten da ez naiz ezertaz  
enteratu ere egin.

10

Anestesia, ez dakit iñoiz  
bazeranik saritua,  
orretarako zuk badezula  
nago naiko meritua;  
bateko dala gaixoa eta  
besteetan zauritua,  
zure baimena tarteko dala  
zenbat ezta berritua?

Egillearen paperetatik

# Uribarri auzoan jaiak, 1991

---

1

Festa gabeko uda aldiak  
ez du grazirik eukitzen,  
bere garaian Uribarriko  
auzoa ezta aztutzen;  
udako oporren luzakizuna  
orain dutenez prestatzen,  
Iraillean seian, zazpian  
eta zortzian ain zuzen.

2

Opor garaiak festa sortzeko  
badu bere eragiña,  
lanerakoan ezta gertatzen  
gauza zearo berdiña:  
lan arazoa nolana latza,  
jaia beti da apaiña,  
guztientzako gerta dedilla  
festa giro atsegiña.

3

Urte osoan auzoan ezta  
izan milla aldaketa,  
egingo omen da etxe bizitza  
berri askon ugalketa.  
Nola lezake baiña egiten  
asi gabeak daude-ta?  
Egin asmoak artuak arren  
egiten dago aldapa.

4

Zuaitz batzuek izan ditugu  
nai izan erregalatu,  
naiz ta auzoan len gutxi izan  
da gero gabe gelditu:  
orretarako daudenak naiz ta  
beren buruak nekatu,  
iñola moduz ordenan ezin  
izan dituzte aldatu.

5

Etxe egintza burutzekotan  
zeudenak enbarazuan,  
aldatutzea erabaki zan  
Musakolako auzuan;  
ori lortzeko gizonak tresna  
faltik eskutan etzuan,  
ala ta guzti bere asmoa  
bete gabe utzi zuan.

6

Lengo gizonak aurkitzen zuan  
eziña askoz urrago,  
oraingo auek irixten dira  
askozaz urrutirago;  
baiña ametsa bada ordea  
bear baiño luzeago,  
besterik gabe amets utsakin  
ibiltzerikan eztago.

7

Kiroldegia berria ere  
egin dute Iturripen,  
orain dabilta azken garaiko  
ikutu piñak ematen;  
zabaldutzeko luzakizunik  
ez baldin badu izaten,  
ia gazteak kirolerako  
tokia izaten duten.

8

Kiroldegian dabiltzanean  
joan eta etorrian,  
baleike baiña nekez sartuko  
dira bide okerrian;  
kirola bera alditan jartzen  
dutelarik indarrian,  
ezta erreza neurtzen zenbat on  
sortu lezaken errian.

Egillearen paperetatik

# Isabel bigarrenak bisita

---

1

Isabel bigarrena  
ingles erregiña,  
Españira bisita  
oraintsu egiña;  
esan duanez izan  
zaio atsegiña,  
donostiarrak izan  
dute zeregiña.

2

Sukaldari trebe dan  
Joan Maria Arzak,  
bere gain artu zitun  
Madrilgo morrontzak;  
ain goxoak eskeñi  
zizkieten saltsak,  
Isabelgandik jaso  
zituan gorantzak.

3

Dama zetorreanean  
Madril alderuntza,  
Joan Mariri deia  
joateko aruntza;  
ez dakigu nor ziran  
ortarako mintza,  
baiña bai bazegona  
nunbait konfiantza.

4

Deia jaso ondoren  
etzuan dudarik,  
beste bost gizon lagun  
berekin arturik,  
irten ziran jeneroz  
ondo osaturik,  
ark ez du lizunduko  
sukaldaritzarik.

5

Batetik txangurroa,  
bestetik lebatza,  
konpontzeko tipula  
ta ez berakatza;  
gaiñerako bazuten  
gaztaiña-izotza,  
otordu orrek badu  
berezien otsa.

6

Etortzeko emana  
lendik zegon itza,  
Feliperi esana  
zegoan baietza;  
bazekian izango  
zuana jabetza,  
etzuela goseak  
ilgo segurantza.

7

Gugana maitasunik  
ezpadute ere,  
aintzat artzeko gutxi  
gera izan ere;  
Euskadik parte artu  
nolabait alare,  
larri ibili berriz  
etortzen badare.

8

Eskuartean zerbait  
ekarri dutela,  
beren itzalditxoak  
egin dituztela,  
asko enteratzeke  
uzten gaituztela,  
gerrarik gabe beintzat  
konpon ditezela.

9

Tartea duan arren  
esan da izatek,  
ala idatzi zuan  
bein batez norbaitek:  
indarra erruz dula  
zenbait maiña-artek,  
gerra bat il leikela  
otordu on batek.

10

Ortik libre gaudenik  
ez beza iñork uste,  
beren zakarraldiak  
izaten dituzte;  
gugana jalgi ere  
ainbat buru auste,  
aien aserreak gu  
ondatzen gaituzte

Egillearen paperetatik

# Eztitxu

## Seaskako doiñu bat erabil diteke

---

1

Eztitxu, entzun aitajaunaren  
lenbiziko abestiak,  
aurtxoa zeran bitartez utziz  
geroagoko bestiak,  
Gugana lortu dituzun orrek  
guztiz gradu bereziak,  
kristautasunak izenen eran  
agertu ezti-eztiak.

2

Billobatxoa, mundu ontara  
eldu zerana oraintsu,  
ongi etorri zeñek emanak  
zorionez badituzu.  
Aitajaunaren buruan ezer  
sortuko balitz mamitsu,  
bere abesti goxoen auek  
zuri eskeintzen dizkitzu.

3

Jaioa zeran bezin aguro  
natorkizu esatera:  
maitasunaren indarrak zakartz  
euskalduna izatera.  
Gaiñerakoak ezagutzeko  
izango dezu aukera,  
baiña lenbizi maita euskera  
gurasoekin batera.

4

Euskera zure bizi osoan  
izan zaizula atsegin,  
kristau osoa izateari  
ez egiozu utsegin.  
Bide txarrari nolabait ere  
egiozula aldegin,  
ajola gabe gurasoeri  
negarrikan ez eragin.

Egilleraren paperetatik

# Errosario egunean

---

1

Izan ez arren ere  
bertsotan iaiua,  
ementxe nai det egin  
nere entsaiua;  
entzun bear dezute  
aitonan oiua,  
zuek inguratzea  
nere orgullua.

2

Alaba Rosarion  
urtebetetzean,  
eta ezkontza eguna,  
biak ospatzean,  
aitona daukazute  
umore antzean,  
ixilik egoteko  
ez nago trantzean.

3

Ospakizunak ere  
zenbait usuario,  
ez al dira batzutan  
gertatzen serio?  
Norbaitek aurpegia  
eman bear dio,  
gaur lanazpiratua  
degu Rosario.

4

Senideak onela  
alkarrenatzian,  
ederragorik danik  
nago ezetzian;  
danetan nagusi da  
nere iritzian,  
onelaxe nai nuke  
nik eriotzian.

5

Mundu ontan ez gera  
alperrikan bizi,  
zerua bear degu  
emen irabazi;  
bestean ez baidauka  
ez dunak merezi,  
oraingoz bear degu  
arduratzen asi.

6

Ikusirikan ere  
emen gauzak estu,  
bete al izateaz  
bear degu poztu;  
ez gaitezela orain  
geroakin aztu,  
emen saiatze'eztanak  
an tokirik eztu.

1991, Errosario egunean, pamili  
an inprobisatuak.

Egillearen paperetatik

# Aritz, Bataio eguna

---

1

Billobatxoa, zure aitaitak  
zuzen nai dizu egin itz:  
mundu ontara etorri eta,  
aurtxoa, zer moduz zabiltz?  
Gu emen sarri bertsoarako  
gogo asko gabe gabiltz;  
alaixeago bizi izateko  
zoria deizula, Aritz.

2

Aita ta amari esanda nago  
zer daukaten egiteko:  
gauza guztien gaiñetik beren  
semea ondo azteko.  
Aitaita nauzun aldetik dizut  
zuri ere eskatuko,  
batez e zure gurasoentzat  
seme ona izateko.

3

Ondo izan naiak aitaitengandik  
sekula ez du aldegin,  
itxura baten bizi izan naian  
beti egin det alegin;  
seguru asko zuri're, Aritz,  
gertatuko zaizu berdin;  
ajola gabe gurasoeri  
negarrikan ez eragin

4

Zure etorrera ospatzen gaude  
nik al dakit zenbat jente?  
Gutziñaz ere arrera ona  
danak egiten dizute.  
Aitaita berriz asia zaizu  
lendabizikotik eske:  
euskaldun zintzo eta leiala  
izaten saiatu zaite.

Abenduak 8, 1991  
Egillearen paperetatik



# Aitaren diploma

---

1

Alaba Arantxa, izan naiean  
ogibidez sendagiña,  
zazpi urte da titulu billa  
joan ziñala Iruñia:  
artu zenitun zuretzako lain  
neke ta buruko miña,  
besteontzako ere izan da  
egiñala zer egiña.

2

Gauza jakiña asi ziñala  
bide urratzen enpeiñoz,  
neurtu erreza ez leike gerta  
zer neurri duan tamaiñoz;  
itxaro degu zuk ez dezula  
utziko eztaltzen laiñoz,  
trebe izanaz lortu dezuna  
gordeko dezu kariñoz.

3

Bide urratzen izan badezu  
lantegi benetakua,  
ezin jakin zer izan diteken  
emendik aurrerakua;  
nolanai ere kristau legea  
gogoan bearrekua,  
zure biotza zabala da ta  
danentzako du lekua.

4

Zuk ikasketak egin dituzu  
zure sen ona agertuz,  
aldi batzutan zure almenak  
azkeneraiño beartuz;  
besterik gabe agiri zaizu  
zerbait zerana talentuz,  
komeni bada serbitu zaitez  
gaiñerakoak serbituz.

5

Dudik gabea zuk liburua  
asko jasoko zendula,  
esperientzi dunik ordea  
etzan jaioko sekula;  
aritu zaite kristau legea  
beti gogoan dezula,  
eta denporak bear dezuna  
berak emango dizula.

6

Ain zuzen zure senide eta  
baita're aita ta ama,  
zuk medikutza lortzean danok  
degu arrera on bana;  
danon aldetik jaso ezazu  
biotzezko zoriona,  
*Opus Dei*-koa artu zendun da  
ona emen aitan diploma.

Egillearen paperetatik.

# Urteberriari, 1993

---

1  
Urte Berria etorri  
poliki-poliki,  
eguna argitu zun  
goizean alaiki;  
mezetara joateko  
oietikan jaiki,  
kaleetan gazteak  
jostatzen ederki,  
ikusi zezakean  
nai aiña antzerki.

2  
Milla bederatzireun  
larogeta amairu.  
jendeak beldurrikan  
asko zutaz badu;  
barren-barrendik egin  
nai dizut erregu:  
gauzak konpondutzeko  
izan beizu modu,  
ez gaitzatu estutu,  
arren, geiegi zu,

3  
Aspaldi onla izaten  
gu oituak gauzka,  
egiteko garaian  
beti zerbait kozka;  
bitarte gasturako  
denbora gaiñezka,  
orain krisia dala  
ta emengo kezka;  
gugana ez zuzendu,  
gure errua ezta.

4  
Begiratu ezkeru  
pasa dan aldira,  
geienak joaten ziran  
txikitik aundira;  
gutxitik asi eta  
gero ugarira,  
aspaldi gertatuak  
alderantziz dira,  
gezurra bada ez bedi  
iritxi egira.

5  
Gutxi batzun eskutan  
baizik ezpadago,  
ezak buruausteak  
dizkigu emango;  
artuko genituzke  
makiña bat ego,  
ez giñake krisien  
menpean egongo,  
dalako diru beltza  
danontzat balego.

Jubilatuena aldizkaria XIX

# Bedeinkatutako jakiak

---

1

Jubilatuak ibiltzeko gai  
geranak nor bere kasa,  
giro danean ibiltzen gera  
or-emen denbora pasa;  
kontatzen noan arazo auxe  
ezta oraingoxe gauza,  
nere barruan ixildutzea  
ordea etzat erreza.

2

Oraindik egun asko ez tala  
etxetik irten nintzan da,  
irakurtzeko egunkaria  
neurekin eskutan nun da;  
bizitzen geran etxetik gertu  
daukagu janari denda,  
an inguruan exeri nintzan  
giro txarra etzegon da.

3

Oi dan bezela dendako atean  
saski batzuek zeuzkaten:  
fruta ta beste gaiñerakoak,  
ogia ere bai baten;  
nun ikusten det saski bateri  
txakur bat pixa egiten,  
gero beste bi urbildu ziran  
eta berdin egin zuten.

4

Urte luzetan ni ogibidez  
kale-zain izan nintzan da,  
orduane ere olaxe giñan  
txakurrak txakur ziran da;  
aritzen giñan iñola moduz  
gauz onik egin ezinda,  
ona gaur ere zer gertatzen dan  
ainbeste urte joanda.

5

Ainbat arazo konpondutzeko  
degunez orain bolara,  
batzuk lenean jarraitutzeko  
oraindik lengo modura;  
nai ez degunik iñola moduz  
etzaigu sartzen burura,  
noiz artu bear ote degu guk  
norbere gauzen ardura?

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1993.03.21

# Lazkao-txiki il zaigu

---

1

Gertatu danak nadukalarik  
biotzean ikutua,  
bertso batzuek moldatzera naiz  
bein da berriz beartua;  
Lazkao-txikik beste guztien  
gisara nau agurtua,  
Jaun da Jabeak bere argitan  
izan dezala artua.

2

Nere gisara ari diranak  
ez dira gutxi izango,  
zan modukoa izan dalarik  
nork ez du zerbait egingo?  
Argitasunez zein aberats zan  
ez degu iñork jakingo,  
guztion arte ere ez degu  
ark bear beste esango.

3

Nunbait maiz xamar entzungo zuan  
gorputz txikiko izanik,  
erantzutean bera etzegen  
zerbait esaten etzunik;  
iñoiz bertsoan ari zanean  
ala nion nik entzunik:  
metruen bidez ez dala neurtzen  
gizonen aunditasunik.

4

Bizi zan arte txikien otsa  
franko izan du munduan,  
baiña aundiak berdintzen zekin  
jarri ezkeron onduan;  
oartu gera gure artetik  
aldegin digun orduan:  
txikia zanak zer neurritako  
utsunea utzi duan.

5

Nik ezin neurtu eta ez esan  
aura zertarako zan gai.  
ikusten nuan lekuan beti  
ikusi izan nun alai;  
umore onen almazen bat zan,  
ortik beti zuan salgai,  
saltzeko baiño geio zunean  
erregalatu ere bai.

*El Diario Vasco*, 1993.04.18

# Aitz-gorri

---

1

Gogoratuaz ikusi zana  
pasa dan asteburuan,  
alabearrez bertsoarako  
gaia sortu dit beruan.  
Ango ermita konpondutzeko  
bear zutena eruan,  
Aitz-gorri gaillur-gaillurreraño  
aixa elikopteruan.

2

Ango artzaiak guztiz oituak  
jaun da jabe an izaten,  
bakardadeko bizitza ere,  
bai, ezagutuko zuten;  
era orretan asiak daude  
sateliteak ikusten,  
pentsatu baiño eztago aiek  
orain zer esango duten.

3

Sateliteak aidetik eta  
sateliteak lurretik,  
ainbat alditan izutzeraiño  
ardiak beren larretik;  
artzaiak orrek ateratzen du  
zearo bere onetik,  
ez al diote orain esango:  
Aldegin emen urretik?

4

Aurrerapenen gain ainbat aldiz  
arin mintzatuak gaude,  
alegia ezer on gutxi baizik  
al duten gizonen alde.  
Orrelakoak ikusi eta  
nik au egiten det galde:  
onezkero gu nola ote giñan  
aurrerapenikan gabe?

5

Aurrerapena bizkorra degu  
eta ez du bazterrikan,  
guztiok gabiltz iñola moduz  
eman ezinda urrikan;  
ajola asko ez liguteke  
ez bagendu bearrikan,  
ain zuzen bera gertatzen zaigu  
jartzen gaituna korrikan.

*Egillearen paperetatik  
El Diario Vasco, 1993.08.01*



Aitz-gorriko puntan.

# Uribarri auzoari

---

1  
Uribarri auzoa,  
eskeintzen natzaizu,  
iraillaren erdian  
jaiak baidituzu.  
Urtean bi alditan  
oituak gauzkazu,  
geiegizkoa danik  
ezpadeizkiozu,  
zertan ari geraden  
zuk jakingo dezu.

2  
Bertsozale dan onek  
abestuko dizu,  
joan dan aspaldian  
auzotarra dezu,  
Xelebrea naizela  
esango didazu,  
orretan jarraitzeko  
asmoa badezu,  
beste santu berri bat  
aukera zeinkezu.

3  
Gertatzera ezkeroz  
erabat alaiak,  
zein ez gera aitortzen  
maiz festazaliak?  
Baiña gertatzen dira  
era ortan xeiak.  
egitekotan egin  
ederrak, aundiak,  
txiki gelditzen dira  
santu gabe jaiak.

4  
Kontutan artuz geran  
bizilagun pilla,  
jaiak antolatzeko  
badaukagu tailla.  
Errez esaten baita  
gera zazpi milla,  
bada aintzat artzeko  
ainbesteko mailla,  
geiengokoen naia  
kunplitu dedilla.

5  
Lotu al baliteke  
zertxobait berezi,  
jaiak antolatzea  
duanik merezi,  
bere billa mogidu  
gindezke lenbizi,  
alde egiñaz zenbait  
bide aldrebesei,  
gure gizalegak  
dezan irabazi.

6  
Jaiak artu ditzagun  
danok bero-bero;  
arren, ez bedi iñor  
ari geldo-geldo.  
Segi bukatu arte  
zearo-zearo,  
biotzeko auzotarrok  
ondo-ondo igaro,  
etortzen zaizkigunak  
ondo artu gero.

Egillearen paperetatik

# Gabon jaiak, 1991-1992

---

1

San Tomasetan ekin genion  
pasa arte Erregiak,  
tarte orretan aseak gera  
gose eta egarriak;  
ezin ulertu igarotako  
gose eta mixeriak,  
bere neurriak ditu ordea  
baita ere geiegiak.

2

“Osasuna ta bakea” degu  
egunotan maiz entzunik,  
nola lezake ez burutzea  
alde ainbeste egonik?  
Ez al dirudi ez ote degun  
egizko maitetasunik?  
Aitatu utsez ezta betetzen  
bake osoen utsunik.

3

Osasuna ta bake osorik  
iñork ez dauka eskutik,  
baiña zertxobait danok al degu  
bakoitzak bere aldetik;  
gertatzen dana, beti badira  
jaten dutenak gerratik,  
ez ezagutu arren bakerik  
etzaio tenak inportik.

4

Zarra bukatu eta geranok  
asi urte berriakin,  
seguru asko geientsuenok  
bukatzeko asmoakin;  
ez dagokigu jakiterikan  
zer gerta leiken gurekin,  
orain bigarren ume-arora  
itzultzen goazenokin.

5

Aurtzaro eta gaztearoz  
ez naiz gutxi gogoratzen,  
ortzak erortzen ziran aiñean  
berriak ziran agertzen;  
aspaldi ontan gauzak ez dira  
ordea ala gertatzen,  
zarrak erortzen bait dira baiña  
berririk ezta jaiotzen.

6

Gizona ere beti izatera  
ezta sortutzen mundura,  
sartzen dana da beste izaki  
guztiak diran modura;  
alde gaiztoa ulertzen dana  
lendabizitik gerora,  
lendabiko ume izatetik  
eta bigarregokora.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1992.01.18



# Ezin ulertu iñolan Doiñua: Ezkondu eta ezkongai

---

1

Asita gauden urtia  
zenbatgarren zenbakia  
bertsoz nai det esatia;  
bi millarako oraindik dago  
beste zortziren tartia;  
zer luzea dan katia,  
ez da posible etetia,  
ekarri beza pakia.

2

Bagoaz bi millaraiño,  
gezurra eta engaiño,  
pake gabe oraindaiño.  
Ez al dirudi sarritan gerra  
ote zaigun atsegiño?  
Nola leike ontaraiño?  
Esango det zertaraiño:  
bizia ukatzeraiño.

3

Ez zigutena agindu,  
guk geuk aukeratu degu,  
nunbait gogozkoa zaigu;  
etengabeko setan gabiltza  
sesio eta endredu;  
batzuek besteak mindu,  
zeiñek gu ortan berdindu?  
Naiko egingo bagendu...

4

Begiratuaz nun-naira,  
ego edo iparrera,  
aparteko lurraldera,  
nola dabiltzan berealaxe  
kontuan jausiko gera:  
badute gure tankera,  
gerratik bada aukera,  
baiña gu ere bagera.

5

Ez al gera gu ibili:  
ez emateko Madrili  
iñolaz diru geiegi?  
Gero ordea amets gozoak  
sortutakoan ugari;  
tentazioan erori,  
eraso loteriari,  
danak bertara bidali.

6

Lendabizikoan teman,  
ez dezaizkiogun eman,  
baiña gero ara nolan:  
millaka milloi loteriari  
Gabonetako boladan;  
sinisten ere dago lan,  
ezin ulertu iñolan,  
gure borondatez eman.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1991.02.16

## Dalako 3 *en raya* leiaketa

---

1

*El Diario Vasco* Euskadin  
ain ezaguna nola dan,  
bi illabete oso-osoa  
aritu gaitu lan da lan;  
iru uts edo iru ekixa  
bear aurkitu illaran,  
leiaketa au ezpaudirudi  
baiña nolako zailla dan!

2

Egunkaria ordainduz gero  
goren-gorengo neurritan,  
lana ugari bezeruori  
ekartzen digu alditan;  
prest agertzean banatutzeko  
bost milloiraño saritan,  
eztago gaizki bere kutxatik  
banatzekotan egitan.

3

Maite detela asarre jartzen  
bainau astero-astero,  
besteak baiño garestiago  
saltzen du larunbatero.  
Zer dala eta egun orretan  
ordea garestiago?  
Ola sariak banatu leizke  
aurrez kobratu ta gero.

4

Egun guztitan dezu zoria  
millaka etxetan sartzeko;  
gauza jakiña zerbaitgaitio  
zaitue aukeratuko.  
Larunbatetan garestiago  
ez baziña gertatuko,  
askoz arrera alaiagoa  
baizenduke aurkituko.

5

Gisa ontako mintzakerarik  
bai ote dezu ulertzen?  
Ori itxaro izan banuan  
lenago ekingo nintzen.  
Zailla deritzat pillatu ezik  
opariarik eskeintzen;  
kobratzen duten danak ez dute  
jakiten sari banatzen.

6

Gu bezeruok diru usairik  
baldin iñundik artzera,  
pixka batgaitik iñoiz ez gera  
gelditu izan atzera;  
amorru biziz kartoian dauden  
numeroak urratzera,  
zuaitz azpira ezkurran billa  
doan ardien antzera.

Egillearen paperetatik  
*El Diario Vasco*, 1992.04.22

# Uribarriko jaiak, 1992

---

1

Auzotar biotz-biotzekoak,  
gogoratzuz zuen deia,  
une auetan badet zertxobait  
bertsotan idatzi naia;  
ain aproposa gertatzen dana  
oraingo urte garaia,  
mundu osoan egungoa da  
bai oporra ta bai jaia.

2

Auzoan jaiak eratu asmoz  
oraingo opor giruan,  
lanik galtzeke antolatzea  
dezutelarik buruan,  
azken urtetan bezela beraz  
Santa Kruzak inguruan;  
iraillaren amaikan eta  
amabi ta amairuan.

3

Opor garaiko jai eratzea  
alaiagoa zaizute,  
nere ustetan zuek orrela  
adierazten dezute;  
bertso batzukin ni ere alan  
zuen artean nauzute,  
auzotar anai-arrebak guztiz  
txalogarriak zerate.

4

Miseriarik ezta gustatzen  
irixtean zardadera,  
nai izaten da ikusi gauzak  
dijoaztela ohera;  
nere iritzian berdintsua da  
gure auzoko egoera,  
igaztik eta aurtena ezta  
emen milla gora-bera.

5

Zarrak ez geran artean danok  
inbidia ta abarra,  
ille orien zaletasunez  
berak beltza duan aura;  
zartzara danak zuritzen dira  
eta ordun zaigu parra,  
naikoa pozik baldin zearo  
soilduta jartzen ezpada.

6

Ille oria, naiz dala beltza,  
berdin da azkenerako,  
naiz dala bata edo bestea  
zuritutzen diralako.  
Era berean gure biotzak  
al zaizkigu aldatuko?  
Ez genezake ontaz itzegin  
ikusten ez degulako.

7

Bat agirian dagoalarik  
ta bestea izkutuan,  
iñolaz ezin biziko gera  
berdiñak diralakuan;  
alde aundia dago ta izan  
bearra dago kontuan,  
bat koloretan gustatzen degu  
eta bestea gustuan.

8

Ez dakit bata badanik ere  
besteakin senidia,  
bata guztiz da serioa ta  
bestea berriz alaia;  
bat ilusio utsa dalarik  
bestea bait da egia,  
bien artean osatzen dute  
munduko bizibidia.

Urte bereko egitarauan

# Parroki berriztatua

---

1

Arrasateko Uribarriko  
auzo jendez tajutuan,  
bertako jaiak San Bartolomez  
ospatuak genituan.  
Lendabiziko bear det esan  
nere iztegi neurtuan  
elizkizunak izan zirala  
Parroki berriztatuan.

2

Nekazaritza indartsuago  
auzoan zegon garaian,  
degun eliza txiki samarra  
gertatuko zan agian.  
Baiña milla ta bederatzireun  
pamilia geranian,  
oraindik gertu ote gaude gu  
jarraituzeko lenian?

3

Txikia danez gaiñera zegon  
ia naiko narrastua,  
margolariak eta abarrek  
dute orain berriztua.  
Kosta danean beste itxura  
baitu beregan artua,  
baiña neurritan lenago zegon  
gisara da gelditua.

4

Iñun bada-ta elizarentzat  
gertatzen geranez zeken,  
nik ezin jakin ainbesterekin  
konporma ote gindezken.  
Iñun ez aiña badakigu an  
ekonomiko izaten,  
eztegu nunbait ark emandako  
interesarik ikusten.

5

Ondo gerala, guk badakigu  
zer egin arazo orri:  
elizan ezin kabitua gu  
ez gaituzte jartzen larri.  
Ebanjelio arrek diona  
gertatzen zaiguna guri:  
uzta ugaria dagoan arren  
langilleak oso urri.

*El Diario Vasco, 1992.09.06*

# Juanito Arzamendi jubilatuta da

---

1

Goi-goi maillako musikaria  
bizi osoan izanik,  
ta *Arrasate Musical*-eko  
zuzendaria zalarik,  
Santa Zezili egunean du  
despeida agurra egiñik,  
jubilatzea erabaki du  
gure Juan Arzamendik.

2

Musikagintzan zure bizitza  
osoa joan zaizuna,  
erri osoak ixtimatuta  
pozik onartu dizuna.  
Bere izena goian uztea  
zuk zeure eginkizuna,  
berealakoan ezta aztuko  
eginda utzi dezuna.

3

Asieratik zu asi maite  
zendun musikako bandan,  
ikusi zendun alper-alperrik  
ari ziñala lan da lan.  
Talde gaztea berria sortu  
eta jarri zendun modan,  
ta Arrasaten izena dezu  
munduan zear eraman.

4

Ogibideaz gizonak zerbait  
bere bizitzan bear du,  
zuri musika gustatzen eta  
berari zenion eldu.  
Orretarako gai danak ezin  
erririk iñola saldu,  
Arrasateko frutua dezu  
ainbat tokitan zabaldu.

5

Zoritxarrean ogibideak  
jarrita daude legorrak,  
aspaldi ontan eztitu gutxi  
jubilatuta derrigorak.  
Zureak gerta bitez, Juanito,  
luze bezin emankorrek,  
biotz-biotzez opa dizkitzu  
maite zaitun Arriolak.

*El Diario Vasco*, 1992.12.13

# Mai inguru batean

---

1

Pentsatuarren bizitza dala gorunzka eta berunzka izate onek milla eta bat izkutu beragan dauzka; uste gutxien dezun garaian jartzen zaizkitzu trabeska, beti zerbaiten kezkea edo goibelak artuak gauzka.

2

Lengo egunean egunkarian ala irakurtzen nuan: aur jaiotzea nola erabat gutxiagotzen dijoan; esaldi onek baldin jarraitu bear badu luzaroan, utsune ori pagatu bear degula geroagoan.

3

Mai ingurua argazki baten jakintsuz jantzia dago, katedratiko eta olako jentia dira egongo; konturatzen naiz, ez diran arren Jainkoa bera izango, seguru nago arinkeririk ez dutela an esango.

4

Aien esanak ez dira aintzat ez artzeko modukoak; gutxiagotzen joango dira beraz ogei urtekoak; ta alderantziz ugarituaz irurogei urtekoak, gazterik ezak danetik eza dakarkila ta olakoak.

5

Konferentziak antolatuz zenbat ziklo ta billera, ; jakintsu aien ain zuzen ere lan oietan ari dira; dakartzkilarik gizonak gauzak berak deritzan neurrira, aur jaiotzea jeisten ari da gutxinaz irutik bira,

6

Lenago ere aurrak aztea etzan izango debalde, arazo ortan al dago lendik onara ainbeste alde? Gazteak orain ortaraiñoxe eskolatuak baidaude, gauzak orrelan jarraitzekotan zarrok konponduta gaude,

Egillearen paperetatik

# Udaberria

---

1

Negua igaro ta  
orain Udaberri,  
bera iritxi arte  
danok giñan larri;  
negurik ez gendula  
genion alkarri,  
baiña oni arpegi  
alaiua jarri.

2

Negua nolanaitan  
gertatzen da gorri,  
Udaberria berak  
baitdigu ekarri;  
kukua bera ere  
pasa ta etorri,  
orain lorak irtengo  
dira apaingarri.

3

Txantxangorria zeñek  
ez du ezagutzen?  
Txori onen piñeza  
beste bat serbitzen;  
onen abian arrek  
arrautza du jartzen,  
kukuari umea  
baitdio azitzen.

4

Kukuak betidanik  
alferren famia,  
urtero egiten du  
azaldu-aldia;  
udaberrian egin  
izandu bidaia,  
etortzen danerako  
gertu neskamia.

5

Olaxe bizitzen da  
kukua eroso,  
bere umea bestek  
bear dio jaso;  
txantxangorria berriz  
prestu eta gozo,  
alferra gertatzen da  
sarri suertoso.

6

Barkatu baiña ez al da  
ama asko samar  
kukuen gisakoak  
mundu osoan zear?  
Badute ere aurrik  
asti gabe ta abar,  
aziko baldin badu  
beste norbait bear.

Egillearen paperetatik



# Makilla

---

1

Zartua dagon aitona dabil  
ainbestean berebaten,  
irurogeta amasei urte  
bete bear ditut aurten;  
anai arteko gerra tristea  
ogei nitunean irten,  
nigan nituan alde onenak  
ordun ondatu zizkaten.

2

Sasoi ona ta osasun ona,  
erdiak an nitun galdu;  
ordun gelditu zitzaidan pixkak  
orain ia-ia alde du;  
ikuspidea, entzunpidea  
ta ibilpideak auldu,  
bururatu zait makilla batek  
ote niteken lagundu.

3

Ezer besterik ezta agiri  
sastraka edo arkaitza,  
makilla gaia nik aukeratu  
neretzat elorri beltza;  
azal aldetik koskortsua da,  
barrutik guztiz trakesa,  
badu lenago bizi izan dan  
toki baldar aren antza.

4

Nere makilla biotzekoa,  
lenen zaitut agurtuko,  
seguru nago aldaketa zuk  
dirazula onartuko.  
Ez ote zera zai egondua  
noiz nor eske agertuko?  
Ondo portatu zaite nerekin,  
ondo zaitut eskertuko.

5

Naiz eta bizi toki latzean  
etzeunden zu aspertuta,  
billa joana aitona baita  
lagun premiak artuta;  
izan lezake biontzat obe  
gauzak egiz argituta,  
eske joan dana etzaizu joan  
zurekin errukituta.

6

Itxaropena laguntza ona  
zuk dirazula egingo,  
iñola moduz ez dirazula  
neregandik aldegingo;  
nere eskuan zaitudalarik  
seguru bait naiz joango.  
zalantzik gabe biok baitgera  
irabazian irtengo.

7

Aitona zarrak erreza dauka  
baimena edo balantza,  
estrapuzurik gabe ezin det  
mugitu nere gorputza;  
ola dalarik premizkoa det,  
makilla, zure laguntza,  
badaukat zutik erabiliko  
nazula nik konfiantza.

8

Nik nai ez arren okerra izanik  
pixka bat ondo aldera,  
egokiotzat usatzen zaitut  
eskuan goikoaz bera;  
egiten dizut erregu zuri  
edo nere eskaera:  
zuk erabili nazazula ni,  
arren, beti buruz gora.

Egillearen paperetatik

# Orexa

---

1

Orexako erria,  
naiz nola ez jakin,  
mintza bear batzuek  
baditut zurekin;  
ezin gustatu nundik  
eta nola ekin,  
Gipuzkun txikiena  
zu zeran orrekin,  
Orixe zuk semea  
zendunik ez nekin.

2

Nere jakituriak  
dira berezkoak,  
ez librutik jasoak  
baizik buruzkoak;  
naiz irakurtze gaiak  
izan gogozkoak,  
olakoxeak gera  
asko ta askoak;  
gero egintzak ere  
alamoduzkoak.

3

Len maillan azaldu naiz  
nor ez alegindu?  
Amets ori ordea  
danok ezin gaindu.  
Osasunik ez iñork  
origaitik galdu,  
alper lanean norbait  
aritu bear du,  
itsasoan euria  
olaxe egiten du.

4

Orexa, izan zera  
erri apaltsua,  
izaera osoan  
guztiz paketsua;  
txikia izan arren  
ez baiña antzua,  
seme bat zuk sortua  
euskaldun sutsua,  
Orixe eman zendun  
gizon ospetsua.

5

Oroituaz zuk seme  
izan zendun aura,  
argan ariko zera  
gora eta gora;  
norabait nai jaso ta  
ez dakizu nora;  
arengan jartzen dezu  
zuk zure ardura,  
amak semeagana  
jartzen dun modura.

6

Beraz Orixe aundia  
olerkari gendun,  
idazle puntakoa,  
gaiñera euskaldun;  
zenbaitek nik ez dakit  
nola ikasten dun,  
nik ere obe nuan  
berdin egin banun,  
orain ez nun egingo  
ainbat lelo-jardun.

7

Ezagutu ditugu  
izatez artzaiak,  
ez nolabaitekoak,  
gaiñera trebiak,  
izan diranak beren  
kas olerkariak;  
beste zerbait bear du  
baiña idazliak,  
etzaizka aski bere  
kasako doaiak.

8

Lekuko izanak gu  
batzuk nola gauden,  
esan genezakegu  
gauzak nola zeuden;  
urte batzun buruan  
orain nola dauden,  
ikasteko moduak  
orain daude emen,  
olako aukerarik  
ez gendun izan len.

Egillearen paperetatik

# Ezta parabola

---

1

Bertsuak tentatzen naute,  
neregan tokia dute,  
biotzerako alaitasuna  
baiño ez dakarte;  
oraindik ez ditut bete,  
baiña ez dira aparte,  
gaiñean ditut irurogeta  
amazazpi urte.

2

Mundu ontara irixtean,  
zerbait bereizten astean,  
batez e gure aurreko danak  
joaten ikustean;  
urruti zegon ustean,  
lenbizitik ainbestean,  
berela nintzan asi ordea  
pentsatzen bestean.

3

Lelen bertsuan esana  
nere edade zuzena,  
besterik gabe agiri da oso  
umea ez naizena;  
zati aldiz erosoena,  
bizitza onen luzeena,  
beldur naiz palta dana ote dan  
oraindik latzena.

4

Gizonaren izaera  
berialaxe gain bera;  
oartutzeko astirik gabe  
moztu ibillera;  
bista gutxitu erdira,  
soiñurik ez belarrira;  
garai bateko sobrante danak  
badatoz neurrira.

5

Mundu aldi laburrian,  
zartzaroaren erdian,  
pasatzen ez dan moda au jartzen  
bai zaigu aurrian;  
gaudenen azkena urrian,  
bestearen atarian,  
zaintzen gaituzun aingerua, egon  
zaitez guardian.

6

Segitu naiak irauten,  
poza berak du ekarten,  
otordura ni orain artean  
gogoz naiz joaten.  
Gero zer egiten deten?  
Ez naiz yogan jarduten,  
jan da edanak indar berririk  
ez baitu ematen.

7

Sendagiñaren praktika,  
bakoitzak bere taktika,  
konta eziñak ebakuntzetan  
arrituz aldika;  
beste batzuek korrika,  
agintzen dute botika,  
beste lantegi guztien gisa  
beren politika.

8

Gizona planta elbarrian,  
naigabea zun gerrian,  
berrogei eta amabost urte  
zituan urrian;  
ez egoera larrian,  
baiña zerbait bearrian;  
«Ebakuntzik ez –zioten– goiz da  
zure edadian».

9

Nik egin nuan zelata  
neu antzera nengon eta;  
gaba eldu ta gorputza miñez  
ezta berriketa;  
zerbait baneukan sobre ta  
zioten: «Zarra zaude ta  
zure adiñean ebakuntzarik  
obe egin ezta».

10

Usatzen dute eskola,  
eurak baidakite nola,  
berrogei eta amabost urte  
oraindik goiz dala;  
ogei ta geroagora  
zarregia dagoala,  
ez al dirudi orrek badala  
naiko parabola?

1993

Egillearen paperetatik

# Jaiak Uribarri auzoan, 1993

---

1

Zeregin berdiña nun  
zala urtebete,  
orain berriz berriro  
zuekin nazute;  
jaiak antolatzeke  
bidean nik uste,  
biotzeko auzotarrak,  
zer moduz zerate?

2

Beraz zerate jaiak  
antolatu naian,  
iñoizkorik onenak  
gaiñera agian,  
izango diralarik  
urtego irailian,  
amarrean, amaikan  
eta amabian.

3

Begira jarri eta  
gaur noranaitara  
gure izate onek  
sartzen du ikara.  
Ez al zoazte zuek  
ere orretara,  
agian *a mal tiempo*  
jarriz *buena cara*?

4

Arrasaten gizon bat  
nuan ezagutu,  
esaten zekiana  
makiña bat kontu;  
jatorrak dira eta  
ezin ditut aztu,  
ark zion urak eta  
munak txandan altu.

5

Ezagutu degunok  
lenago pasia,  
urak altuan ere  
gera ikusia;  
danetik dago emen  
gaur zer eresia,  
diru aldetik degu  
degun eskasia.

6

Zaletasun aundirik  
aitatzeko ez nun,  
baiña etorkizuna  
ezta agiri leun;  
eskuetan ogei ta  
bear dituzu eun,  
urtego urterako  
ia obetzen degun.

Egillearen paperetatik

# Berogailua

---

1

Berogailuak etxebizitzan  
beti uda eta negu,  
mesede pranko egiñik ere  
traba ere egiten du;  
uda garaia datorrenean  
guk beti oi degu kendu,  
aparte nunbait beretzat aiña  
toki beti izaten du.

2

San Juanetan goian zeundenez  
oraindik jaisteke bera,  
aurtengo urteak ez dizu eman  
geiegi opor aukera;  
geroztik iñoiz egun batzutan  
berotik aseak gera,  
orain San Simon baiño lenago  
berriro goian al zera?

3

Uda azken onek egun alairik  
oso baiditu banaka,  
gutxiñaz ere gu zarrontzako  
erruki asko ez dauka;  
berogailua bear etxean  
edo dalako estupa,  
zer egin bear degu asita  
negu gutziko eztulka?

4

Zure oporrak geiengoetan  
izaten dira alaiak,  
zein atsegiñak gertatzen diran  
paltatzen zeran aldiak!  
Toki bearra derrigor dezu  
serbitutzeko premiak,  
nai genituzke gozatu berriz  
paltatzen zeran garaiak.

5

Ain zuzen ere oraindik orain  
ditugularik artuak,  
gaixo aldiak uxatutzeko  
gripen aurkako txertuak;  
ala ta guzti ez gaitezela  
bizi geiegi poztuak,  
gure emengo denborak daude  
metrorik gabe neurtuak.

*El Diario Vasco, 1993.10.14*



## *Sicilia-n*

---

1

Bizitza biziarren  
neurri pormalian,  
zartzarora geienok  
ezin ibilian.  
Saiatzen gera uxatzen  
saiatu alian,  
bañu-etxean egon  
gera *Sicilia*-n.

2

Norbait ari diteke  
«nun dago?» galdean,  
ibilkari txarrentzat  
eztago aldean.  
Aragoiek zaintzen du  
bere magalean,  
Jaraba izeneko  
erri apalean.

3

Aruntz joan bear da  
gora eta gora,  
zazpireun eta erdi  
duanez altura.  
Aberasten duana  
pruta eta ura,  
lasai atsedentzeko  
toki ona ura.

4

Emen ikusten eztan  
zerbait gaur nola dan,  
txundituta gera naiz  
ikusteakin an.  
Eztakit aruntz juna  
edo eurena dan,  
prozesioak daude  
erri artan modan.

5

Jaioterria ezin  
utziz bertan bera,  
urtero joaten naiz  
jaietan Debara.  
San Roke zaindaria  
oi dute atera,  
Jaraban nun ikusten  
dedan berriz bera.

*El Diario Vasco*, 1993.19.23

# Sagardo garestia

---

1

Ogeta amar pezta ordaindu  
ezkero kilo sagarra,  
derrigor irten bearco zaio  
sagardo karu samarra;  
lantegi ortan ari diranak  
egin dute deadarra,  
emen norbaitek dauka burua  
pixkat nekatu bearra.

2

Ezta milla urte gertatu dala  
au zan berrogeta lauan,  
Gipuzkoatik zuten sagarra  
Asturiasa eruan;  
uste detenez erosi zuten  
errial bi inguruan,  
gertatu zana ikusi gendun  
pixka bat geroaguan.

3

Ainbat alditan neurri on gabe  
merke eta garestian,  
nekazaria erabat etsi  
eta jartzeko bestian;  
sagardo ontziak merke betiak  
ziran ordun Donostian,  
zozuentzako sagarra erruz  
gelditu zan sagastian.

4

Zorigaitzean Euskal Erria  
aldatu zitzaigun planez,  
aldakuntza ere sustantzizkoa  
ikusten ari geranez;  
orain eztago buruausterik  
sagarraren ugalmenez,  
sagarra atera eta piñua  
sartu zutenetik ordez.

5

Bearbada aien buruan etzan  
alako gauzik egongo,  
sagardo ona eta merkea  
al gendun gero edango?  
Baiña gauza bat bazekitela,  
orretan ni ziur nago:  
piñuak iñoiz iñola moduz  
sagarrik ez dula emango.

*El Diario Vasco*, 1993.12.12

# Illerri berria

---

1

Arrasaten guk illerri zarra  
tokiz gendun erosoia,  
erri barruan erori zan da  
ori gendun arazoa!  
San Kristobalko gaiña dalarik  
toki guztiz aidosoa,  
buruaustea ugarirekin  
bertara dute jasoia.

2

Ain aldaketa kostosoa ta  
arazoz betetakoa,  
korapillo bat zirudin ala  
ezin askatutakoa.  
Egin bearra zegoen zer bait  
ori edo antzekoa,  
ikusten danez ezta ordea  
guztien gustorakoa.

3

Ezin antzeman zenbait personek  
bere baitan zer dioten,  
lenago zaila gertatu dana  
areagotu nai duten.  
Gorputz bakarra an lur emana  
zer bear ote zioten?  
Kalte egiñaz nago geiago  
gozatutzen ote duten.

4

Gaitz orren muiña zoritxarreko  
modako langabezia,  
eztaigun aztu batak badula  
besteaz zer ikusia,  
Belaunbikotuz errezorako  
denbora dute luzia,  
ala ta guztiz illerriakin  
sartzea gauz itxusia.

5

Etorri geran guztiok gera  
mundu ontatik joango,  
Jaunak nai duan artean baizik  
ez gera emen egongo.  
Badet beldurra gerra usaia  
ote degun eramango,  
lurperatuta ere pakerik  
ez ote degun izango.

*El Diario Vasco, 1994.01.16*

# Ezagutu gendun era

---

1

Jangaiak neurtzen zizkigutena  
ezagutu gendun era,  
aura igaro gendunak batzuk  
oraindik emen bagera;  
entsaio ura guzti-guztiak  
etzuten pasa aurrera,  
ikasi gendun zer alde dagon  
sabel utsetik asera.

2

Eguna joan, eguna etorri,  
barrena gaizki beterik,  
gutxi ta aula banatzen zigun  
ezpaitzegoen besterik;  
urtea joan, urtea etorri,  
ez obetzeko itxurik,  
garai aietan etzuan iñork  
aitatzen gose grebarik.

3

Orain ainbeste urtera berriz  
zardadea dala eta,  
jana neurrian erabiltzeko  
adierazten digu-ta;  
Osakidetza arduratzen da  
garrantzizkoa dala ta;  
neri tristura ematen berriz  
lengoa gogoratuta.

4

Sendagilleak onela dio:  
«Goguan izan ezazu:  
zure gorputza neurtu ezker  
au pixu au dagokizu;  
mailla ontatik bestera tarte  
zaintzea komeni zaizu,  
orretarako zenbat artu zeuk  
neurtzen jakin bear dezu».

5

Ordun etzegen aukeratzetik  
olako edo alako,  
guztia neurtzen ziguten aixa  
ezer etzegoalako;  
gaur besterik da, ari zaizkigu  
osasunen onerako,  
pozgarri baiño ezta gertatzen  
berdiñak ez diralako.

6

Gaur gure esku badegu zerbait  
bai lenago eztakoa,  
baliatuzten saiatu eta  
bizia luzatzekoa;  
beste zori bat badegu baiña  
itxusi jarraitzekoa,  
noiz da garaia gure izaera  
ederragotzekoa?

*El Diario Vasco, 1994.06.25*

# Ekolojista

---

1

Noizean beinka entzuten ditut  
zenbat esan mota polit:  
ekolojista piña naizela  
eta antzerako zerbait;  
atsegin zaidan doaia baita  
alde erantzungo balit,  
gosea baizik ez ematekoz  
zer ajola izan bear dit?

2

Eldu zanean perrejil azi  
pixka bat gorde nuan da,  
ain zuzen ordun ereitekoa  
denbora ere etzan da:  
gero garaia eldu zanean  
erein asmoz joan nintzan da,  
lastoak utsik aurkitu nitun  
aleak txoriak janda.

3

Zer naigabea neretzat lasto  
oiek utsik aurkituak,  
une artatik ikusi nitun  
gauzak naiko okertuak;  
perrejillakin osatu naian  
neurriak nitun artuak,  
arreganako zer errukia  
txori madarikatuak!

4

Erosi nuan, bearko erosi,  
eta eregin lasterka,  
ordea ezta ortan bukatu,  
badago beste petaka;  
ondorenean ikusten asi  
nintzan tarteka-tarteka:  
lurrean nastu nitun aziak  
biltzen txoriak azterka.

5

Bakar batzuek erne ziran da  
irteten asi ostuak,  
irten alean aietxek ere  
zituztelarik moztuak.  
Ekolojista piñarentzako  
zer nolako disgustuak!  
Ala ta ere maiteak ditut  
naiz izan txori gaiztuak.

6

Ekolojitza zer dan ezin det  
iñoiz ziurki aparta,  
gauza guztitan bezela nago  
biotza bear dala-ta;  
gaiztoak izan arren goserik  
izakiari ez opa,  
naiz adibidez norberetzako  
perrejilla bera falta.

1994

Egillearen paperetatik

# Berpiztua

---

1

Eraso ezkeru guk  
iñoiz desaidaka,  
aritu izan gera  
elkarri galdezka:  
«I, txori-malo ori,  
neretzat zer aiz ba?  
Euli baten pisuak  
botako induke ta».

2

Asko konturatzeke  
itxusi dagola,  
aritu izan gera  
alkarri gu ala:  
gaizki mintzatu arren  
ez nunbait ajola,  
eulia ala gizona  
nor da baiña aula?

3

Bizarra mozten ari  
nintzala lenguan,  
apaindegiko gelan  
degun lababuan,  
euli bat azaldu zan  
nere inguruan;  
gertatu zitzaidana  
oso det goguan.

4

Jamon aundirik egin  
gabe lenenguan,  
gogait eragin ziten  
geroxeaguan;  
ustez berriz irtengo  
etzuan moduan,  
rejilla zulotikan  
bera bota nuan.

5

Pixka bat geruago  
berpiztu antzera,  
bota nuan zulotik  
agertu atzera,  
azpitikan gaiñera  
aizea artzera;  
nere usteak or nun  
jun ziran utsera.

6

Ez dakit zalantzarik  
izan bear nuken,  
konparazio ori  
bidezkoa deten;  
buruari nekerik  
ari naiz ematen,  
gizonak olakorik  
al daki egiten?

7

Etzekienez etzun  
ezer itzegiten,  
bestela zer asiko  
ote zan esaten?  
Ustegabeak ola  
baitira izaten,  
eulia izan arren  
zarrara egin ziten.

8

Olako zerbait iñoiz  
naiz egon entzunda,  
pertsonek berpiztea  
nekeza izan da;  
alaxe bear ere  
benetan esanda,  
euliakin izutu  
egin bai nintzan da.

1994

Egillearen paperetatik

# Agiña

---

1

Ainbat urtean, larogei laster,  
serbitu ninduzun baiña,  
nere gorputzen zatia zera  
neregandik aldegiña;  
nere errota osatzen zendun,  
lana ugari egiña,  
emen betiko Jaungoikoa da,  
eskerrik asko, agiña.

2

Lana egiten zenidazunez  
ezerren aitzaki gabe,  
pozez ospatzen nuan nintzala  
erreminta onen jabe;  
eginkizuna betetzen zendun  
beti alai eta trebe,  
zer ikusgaia ixo dituzun  
guztiak pillan baleude!

3

Gaixo zeundena sendatzearren  
nola ez egin al dana?  
Saiatuarren alper-alperrik  
izan da zurekin dana;  
serbizioan zalantzik gabe  
igerriko zaio merma;  
nere gisara ondo oituak  
izan bearra du pena.

4

Okerragoa ezta alare  
utsagatik gertatua,  
nere ustean gaixotzat sano  
dagona neukan artua;  
sendagillea nere esanera  
baida berriz aritua,  
anestesia eskutan artuz  
gero zion barkatua.

5

Dirudienez maitetasuna  
beti ezta onerako,  
noizean beinka ustegabeen  
prestatzen da danerako;  
gertatu dana gertatu baita  
elkartasuna dalako:  
sano dagonak gaixoagatik  
min artutzen zualako.

6

Lenago ere oso-oso  
etzegon nere errota,  
zorigaitzean bere zatika  
batzuk zitzaizkion falta;  
orain berriro sanao ibili  
gera gaixotzat artuta,  
ainbat alditan gertatzen dana:  
errua ez dunai bota.

Egillearen paperetatik



# Jaiak Uribarrin, 1994

---

1

Lenago ere nago  
esana sarri-ta,  
denbora garestia  
dala igerrita:  
urte bat bestearen  
atzetik korrika,  
berriz jaiak eratzen  
dago Uribarri-ta:  
iraillen bederlatzi,  
amar da amaika.

2

Sentituarren ere  
egiz zenbait gogo,  
zer esan bear deten  
ez jakiñik nago.  
Ai gertatutxeago  
pixka bat banengo!  
Aukera egin bear  
lenengo-lenengo,  
zerbait esan bearra  
auzoari dago.

3

Agiri danak ez du  
azaldu bearrik;  
dirudinez ez luke  
izango indarrik.  
Zertan ari bear da  
esaten alperrik?  
Osatzen zutenean  
iru-lau basarrik,  
garai artako antzik  
ez du Uribarrik.

4

Fabrikan lan egiñez  
gazte ta ez ain gazte,  
besteak basarrian  
baratzan jo ta ke;  
aritzen ziralarik  
izardi ta neke,  
lanak etzitun aiek  
izututzen bate,  
ezagutu nitunak  
kontaktuko neuzke,

5

Jeikitzen onak ziran  
egunsentian goiz,  
etziran iñoiz egon  
altxatzeko nagiz;  
saillik etzuten uzten  
gero egun argiz,  
Gasteizko azoka osatzen  
zutelarik egiz,  
batzutan landarez ta  
bestetan maillukiz.

6

Kultura arazotan  
ez nijoa sartzen,  
gaiztoa da neretzat  
sail ori aztertzen;  
seguru gaurkoaz bat  
ez dala etortzen;  
maite zuten dirua,  
bazekiten zaintzen.  
etziran aktrizakin  
egongo pentsatzen.

Egillearen paperetatik



Joxe Manuel, emaztea eta biloba guztiak.



Arriola famili osoa.

# Egi-aundi-n

---

1

Geienak falta diran unean  
gozaten beren oporrak,  
irakurri al izan deguna  
errian gauden bakarrak:  
berriz itzultzen diran garaian  
Jaungoikoari eskerrak,  
berri onaren jabe izango  
dira arrasatearrak.

2

Gaur Egi-aundi izenarekin,  
Arrasaten Musakolan,  
gezur bakar bat izango etzan  
lekuan santa sekulan,  
Arregitarrak atsedean gabe  
ari diranak lan da lan,  
txakolin ona sortzen asiak  
zaizkigularik orain an.

3

Babarruna ta artoa egiten  
aztuaz goazte baiña  
zerbait alare ateratzean  
alako edari piña;  
ujolde koxkor baten gisara  
ugalduez alajaiña,  
matsa urtuaz sortzen digute  
Egi-aundin txakoliña.

4

Bai txukun asko ikasi ere  
gure Xabier Arregik,  
bestela ezin sortuko zuan  
orren edari ederrik;  
ondo egiñak eztu izaten  
ez eta baien bearrik,  
burua ez da lepo gaiñean  
erabiltzeko bakarrik.

5

Lanarengana zure eraso  
oiek ez dira makurrak,  
sail berri bati asterakoan  
iñoiz etzaude beldurrak;  
berri onek batek aitormen onak  
berez ditu derrigorrak,  
zorionikan anaikorrenak  
biotzetik Arriolak.

*El Diario Vasco, 1994.09.14*

# Zalantza

---

1

Ondarru izenakin,  
Izarraitz onduan,  
badakit basarri bat  
Azkoitik nun duan;  
angoakin senide  
kutsua genduan,  
amar amabi urte  
nitun inguruan,  
aitak San Isidrotan  
eraman ninduan.

2

Ain zuzen Madarixa  
auzoan dagonez,  
San Isidrotan beren  
jaiak dituztenez,  
aitak eraman nindun  
neri poz emanetz;  
naiz ta mutil aundia  
arteana izan ez,  
ondo jabetu nintzan  
ni ango jardunez.

3

Nere jaiotetxetik  
eztago bertantxe;  
oiñez iru bat ordu  
edo orrelaxe;  
luze egin zitzaidan  
bitarte uraxe,  
aitak esaten ziten:  
«Laster dek oraintxe»;  
goguan det entzun da  
ikusia antxe.

4

Ondarru, gure etxetik  
bi andra artua,  
zenbat oiñetako ote  
zun ark urratua?  
Tartea izango zun  
ark sakon neurtua,  
bai il zitzaionean  
aizpakin tratua,  
pamilia bikaiña  
iruek sortua.

5

Madarixara giñan  
mezarako juan,  
Ondarruko aitona  
bera an zeguan;  
ondoren salda bana  
an artu genduan,  
gero bazkaritara  
senide moduan,  
zertaz mintzatu bazan  
bazkari orduan.

6

Benetan jatorra an  
bildu zan sendia,  
txorakeriarikan  
gabeko jendia;  
aitatu zan zezena,  
beorra ta ardia,  
zerreta, ikatzgintza  
eta pagadia,  
basoko bizitzari  
eragiñaldia.

7

An zegoanetako  
batek zuan esan;  
iru urtetan zala  
zezenakin izan  
iñauteri egunak  
serbitzen Tolosan;  
errespetoa zula  
zezen arrek plazan,  
zer ikusi aundia  
zegola arrazan.

8

Buruz basomutillen  
kontu esan zuten:  
erruz zutela aiek  
tabloia ebaten;  
ainbeste gurdi ikatz  
uda-aldi baten,  
oituak ainbat aldiz  
gauaz loa uzten,  
txondor aldean dute  
antzerkia izaten.

9

Ori zanetik zenbat  
urte ote aurten?  
Irurogeta zortzi  
dira an nunbaiten.  
Gaur billerak ditugu  
beste klase baten,  
aiek beren soloa  
jorratutzen zuten,  
beren esbarrutatik  
etziraden irten.

10

Urte batzuetara  
au zan Donostian:  
ordurako mutilla  
ni neure ustian,  
ulertu zail dan egun  
berezi batian,  
*Hotel Londres*-en jende  
altuen tartian,  
an ere bazkaritan  
an nintzan partian.

11

Ez nuan arren eman  
joateko ezetzik,  
ezin bete izan nun  
an nere biotzik;  
euskeraz ez genduan  
trukatutzen itzik,  
aitatu zan aktore,  
aktriz ta printzesik,  
etzuan *Ondarru*-ko  
tertulien antzik.

12

Kultura ezberdiñak  
bi alderditatik:  
bat zarretik, bestea  
berriz modernotik;  
neri zarra geiago  
gustatuagatik,  
beingoz nai nuke irten  
nere zalantzatik:  
ea aberatsena  
zein dan bietatik.

1995

Egillearen paperetatik

# Uribarri-Erguin jaiak, 1995

---

1

Milla beatzireun larogei eta  
baigaude amabostian,  
oraindiokan txanpon ondarrak  
egongo diran ustian;  
jaiak ospatu asmoan gera  
udako opor ostian,  
iraillaren amabostean,  
amasei ta amazpian.

2

Naiz ta neretzat ez izan arren  
moldatzen errezeziak,  
jaien kontura jasota nago  
bertsuenganako deiak;  
noiz diran gisa nun diran dauzkat  
aditzera eman naiak,  
Arrasateko Uribarriko  
Erguiñen dituzu jaiak.

3

Jai jartzailleak, ote dezute  
baiña kontutan izango  
auzoa dala kategorian  
igaztik aurtena igo?  
Egitarauan jun zan urtean  
aiña besterik ez dago;  
nik ulertzen det bear zuala  
aurten egun bat geiago.

4

Bi talde apain, etxe bizi-tza,  
Gorostiza ta Larrea,  
kondaira on bat izan bezate,  
ai zer nolako pareak!  
Nik galdetzen det ez ote duan  
eskatzen orrek berea;  
ez lezakela gertatu nago  
erantzunik gabea.

5

Bertso moldatzen kutsatzen gera  
euskal klasikotasunez,  
Gorostiagak etxe ostean  
iturri on bat bazunez;  
asko bizi zan ur eder arek  
tentazioa emanez,  
orain larrosak gelditzen dira,  
iturri eder aura ez.

6

Auzotar biotz-biotzekoak,  
arrebak eta anaiak,  
eta gugana urbiltzen diran  
gaiñerako senidiak,  
ortarakoxe antolatuak  
idazten diranez jaiak,  
komeni bada gertatu bitez  
denontzat alai-alaiak.

Jaien egitarauan  
Egillearen paperetatik

# Naikoa baiño geiago

## Doiñua: Iparragirre abilla dala.

---

1  
Euskaldunok gu ezertan bada  
azaltzen geranak trebe,  
lenago ere zarra da eta  
politika aroan gaude;  
badauzka zenbait abe,  
biurtzen gaitu labe,  
artzen gaituzte mirabe:  
gorroto aldetik aberats eta  
maitetasunetik pobre.

2  
Iñoiz berekin ez dagon arren  
iñolako segurantzik,  
politikantzat ez omen dago  
ukorik edo ezetzik;  
maiz dabil erdi utsik,  
ez dago konfiantzik,  
zertarako bada kasik,  
ez badakarki beste fruiturik  
gorroto maltzurra baizik?

3  
Irakurri nai izan duanak  
gure egunkarietan,  
aukera paltik ez degu izan  
igaro dan aldi ontan;  
batzuk zintzo benetan  
beren jokabidetan,  
kutsatu gabe ezertan;  
beste batzuek kupira gabe  
destajora lapurretan.

4  
Goimaillan dauden gizonak beren  
bete berrak dituzte,  
biotz onezko erabakiak  
artu berrak dauzkate;  
ez poltsikorik bete,  
ez egin iñun kalte,  
ortarako etzaudete;  
edo bestela gaiñerakoak  
nola bizi bear dute?

5  
Orra or bada oiek burua  
zertan nekatutzen duten,  
arazo latzak ezpaiddote  
atsekaberik ematen;  
soilunetako baten  
geranean erorten  
nolatan aurrera irten?  
Premi larririk ez al daukazu,  
egon zaite pixka baten.

6  
Lapurretatik lapurretara  
alde pixka bat badago,  
ez balitz beintzat sorta sendoa  
pillatuteko zailago;  
uzta ugariago,  
ura eta naiago,  
gizentzeko lodiago;  
zertan lapurtu bear du baiña  
naikoa baiño geiago?



7

Gertatzen ari danak zuentzat  
dezutenak aginterik,  
agian ez du garrantziarik  
mereziko ematerik;  
ez daukat esaterik,  
jasan nuna besterik,  
gaiñera oso gazterik;  
ez det desio ezagutzerik  
iñoiz berriz alakorik.

8

Puztua zegon globua eta  
alako batean lertu,  
eztanda arrek ezpaizkigun  
arazo makalak sortu;  
zer jipoi gendun artu,  
ez leike iñork neurtu,  
errudunik ez agertu;  
beste ainbeste ikusi baiño  
obe mundu au agurtu.

9

Anai arteko guda aurretik  
oraindik gaztea nintzan,  
ezer askorik jabetu gabe  
ala nora gindoezan;  
geiegitako gisan,  
iskanbillarik bazan,  
nolabaitean genbiltzan;  
zetorren triska eragozteko  
abilidaderik etzan.

10

Ori zanetik ia-ia dira  
irurogei urte joanik,  
errekuerto bat badet neregan  
ez ditena aldeginik;  
bazan ementxe lanik  
alkar artu ezinik,  
uraxe sortu azkenik;  
oraindik ere bai al dirudi  
seguru bizi geranik?

1995

Egillearen paperetatik

# Kontzezio eleizan

---

## Sortzez Garbia

1

Sortzez Garbia, Ama ixilla,  
zerana maitasun utsa,  
pekatariok zuregan degu  
eten gabe konfiantza;  
itxaropena egiteko zuk  
Aitakin bitartekotza,  
alaiagotu gure bizitza  
eta gure eriotza.

2

Zure Semean etorreraren  
aurrean gera ikusten,  
Eguberrien atari ontan  
erruz geralarik pozten;  
ala ta ere kezka badegu  
ez diguna lasai uzten:  
datorrenean Jesusek nola  
aurkituko ote gaituzten.

3

Mundu ontara etorri gera  
egiz alkar maitatzeko,  
alkar maitatuz bizi ondoren  
alkar maitatuz iltzeko;  
sinismenean Ama badegu  
estualditan deitzeko,  
eriotzean ez al gaituzu  
bakardadean utziko!

## Komunidadeari

4

Santutasunez ondo jantziak,  
beti zintzo eta jator,  
nik galdetzen det zueri zenbat  
ez ote dizuegun zor.  
Etenik gabe errezoetan  
gau eta egun beti or;  
arriba onak, esker beroak  
biotzez ematen nator.

5

Jabe egiñak izate ontan  
egiz zertarako gauden,  
beste izatera bideak nundik  
eta nora ote dauden;  
guzti-guztiak egiz maitatu,  
Jaungoikoa bera lenen,  
zerua sortzen dakizutenak  
zuek zaituztegu emen.

6

Jai auetan guk izaten degu  
alkarrentzat zorionik,  
sarritan asko gogoratzeke  
Jesus Aurrikan badanik;  
ez det itxaro zuekin ori  
ala gertatuko danik,  
etzenduteke aintzat artuko  
Jesus gabeko Gabonik.

1995, inprobisatuak dira.  
Egillearen paperetatik

# Lorearen bataioa

---

1

Naiz tristea izan gure inguruan  
sari oi da eriotza,  
alaiagoa gertatzen dana  
noizean beinka jaiotza;  
nere entzule biotzekoak,  
onelaxe da bizitza,  
bataio onekin kristau berri bat  
egin asmotan gabilta.

2

Maiz entzuna naiz ona izaten  
beti ezjala erreza,  
nik derizkiot ez dala zailla  
dan ezkerotik bereza;  
ezta gauza bat erosten dana  
baizik da naturaleza,  
nun-naitan ondo portatu zaitez,  
Arrasateko arraza.

3

Billobatxoa, emen zai zaude  
baiña ez dezu entzuten,  
une auetan zure aitaita  
zer ari zaizun esaten;  
aitonak beti bear du ari  
kontseju onak ematen,  
ia asmatzen dezun bizitzan  
kristau zintzo bat izaten.

4

Kontutxoakin, barretxoakin  
zu asitzen zeranean,  
zorionsua egon nindeke  
ni zure aldamenean;  
laroegi urte gure tartean  
zu etorri zeranean,  
bata jaio ta bestea ez gera  
jaio biaramonean.

5

Gure okasio berezi onek  
bilduak gaitu onuntza,  
berri onaren zurrunbilloak  
berak ematen du poza;  
ilusioa gaiñezka eta  
berdin berriz konfiantza,  
gauzak onela, nola ixildu  
aita jaunaren abotsa?

6 *Aita aldeko amamari:*

Zer atsegiña, Maria Jesus,  
ilusiotan gaiñezka,  
zer zetorrenik ikasteko guk  
ez gendukan milla kezka;  
osasuntsua izan ezkeru,  
naiz mutilla ta naiz neska,  
nik abestiak egin dizkiot  
eta zuk berriz seaska.

Urriak 13, 1996, Legution  
Egillearen paperetatik

# Ama, urbildu gera

---

1

Ama, urbildu gera  
zugana onuntza,  
pekatariok zugan  
degu konfiantza;  
arren, entzun zaidazu  
bertsozko otoitza,  
Jesusekin egiñaz  
zuk bitartekotza,  
zerua iristeko  
asmoan gabiltza.

2

Ariko geran arren  
kantu ta errezu,  
atsekabeak ere  
jasotzen dituzu;  
ainbeste min alkarri,  
ainbeste erazu,  
ala ta guztiz ere  
zuk maite gaituzu,  
gure argakeria  
ezagutzen dezu.

3

Uts-utsik etorriak  
mundura onuntzian,  
emen gabiltza ezetz  
eta baietzian;  
ez degu jun nai utsik  
berriz aruntzian,  
Ama, lagun gaitzatu  
alako trantzian,  
gure bizitzan eta  
gure eriotzian.

4

Danok sentitzen gera  
zeruen antsiko,  
bera lortu artean  
ez degu etsiko;  
danan gaiñetik Jesus  
artuaz aintzako,  
zaila zaigu izaten  
beraren antzeko,  
Ama, ez al gaituzu  
eskutik utziko.

5

Alde guztitan izaten dute  
bakoitzak beren bitxia,  
Uribarriko eliz torrea  
ez degu guk itxusia;  
denboren puruz, gauza jakiña,  
erortzen zegon asia,  
mutil pixkorrak apainduriez  
berriro dute jantzia.

6

Langille oiek esna aritu  
bearko ziran lenengo,  
aize bolada batek artu ta  
ezpazitun eramango;  
lenago nola egiña zuten  
iñork ez degu jakingo,  
orain ainbeste eskaladore  
orduan etzan egongo.

7

Egin dutena ikusi eta  
zeiñek ez du onartuko?  
Gure artean ez dala nago  
pixka batean aztuko;  
albiste ona askotxorentzat  
gertatuko da gustoko,  
apaizgai diran gure gazteak  
ez dira gutxi poztuko.

1996. Egillearen paperetatik  
Sartzen dira Sortzez Garbiaren jaia, Uribarriko eleiz torrearen  
berrizketa eta bide batez seminaristen eguna.  
Sortzez Garbiaren egunean, Uribarriko parrokian amaika ta  
erdietako mezan inprobisatuak dira.

# Urre eztaia

---

1

Gure festa au aspaldi samar  
jarri gendun guk martxan da,  
arrezkerotzik galerna aizea  
amaika aldiz altxa da;  
gaiñerakoak kontu kontari  
ai zerate ementxen da,  
itxaro nuan neretzat ere  
iritxiko dala txanda.

2

Bertso gabea izan genduan  
lenago eztaia eguna,  
bagendun lana pentsatzen nola  
gainditu etorkizuna;  
ogia bera iñola moduz  
ezin aurkitu genduna,  
besterik ezer ez gendun alde,  
sasoia gendukan ona.

3

Orain urrezko eztaia eguna  
poliki-poliki eldu,  
guk genituan proiektu aiek  
bidean ez dira galdu;  
seme-alabak eta billobak  
zorionez baditugu,  
gure Jaunari egiz eskerrak  
zergatik eman badegu.

4

Konturatuko zerate gauzak  
nolatsu ziran auntsiñan,  
lendik bakarka bizitakoak  
gero alkartu ta biñan;  
gauzak ain ondo funtzionatu  
beriala bi ta erdiñan,  
agian ordun iaioagoak  
geu ere izango giñan.

5

Badakizute aspalditxotik  
nentorrela ni esaten,  
laroegi urtek egiz neretzat  
nolako itzala zuten;  
almenak asko urritu eta  
asko erreztu erorten,  
ikus zazute nolako planta  
xelebrea jarri nauten,

6

Agian ez nun izango lendik  
aldarte onik sobrate,  
baiña eziñez beteak datoz  
bizitzan laroegi urte;  
alde guztitik eziña baiño  
beste ezer ez dakarte,  
almena oso garesti eta  
eziña zearo merke.

7

Aren premia ainbat alditan  
sentitzen deguna gertu,  
Uste gutxien degun garaian  
aruntz jutera beartu;  
sendaetxetik makiñatxo bat  
mesede ditugu artu,  
baiña urteak gutxitutzerik  
oraindik ez degu lortu.

8

Neke azpian saiatu eta  
bizi nekearen mende,  
alegin danak egiñaz beti  
kristau legearen alde;  
seme-alabak eta billobak  
gurekin bilduak daude,  
Alguztidunak gure altxorra  
luzaro dezala gorde.

Aitaitak abestuak  
Urtarrillak 8, 1998



Billoba txikienarekin.

## Aurkibidea

---

Oar batzuk aurretik .....	7
<b>Jose Manuel Arriolari</b> .....	11
Alkate jaunaren agurra .....	13
Joxe Manuel Arriolaren aipamena .....	14
Leintzko bertsozaleak Jose Manuel herrizaina eskertu nahian .....	18
Joxe Manuel Arriola .....	20
Arriolaren bertsozko lana .....	22
Nekez bada ere .....	30
Joxe Manuel Arriolari (Basarri) .....	31
Joxe Manuel Arriolari (Patxi Barbero) .....	32
Joxe Manuel Arriolaren aipamena (Patxi Goikolea) .....	33
Joxe Manuel Arriola adiskideari (Jexux Lete) .....	36
<b>Bertsoak</b> .....	37
Mixio-igandeari .....	39
Kalezaiñak .....	40
San Agustiñen bizitzari .....	43
Diruari .....	44
Berrogei ta amar urte Gipuzkoako Zaindari .....	46
Ibarretako Olaetan ilketa .....	48
Ama! .....	50
Pamili Santuaren eguna dala-ta .....	52
Kantuan otoitz .....	54
Frantziskotarrak .....	56
Uribarri auzoa .....	57
Gaurko Arrasateri .....	59
Gure gazteak euskerarik ez dute aberastuko .....	61
Udalaitzko gurutze jartzeari .....	63
Karta bertsoan .....	65
Iritzia .....	67



Urte berria .....	68
Joxe Arriaran Aranburu, Arriaran II-ari .....	70
Bizitza luzatzen .....	71
Managua .....	73
Gizon naigabetua .....	74
Autopistari .....	76
Uste gabekoa .....	78
Patxi Axeri-ri .....	79
Gure egunetako zenbait arazori .....	81
Txoferrak .....	83
Zakurrak ardiak itotzen .....	85
Sasiolako komentua .....	87
Zubeltzuri omenaldia .....	89
Laster San Juanak .....	90
Snta Agedako ero-etxea .....	92
Neska-mutillak asko ezjala .....	94
Musika banda desegindu zanean .....	97
Arrasaten Gurutze-txiki mendia amar urtean bitan erre .....	98
Mendaro Txirristaka .....	99
Garai bateko Mendarori .....	101
Ezkontza bat .....	103
Gabonetan .....	105
Oker gabiltz .....	107
Bertsolari zaarren omenaldia .....	109
Abere gisa .....	111
Pelota ta pelotariak .....	113
Joxe Mari Errota-ri .....	115
Barandiaran - Aranzadi .....	117
Zabalegi .....	119
Udazkena .....	121
Antzi-ondo baserriari .....	123
<i>Udalpe</i> batzokiari .....	125
Jose Letonari .....	127
Amorio-kontua .....	129

Eun urteko utsuna .....	131
Parroko zanari .....	133
Don Jose Maria .....	135
Pixti ankabikoak .....	137
Etxea lendabizi .....	139
Bertso Berriak .....	141
Naparroari .....	143
Perurena indartsuari .....	145
Sakabi soiñujoleari .....	147
Gurasoen kezka .....	149
Urte berriari .....	151
Aurtzaro-zartzaroari .....	153
Udaberriari .....	155
Arratiako gazte-talde bateri .....	157
San Antonio bustia .....	159
Pesta nagusia Arrasaten .....	161
Gazte ezkongaiak .....	163
Ateak itxi gerrari .....	165
Arrigarriena .....	167
Zenbat sortu nai neurtu .....	169
Danekin bizi bear .....	171
Garrantzizko zerbait nai esan .....	173
Santomasak Arrasaten .....	175
Lagun bi lansaritzean .....	177
Lengusu erlijiosa bateri .....	178
Aldakuntzak Arrasaten .....	180
Bertso Berriak .....	182
Udaberririk gogoangarriena .....	184
Jai nagusiak Arrasaten .....	186
Oporrak irixtean .....	188
Sal-erostegiak .....	190
Donostiarren bisita, 1979 .....	192
Bertsolarien Txapelketa Nagusia .....	193
Aita Lukas .....	195

Azaroa 1979, Arrasaten .....	197
Ezbearrak opor garaian .....	199
Bizirik ez ostu .....	201
Burutazioa .....	203
Auteskundeak .....	205
Arrikkua .....	207
San Juan jaiak, 1980 .....	209
Argazki apaiñak .....	211
Oillo zintzoa .....	213
Gero uztera ezkeru .....	214
Garaian garaikoa .....	216
1980, euskaldunak Everest gailendutako urtea .....	218
Ortuella .....	220
Guardia zibillen etxea botatzekoan .....	222
Zepoak .....	223
Santomasak 80 .....	224
Esker ona .....	225
Frai Rufino .....	226
Don Kalisto .....	228
Patxi Barbero .....	229
Joxe Manuel Arriolari erantzuna .....	231
Aita Garaialde eta biok .....	232
Pelota .....	233
Aozaraza ta Erkizia .....	234
Berriro natorkizu .....	235
Kilometroak 81 .....	236
Aur bertsolarien nor geiagoka .....	237
San Isidro jaiak, 1981 .....	238
Baserriko maiorazkoak andrea aukeratzeko zalantzak .....	240
San Juan jaiak, 1981 .....	241
Lansarituak .....	243
Aita Garaialderi .....	244
Joxe Manuel jaunari beste Joxe Manuelek .....	245
Gotzaia .....	246

Oporrak .....	247
Dorletako Ama .....	248
Lansaritzerakoan .....	249
Mintegia .....	250
Aurrerapenak .....	251
Urrezko eztaiak .....	253
San Isidro jaiak, Musakolan, 1982 .....	254
San Juan jaiak, 1982 .....	256
Eskerrak emanez .....	258
Futbol txapelketa nagusia .....	259
Nere jaiotetxeari .....	260
Zaarrentzat etxea .....	263
Zakur jabegabeak .....	264
Lengo denborak zer ziran .....	265
San Tomasko peria .....	266
Aita Santua Loiolan .....	267
Ezkontza austeak .....	268
Pixtalari abilla .....	270
Urteko batzar nagusia .....	271
Uribarriko eleiz berritzea .....	273
San Andres auzoa eleiza gabe .....	274
Tresna autsi baten gisan .....	275
Onaren zale .....	276
Basarri jaunari .....	277
Jaionetxo .....	278
San Juanak, 1983 .....	279
Uztapide il da! .....	280
Erleak Donostian kaleetan .....	281
San Bartolome jaiak Uribarrin .....	283
Leniz auzoa Zarautzko Euskal Astean .....	284
Lapurtzat artzen dituzte .....	285
San Tomas, 1983 .....	286
Zarren dibertsioa .....	287
Omenaldia .....	288

Urteurrena .....	289
Omenaldiaren inguruan ibiliak .....	290
Uribarriko kanpantorreak eun urte .....	291
Oraindik urrutirago .....	292
Jose Manuel Arriolari (Patxi Barberok) .....	293
Aita Garmendiari bere urrezko eztaietan .....	294
Futbola .....	295
Jai nagusiak Arrasaten .....	296
Joane Iturbe artzaia il da .....	297
Patxi Barbero jatorrari .....	299
<i>Iturbide</i> Egoitza .....	300
<i>El Diario Vasco</i> -ren urrezko eztaiak .....	301
Aste batean, Gipuzkoan .....	302
On Jesus apaizari .....	303
Sarasua anaiak nungoak .....	304
Berri kezkarria .....	305
Apaizen urrezko eztaiak .....	306
Omenaldi aundia .....	307
Onak obeak .....	308
Botoak .....	310
Manuel Lekuonari .....	311
Besterenak errezago esango genduzen .....	312
<i>Loiola</i> irratia zillarrezko eztaietan .....	314
Irudiak .....	316
Esker xamurra .....	317
Urtebetera .....	319
Merkatu Batua .....	320
Gazte ezkonberriak .....	321
Esku genduana .....	322
Jose Donea .....	323
Entzun, Ibai-ertz .....	324
Jokabide ezberdiñak .....	325
Euskalerrria izan berriz .....	326
Ala zeu azpira sartu .....	327

Gure izatea .....	328
Urrezko eztaiak .....	330
Joxe Letona zanari .....	331
Aurten bai ote dagoan .....	333
Eiztari segurua .....	334
Katu baten eriotza .....	335
Arma ixilla .....	336
Il da koiñadua: Martin Salegi .....	337
Naigabe latza! .....	338
Urrezko eztaia albistea .....	339
Berriro etxera .....	340
IV Basarri Saria, 1988 .....	341
Patxi Barberoren eriotza .....	343
Elizkizun berezia .....	344
Lengo egun batez .....	345
Jubilatuak I .....	346
Jubilatuak II .....	347
Sekula onelakorik! .....	348
Sua ta aizea .....	349
Azokarik ez? .....	350
Oiñez ikastea gero ta zaillago .....	351
Zezena .....	354
Berriro jubilatua .....	356
Agortu zailla .....	357
Ibillaldia .....	358
Oporrak eta festak .....	359
Udia igaro ta udazkena eldu .....	360
Urrezko eztaiak .....	361
Jubilatuen omenaldia Arrasaten .....	362
Kabi dizdiratsua .....	363
Jubilatuen etheen lanak .....	364
Arrasate Telebista .....	365
Uribarrin jaiak, 1990 .....	366
Jubilatuen jaia Arrasaten, 1991 .....	368

Emakume izan nai .....	369
Anestesia .....	371
Uribarri auzoan jaiak, 1991 .....	373
Isabel bigarrenak bisita .....	375
Eztitxu .....	377
Errosario egunean .....	378
Aritz, bataio eguna .....	379
Aitaren diploma .....	380
Urteberriari, 1993 .....	381
Bedeinkatutako jaiak .....	382
Lazkao-txiki il zaigu .....	383
Aitz-gorri .....	384
Uribarri auzoari .....	386
Gabon-jaiak, 1991-1992 .....	387
Ezin ulertu inñolan .....	388
Dalako 3 <i>en raya</i> leiaketa .....	389
Uribarriko jaiak, 1992 .....	390
Parroki berriztatua .....	392
Juanito Arzamendi jubilatua da .....	393
Mai inguru batean .....	394
Udaberria .....	395
Makilla .....	396
Orexa .....	398
Ezta parabola .....	400
Jaiak Uribarri auzoan, 1993 .....	402
Berogaillua .....	403
<i>Sicilia</i> -n .....	404
Sagardo garestia .....	405
Illerri berria .....	406
Ezagutu genduan era .....	407
Ekolojista .....	408
Berpiztua .....	409
Agüña .....	411
Jaiak Uribarrin, 1994 .....	412

Egi-aundi-n .....	415
Zalantza .....	416
Uribarri-Erguin jaiak, 1995 .....	418
Naikoa baiño geiago .....	419
Kontzezio eleizan .....	421
Lorearen bataioa .....	422
Ama, urbildu gera .....	423
Urre eztaia .....	425



